

Berrikuntza Demokratiko Feministak



Jone Martinez Palacios (Koord.)

Igor Ahedo, Alicia Suso

Zuriñe Rodriguez Lararen lankidetzaz

Emakumearen Euskal Institutuaren Ikerketa Bekak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duen lanak egiteko. 2014ko deialdia.



ESKERTZAK

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu beren bizitzen kontakizunen bidez ikerketa honetan parte hartu duten emakume eta gizon guztiei. Eskerrik asko bihotz-bihotzez zuen denbora eskaintzeagatik eta zuen gogoetak gurekin partekatzeagatik. Zuek gabe, ezinezkoa izango litzateke ikerketa hau egitea. Horrez gain, eskerrak eman nahi dizkiegu Miren Arbelaitzi, Mari Luz Estebani, Arantxa Elizondori, Jule Goikoetxeari, Patxi Juaristiri, Arantza Fernández Plazari, Arantza Ruiz de Larrinagari, Almudena Hernando Idaira Sanabriari, Belen Zurbanori, Elena Rodemanni, Nela eta Marta Lopezi, hainbat foro eta testuingurutan beren ideiak eta aholkuak eman dizkigutelako, ikerketaren bidea are sortzaileagoa eta estimulatzaileria eginez eta hemen aurkeztzen dugun lan honen hainbat alderdi hobetuz. Eskerrak ematen dizkiogu ere Parte Hartuz ikertaldeari, eta bereziki, “Demokrazia eta Feminismoa” ikerketaildoari, oraindik ere estimuluen laborategi agorrezina baita. Patricia Martínez García, Mila Amurrio Velez eta Ane Larrinaga Renteríarekin izandako elkarrizketak oso aberasgarriak izan dira. Haien entzute lan arretatsua eskertzen diegu: Izaskun Combarro Palaciosi, Nora Canali, Marta Calvori, Marta López Ramosi, Idoia del Hoyo Morenori eta Iban Gallettebeitiari. Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiogu Emakunderi, *Berrikuntza Demokratiko Feministak* proiektuan eta ikertaldean konfiantza jartzeagatik.

Jone, Alicia, Igor eta Zuriñe

Azaleko argazkia: Itziar Jaio Andrés, *Erresistentziak opresioari*, 2015eko martxoa.

Jatorrizko bertsioaren ideia: Jean Nicolas Bach.

Irudiaren manipulazioa: Pilar Palacios Arnaiz.

Modeloak: Gala María Saiz, Carlos Santos, Pedro Franco.

Bilbo, 2015eko apirila

*Maitasunez eta esker onez egunero gogor eusten diozuen
emakume guztientzat, berrikuntza demokratiko
feministak zuei esker gauzatzen baitira*

*Valérie Dubois-i, zuk ere amaiera arte eutsi zeniolako
eta bide horretan zugandik asko ikasi genuelako.*

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	7
LABURPENA.....	9
HITZAURREA	12
SARRERA	14
LEHEN ZATIA.....	21
I. kapitulua. Emakumeen parte hartzea: analisi baterako oharra.....	21
Emakumeen partaidetza ordezkartzeko demokrazian, zer oztopo?.....	21
Faktore politiko instituzionalei, faktore kulturei eta faktore ekonomikoei lotutako oztopoak ...	22
Kristalezko sabaiari eta zoru itsaskorrari lotutako oztopoak.....	23
Ikuspegiak uztartzea, oztopoak aztertze.....	24
Emakumeen parte hartzea gizarte mugimenduetan, zer oztopo?	27
Nancy Fraser-en “kontrapubliko subalterno feministen” proposamena.	30
II. Kapitula Berrikuntza demokratikoak, abiapuntua	35
Ordezkaritzako demokraziaren krisia eta berrikuntza demokratikoak	35
Kontzeptualizazioa, zertaz ari gara berrikuntza demokratikoei buruz hitz egiten dugunean?	38
Berrikuntza demokratikoak, demokratizazioa eta kapitalen banaketa	40
III. Kapitula. Sexu-generoko menderatze maskulinoko sistemaren kontraesanak eta birsorkuntza	45
Sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema	47
Publikoa eta pribatua aurrez aurre	49
Arrazoa eta emozioa aurrez aurre	55
Unibertsal bihurtzeko bokazioa duen menderatzailea eta eredurik gabeko menderatua aurrez aurre	60
BIGARREN ZATIA	64
IV. Kapitula. Esparru metodologikoa	64
Euskal berrikuntza demokratikoak. Hurbilketa bat ikerketaren laginera.	64
Ikerketaren ikuspegia eta faseak.....	68
Ikerketa teknikak	71
Elkarriketa sakonak	71
Partaidetzaren biografiak.....	74

Focus group	78
Zuzeneko behaketa	81
Kontrapubliko subalterno feministei buruzko ohar metodologikoak	83
HIRUGARREN ATALA	86
V. Kapitulua. Oztopoak, estrategiak eta balioak emakumeen eta gizonen parte hartzean.....	86
Zerk oztopatzen ditu emakumeen parte hartzeko proiektuak?	86
Oztopo hauetan publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa da nagusi	87
Hezkuntzarekin, zaintzarekin eta lanarekin lotutako instituzio sozialak	87
Bitartekoaren egitura formala: kanporako lanak barrurakoak baino gehiago balio duenean ...	107
Oztopo hauetan arrazoiaren eta emozioaren arteko banaketa da nagusi	111
Arrazoiarekin zerikusia duten oztopoak, kapital moldereen baten prestasunarekin lotuak	112
Bitartekoaren egitura formala: emozioak bitartekotik at geratzen direnean	122
Oztopo hauetan unibertsal bihurtzeko bokazioa duen menderatzailearen eta subalternoaren arteko banaketa da nagusi.....	124
Bitartekoaren sorrera eta bere testuinguru soziala	126
Bitartekoaren egitura formala	136
Gizarte egitura barneratuak: hiru tentsioen txertatzea genero arauen bidez	137
Diskrezioa	146
Enpatia	150
Ahulezia	150
Koherentzia	152
Parte hartzeko proiektuak burura eramateko estrategiak	154
Norberaren boluntarismoan oinarritutako estrategiak, genero arauak birsortzen dituztenak	156
Norberaren boluntarismoan oinarritutako estrategiak, genero arauak hausten dituztenak	159
Genero arauak birsortzen dituzten taldeko estrategiak	164
Genero arauak hausten dituzten taldeko estrategiak	164
Balioak emakumeen parte hartzean	166
LAUGARREN ZATIA	169
VI. Kapitulua Ondorioak. Berrikuntza demokratiko feministak	169
VII. Kapitulua Eta orain zer? Berrikuntza demokratiko feministetan aurrera egiteko proposamen zehatzak.	174
GLOSARIOA	180
EGILEAK ETA LAGUNTZAILEAK	183

LABURPENA

Berrikuntza Demokratiko Feministak gizarte kulturanitz eta berdintasunezko izaerakoetan elkarbizi diren hasierako bi behaketetatik sortutako lan bat da. Lehenengoa, berrikuntza demokratikorako dispositiboen hazkundera (partehartze eta eztabaidatzeko guneak) erabakitze prozesuan. Bigarrena, aipatutako prozesuan baztertuta egon ohi diren kolektiboen agerpenaren gorakada: arrazako pertsonak, emakumeak, sexualitate ez arautukoak edo aniztasun funtzionalekoak, besteak beste. Badakigu, egun, erabaki publikoen kolektibo eta adostuen sorrerarako espazio gehiago dagoela eta hauetan, gizarte eragile gehiago eta desberdinagoak parte hartzen dutela.

Testuinguru honetan, berrikuntza demokratikoa eta emakumeen parte-hartzea nola erlazionatzen diren jakin nahi izan dugu. Hau honela, liburu honetan, honako galderei erantzuten diegu: Nola hartzen dute parte emakumeek berrikuntza demokratikorako guneetan? Espazio hauek, parte-hartze proiektua nahi duten bezala aurrera eramateko aukera luzatzen diete emakumeei? Zein oztopo aukitzen dute? Eta, zein estrategiaz baliatzen dira aurre egiteko?

Erantzunak ematen haste aldera, Euskal Herrian 1978 eta 2014 urteren artean martxan jarritako berrikuntza demokratikorako 15 gune aukeratu ditugu. Hasiera batean, parte-hartzerako dispositiboren batean egondako 48 pertsonekin harremanetan jarri ostean (42 emakume eta 6 gizon), bakoitzaren parte-hartzearen biografia egitera bideratu gara.

Esperientzia eta parte-hartze ibilbidean oinarritutako elkarrikerak hauen bitartez, aurkitzen dituzten oztopoetara eta gizonek, zein emakumeek, euren parte-hartze proiektua aurrera eramateko erabiltzen dituzten estrategietara iritsi gara. Ondoren, 48 pertsona horietariko 22k parte hartu duten 5 eztabaida talde egin ditugu, aipatutako oztopo eta estrategietaz lankidetzaz giro batean hitz egiteko asmoz. Hirugarrenik, behaketa zuzenaz baliatu gara 15 guneetatik 2tan, hauen barne funtzionamenduaren zehaztasun gehiago ezagutzeko.

Esandako material enpirikoaren analisiak bi ondorioetara iristera eramaten gaitu. Lehena, berrikuntza demokratikorako espazioek, gaur egun aurrera eramaten ari diren bezala, emakumeen parte-hartzea hiru modutan blokeatzen dutela- lanean, emakumeak parte-hartze

proiektuan murgilduta egotean bizi dituztela dioten hiru kontraesanaz adierazten ditugu-. Aurrena, publikoa pribatuarekin kontrajartzean. Bigarrena, emozioei garrantzia kenduz eta razionaltzat dauzkagun argudioei lehentasuna emanez. Hirugarren, gune publikoak okupatzeko emakumeen erreferenteak ikusezin bihurtuz.

Publikoa eta pribatuaren arteko demari dagokionez, historikoki, pribatua, emakumeen berezko arlotzat izan dela kontzeptualizatua defendatzen dugu. Etxeko emakumearen irudia, egun ezagutzen diren gizarte gehienetan gailendu da. Emakume horrek, gune publikorako sarrera haustura gisa bizi du, familia, lagun taldea, amatasuna, eskola eta lanaren bidez hedatzen diren zailtasunak aurkitzen baititu- objektibatuak eta irudikatuak.

Emozioen legitimitate kentzeari dagokionez, berrikuntza demokratikoko espazioek arrazoi unibertsalaren izatean oinarritutako argudioak lehenesten dituztela antzematen dugu. Dispositibo hauetan izaera teknikoko datuetan funtsatutako mintzaldia eratzea baloratzen da – askotan, gizon batek eginda- eta baliorik gabe uzten dira agentearen bizi esperientziatik eratorritako aportazioak – maiz, emakumeek eginda-. Hori horrela, bere iritzia emozio elementuetan eta bizipen argudioetan oinarritzen dituen pertsonak menpeko toki bat izaten du xede parte-hartzaileetan.

Honez gain, berrikuntzarako espazioak, oro har, parte-hartze unibertsal eta kulturari dagokionez neutroa delakoaren ideiarekin inguruan sortzen dira. Hala ere, hau, parte-hartze neutroaren kontra, generoa eta bestelako menderatze sistemek zeharkatzen dutelakoan gaude, gune publikoa hartzeko era ez hegemonikoak ikusezin bihurtuz.

Bigarren konklusioa, emakume zein gizonek kontraesanak eta horrekin batera sexu-genero sistema pixkanaka desaktibatzeako agentzia daukatela. Badira erreflexio eta eguneroko parte-hartze oztopoei eusteko martxan jarritako estrategia islatzaileak. Guk erresistentzia horiek lau taldetan banatzea proposatzen dugu: genero arauak errepikatzen dituzten talde estrategiak, genero arauak hausten dituzten talde estrategiak, genero arauak kopiatzen dituzten banako estrategiak eta, genero arauarekin apurtzen duten banako estrategiak.

Azkenik, *Berrikuntza Demokratiko Feministak* honetan, ekarpen teoriko eta enpiriko bat eskaintzen dugu, ikuspuntu barneratzaile batetik eta hiru kontraesan oinarri, dispositibo deliberatzaile eta parte-hartzaileak inplementatzeko modua pentsatzeko. Hau honela, lanaren lehenengo zatian bakoitzaren oinarri teorikoak azaltzen ditugu. Horretarako, hurrengo kategorien kontzeptu eraikuntzaren analisi bat eskura jartzen dugu: publikoa, pribatua, arrazoa, emozioa eta menderatzea. Bigarren partean, ikerketan erabilitako prozesu

metodologikoa zehazten dugu. Prozesuaren etapak zein erabilitako tresna metodologikoak deskribatzen ditugu. Azkenik, hirugarren partean, ikerketan parte-hartu duten 42 emakume eta 6 gizonen mintzaldia berreskuratzen dugu. Hauetan, denboran iraukorra izango den parte-hartze proiektu baten aurrera eramatea oztopatzen duten kontraesan guztien esperientziak aurkitzen ditugu. Honez gain, zati honetan emakumeak gehien bat, parte-hartzeko erabili izan dituzten estrategiak ere bildu ditugu.

HITZAURREA

Marcela Lagarde antropologo feministak honela zioen: “emakumeak aldatzeko beldurraren gatibu dira, horrek emakume izaten dakiten modu bakarrean emakume izateari uztea esan nahi duelako. Uste dute, gainera, aldatzea ezinezkoa dela, emakume izateko modu unibertsal bakarra dagoela, horrela izan dela beti eta beti horrela izango dela” (Lagarde, 1990). Legarde-ren hitzetan, gutxienez, bi gauza geratzen dira agerian: emakumea edo gizona izateko bestelako moduen ikusezintasun deliberatua; baldin eta, birsortzeko, sexu-generoko menderatze sistemaren arauetan sartzen ez badira. Eta beldurraren balio politikoa, gizartearen aldaketa eta eraldaketa kontrolatzeko bitarteko gisa.

Berrikuntza Demokratiko Feministak antropologo mexikarrak aipatutako aldaketa horiei buruzko ikerketa bat da. Gizarte eraldaketarako oztopoei buruz hitz egiten du, eta askotan ezagutzera eman gabeko erresistentzia estrategiei buruz. Atseginez koordinatu dudan lan honek beldurraren eta lotsaren balio politikoari buruzko galderak egiten ditu. Gatibualdiez eta opresioez kezkatzen da. Eta, ororen gainetik, mendekotasunari aurre egiteko argibideak aurreratu nahi ditu, demokratizazioaren analisiak eskaintzen digun sarrera analitiko estrategikotik abiatuta.

Sexu-generoko menderatze maskulinoko sistemaren pixkanakako desaktibaziorako aurrera egiten ari bagara ere eta, aldi berean, deliberazioaren eta partaidetzaaren bidez esfera publikoa zabaltzen ari bada ere, garrantzitsua da bi errealitate horiek elkartzeko moduari buruzko gogoetak egitea, inklusioaren eta gizarte justiziaren ikuspegitik. Horixe zen, hain zuzen, hemen aurkezten dugun ikerketa proiektuaren hasierako kezka bat.

Lanaren hastapenetan, “gizarte birsorkuntza” nozioak daraman pentsaera ezkorrak pisu agian gehiegi hartu zuen ikerketan. Hain izan zen horrela ezen, batzuetan, erresistentzia errealitateak ezkutatzen baitzituen. Poliki-poliki, ikerketa honetan parte hartu duten berrogeita zortzi pertsonaren bizi kontakizunek, eztabaida taldeek, iradokizunek, mintegiekin eta solasaldi informalek agerian utzi zuten errealitatea: opresioari aurre egiteko erresistentzia mekanismoak barneratuta eta naturalizatuta daude, eta hitzez adierazi ez ezik, horrela izendatu behar dira ere.

Horrek guztiak gogorarazten digu garrantzitsua dela ikertzen -izen-abizenak jartzen-jarraitzea eta emakumeei zein gizonen gure bizi proiektuak gauzatzea eragozten diguten

oztopoen aurka/gainetik mobilizatzen jarraitzea, baina garrantzitsua dela, halaber, gizonen eta emakumeen eragiteko gaitasuna agerian uztea, gure bizitzen esfera guztiak banan-banan zeharkatzen dituzten menderatze sistemei aurre egiteko. *Berrikuntza Demokratiko Feministetan* gizakiaren eragiteko gaitasun hori utzi nahi izan dugu agerian.

Amaitzeko, Mari Luz Estebanek esan zuen bere *Crítica del pensamiento amoroso* (2011) liburua beste margolan bat zela pentsamendu kritiko feministaren arte galerian eta arian-arian margolan gehiago egin beharko lirakeela. Zalantzarik gabe, galeria horretan gero eta obra gehiago daude, aldatzeko eta eraldatzeko beldur horri aurre egiteko. Egunero handitzen den galeria bizia da, eta guk gure ekarpena egin nahiko genuke, beste pieza batez.

Jone Martínez Palacios

SARRERA

Gaur egun, Euskadin, Europako herrialde gehienetan bezala, bi joera demokratizatzaile uztartzen dira¹. Alde batetik, nabarmen areagotu dira neurri politiko-instituzionalak, ordezkaritza politikoko guneetan emakumeen partaidetzaren presentzia eta kalitatea bermatzeko. Gaur egun, emakume gehiago daude aurreko hamarkadetan baino, gobernuetan, parlamentuetan eta ordezkaritza politikoko organoetan, ia mundu osoan. Bestalde, deliberazio eta partaidetza prozesuak eta bitartekoak areagotu direla hautematen da -bitarteko horiek zentzu zabalean aipatzen ditugu, berrikuntza demokratiko gisa. Horretarako, Graham Smith (Smith, 2009) irakaslearen kontzeptualizazioa hartu dugu oinarritzat, lan honen lehen zatia bigarren kapituluaz azaltzen dugun moduan-.

Emakumeek, nazioartean, ordezkaritza politikoko erakundeetan izan duten presentzia aztertzen duen lan berrienetako batean, Frank C. Thames eta Margaret S. Williams (2013:1) egileek hau esaten zuten: "emakumeek ez dute sekula izan ordezkaritza politikoko maila handiagorik munduan orain baino". Ikerketan, Thames-ek eta Williams-ek emakumeen partaidetza politikoa aztertzen dute, Freedom House² irizpideen arabera demokratikotzat jotzen diren 159 estaturen ordezkaritza politikoko organoetan. Egileek egiaztatu dutenez, 1945etik 2005era emakumeen kopurua areagotu da munduko parlamentuetan (% 5etik % 15era), eta areagotu dira, halaber, alderdi politikoetan emakumeen gutxieneko presentzia bermatzen duten kuotak -gogoratu behar dugu alderdiak oinarritzko tresna politikoak direla ordezkaritza demokraziaren ereduaren; izan ere, horien bitartez bideratzen dira herritarren eskaera asko ordezkari politikoengana- (1945eko % 0etik 2005eko % 40ra) (Thames eta Williams, 2013: 12). Aztertutako 159 herrialdeetan emakumeen presentziaren gorakada aldakorra izan dela azpimarratzen badute ere, baikorrak agertzen dira, emakumeen partaidetza politikoaren gorako joerari dagokionez. Hala, Suediako parlamentuaren % 47,3 emakumeek osatzen zuten 2006an, eta Ruandakoan, % 56,3 ziren emakumeak; haatik, oraindik badira Sri Lanka bezalako herrialdeak, non emakumeek parlamentuaren % 4,9 osatzen baitute.

¹ Kontzeptu hori landuko dugu lan honen lehen zatiko 2. kapituluaz. Oraingoz, aurreratzen dugu, irakurleek planteamenduari jarrai diezaioten, demokratizazioa zera dela: gaur egun ezagutzen dugun ordezkaritza demokraziaren printzipioak sakontzeko (erradikalizatzeko) xedea duen prozesua.

² Gobernuz Kanpoko Erakunde bat da. Haren egoitza Estatu Batuetan dago, eta demokrazia sustatzeko xedea du.

Emakumeak munduko biztanleriaren erdia izateari (% 49,5 2013an, The World Fact Book-en³ datuen arabera) eta, beraz, erabaki politikoak hartzeko eta “sortzeko” organoetan ordezkaritza eduki behar izateari buruzko argudio kuantitatiboez harago, emakumeen presentziak ordezkartzako erakundeetan –espazio publikoan, azken finean– oinarritzko balioa du, gutxienez, beste bi arrazoiengatik.

Lehenik eta behin, emakumeen presentziak gizakiaren bizi esperientzien unibertsaltasunari buruzko ideia faltsua hausteko aukera dakar. Lanaren lehen zatiaren 3. kapituluaz azaltzen den moduan, sexu-generoko menderatze maskulinoko sistemak⁴ biztanleria erdiaren (gizonenak) bizi esperientziak gizaki ororen esperientzia bakar eta berezkozat eman nahi ditu. Hainbat arlotan egindako azterketa feministetan frogatzen joan den bezala, gizonen eta emakumeen bizi esperientziak bestelakoak dira. Desberdintasun hori, besteak beste, gizarte instituzio batzuek birstortzen dute (hala nola, familia, eskola, eliza, etab.). Horrela, gizonak eta emakumeak modu desberdinean gizarteratzen dira, eta desberdin egituratzen dira batzuen eta besteen esperientziak eta munduan egoteko edo mugitzeko moduak. Horrekin ez dugu esan nahi emakume guztien bizitza berdina denik; alabaina, emakume izate hutsagatik aukera gehiago dituzte bizitzaren une jakinak, esperientzia zehatzak edo gorputzeko sentazioak partekatzeko. Emakumeek ordezkartzako organoetan egoteak inplikatzeko munduaren egoteko modu hori, non emakumearen ideia jakin bat “eraiki” den, erabakiak hartzeko prozesu guztietan egotea.

Bigarrenez, emakumeak ordezkartzako organoetan egotea lotuta dago emakumearen eta boterearen arteko erlazioa aztertzean gutxitan azaldutako alderdi bati: emakumeen presentziak esan nahi du espazio publikoa okupatzeko eredu berriak ikusaraztea; azken finean, eremu politikoan jarduteko eta mugitzeko modu berriak. Beste batzuetan agerian geratu izan den bezala (San José, 2003), ordezkartzako organoetara iritsi ziren lehen emakumeek arazo honekin egin zuten topo: kudeaketa publikoko modu tradizionalak –unibertsaltzat hartutakoak– espazio publikoan denbora gehien igaro zutenek egindakoak ziren (gizon zuriak eta heterosexualak, ezagutzen diren gizarte gehienetan). Espazio horietara sartzearekin batera, emakume askok “eremu politikora”⁵ egokitu behar izan dute

³ <https://www.cia.gov/library/publications/the-world-factbook/geos/xx.html> [Galdera: 2015eko urtarrilak 5]

⁴ Termino hau berriro landuko dugu lanaren lehen zatiaren hirugarren kapituluaz. Aurreratzen dugu Chantal Mouffe filosofo postmarxistaren nazioa hartzen dugula ideia hau azpimarratzeko: munduan nagusi den ordena sozio-sinbolikoa maskulinoaren femeninoaren gaineko menderatzean oinarritzen da. “Sistema” hitza aintzat hartzen duen termino hau nahiago dugu ahistorikoagoak diren beste batzuk baino, hala nola patriarkatua; izan ere, gure ustez gizarte erakunde eta eragileen jarduteko konplexutasuna islatzen du.

⁵ Pierre Bourdieu-k proposatutako terminoa. Egile frantsesak horren definizio asko eman ez baditu ere, *Actes de la recherche en sciences sociales* (1981) liburuan proposatutakoa oso argia da guri dagokigun gairako; hots, adiera eta

beren bizi esperientzia, eta horrek politika egiteko hainbat eredu sortzea ekarri du, horiek birsortu edo urratu nahi dituzten emakumeentzat.

Euskadiri erreparatzen badiogu, Teresa de Valle antropologoak koordinatutako *Mujer Vasca Imagen y Realidad* lana nahitaezko erreferentzia bat da, hasiera eman baitzien 1985ean Euskadiko ikasketa feministei eta generokoei. Azterketak datu garrantzitsu batzuk ematen zituen, 80ko hamarkadan emakumeek gizartean eta politikan izandako partaidetzaren ezaugarriei buruz; horietako batzuk, aurrerago ikusiko dugun moduan, egungo errealitatera ekarri daitezke. Ikertzaileek “gizarte eta kultura jardueretan emakumeen hutsune bat” egiaztatu zuten, emakumeek berek justifikatutakoa, denborarik ezagatik eta familiako erantzukizun askorengatik. Hutsune hori azaltzen zen, halaber, erlijio aginduek euskal emakumeengan duten zamagatik. Euskadin izandako sekularizazio prozesua gorabehera, erlijioak pisu handia dauka oraindik euskal gizartean, oro har, eta emakumeengan, bereziki (Del Valle, 1985: 126- 133). Emakumeek ordezkaritza politikoko organoetan duten presentzia aztertzeke 90eko eta 2000ko hamarkadetan egindako azterketa berriek (Elizondo, 1999; Elizondo; Elizondo, 2004; Elizondo et al., 2005) erakusten dute emakumeen partaidetza areagotu egin dela alderdi politikoetan, elkarte politikoetan eta ordezkaritza politikorako egituretan, hala nola Legebiltzarra. Eusko Legebiltzarrean emakumeen presentziaren bilakaerak gora egin du, lehen legegintzalditik gaur egun arte, eta maila gorena VIII. legegintzaldian (2005-2009) lortu zen, emakumeen % 53,3ren partaidetzarekin. Horrez gain, X. legegintzaldian (2012-2016) emakumeen presentzia % 49,3koa dela ikus dezakegu.

Datu horien azalpenaren zati bat Eusko Legebiltzarrak bultzatutako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen ezarpenak ematen digu, beste faktore batzuekin batera. Ordezkaritzako erakundeetan emakumeen presentziak izandako igoera horrez gainera, bestelako gizarte eta instituzio gertaera batzuk daude, euskal gizartean gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren bilaketan izandako aurrerapausoak azaltzeko. Horien artean, nabarmentzekoak dira bai elkarte feministek eta emakumeen elkarteek azken hamarkadetan Euskadin izandako gorakada, bai berdintasun arloan espezializatutako teknikarien pixkanakako gizarteratzea herrietan: berdintasun agenteak (Emakunde, 2009). Arlo akademikoan, ikasketa feministak pixkanaka instituzionalizatzen

produktu politikoak sortzen dituenaren eta horiek kontsumitzen dituenaren arteko botere desoreka, ordezkaritza demokratikoa batean. “eremu politikoa leku bat da, non sortu egiten baitira, horretan sartutako agenteak elkartzeko *testuinguru* batean, produktu politikoak, arazoak, programak, analisiak, iruzkinak, kontzeptuak eta ekimenak; eta herritar arruntek, kontsumitzaile estatus batera mugatuta, horien artean hautatu behar dute, gaizki ulertzeak izateko arriskuarekin horiek sortzeko guneekiko haien urruntasunagatik.” (Bourdieu, 1981: 3-4, letra etzana gehitu dugu, aurrerago letra etzanak bibliografia aipuetarako erabiliko dira).

joan izana igoera hori azaltzeko beste faktore bat izan daiteke; izan ere, ikertzaile feministek gero eta proposamen gehiago egiten dituzte, emakumeak ahalduentzeko eta mugimendu feministarekin batera lana egiteko. Orain arte emandako datuak positiboak izan arren, aurrerago egiaztatzen dugun moduan, emakumeen artean oso errotuta dago oraindik denbora ez izatearen eta familia ardura asko edukitzearen diskurtsoa, erabakiak hartzeko espazioetan ez egoteko edo horietatik ateratzeko arrazoiak azaltzeko.

Sarreraren hasieran, bigarren elementu demokratizatzaile gisa, politika publikoak denon artean egiteko espazioen gorakada aipatu dugu. Oso erabilia izan den “krisia demokrazian” horren aurrean, ezin konta ahala proposamen egin dira, teorikoak nahiz enpirikoak, politika produktua diseinatzen dituztenen eta horiek kontsumitzen dituztenen arteko urruntasunari buruzko kritikak konpontze aldera⁶. Horri begira, askotariko estrategiak erabili dira, administrazioaren modernizaziotik hasita, deliberazio eta partaidetza prozesuen instituzionalizatzeraino. Munduan gehien ezagutzen den berrikuntza demokratikoan arreta jartzen badugu, hots: partaidetzako aurrekontuak⁷, igoera kuantitatibo horretaz jabetuko gara. Orain dela gutxi, herri mailako partaidetza prozeduren azterketak nazioartean zabaltzeko gehien saiatu den egileetako batek, Yves Sintomer-ek (2004), Europako lau herrialdeko partaidetzako aurrekontuak aztertu zituen sakontasunez, eta honako hau ondorioztatu zuen:

“Zifrak ikaragarriak dira. 1999an, esperientziak esku bateko hatzez zenbatzen ziren, eta Europa Brasildik oso-oso urrun zegoela zirudien; 2002an, hogeitik gora dira jada; 2005ean, 55 partaidetzako aurrekontu zeuden martxan. Eta mugimenduak geldiezina dirudi: 2008an, bitarteko batzuei behin betiko amaiera eman zaie, baina kopuru osoa ehundik gorakoa da, bereziki, Espainian, Italian eta Portugalen horrelako esperientziak biderkatu direlako eta beste leku batzuetan martxan jarri direlako, hala nola Suedian. Partaidetzako aurrekontu bat ezarri duten udalerrri edo barrutietan bizi diren biztanleak kontuan hartzen baditugu, kurbak gora egiten du berehala: 2000an, 350.000 biztanle baino gutxiago; 2002an, 1.528.000; 2004an, 3.680.000; eta, 2005ean, 4.816.000” (Sintomer, 2004: 20).

Hasierako oharpen horretan adierazitako joera berresten duen beste datu bat Espainiako estatuan dugu. INAPEk argitaratutako ikerketa batek erakusten duenez, partaidetzako

⁶ Zientzia politikoan (*rational choice*, eduki liberal handiarekin) ikuspegi ekonomikoan tradizioz erabili izan den hizkuntza erabiltzen dugu. Horrela, Pierre Bourdieu soziologo frantsesak egiten zuen bezala –lan honetan asko erabili da haren interpretazio esparruari–, gogoratu nahi dugu *output*s (emaitza) politikoak eremu politikoaren eraketa (une batean hura egituratzeko modu jakin bat) baten emaitza direla. Ez dugu nahi, terminologia honen erabileraren bidez, demokraziaren irakurketa liberal batean sakondu nahi.

⁷ Gobernuek (herri mailako askotan) abian jarritako partaidetza tresna bat da, herritarrek batzarren edo biltzeko beste era batzuen bidez udal aurrekontuaren ehuneko bat (oro har, % 30etik beherakoa) zertan inbertituko den erabaki dezaten.

aurrekontuetan 14 puntuko igoera (3tik 17ra) eman da, 2001etik 2008ra (Pineda, 2009: 287)⁸. Zehazki, berrikuntza demokratikoko espazioei eta horien gorako joerari dagokienez, Euskadik, gehienbat 2012. urtetik aurrera, partaidetza instituzionaleko eredu bat garatu du, arloko kontseiluetan (deliberatiboak) oinarritzen dena eta herritarren partaidetzaren alderdi substantiboa⁹ garatu nahi duena (nabarmentzekoak dira udalerrietan egindako herritarren partaidetzako araudiak, *Tokiko Gobernu Modernizatzeko Neurrien* abenduaren 16ko 57/2003 Legeak bultzatuta). Euskal erakundeek partaidetzaren genealogiari buruzko ibilbide labur honetan, azpimarratzekoa da, 2011n, Ezker Abertzalea (Bildu alderdi politikoaren bidez) erakundeetan sartzearekin batera, aldatu egin zela herritarren partaidetzarako eredua. Arloko kontseiluetan oinarritutako eredua lehenetsi beharrean, partaidetza prozesu lotesleen arabeko eredua sustatu da.

Testuinguru horretan ulertu behar dira, beraz, Gipuzkoako partaidetzako aurrekontuen sarea edo herritarren partaidetzaren aldeko udalerrien sarea (Herritarrekin). Herritarren partaidetzarekiko Eusko Jaurlaritzaren interesa erakusten duen azken mugarri instituzionalerako bat *Euskadiko Demokrasiari eta Herritarren Parte hartzeari buruzko Liburu Zuria* (2014) da. Erakundeek ahalegin horiek guztiak, gainera, mobilizatzeko kultura luzea duen lurralde batean kokatzen dira. Azken puntu horri dagokionez, Euskadin gizarte kapital handia izatearen onarpenaren inguruko adostasuna zabala da, eta horrek azaltzen du sortutako (herritarrek proposatutako) partaidetza dinamiken ugaritasuna (Zubero, 2010).

Orain arte aurkeztutako datuek agerian uzten dute deskribatutako bi joera demokratizatzaileak batera ematen direla euskal gizartean. Datuen irakurketa baikorra egingo bagenuke, pentsa genezake euskal gizarteak emakumeak aintzat hartzen dituela boterea banatzean. Haatik, ebidentzia enpiriko kuantitatiboek eta kualitatiboek erakusten digute emakumeek, oraindik ere, oztopoak dituztela erabakien kudeaketa kolektiboko espazio berrietan parte hartzeko unean. Euskal gizartean, partaidetzaren barruan generoa aztertzen duen lan aitzindarietako batean, Blas-ek eta Ajangiz-ek (2008) hauteman zuten, berrikuntza bitartekoetan gizonek emakumeek baino gehiago parte hartzen bazuten ere, emakume parte hartzaileen ehunekoa handiagoa zen horietan, beste ordezkaritza espazio batzuetan baino (% 30-40 inguru). Halere, bitarteko horiek ezin zuten saihestu generoaren arabeko gaien banaketa. Egiaztatzen zuten, esate baterako, emakumeen parte hartzea gai

8

<http://revistasonline.inap.es/index.php?journal=REALA&page=article&op=viewFile&path%5B%5D=9692&path%5B%5D=9782> [Kontsulta: 2015eko urtarrilak 17]

⁹ Partaidetzaren alderdi sinbolikoa aipatzen dugunean, diskurtsoari lotutako partaidetzaz ari gara (esate baterako, diskurtsoak adieraztea, partaidetza edo deliberazio prozesuen sustapena iragartzeko); alderdi substantiboa partaidetzaren lege garapenari lotuta dago (partaidetza arauak egitea), eta eragiketa alderdia, prozesuak martxan jartzeari lotutakoa (ezarpena) (Blas eta Ibarra, 2001).

hauetan ematen zela: ingurumena, hezkuntza edo gizartea (Tokiko Agenda 21 edo gizarte kontseiluak), etxeko emakumeari lotutako rolak eremu publikora hedatuz. Ildo berean, Jane Mansbridge-k (1990) Selby-ko (Erresuma Batua) batzarrei buruz egindako ikerlan klasikoak erakusten zuen emakumeak berrikuntza demokratikoko espazioetara joaten zirela (joandako pertsonen % 49 emakumeak ziren) baina zailtasunak zituztela beren iritzia adierazteko. Laburbilduta, lan honen 1. kapituluaren sakonago aztertuko dugun moduan, emakumeek berrikuntza demokratikoko prozesuetan izandako parte hartzeari buruz gaur egun eskura ditugun datuek erakusten digutenez, boterea gauzatzeko modu berri horiek ordezkari bitartekoak baino erraztasun handiagoak ematen dituzte emakumeak espazio publikoan egon daitezen; alabaina, emakumeek zailtasunak dituzte beren esperientziak barneratzeko. Bestela esanda, berrikuntza demokratikoak erabakiak hartzeko prozesuetan herritarrek sartzeko helburuarekin sortu ziren, baina ez zuten kontuan hartu eremu politikoa eraiki duen inertzia patriarkala. Ideia hori da, hain zuzen ere, lan honen auziaren erdigunea, eta galdera honen bidez laburbildu genezake: Zenbateraino dira inklusiboak gaur egungo berrikuntza demokratikoko prozesuak?

Jarraian datorren lanaren ikerketa testuingurua zehazteko aurkeztutako datuak aintzat hartuta, ideia hau defendatzen dugu: gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako diskurtsoaren formalizazioarekin (normalizazioa) batera, “sotildu” egin dira emakumeei beren partaidetza proiektuak garatzea eragozten dieten bitartekoak. Zehazki, defendatzen dugu sexu-generoko menderatze maskulinoko (publikoa *vs.* pribatua, arrazoa *vs.* emozioa, unibertsal bihurtzeko bokazioa duen menderatzailea *vs.* eredurik gabeko menderatua) sistemaren birsorkuntzaren erdigunean dauden tentsio/kontraesan¹⁰ nagusiak berrikuntza demokratikoko bitartekoetan agertzen direla, bitarteko horiek ez baitira sortu sistema hori indargabetzeko xedearekin. Uste dugu, halere, emakumeen inklusioari buruzko diskurtso bat hartzeak eta esperimentu horien bokazio demokratizatzaileak kontraesan horiei lotutako oztopoak modu sotilagoan agertzea eragiten dutela. Hemen aurkezten ari garen ikerketa abian jarri dugu; hain zuzen, emakumeen parte hartzea mugatzen duten oztopo horiek zer modutan agertzen diren hautemateko eta, batez ere, emakumeek horiek gainditzeko dagoeneko martxan jarri dituzten estrategiak agerian uzteko ilusioa dugulako. Lan honetan, Euskadin egindako berrikuntza demokratikoko hamabost proiektutan emakumeek izandako parte hartzea aztertzen dugu. Haien esperientzia jasotzen dugu zuzenean, ikerketa ekintza parte hartzailean oinarrituta, eta horretarako batera erabili ditugu partaidetzaren biografiak, *focus group*-ak (eztabaida taldea) eta zuzeneko behaketak.

¹⁰ Hasieran batean, tentsio terminoa erabiltzen dugu birsorkuntzaren erdigunean dauden binomioei erreferentzia egiteko. Haatik, Almudena Hernando aurrehistorialariarekin (Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Politikoko Saila), 2015eko urtarrilaren 22an, *modernitatearen identitateari, indibidualtasunari eta generoari* buruz egindako mintegiaren ondoren, non terminoen erabileraz eztabaidatu baitzen, “kontraesan” hitza erabiltzea erabaki genuen. Foro horretan, agerian geratu zen emakume askok eguneroko kontraesan baten modura bizitzen zutela binomioen arteko erlazioa. Kontraesan hitzak hobeto adierazten du emakumeei zer gogor egiten zaien eguneroko mezu kontraesankorrei aurre egiten behar izatea. Eskerrak eman nahi dizkiogu hemen Almudena Hernando-ri ñabardura garrantzitsu horri buruz emandako ikuspegiagatik.

Lana lau zati nagusitan banatuta dago. Lehenengo zatia hiru kapituluk osatzen dute, eta horietan ikerketan erabili dugun interpretazio eredua azaltzen dugu. I, II eta III. kapituluetan, gure erreminta kaxa analitikoa eraikitzeke kontzeptuak azaltzen ditugu, eta horretarako teoria feministak eta demokraziaren teoriak egindako ekarpenak izan dira gure iturri nagusiak. Bigarren zatian, IV. kapituluak, lanaren erdigunea osatzen duten oztopo, estrategia eta balioetara iristeko diseinatu dugun eredu metodologikoa azaltzen dugu. Hirugarren zatian, ikerketaren emaitza nagusiak azaltzen ditugu, lehen aipatutako hiru elementu nagusien arabera antolatuta: oztopoak, estrategiak eta balioak. Amaitzeko, laugarren zatian, ondorioen berri ematen dugu, eta hainbat argibide ematen ditugu *Berrikuntza Demokratiko Feministak* deritzogun hori lantzeko.

LEHEN ZATIA

I. kapitulua. Emakumeen parte hartzea: analisi baterako oharra.

Emakumeen eta boterearen arteko erlazioa askotan aztertu izan da Gizarte eta Giza Zientzien hainbat diziplinetatik, eta kasu bakoitzean gehiago edo gutxiago landu da Zientzia Politikoaren oinarritzko kontzeptu bat: demokrazia. Nolanahi ere, demokrazia botere erlazioak antolatze modu jakin bat baino ez dela kontuan hartuta, esan daiteke emakumei eta botereari buruzko analisi askotan, modu inplizituan bada ere, hori bera aztertzen dela. Gainera, horietako lan batzuk ikuspegi esplizituki feminista batetik egin dira, eta horien helburu irmoak izan dira, batetik, boterea emakumeak menderatzeko zer modutan erabiltzen den agerian uztea, eta, bestetik, emakumeek beren bizi proiektuak askatasunez garatzeko estrategien berri ematea. Horrenbestez, azterketa feminista guztiek demokrazia aztertzen dute, nola edo hala.

Emakumeen eta partaidetzaren arteko erlazioaren azterketan, politologiaren ikuspegitik, emakumeek partaidetza proiektuetan dituzten oztopo nagusiak aztertzeko erabili izan diren bi "sarrera" bereiz ditzakegu. Alde batetik, demokrazia liberalaren ordezkartzako egituretan emakumeen presentzia aztertzen duten lanak ditugu. Bestalde, gizarte mugimenduetan emakumeek izandako parte hartzea aztertzen duten lanak daude. Bi bide horiek elkarpen oso garrantzitsuak egin dituzte azterketa feministetan, eta analisi horietan landutako elementu asko berriro agertuko dira gure ikerketan. Hori dela eta, kapitulu honetan, bi bide horiek lan honetan aztertutako arazoari eskaini dizkieten aurrerapen nagusiak biltzen ditugu, eta gure egiten dugu Nancy Fraser-en kontrapubliko subalterno feministen proposamena, oinarritzko elementu bat delako gure esparru analitikoan.

Emakumeen partaidetza ordezkartzako demokrazian, zer oztopo?

Partaidetza politikoa politologiaren ikuspegitik aztertzeko unean, honako galdera honi erantzun nahi izan zaio: zergatik parte hartzen du gizakiak? (Lazarsfeld, 1944; Downs, 1957; Campbell, 2010). Ikuspegi beretik eta begirada feminista batekin, emakumeek ordezkartzako egituretan izandako partaidetzari buruzko azterketek, ordea, galdera honi erantzun nahi izan diote: zer oztopo dituzte emakumeek ordezkartzako demokraziaren bitartekoetan parte hartzeko? Bestela esanda, emakumeen partaidetza askea mugatzen duten

egituren diagnostikoa egiteaz arduratu dira. Asko idatzi da ordezkartzako demokraziaren barruan emakumeek beren partaidetza proiektuak aurrera eramateko dituzten oztopoei buruz; gutxiago, ordea, horiei aurre egiteko, emakumeek erabiltzen dituzten estrategiei buruz¹¹.

Oztopoei buruz idatzitako testuetan murgiltzen bagara, lehenik eta behin ikusiko dugu horien azalpena modu anitzetan antolatu daitekeela, hala nola: emakumeen partaidetza oztopatzen duten faktore taldeak identifikatzea, eta oztopo horiek oinarritzko bi kategoria hauetan aztertzea: kristalezko sabaiari lotutako oztopoak ("kanpokoak") eta zoru itsaskorrari lotutakoak ("barneratuak"). Atal honetan, oztopoak antolatzeko bi modu horietaz baliatuko gara, ahalik eta esparru osatuena eskaintzeko. Interesgarria izango da horiek gogoratzea, ez bakarrik teoriagile eta ikertzaile feministen lana eta memoria berreskuratzeak duen balioagatik; baizik eta, behean aipatuko ditugun berrikuntza demokratikoko prozesuak ordezkartzako demokraziaren testuinguruan gertatzen direlako, eta, beraz, eragina dutelako ere emakumeek boterea gauzatzeko modu berri horietan duten partaidetzan.

Faktore politiko instituzionalak, faktore kulturalak eta faktore ekonomikoak lotutako oztopoak

1980. urteaz geroztik, ikerketa enpiriko askok azaldu nahi izan dute zergatik dauden, oro har, emakume gutxiago finantza kontseiluetan, alderdi politikoen buruzagitzan edo sindikatuen buruan. Mendebaldeko demokraziak aztertu dituzten lan horiek hutsune hori edo presentzia txikiago hori azaltzeko, gutxienez, hiru faktore multzo identifikatu dituzte. Lehenik eta behin, faktore politiko instituzionalak, hala nola: alderdien sistema, hauteskunde sistema mota edo herrialdearen gehiengoaren ideologia (Caul, 1999; Gilligan eta Tremblay, 2005). Sonia Palmieri-k, beste egile batzuek bezala, zera azpimarratzen du: "Estatu baten sistema politikoa parlamentuan egongo diren emakumeen kopurua zehazten duten faktoreetako bat da, (...) sistema proportzionalan gehiengoaren sistemetan baino presentzia handiagoa dute." (Palmieri, 2011: 10). Bigarren lekuan, faktore kulturalak nabarmentzen dira, hala nola tradizio erlijioso sendoa izatea ala ez (Paxton et Kunovich, 2003), eta lurralde

¹¹Azken ikuspuntu horretatik egindako lanen adibide bat Almudena Hernandok koordinatutako *¿Desean las mujeres del poder?* lana dugu. Lan horrek, gure atxikipena duenak, ez ditu emakumeak biktimizatzen eta, gainera, diziplina anitzeko ikuspegi batetik egina dago. On-line eskuratzeko helbidea: http://www.emakunde.euskadi.eus/u72-20020/es/contenidos/libro/liburuteka_online/es_liburu/emakunde.html?&Alt=675&Anch=855&Root=DeseanLasMujeres&pagTot=264&_ga=1.91046163.804343679.1424179007 [kontsulta: 2015eko otsailaren 25a]

batean nagusi den kultura politikoa (Inglehart et Norris, 2001). Inglehart-ek, Norris-ek eta Welzel-ek (2003:3), ildo horretan, hau azpimarratu dute:

“Kultura desberdintasunak lagungarriak dira azaltzeko zergatik dauden *background* islamiko zorrotzeko estatuak emakumeen ordezkaritza politikoaren rankingaren lekurik baxuenetan (...). Era berean, gizarte postindustrialetan egindako azterketek erakutsi dute emakumeen proportzioak parlamentuetan lotura negatiboa duela katolizismoarekin”.

Egile horien arabera, tradizio erlijioso protestanteko gizarteetan, emakume gehiago daude parlamentuetan.

Amaitzeko, faktore sozioekonomikoak ditugu, hala nola lurralde baten garapen ekonomikoa (Viterna et al., 2008). Azken faktore mota horri dagokionez, azpimarratu behar dugu lurralde baten garapen ekonomikoaren faktoreak ez duela bere horretan azaltzen emakumeen partaidetza; izan ere, Viterna-k dioen moduan “garapen ekonomikoko maila handia duten estatu askotan eskasa da emakumeen presentzia ordezkartzako egituretan” (Viterna et al., 2008: 472); nolanahi ere, ezin da ukatu nolabaiteko lotura dagoela bi aldagai horien artean. Gehiengo batek onartzen du faktore horiek guztiek elkarrekintzan dihardutela testuinguru batean eta edozein analisi politiko egiteko kontuan hartu behar direla guztiak.

Kristalezko sabaiari eta zoru itsaskorrari lotutako oztopoak.

Faktoreetatik abiatuta oztopoak antolatzea egokia da, estatuetan ematen diren makro-joerak analizatzeko. Halere, faktoreen analisi hori osatzeko, kristalezko sabaiaren eta zoru itsaskorraren irudiak erabil daitezke, zeinak gutxiago erabiltzen baitira Zientzia Politikoa, eta gehiago, Gizarte Psikologian. Irudi horiek emakumeek izan ditzaketen arazo zehatzak jasotzen dituzte modu bisual batean, eta, gure iritziz, are garrantzitsuagoa dena: arreta jartzen dute lehen identifikatutako faktore askoren dimentsio barneratuan eta emakumeek horiei aurre egiteko erabilitako estrategian. Lehenengoak itxuraz ikusezin den egitura bati egiten dio erreferentzia, eta emakumeari boterearen gidaritzara iristea eragozten dio, horregatik emakume baino gizon gehiago topatzen ditugu beti exekuzio lanetan. Zoru itsaskorrak, berriz, erreferentzia egiten dio enpresetan, alderdietan edo parlamentuko ordezkaritza organoetan emakumeei zuzendaritza postuetara iristea eragozten dien subjektibotasunari (Burín et Bleichmar, 1996; Hernando, 2003).

Emakumeek boterea nahi dute? galderari erantzun nahian Almudena Hernandok egindako bilduman (2003), lehen deskribatutako faktoreak modu konplexuan uztartuz osatzen dituzten zenbait oztopo eta estrategia jasotzen dira. Lan kolektibo horretan, Mabel Burin

psikoanalistak abiapuntua finkatzen du “kristalezko sabaia, muga gisa, haurtzaro goiztiarrean hasten da, eta garrantzi handiagoko dimentsioa hartzen du nesken pubertaroan” (Burin, 2003: 39). Esan dezakegu sabai hori ondoren zenbait gizarte instituziok elikatzen dutela, hala nola familiak; izan ere, instituzio horien egituraketan, emakumeek erantzukizun maila handia hartzen dute etxeko zaintzetan eta haurren hazieran. Mabel Burin kristalezko sabai horrek hartzen duen formari buruzko informazioa ematen saiatzen da, eta ondorioztatzen du azalpen horretan garrantzi nabarmena dutela emakumeei eta botere jarduerari buruzko estereotipoek eta gaztaroko idealek. Estereotipoei dagokienez, botere publikoaren egiturak kudeatzeko emakumeek gaitasun gutxiago izatearen irudi estereotipatua aurkitzen dugu berriro. Kasu horretan, boterea “zerbaiten gaineko” botere gisa ulertzen da¹². Begi bistan denez, ideia horrek zerikusia du gizabanakoari eta taldeari eragiten dion eta genero joera duen kultura politika bat izatearekin. Bestalde, Mabel Burin-en arabera, “emakume askok beren subjektibotasun femeninoa eraikitzeke erabilitako” (Burin, 2003: 50) gaztaroko idealak gizarteratze prozesuen bidez barneratzen dira, eta emakumeen partaidetza mugatzen dute.

Zoru itsaskorrek lotura estua du oztopo horiek barneratzeko (*embodiment*) joerarekin, eta emakumeek beren buruaz duten pertzepzioan eragiten du, izan ere: “kanpoko faktoreen konbinazioaren emaitza gisa auto-ezarritako mugak” dira (Levinton, 2003: 201). Zoru itsaskorraren adibide bat aipatzearen, autoestimua baxuak (emakumeek espazio publikoan egoteko gaitasun gutxiago izatearen estereotipoa gizarte instituzioen arteko elkarrekintza konplexu baten bidez barneratzearen emaitza gisa) izan dezakeen eraginaren ondorioz, emakumeek politikan parte hartzeko balio ez dutela sinetsarazten diete beren buruei, eta parte hartzeari uko egiten diote.

Ikuspegiak uztartzea, oztopoak aztertzeke.

Gure ustez, orain arte aipatutako bi hurbilketa erabiltzea ez da baztertzaileria, eta ordezkartzeko demokraziako testuinguruetan emakumeek parte hartzeko dituzten oztopoei buruzko edozein diagnostikok bata nahiz bestea jasoko du, horiek antolatzeke modu desberdinak erabili arren. Hau da, botere egituretara iristeko gizarte eragile edo talde batek dituen oztopoei buruzko analisi orok hainbat etapatan aurkituko ditu bai gizartearen dimentsio kulturala, ekonomikoa eta politikoa egituratzeko moduari lotutako elementuak,

¹² Gai hori “Berrikuntza demokratikoak, demokratizazioa eta kapitalen birbanaketa” atalean aztertzen dugu (II. kapituluak). Oraingoz soilik esango dugu “zerbaiten gaineko” boterea boterearekin erlazionatzeko modu bat dela eta horren arabera boterea pertsona batetik bestera doala, norabide bakarrean (norbaitek beste bati zerbaiteginaratzeko duen boterea).

bai eragileek erlazioen sare hori barneratzeko eta, beren jarduteko moduen arabera egituratu ondoren, berriro birsortzeko moduari lotutako elementuak¹³. Analisi horien guztien arteko desberdintasuna oztopo horiei eusteko eta erantzuteko emakumeen eragiteko gaitasunari aztertzaileak ematen dion garrantzian datza. Lehenengo ikuspegiak (izaera kuantitatiboko hurbilketetan oinarritzen direnak) arreta nagusia oztopoetan jartzen duten bitartean, bigarren ikuspegiari lotutako lan berriek estrategien analisi espezifikoak txertatzen dituzte, eta tresna kualitatibo, kuantitatibo eta dialektikoak uztartzen dituzte, emakumeen eragiteko gaitasunaren mugak agerian uzteko. Nolanahi ere, ikerketa arlo honetan egindako ekarpen gehienek, gutxienez, bi joera interesgarri aipatzen dituzte.

Lehenengoak zerikusia dauka *gender gap*arekin. Alde batetik, *gender gap*aren testuingurua finkatu, eta horren gaineko azalpena eman da. Horren arabera, *gender gap*a sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema bati lotutako gizarte prozesu bat da, desberdintasun natural edo biologiko bat baino gehiago. Gainera, emakumeen parte hartzeari eragiten dion *gender gap*aren pixkanakako desaktibazioa hautematen da, eta hori azaltzen da, neurri handi batean, gizonen eta emakumeen arteko gizarteratze bereziaren bidez. Norris edo Harell-en arabera, gizarte industrializatuetan emakumeek politikan eta parte hartze konbentzionalean parte hartzeko interes gutxiago dutela dioten joera klasikoa desagertu da (Harell, 2009; Norris, 2002). Lan honen hasieran genioen moduan, maila kuantitatiboan, munduko demokrazietan emakumeen ordezkartza politikoa 1945etik 2005era maila desberdinean baina etengabe igo da, eta azken urte horretan % 15eko batez besteko globalera iritsi zen (Thames eta Williams, 2013), eta batzuk “ordezkartza kutsakorraz” mintzo dira gertaera horri buruz hitz egitean. Halere, emakume horiek, batzuetan, Maria Antonia Garcíak deitutako “elite baztertuak” dira.¹⁴ Hainbat ikertzailek hautemandako joera batek arrakala horren desaktibazioa erakusten digu; izan ere, joera horren arabera, industrializazio maila handiko gizarteetan, “gizonak lider hobeagoak dira emakumeak baino” ideia daraman estereotipoak gero eta pisu gutxiago dauka gazteen artean (Inglehart, Norris, Welzel, 2003: 6). Horren harira, egile askok aipatutako “kristalezko sabaia” eta “lurzoru itsaskorra” ahultzen ari direla iduri luke, eta, bi gertaerak mantentzen badira ere, gero eta gehiago dira

¹³ Horren adibide bat aurkituko dugu Noris Mugede-k eta Chistine Kwangwari-k emakumeek Zimbabweko gizarte zibilean duten parte hartzeari buruz berriki egindako lanean. Lan horretan, Amsterdamgo Royal Tropical Institut-eko esparruan oinarritutako interpretazio esparru bat eskaintzen da, eta horren bertutea da alderdi hauek izan dezaketen eragina jasotzen duela: ingurua (emakumeek inguru instituzionala menderatzen dute, eta hor dago lege eta zuzenbide esparrua), gizarte egiturak (adina), egoerak (geografikoa) eta emakumeen posizio soziala eta egoera.

¹⁴ María Antonia García de León (1994) paradoxa horretaz baliatzen da, emakume askok eta baztertutako beste gizarte talde batzuek partekatzen duten egoera deskribatzeko, non, botere espazioak bete arren, horietara iristeko “bidaia” mendeko kokaleku batean egiten duten.

horiei aurre egiteko askotariko estrategiak erabiltzen dituzten emakumeak: estrategia kolektiboak, banakakoak, barneratuak, gogoetatsuak, etab. Oharpen horrek lan honen hirugarren zatiaren hirugarren kapituluaren landuko ditugun estrategiaren analisirako argibide irekiak ematen ditu.

Emakumeen parte hartzerako oztopoen hurbilketen bigarren ekarpena, berriz, zenbait gizarte instituziok, hala nola familiak eta lanak, gaur egun egiten duten presioaren inguruan dagoen adostasunari lotuta dago, presio horren bidez mugatu egin nahi baita emakumeen nahia ordezkaritza egituretan parte hartzeko. Instituzio horiek egituratzeko modua dela eta, emakumeek bestearen zaintzari lotutako lanak egin behar izaten dituzte, eta denborarik gabe geratzen dira politikan parte hartzeko, gaur egun ulertzen dugun moduan. Horrek areagotu egiten du etxeko gauzetara bideratutako subjektibotasun femeninoa. Lan berri batzuetan, hala nola Parras (2013) edo Hooghe eta Stolle egileenetan, ideia hori azaltzen da, eta ematen diren argudioen arabera, emakumeek haurtzaroan eta nerabezaroan, oro har, parte hartze konbentzionalerako interes handiagoa dute gizonek baino, baina heldutasunera iristean (24 urte), emakume asko helburu horiei uko egitera behartuta daude, lanean eta familian jasandako presioaren eraginez.

Orain arte esandakoa kontuan hartuta, ordezkaritza-organismoetan emakumeen parte hartzeari buruzko analisi orok, osoa izateko, elementu hauek aztertu beharko ditu:

- Gizarte instituzio klasikoen (familia, eskola, lana, etab.) eta berriagoen (teknologia berriei lotuta) egituratzeko moduak beren testuinguruetan egiten duen presioa. Hori lotuta dago, halaber, 1990eko hamarkadan egindako lanetan hautematen joan diren faktore sozioekonomikoekin eta kulturalekin.
- Errealitatea egituratzeko modu horien barneratze subjektiboak egiten duen presioa, eragileengan barneratutako egituren bidez. Horretarako, erabilgarriak izango dira lurzoru itsaskorraren analisian izandako ekarpenak.
- Eragiteko gaitasunaren garrantzia, emakumeek egitura horiei aurre egiteko erantzunak sor ditzaten; izan ere, aurrekoa gorabehera, ukalezina da gero eta emakume gehiagok eramaten dituztela beren partaidetza proiektuak aurrera, egitura horiei aurre egiten dietelako modu gutxi-asko gogoetatsuan. Pentsatzen dugu, errealitate hori aintzat hartu ezean, partaidetzaaren analisia partziala izango litzatekeela eta emakumeak biktimizatuko litzatekeela.

Emakumeen parte hartzea gizarte mugimenduetan, zer oztopo?

Gizarte mugimenduen azterketatik abiatuta, emakumeen parte hartzea aztertu dutenek neurri apalagoan mobilizatu dituzte goian aipatutako faktoreak eta irudiak, eta arreta handiagoz aztertu dute paradoxa hau: boterea gizarteratzeko xedez sortu, eta gizarte justiziaren izenean diharduten ekintza kolektiboko egitura batzuek generoan oinarritutako menderatze logikak sortzea.

Gizarte mugimenduetako emakumeen parte hartzea aztertzen duten egileak baliabideak mobilizatzeari buruzko teorietan proposatutako tresnez, aukera politikoko egituraz eta gizarte mugimendu berrietatik egindako hurbilketatik baliatzen dira, eta arreta berezia jartzen dute emakumeen parte hartze egituraren forman.

Jo Freeman-ek 1975ean, *La tiranía de la falta de estructuras* testu ezagunean, itxuraz egitura formalik ez duten (hala nola gizarte mugimenduak) erakundeetan menderatze egiturak egotearen auzia aztertu zuenetik, lan askok aztertu dute nola mugimendu baten barne antolakuntzak muga dezakeen bere barruan parte hartzen duten pertsonen askatasuna. Freeman-ek nabarmentzen zuenez, bestela dela pentsa daitekeen arren, ezin da imajinatu egiturarik ez duen erakunde bat. Ongi zehaztutako hierarkiak dituzten eta batzarren bidez funtzionatzen duten eta, beraz, organigrama hierarkiko zehatzik ez duten taldeak bereizi badaitezke ere, bigarren multzo horretakoak lantzeko unean, lanerako hipotesiak ezin du izan egitura horietan lider informalik eta botere erlazorik ez egotea; izan ere, horrelakoak azaldu daitezke, neurri batean, eragile batzuek metatutako botere sinbolikoaren bidez¹⁵. Freeman-ek emakumeen askatasunerako mugimenduak aztertu zituen, baina haren planteamenduak baliagarriak dira ere beste gune batzuetarako, non pertsona talde batek helburu komun batzuk lortzeko elkartzeko erabakia hartu duen. Herritarren partaidetzarako guneetan botere sinboliko horren jarduteko moduaren eredu bat eman zuen, beste behin, Jane Mansbridge politologo estatubatuarrak. Hala, *Beyond Adversary Democracy* (1990) lanean, adierazi zuen Selby-n emandako partaidetzan “ez zegoela boterearen ageriko elite bat” eta, halere, generoak eta gizarte klaseak desberdintasunak finkatzen zituztela batzuen eta besteen partaidetzaren artean. Gizarte maila handiagoko gizon batzuk, Mansbridge-ren arabera, beste batzuk baino erosoago eta boteretsuago sentitzen ziren. Eta gizon gehienak, emakume gehienak baino.

¹⁵ Botere sinbolikoaren nozioa “Berrikuntza demokratikoak, demokratizazioa eta kapitalen birbanaketa” atalean definitzen dugu (III. kapitulua). Hortaz, ohar honetan aditzera ematen dugu botere sinbolikoa dela eragile baten munduaren ikuspegiak eta definizioak gizartean errotzeko duen gaitasuna. Norbaitek emandako definizioa definizio uniboko gisa hartzeko boterea.

Freeman-en ondorioak mundu osoko askotariko gizarte mugimenduen azterketaren bidez osatu eta probatu dira. Ekarpen horiek guztiak banan-banan hona ekartzeak lan honen mugak gainditzen ditu; hortaz, hurrengo lerroetan, gizarte mugimenduetako partaidetza prozesuetan emakumeek identifikatutako oztopoak hautemateko ideiak aurreratzen dituzten analisiak soilik aukeratuko ditugu; alderdi horiek guztiak sakonago aztertuko ditugu liburuaren III. kapituluan.

Orain dela gutxi, Simone de Beauvoir-ek sortutako *Nouvelles Questions Féministes* aldizkariak monografiko bat argitaratu du auzi horri buruz. Roux-ek et. Al.-ek koordinatutako monografikorako izenburu iradokitzaile hau hautatu zuten: "patriarkatuari ihes egiten ez dion militantismoa" (24. lib., 23 zk.). Ale horretan jasotako ekarpen gehienek elementu eragozle nabarmenak jotzen dute erakundeen barruan espazioa eta lana generoaren arabera banatzea. Hainbat azterketetan egiaztatu denez (Falquet, 2005; Alfama, 2010; Alvarez, 2012), emakumeek antolakuntza lanak (eta ez zuzendaritzakoak) edo lan errepikakorrak egiten dituzte, gehienbat, eta ez sortze lanak.

Ekintza kolektiboan parte hartzeko prozesuan agertutako lehen oztopoa lanak generoaren arabera banatzeko inertzia patriarkalean¹⁶ datza; hala, emakumei antolakuntzako kideen zaintzari lotutako lanak ematen zaizkie, eta gizonak gehiago ikusten diren funtzioak bereganatzen dituzte, hala nola bozeramailak. Egile horiek azpimarratzen dute emakumeek zailtasun handiagoak dituztela mugimenduetako lidergo postuak hartzeko, eta, hartzen dituztenean ere, mugimendua krisi egoeran dago, eta inork ez du boterea eskuratu nahi, edo, bestela, ezer gutxi dago jokoan. Jules Falquet-ek Latinoamerikako gizarte mugimenduei buruz egindako azterketetan ikusi zuen nola "emakumeak funtzio batzuk hartzen hasten zirenean, funtzio horiek balioa galtzen zuten" (Falquet, 2005: 22).

Arlo honi buruzko lan askotan identifikatutako bigarren oztopoak zerikusia du emakumeek egindako lanaz jabetzeari; modu horretan, haren ekarpenari garrantzia kentzen zaio, eta ikusezin bihurtzen da. Gero, ikusezintasun horrek espazio publikoan *emakume gisa egoteko* moduak erakutsiko dituzten eredu femeninoak (emakumeenak) ez egotea ekarriko du. Lana ikusezin bihurtzearen ondorioz, emakume askok erakundea utziko dute. Gaia sakon aztertu du Jean Gabriel Contamin-ek (2007). Egile hori "patriarkatuaren burdinazko legeaz" mintzo da, gizarte mugimenduetan emakumeen ikusezintasuna azaltzeko. Contamin-en arabera, "kontua ez da, hainbeste, baieztatzea emakume gutxiago daudela gizonak baino

¹⁶ Eskerrak ematen dizkiogu Eneko Ander Romerori Irantzu Varelak "feminismo mistoari" buruz emandako hitzaldi batean (2014-10-20) erabilitako termino hori helarazteagatik. Irudi horren bidez, Varelak bezala, SGMMSk bere egoerari eusteko joerari egiten diogu erreferentzia.

(*mugimenduetan*), emakumeek beste era batera parte hartzen dutela baizik"; parte hartzeko beste era bat, ikusezin geratzen dena, gizarte mugimenduak egituratzeko moduaren eraginez (2007: 32). Ikusezintasun horren jarduteko moduari buruzko argibideak emate aldera, egilea bat dator gizarte mugimenduei buruzko teoriagile feminista Judith Taylor-en ideia honekin: "gizarte mugimenduen dinamika deskribatzeko hizkuntza mota militarra erabiltzeak emakumeen militantzia ikusezin bihurtzea dakar" (Taylor, 2007: 67). Cantamin-ek ikusezintasun hori hizkuntza egituretan nola ematen den ikusteko adibide bat ematen du. Haren iritziz, emakumeen argudiatze ereduak familia gaiari lotuta dago, behin eta berrir, eta horrela ulertzen da emakumeek belaunaldi arteko proposamenak egitea, erregistro emozional handiagoa izatea, argudiatze modu morala eta humanista hautatzea, eta apaltasunean oinarritutako diskurtsoetan nagusi izatea (2007:13- 37). Contamin-ek aipatutako elementu horietako asko ikerketaren hirugarren zatian berreskuratuko ditugu.

Agerpen bidezko partaidetza¹⁷ aztertzen duten lan horietan guztietan, partaidetza hori gizarte mugimenduen barruan egituratzeko modua emakumeek horietan parte hartzeko sentitzen bide dituzten oztupoak azaltzeko balio duen elementu bat da (ematen zaizkien lanak errepikakorrak dira, eta zaintzari lotuta daude, haien amatasun funtzioa gizarte esparrura hedatuta). Guretzako garrantzitsua da zera azpimarratzea: lan horien emaitzak ezin dira bereizi emakumeek parte hartzen duten gizarte guztietan duten *gizarte mailatik*¹⁸ eratorritako oztupoen analisitik.

Halere, iragartzen ari garenez, zailtasunak, mugak eta ikusezintasunak gorabehera, azpimarratu nahi dugu, dagoeneko aipatutako beste egile batzuekin bat etorrira (Roux, 2005; Hernando, 2003), emakumeek parte hartzen dutela. Hala eta guztiz ere, parte hartzen dute. Horregatik, gure helburua da oztupoak hautematea baino harago iritsiko den azterketa bat egitea. Horrela, agerian utzi nahi dugu ikusgai dena, bai eta ezkutuan dena ere. Baina, batez ere, emakumeek parte hartzen jarraitzeko erabiltzen dituzten estrategiak identifikatu nahi ditugu; izan ere, hortik ideia eta baliabide asko iritsiko dira –dagoeneko martxan daudenak–, sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema pixkanaka indargabetzeko.

¹⁷ Parte Hartuz ikerketa laborategiak erabilitako sarrera eta partaidetza terminoak hartzen ditugu; testu honen egileak, hain zuzen, talde horretako kideak dira. Pedro Ibarra eta Asier Blasek "participación: El estado de la cuestión" testuan goian aipatutako bi modalitateak honela laburbildu zituzten: Gonbidapen bidezko partaidetzan "erakunde publikoek (gobernuak, udalak, etab.) herritarrei gonbit egiten –eskatzen– diete beraiek ezarritako prozesuetan eta espazioetan parte hartzera". Agerpen bidezko estrategian, berriz, "herritarrek, eta maizago gizarte erakunde jakin batzuk, espazio publikoan agertzen dira, eta "beren" partaidetza prozeduren bidez hartutako erabakiak bere horretan onartzeko eskatzen diote administrazioari." (Ibarra eta Blas, 2006: 16).

¹⁸ Gizarte maila etapa gisa ulertzen dugu, eta ez leku estatiko gisa; zentzu horretan, eraldaketa egingarria da. Gizarte maila terminoaren interpretazio estrukturalista bati buruz ari gara, eta horren arabera, terminoak gizartearen eragile batek gizartearen duen lekua azaltzen du. Gizarte maila da kapital forma guztien metaketa desorekatuaren arabera egituratutako botere erlazioen eraketa historikoaren emaitza.

Estrategiak agerian uzteko, gizarteratzeko eta balioan jartzeko eginkizun horretan, ikerketa joera batek, zeinaren barruan gu kokatzen baikara, zera planteatzen du: oztopo horiek errazago identifikatzen eta indargabetzen dira, kolektiboan kontzientzia feminista baldin badago. Esan nahi baita, azken batean, jarrera feminista batetik ikuspegi abantailatsua lortzen dela emakumeen gaineko menderatzeari aurre egiteko moduari buruz. Bestela esanda, feminismo akademiko eta aktibistaren ezagutza balioan jarri nahi dugu; izan ere, Manjina Bhattacharya-k eta haren taldeak (2013) “why gender matters in activism” lanean adierazi bezala, neurri handi batean, talde feministak eta feministak (antolatu gabe egon arren) mugimenduen eta kolektiboen barruko aldaketa estrategiko askoren bultzatzaileak izan dira, pertsonen arteko harreman osasuntsuagoak eta iraunkorragoak mantentzeko. Hori dela eta, “femocrats”¹⁹ deitzen zaie, gizarte erakundeen barruko demokrazian sakontzeko beren eginkizuna azpimarratuz. Bestalde, Roux et al. (2005: 15) esplizituagoak ziren espazio ez-misto eta feministen beharra aipatzean, oztopo horiek lantzeko eta ibilbide propioak diseinatzeko estrategiatzat aipatzen baitzituzten. Zehazki, honako hau zioten: “garrantzitsua deritzogu espazio feminista ez-mistoak eraikitzen jarraitzeari, baina horrekin ez genuke deialdi bat egin nahi feminista guztiek militantzia mistoko espazio kolektiboak utz ditzaten”. Ideia horri dagokionez, Nancy Fraser filosofo estatubatuar feministak kontrapubliko subalterno feministei buruz egindako ekarpena, gure ustez, jarrera teoriko eta tresna analitiko guztiz erabilgarria da, eta oso itxaropentsua.

Nancy Fraser-en “kontrapubliko subalterno feministen” proposamena.²⁰

Nancy Fraser-ek 1990ean *Rethinking the Public Sphere: A Contribution to the Critique of Actually Existing Democracy*-n adierazi, eta gero *Justice Interruptus: Critical Reflections On The Postsocialist Condition* (1997) lanean sakonago aztertutako kontrapubliko subalterno feministen proposamenak, gure iritziz, lotura handia du Virginia Woolf-ek 1929an adierazitako ideia honekin: emakume batek behar ditu dirua eta bere gela idazteko. “Norberaren gela” irudiaren bidez Virginia Woolf buruargiak ulertarazi zigun zer-nolako garrantzia duten baldintza materialek eta sinbolikoek idazteko edo, bestela esanda, norberaren pentsamenduak paperera eramateko. Norberaren egoera aintzat hartuta, nork bere hitzez idaztea, esatea eta enuntziatzea errealitatea eraldatu ahal izateko; hori da, laburbilduta, Fraser-en kontrapubliko subalternoen proposamenaren azken xedea.

¹⁹ Termino hori hartzen dute Sandler-ek eta Rao-k, 2012.

²⁰ Aztertuko dugu nola erabili diren kontrapublikoak ikerketan, lanaren bigarren zatian (IV. kapitulua).

Fraser-en proposamena ulertzeko, 80ko hamarkadaren amaieran eta 90koaren hasieran espazio publikoan egoteko, hura okupatzeko eta adierazteko moduei buruz izandako eztabaiden testuinguruan kokatu behar gara. Hasiera batean, egileak nozioa proposatzen duenean, bi teoriagile feministen ekarpenak konbinatzen ditu: batetik, Gayatri Spivak-en (*Can the subaltern speak?*) "subalternoa", eta, bestetik, Rita Felski-ren (*Beyond Feminist Aesthetic*) "kontrapublikoa". Horrela, esfera publikoari buruzko teoria kritikoari ekarpen bat egin nahi dio, kontuan har daitezkeen tradizioz botere egituretatik kanpo egondako gizarte taldeei adieraztea eta esku hartzea eragozten dizkieten baldintza espezifikoak (egilea emakumeei, etorkinei, mugikortasun urriko pertsonen, eta sexualitate ez-arauzkoa duten pertsonen buruz ari da, besteak beste).

Jürgen Habermas-en esfera publikoaren kontzepzioa hartzen du Fraser-ek abiapuntutzat, eta gero kontrapublikoen beharra sartzen du. Esfera publikoak, Habermas-en arabera, honi egingo lioke erreferentzia: "espazio bat gizarte modernoetan, non partaidetza politikoa eztabaiden bidez gauzatzen den" (Fraser, 2001: 129); hau da, eztabaida eta partaidetzarako gizarte espazio bat izango litzateke. Gizarte espazio horretan, egoteko eta adierazteko modu bat izan da nagusi, egileak burgesa deitzen duena, gizarte klase menderatzaileena. Egilea bat dator esfera publikoa esfera publiko burgesa izatearen Habermas-en ideiarekin. Horren arabera, gizarte talde guztiek ez dute esku hartzeko gaitasun bera, eta horren eraginez botere desorekak sortzen dira. Haatik, haren ustez, pentsalari alemanak esfera publiko liberal baten ideia idealizatzen du, eta ahaztu egiten zaio publiko batzuk ez direla ez burgesak ez liberalak, eta, nabarmentzeko gaitasun gutxiago badute ere, publiko horiek ere mundua izendatzeko espazioak sortzen saiatzen dira (Fraser, 2001: 132).

Fraser-en oinarritzko ekarpena da agerian uztea esfera publikoa, gizarte klaseak ez ezik, sexuak, arrazak eta beste intersekzio batzuek ere zeharkatzen dutela, eta, beraz, espazio publikoa okupatzeko modu nagusiki (unibertsal izan nahi duen publiko nagusia) maskulinoak eta burgesak askotariko publikoak sortzen dituela ertzetan. Honela amaitzen du: "menderatze bat dago niatik gurera igarotzean" (2001: 138). Hau da, esfera publikoan ematen den eta "gu" biltzen bide gaituen erabakiak hartzeko prozesuan soilik sartzen dira adierazteko gaitasun handiagoa duten pertsonak; hots, botere sinbolikoa dutenak, errealitatea beren terminoetan definitzeko ahalmena dutenak.

Testuinguru horretan, kontradiskurtsoak bultzatu behar dira, adierazteko gaitasuna indartzeko, ezkutuan dagoena ikusgai izateko eta, aldi berean, adierazi ahala agertuko diren askotariko publikoak eraldatzeko. Eginkizun horretan, Fraser-en proposamena oso egokia

da. Honela definitzen ditu publiko subalternoa "eztabaida agertoki paraleloak, non mendeko gizarte taldeetako kideek kontradiskurtsoak lantzen eta zabaltzen dituzten, beren identitateen eta beharren gaineko interpretazio propio bat adierazteko" (2001: 138). Fraser-en proposamena aztertuta, ondoriozta dezakegu egilearen kezka direla bai baldintza materialak²¹ bai gizabanakoek dituzten eta espazio publikoan adierazteko gaitasunari eragiten dioten baldintza sinbolikoak²². Halere, egileak berak dioen moduan, kontrapubliko guztiak ez dira egokiak demokraziarako; izan ere, agertoki paralelo horietako batzuetan berdintasunaren aurkako diskurtsoak ere defendatzen dira (esate baterako, feminismoaren aurkako taldeak edo talde xenofoboak). Horren aurrean, kontrapubliko demokratizatzailearen adibide argienetakotzat jotzen duen eredua azaltzen du egileak: XX. mende amaierako Ipar Amerikako kontrapubliko feminista, zeinak kontrapubliko orori datxekion funtzio ihardukitzailea betetzen baitzuen, liburutegi sarearen bidez eta kultura nahiz ikerketarako sormenaren bidez. Kontrapubliko horrek terminoak finkatu zituen (hala nola sexismoa, patriarkatua, etab.) espazio paralelo horien bidez (liburutegiak, esate baterako) errealtatea bere hitzen bidez definitzeko eta, aurrerago, bere argudioak azaltzeko beste publiko batzuen aurrean -menderatzaileak edo mendekoak bere beharren arabera-.

Hori dela eta, KSPen funtzio nagusia publiko menderatzaileen asmo oro-hartzaileei erantzun bat ematea da, taldearen behar espezifikoak identifikaziotik eta adierazpenetik abiatuta. Fraser-ek badaki kontrapubliko horien funtzioak aldatu egiten direla, gizarte batetik bestera. Berdintasunezko gizarte multi-kultural hipotetikoak honela definitzen ditu "menderatze egitura erlazioetan oinarritutako gizarte taldeak sortzen ez dituen oinarritzko instituzio esparru bat duten gizarteak (...), klaserik gabeko gizarteak, genero edo arrazaren arabera lanaren banaketarik gabeko gizarteak, *kulturalki homogeneous izateko beharra eduki gabe*" (Fraser, 1997: 118). Gizarte hipotetiko horietan, beraz, kontrapublikoek parte hartzearen ideala bultzatzeko eginkizuna dute, eta horretarako beharrezkoa da askotariko publikoak izatea (asmo unibertsalak dituen publiko menderatzailearen aurrean), gizarte errealtateari buruzko hainbat ikuspegi planteatuko dituztenak. Gizarte estratifikatuetan, hots, "menderatze egitura erlazioetan oinarritutako gizarte talde desberdinak sortzen dituen oinarritzko instituzio esparru bat duten" (Fraser, 1997: 114) gizarteetan, kontrapublikoek funtzio bikoitza betetzen dute. Alde batetik, "erretiratzeko eta biltzeko espazio gisa

²¹ Modu batera edo bestera, diskurtsoa lantzeko denbora eta "norberaren gela bat" izatearen beharrari erreferentzia egiten dienez, hori baino gauza materialagorik ote?

²² Izan ere, adierazteko entrenamendu bat jaso duen gizabanako batek eduki/sortu dezakeen (auto)konfiantzari buruz ari da. Ez gara nahitaez oratoriako eskolei buruz, eguneroko entrenamenduari buruz baizik, generoaren arabera bereizitako gizarteratzea baino ez dena.

funtzionatzen dute (publikoen aniztasunaren alde lan eginez), eta, bestetik, prestatzeko eta entrenatzeko gune edo eremu gisa funtzionatzen dute, publiko zabalago bati zuzendutako agitazio ekimenak prestatzeari begira. Bi funtzio horien arteko dialektikan datza, hain zuzen, haren emantzipazio ahalmena. Dialektika horren bitartez, gizarte estratifikatueta, kontrapubliko subalternoek gizarte talde menderatzaileetako kideen partaidetza pribilegio bidegabeak murriztu ditzakete, horiekin erabat amaitu ez arren" (1997, 117). Hala, gizarte estratifikatueta kasuan, "menderatze balditzetan eratutako" kontrapubliko subalternoak defendatzen ditu. Berdintasunezko gizarteetan, berriz, kontrapubliko subalternoak "gizarte berdintasuna, kultura aniztasuna eta partaidetza demokratikoa konbinatzeko aukeraz" baliatzeko defendatzen ditu.

Egileak bezala, guk ere uste dugu demokratiko deitutako gizarteak ez direla berdintasunezkoak eta kultur anitzekoak²³, horrelakoak -formalki behintzat- izan nahi duten gizarteak baizik. Beraz, kontrapubliko horiek funtzio asko beteko lituzkete: ihardukitzailea, erretiro eta biltzekoa, esanahiak eraikitzekoa, interpretazio eta estrategiakoa... Horrela, parte hartzeko baldintza hobeak sortuko lirateke. Euskal gizarte, lan honen testuingurua, gizarte estratifikatutik berdintasunezko gizartera doan *continuum* horretan kokatzen da, beraz, eta kontrapublikoek lehenengo funtzio ihardukitzailea betetzen dute, eta, aldi berean, bigarrenengo funtzio demokratizatzailea.

Pierre Bourdieu-k gogorarazten zuen gai bati buruzko ohar bat egin nahiko genuke; izan ere, lanaren ondorioetan emandako gertaera baten testuingurua zehazten du, eta ez du, itxuraz, Fraser-en proposamenaren balioa lausotzen: kontrapubliko subalterno feministako (KSF) kide izateak ez du salbuesten, uneren batean, partaidetzaren oztopo gisa jardungo duten egiturak sortzetik modu gutxi-asko kontzientean. Sexu-generoko menderatze sistemak sortzen dituen oztopo askoren izaera barnekoiak eta/edo sotalak, KSF horietan ere agertzen denak (esate baterako, eragileak familian eta eskolan gizarteratzeko baliatutako genero arauak), menderatze bitartekoak hautemateko zailtasuna azaltzen du, baita kontrapubliko subalterno feministetan parte hartzeagatik prestatuta dauden emakumeen begiradapean ere. Hori "menderatze sinbolikoko era guztiek kontzientziaren filosofiak haustearen" gertaerari lotuta dago. Menderatzea gainditzeko ez da nahikoa izango horretaz jabetzea eta ezagutzea, menderatzeak gorputza bereganatu duelako jada. Kontua ez da kontzientzia hartzeak ezertarako balio ez duenik, nahikoa ez dela baizik" (Bourdieu, 2002: 232). Bourdieu-k baieztapen biribil batez ("ez da nahikoa") amaitzen badu ere, guk ñabarduraren bat egin

²³ *Isutita interrumpa* lanaren 120. orrian, Fraser-ek "gure berdintasunezko gizarte hipotetikoa" dio; hortaz, gaur egun gizarte modu hori ezezaguna dela interpretatzen du.

nahi dugu. Batzuetan egile frantsesak gizartea eraldatzeko eta hausteko aukerari buruzko diskurtso ezkorra ematen duen arren, guri dagokigun gaian, emakumeen parte hartzean, alegia, menderatze sistemen pixkanakako desaktibazioa bideragarria dela uste dugu; izan ere, aurrerago ikusiko dugun moduan, martxan da dagoeneko. Azken batean, menderatze egiturak agerian uztea ez da nahikoa, sekula ez. Baina bidea errazten du, zenbait KSF egunero egiten ari diren erresistentzien indarrak erakusten duen moduan, eta ikerketa honetan argi geratuko da.

II. Kapituluia Berrikuntza demokratikoak, abiapuntua

Ordezkaritzako demokraziaren krisia eta berrikuntza demokratikoak

Teoria politiko feministak, teoria politiko kritiko gisa²⁴, gizonen eta emakumeen arteko gizarte eta politika erlazioen analisi erradikalak ematen ditu. Zehazki, feminismoaren eta demokrazia ereduaren arteko erlazioak analizatzen dituen teoria politiko feministak ikuspegi kritikoa proposatzen du, guk ezagutzen dugun ordezkariatzako demokraziaren inguruan. Esparru anglosaxoian, gorputz teoriko horren hainbat ikuspegitatik egindako lanen artean, nabarmendu daitezke, xehetasun gehiegirik eman gabe, honako hauek: Mansbridge, 1994; 1983; Pateman, 1989; 1988; Phillips, 1991; Young, 1996 edo Fraser, 2001; Mendus 1992 (jat. - 1995eko gazt.). Lan horiek, era batera edo bestera, Mendus-ek berreskuratutako Young-en ideia bat jasotzen dute, eta horren arabera, feministek emakumeen berdintasun eta senidetasunaren ideala demokrazian barneratzeko fedea galdu dute (Mendus, 1995).

Era berean, ikuspegi berariaz feminista²⁵ izan gabe maximalismo demokratikotik sortutako teoriak, eta, zehazki, 60ko hamarkadaren demokrazia eta partaidetza tradizioetik sortutakoek ordezkariatzako printzipio eta metodo demokratikoetan sakontzeko planteamendu kritikoa egiten dute.

Bi kritikek, feministak eta partaidetzako demokraziarenak, bat egiten dute kezketan, zaletasunetan eta egun egungo estatuetan nagusi den demokrazia liberaleko ereduarekiko jarrera kritikoan. Kidetasun horiek garaikideak direlako ematen dira, neurri handi batean. Partaidetza teorien hedadura garai berean gertatu zen, eta, beste elementu batzuen artean, feminismoaren bigarren oldeak izenekoak bultzatu zuen²⁶. Alabaina, gaur egun, bi teoria kritikoak demokraziari buruz hitz egitean krisiaz mintzo badira ere, analisi soziopolitiko desberdinak egiten dituzte, krisiaren diagnostikoa egitean. Esan dezakegu, nolabait, bi joera kritikoek bide paraleloak baina bereziak egin dituztela.

²⁴ Carme Castells-ek, *Perspectivas feministas en teoría política* (1996: 10-11) lanean, Velèrie Bryson-ek *Feminist Political Theory. An Introduction* (1991: 1) liburuan eskainitako definizioa jasotzen du, eta erabat asmatzen du horren izaera aktibista eta kritikoa azpimarratzean: "teoria politiko feminista teoria esplizituki konprometitua dela uler daiteke, horregatik "haren gizartea ulertzeko nahia, hari aurre egiteko eta aldatzeko" objektibotasun asmoari uko egin gabe; haren helburua ez da ezagutza abstraktua, jarduera politiko feminista informazio gida gisa erabil daitekeen ezagutza baizik".

²⁵ Horren barruan dauden planteamenduen aniztasunez eta desberdintasunez jabetuta, maximalismo demokratikoa adiera zabalean aipatzen dugu, demokrazia liberala eta "metodo demokratikoa" erradikalizatzea eta demokratizatzea bilatzen duten ekarpen teoriko guztiak kontuan hartuta.

²⁶ Askotan feminismoaren hiru oldeei buruz hitz egiten da. Sailkapen hori erabiltzeko adostasunik ez izan arren, nahiko onartuta dago lehen oldea feminismo ilustratuari lotzea, bigarren oldea, mugimendu sufragistari, eta hirugarrena, 1960ko hamarkadan izandako mugimendu feministari.

Feminismoak, mugimendu gisa, hasierako oldeaz geroztik jarri du zalantzan demokrazia. Praktikan, hainbat esperientziek, hala nola mugimendu sufragistarenak, estualdian jarri dute demokrazia modernoaren lehen formen ustezko jarduera demokratikoa. Demokraziaren eta feminismoaren arteko erlazioak hainbat ideologia politikotatik landu izan dituzten zenbait egilek azpimarratu dute demokraziaren krisia ez dela kontu berria. Izan ere, krisian sortu zen, ez baitzuen kontuan hartu hasieratik pertsonen populazio erdia, ez teorian, ez praktikan. Hala, feminismo ilustratuak zalantzan jartzen du demokraziaren zilegitasuna hasieratik, eta kritikatzeko du, alde batetik, hura gizartearen bazter guztietara ez zabaldu izana²⁷, eta, bestetik, biztanleriaren erdia albo batera utzi izana; gizarte batzuetan, baita legez ere²⁸.

Bestalde, partaidetza proposamenetatik abiatuta demokraziaren kalitatearen eztabaidari heltzen diotenek argudiatzen dute ertz askoko krisia dagoela horren baitan eta formula espezifikoak behar direla, herritarrek erabakiak hartzeko prozesuetan protagonista izan daitezen. Salbuespen gutxi batzuk alde batera utzita, demokraziaren zilegitasunaren krisiari aurre egiteko herritarren parte hartzerako bide gehiago aldarrikatzen dituzten egileen abiapuntuko diagnostikoa herritarren apatia da, hainbat eratan islatzen dena: herritarren abstentzio datu handiak hauteskundeetan (Europako hauteskundeetan, batez besteko globalak nabarmen egin du behera estatukideetan: 1979an, % 61,99; 1994an, % 56,67; eta, 2009an, % 43) eta erakunde demokratikoekiko mesfidantzan (justizia organismoak) (CISen 2015eko urtarrileko barometroak -3050. azterketa- adierazten du espainiarrek oso gaizki ikusten dutela Espainiako estatuko egoera politikoa, justizia eta alderdi politikoekiko mesfidantza azpimarratuz), baita beste aktore politiko tradizional batzuekiko mesfidantzan ere (hala nola alderdi politikoak edo sindikatuak) (aipatu berri dugun barometro berak klase politikoa espainiarren hirugarren kezka modura ageri da). "Demokraziaren bete gabeko promesa" (Bobbio, 1985) horien ondorioz, apatiari, mesfidantzari eta "eredu demokratikoan" oinarritutako ordezkartzako ereduaren zilegitasunik ezari aurre egiten saiatzen ziren proposamenak ugaltzen hasi ziren.

Proposamen horien mapa oso zabala da, eta oso zaila da batzuen eta besteen arteko desberdintasunak (oso txikiak zenbaitetan) azaltzea. Lan honen xedea ez da horien azterketa xehea egitea; hortaz, krisiari emandako erantzunak bi multzo nagusitan elkartuko ditugu:

²⁷Nabarmentzen dugu, esate baterako, G20ren zalantzazko funtzionamendu demokratikoa, edo oso burokratikoak diren sistema administratiboena.

²⁸Hori gertatzen da Irango Errepublika Islamikoan; izan ere, 2012. urteaz geroztik, Irango gobernuak emakumeei 77 unibertsitate ikasketatan sartzeko betoa jarri die, eta irandar emakumeak ugaltzera gonbidatu ditu herrialdeko jaiotza tasa handitzeko.

deliberazio proposamenak eta partaidetza proposamenak. Horrela, aurrerago landuko den berrikuntza demokratikoen proposamenaren testuingurua finkatuko dugu irakurlearentzat.

Deliberazio demokraziak, Josep Besset-ek (1980, 1994) sortutako terminoak, demokraziaren kalitatea hobetzeko xedea duten hainbat jarrera biltzen ditu. Held-ek oso ongi deskribatzen ditu: “gaur egungo demokrazia deskribatzean, deliberazio demokratek nortasunen arteko talken beherakada, ospetsuen eta eztabaidarako izenburuen politika, eta onura nahiz anbizio pertsonalaren bilaketa eskusiboa aipatzen dituzte” (Held, 2007: 332- 333). Gaur egun ezagutzen dugun demokrazia ereduaren bitartekoetan elkarriketa arrazional eta informaturako espazioak falta direla adierazten dute. Eztabaida informaturako espazioak sortzearen alde egiten dute. Espazio horiek aholkularitza bitartekoren forma eduki, eta azken erabakia hartzeko lagungarriak izan daitezke. Horren adibide dira arlokako aholku batzordeak. Batzorde horiek informazioa eman, eta eztabaida sortu nahi dute, gizarte talde jakin bati eragiten dioten gaiei buruz edo gai jakin bati buruz (ingurumena, ingurumen aholku batzordean).

Bestalde, partaidetzako demokrazia erlazio soziopolitikoak antolatzeke eredu bat da, zuzeneko eta ordezkarietzako demokraziaren artekoa. Ibarra eta Ahedo honako hau idatzi zuten:

“Partaidetzako demokraziak boterea eta haren jarduera eztabaidatzen ditu. Partaidetzako demokraziak boterea beste batzuek gauzatzea planteatzen eta eskatzen du. Beste batzuek erabakitzea gai politikoei buruz. Beste horiek, herritarren taldeek edo erakundeek, boterea partekatu dezakete erakunde politikoetarako hautatutako ordezkariekin, eta azken horiek ez dute jada boterea modu eskusiboan erabiliko. Horren barruan daude, baina dagoeneko ez dira berberak. Beste batzuegan eraldatu dira, besteekin batera” (Ibarra eta Ahedo, 2007 :10)

Proposamen honek eta deliberazio demokraziarenak demokraziaren kalitateari buruzko kezka partekatzen dute. Kasu honetan, ordea, “parte hartzaileek” ez dute hainbesteko arreta jarriko laugarren boterearen barruko argudioen eta eztabaidaren kalitatean, laugarren botere horrek *policy* (politika publikoa) bat sortuko duen auziaren definizioaren hasieran bertan parte hartzeko aukeraren intentsitatean eta bideetan baizik. Herritarren partaidetzarako bitartekoen adibiderik argiena dagoeneko guztiok ezagutzen dugun partaidetzako aurrekontuena da.

Partaidetza eta deliberazio ereduak bereizten dituzten mugak, batzuetan, oso finak dira. Beste era batera esanda, argudiatu daiteke partaidetza aurrekontu bat deliberatiboa dela

partaidetzakoa den neurri berean. Deliberatzea parte hartzea da; parte hartzeko, ordea, deliberazioa ez da beti beharrezkoa. Horregatik, batzuek, modu orokor batean, eztabaidan aurrera egin nahi izan dute, eta, bien arteko mugak ezartzeari baino, bien arteko puntu komunak bilatzeari ekin diote (gogora dezagun: demokraziaren kalitatean sakontzea). Bi hurbilketen arteko akordioetan aurrera egiteko modu bat da berrikuntza demokratikoaren planteamenduak aintzat hartzea. Jarraian, planteamendu horien nondik norakoak azalduko ditugu.

Kontzeptualizazioa, zertaz ari gara berrikuntza demokratikoei buruz hitz egiten dugunean?

Lan honetan, “berrikuntza demokratikoak” nozioa (BD aurrerantzean) modu zabalago batean erabiltzen da, eta horren bidez ordezkartzeko demokrazien testuinguruan emandako deliberazioko edo partaidetzako demokratizazio prozesuak izendatzen dira. Bai gizarte zibilak erakundeen sisteman “agertzeko” estrategien bidez, bai erakundea herritarrei ireki, eta parte hartzeko “gonbit” egiten dien dinamiken bidez. Guk, zehazki, bat egiten dugu demokraziaren teorian espezializatutako Graham Smith politologoaren proposamenarekin. Harentzat berrikuntza demokratikoek bere burua demokratikotzat duen zeinahi sisteman gutxienez dauden lau ondare demokratikotan sakontzea bilatzen dute: inklusibitatea, herri kontrola, erabaki publikoak epaitzeko herritarren gaitasuna, eta gardentasuna erabakiak hartzeko prozesuetan (Smith, 2009, 12-13 or.)²⁹.

Smith-en arabera, inklusibitatea berdintasun politikoa partaidetzaren gutxienez bi alderdietan gauzatzeko modua da: presentzia eta ahotsa. Hau da, berrikuntza demokratiko batek, halakoa izateko, gaur egun ezagutzen dugun ordezkartzeko demokrazia ereduaren erabilitako inklusio nozioa zabaltzeko eta horretan sakontzeko borondatea eduki behar du, eta horretarako bermatu egin beharko ditu tradizioz erabakiak hartzeko espaziora sartu ez direnen presentzia eta ahotsa. Herri kontrolari erreparatuta, Smith-ek adierazten du aztertu egin behar dela BD esperientzietan parte hartzen duten pertsonen zer eragin maila duten, erabakiak hartzeko prozesuaren hainbat alderditan. Hortik ondorioztatzen dugu BD orok, gutxi-asko, erabakiak hartzeko prozesu bat sortzeko borondatea duela, non herritarrek parte hartuko duten. Erabaki publikoak epaitzeko herritarren gaitasunaz hitz egitean, Smith-ek

²⁹ Smith-ek ez du BDren definizio bat proposatzen, baina lanerako erabiltzen duen eredu analitikoaren bidez hainbat BDren arteko alderaketa egin daiteke. Smith-entzat alderaketa horiek egin daitezke, lau ondare horien agerpen mailaren bidez. Lan honen bidez dokumentu honen bigarren zatian azaltzen diren hamabost BD esperientzien kalitatea alderatzeko xedea ez badugu ere, Smith-en esparru analitikoak BD bat modura har daitekeenaren mugak ezartzeko balio digu, partaidetza-deliberazio eztabaidak mugatu gabe.

bere alderdirik deliberatiboena azaleratzen du; izan ere, erabaki bat hartzeko unean, esfera publikora iristen den eztabaida maila eta informazio ulergarriaren maila aipatzen ditu. Epaitzeko gaitasunari dagokionez, gure egilearen kezka da ea erabakitzeko prozesuan herritarrek ulertu ote dituzten eztabaidan landutako argudio teknikoak eta herri argudioak. Smith-ek nabarmendutako azken ondare demokratikoa gardentasuna da, eta honela azaltzen du "prozedurak (erabakiak hartzeko prozesuarenak) irekitzea bai parte hartzaileei bai, oro har, publikoari" (Smith, 2009: 12).

Smith-ek, bere eredu analitikoa osatzeko, adierazten du berrikuntza demokratikoko prozesuek eman ditzaketen lau ondare demokratikoak bi erakunde ondareekin osa daitezkeela: eraginkortasuna eta tansferigarritasuna. Lehenengoak "parte hartzeak herritarrengan eta agintari eskudunengan izan ditzakeen kostuei arreta egitea" eskatuko luke, eta, transferigarritasunak "aukera bat emango luke diseinuak beste testuinguru politiko batean aplikagarriak diren ebaluatzeko" (2009: 13).

Laburbilduta, berrikuntza demokratikoko saiakuntzak alderatu ahal izateko, Smith-ek emandako esparru analitikotik, berrikuntza demokratikoko nozio bat atera dezakegu, partaidetza-deliberazio eztabaida inguratzea ahalbidetuko diguna, demokrazian sakontzeko teoriar aurrera egiten jarraitzeari utzi gabe.

Lan honetan, berrikuntza demokratikoko prozesuek edo esperientziek (prozesu edo esperientzia hitzak era berean erabiliko dira, prozesuak denboran luzeago eta egituratuago den errealitate bati erreferentzia egiten badio ere) lehen aipatutako lau ondare demokratikoak berariaz zabaltzeko xedea dute, eta "aparteko" bi erakunde ondare (beti ezin bada ere) eduki ditzakete: eraginkortasun administratiboa eta tansferigarritasuna. "Berariaz" hitzak balio garrantzitsua du hemen. Helburuen adierazpenean edo prozesuaren izateko arrazoian, argi adierazi behar da esperientzia horrek inklusibitatea, herri kontrola, herritarren epaia eta erabakitzeko prozesuaren gardentasuna bilatzen dituela. Lan honetarako hautatu diren hamabost esperientziak euskal BDen adibide bat direla uste dugu.

Bere proposamenean, Smith-ek estatutik sortutako BD prozesuei egiten die erreferentzia; hau da, herri administrazioak edozein mailatan abian jarritako prozesuak. Smith-en BDak gonbidapen bidezko berrikuntza proposamenak dira; estatuak, beraz, herritarrak erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzera gonbidatzen ditu, lau ondare demokratikoetan sakontzeko. Puntu honetara iritsita, eskuartean dugun berrikuntza demokratikoko kontzeptuaren beste elementu bat aipatu behar dugu, Smith-en proposamenean lantzen ez dena. Gure ustez, berrikuntza demokratikoko esperientziak, estatuetako erakundeek ez ezik,

gizarte zibilak ere susta ditzake. Horregatik, agerpen bidezko BD esperientziak ere izan daitezkeela uste dugu, non ekimen osoa edo horren zati bat herritarrena izango den.

Laburbilduta, lan honetan, berrikuntza demokratikoko esperientziak partaidetza eta/edo deliberazio bitarteko gisa ulertuko dira, eta horien sortzaileak (produktuak izan dira) honako hauek dira:

- a) Estatuko administrazioak, esate baterako, partaidetzako aurrekontuak; izan ere, administrazioak bultzatu behar ditu beti, berea baita aurrekontuak diseinatzeko eta exekutatze eskumena.
- b) Gizarte eragileak³⁰, espazio publikoan sartzen direnak erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko. Bigarren horren adibide bat izan daiteke, esate baterako, herritar batzuk elkarteetan biltzea eta asteroko bileren bidez jaien eredu bat diseinatzea udalerrirako, eta gero administrazioarekin biltzea (Bilboko Konpartsak³¹ eta Bilboko Udalarekin koordinatzeko batzordea horren adibideak dira).

Edonola ere, gonbidapen bidez nahiz agerpen bidez izan, gure ikuspegitik, bitarteko horiek, BD izateko, goian aipatutako lau ondare demokratikoetan sakondu behar dute; hortaz, kanpoan geratuko litzateke, erabakitzeko prozesuan herritarrak barneratu baino gehiago, prozesuaren aurretik hartutako erabaki bati zilegitasuna eman nahi dioten esperientziak, horrelakoetan partaidetza teknikak erabili arren (bilera irekiak, foruak, etab.).

Berrikuntza demokratikoak, demokratizazioa eta kapitalen banaketa

BDak, beraz, espazio publikoan ematen diren bitartekoak dira, eta haien helburua da hura zabaltzea eta ondare demokratikoetan sakontzea; hots, inklusibitatea, herri kontrola, herritarren epaia. Definitu ondoren, beste urrats bat egin, eta azaldu dezakegu zergatik erabaki dugun sexu-generoko menderatze maskulinoko sistemaren birsortzearen analisisa horien bidez egitea.

³⁰ Zientzia politikoaren arloan, nolabaiteko eztabaida dago eragile, subjektu edo aktore nozioaren inguruan. Eztabaidaren dimentsio bat semantika da, eta eragile terminoa erabiltzea gomendatzen du, aurreko biak baino inklusiboagoa delako. Terminoen edukiari dagokionez, agentziaren teoriaren ikuspegitik, eragile terminoa proposatzen da, ekiteko eta eraldatzeko haren gaitasuna azpimarratzeko. Era berean, beste egile batzuek, hala nola Pierre Bourdieu-k, eztabaidatu izan dute termino baten edo bestearen erabilerari buruz. Subjektuak edo aktoreak gizabanakoaren ekiteko gaitasuna erakusten duten bitartean, eragileak, Bourdieu-ren arabera, gizabanako oro sistemaren birsorkuntzaren alderdi aktiboa dela adierazten du. Guk eragile terminoa erabiltzea erabaki dugu, Bourdieu-k bezala, birsorkuntzan gizabanakoek esku hartzen dutela uste dugulako, eta birsortzen duten sistema pixkanaka eraldatzeko agentzia dutela sinesten dugulako.

³¹ Bilbori jaien eredu berri bat emateko asmoz lan egiten duten taldeen federazioa.

Gure ustez, berrikuntza demokratiko horiek izaera bereizgarria dute: estrategikoagoak dira, beste prozesu edo egitura politika klasikoekin alderatuta (hala nola hauteskundeak); izan ere, espazio publikoa demokratizatzeko xedearekin sortzen dira, erabaki publikoetatik kanpo geratutako gizarte taldeak izatearen kritikatik abiatuta. Berrikuntza demokratikoko prozedurak boterearen erabilera kooperatiboko modalitate batean kokatzen direla ulertzen dugu, eta, beraz, batuketa positiboko edo aldakorreko modalitate batean (Maiz, 2003). Hau da, boterean aritzeko hainbat modalitate daudela onartuta, horien artean bi bereizten dira nabarmen: bat, *zerbaiterako boterea*³², eragile batek zerbait egiteko botera edukitzea; eta, bestea, *zerbaiten gaineko boterea*³³, eragile batek beste baten gainean duen boterea. Gure ustez, BDen oinarrian *zerbaiterako boterea* edo lankidetzako boterea nagusitzen da, bestelako partaidetza bitarteko klasikoetan baino modu nabariagoan (hauteskundeak). Lankidetzako botere horrek funtzionatuko luke hala herritarren eta estatuaren arteko erlazioetan, nola gizarte eragileen arteko erlazioetan. Aurrekoa gorabehera, eta lanaren sarreran argudiatzen genuen bezala, guk defendatzen dugun hipotesiaren arabera, prozedura horiek ez dira sortzen sexu-generoko menderatze sistemak zeharkatutako gizarte baten zeinahi produktu politikoren azpian dagoen logikarik gabe.

Orain arte esandakoaren ondorio gisa, esan dezakegu, beraz, BD esperientziek, *zerbaiterako* boterearen ideiaaren arabera sortutako estrategiak garatzeko ahalmen handiagoa izanik, aldaketa demokratizatzaileak ekarriko lituzketela, hala herritarren eta estatuaren arteko erlazioetan nola herritarren artekoetan.

Lehenagoetan (estatu-herritarrak erlazioak), BDak demokratizaziorako jarritako bitartekoak direla uste dugu, demokratizazioa herritarren eta estatuaren arteko "lotura ekarriko duen kontsulta babestuago, berdinoago eta zabalago baterako mugimendu garbi" gisa ulertuta (Tilly, 2007: 45). Hau da, BDaren bidez herritarren eta estatuaren arteko erlazioa inplikatzeko duten demokratizazio prozesuak sortzen dira; izan ere, neurri batean, eskubideez gozatzen duen biztanleriaren segmentua handitzen da, desberdintasunak murrizten dira herritarren kategorien artean eta horien barruan, herritarrak babesten dira estatuaren balizko erabaki arbitrarioetatik, eta aurrerapauso bat ematen da elkarren arteko lotura areagotuko den kontsulta baterako, non herritarrek ahotsa izango duten.

³² "Zerbaiterako boterea aktore baten jarduteko gaitasuna da, bere intereseko zerbait lortzearen. (...) Gaitasun intrantsitibo bat da eta, horregatik, batuketa positibo edo aldakorrekoa: beste aktore batzuek boterea murriztu gabe sor daiteke" (Maiz: 2003: 15).

³³ Ramon Maizek idazten duenez, zerbaiten gaineko boterea zera da: "aktore baten gaitasun estrategikoa eta erlazionala helburuak beste aktore batzuen portaera aldatuta lortzeko (...), subjektua eta objektua inplikatzeko du, interferentzia erlazio legitimo bat (autoritatea) edo arbitrarioa (menderatzea)". (Maiz, 2002: 13).

Bigarrengoetan (gizarte eragileen arteko erlazioak), zerbaiterako boterearen logika horrek, hainbat ikerketatan erakutsi den moduan (Osorio, 2004; Suso, 2008; Martínez, 2012), ahalmena izan dezake gizarte eragileen arteko erlazio desberdintasunetan aldaketak sortzeko, bazterrean dauden taldeak ahalduztzeko, gizarte talde oro markatzen dituzten menderatze sistemak (sexu-genero, arraza, klasea, sexu desira, etab.) pixkanaka indargabetzeko, eta herri kontrola areagotzeko baldintzak prestatzeko.

Gure ustez, BDek partaidetzako bitarteko klasikoek baino ahalmen handiagoa dute, eragile baten gizarte posizioa egituratzen dituzten kapitalen formak berdintasun handiagoz banatzeko. Eragile batek eduki ditzakeen kapitalen formen metaketan BDek izan dezaketen eragina azaltzeko, Pierre Bourdieu-ren erreminta kaxako nozio batzuk erabiliko ditugu, jarraian argituko ditugunak.

Bourdieu-ren arabera, eragile baten posizioa eremu sozialean³⁴, eragile horrek eskura dituen kapitalek baldintzatzen dute. Hala, soziologo frantsesak lau kapital forma nagusi bereizten ditu: ekonomia kapitala, gizarte kapitala, kultura kapitala eta kapital sinbolikoa. Azpimarratu nahi dugu, hortaz, lankidetzako boterearen adierazpen diren BD horiek kapital horien -menderatze iturri- banaketa bidezkoan eragiteko ahalmen handiago dutela boterearen forma klasikoek baino.

Kapital formak berrikusiko ditugu, labur-labur, eta gero, txostenaren hirugarren zatian, praktikan nola mobilizatzen diren ikusiko dugu.

Bourdieu-ri jarraituta, gizarte kapitalak "(...) gizarte erlazioen sare iraunkor bat izateari edo talde egonkor bateko kide izateari lotutako kapital forma bat izendatzen du, eragileak bere estrategietan mobilizatu dezakeena. (...) Eragile partikular baten gizarte kapitalaren bolumena baldintzatzen dute, batetik, hark mobilizatu ditzakeen konexioek, eta, bestetik, hari lotutako konexio bakoitzeko duen kapital (ekonomikoa, kulturala eta sinbolikoa) bolumenak" (Bourdieu, 1985: 248). Beraz, gizarte eragile bakoitzak bere proiektuak eta estrategiak aurrera eramateko mobilizatu ditzakeen gizarte sareen kopurua da. Partaidetzaren arloan, eragile batek gizarte mugimenduekin eta bitartekoari buruzko informazioa duten eragin handiko pertsonekin dituen loturek partaidetza baldintzatu dezakete, gero ikusiko dugun moduan.

Kultura kapitalari dagokionez, modu zabalean, jakintza agertzeko askotariko formen metatze gisa definitu dezakegun arren, Bourdieu-k (1986) *The Three Forms of Capital* testu

³⁴ Gizarte espazioan ematen den gizarte erlazioen multzo espezifikoa eta sistematikoa.

ezagunean hiru motatakoa izan daitekeela azaltzen du: “barneratutako egoeran dagoena (*embodied*), esate baterako, buruaren eta gorputzaren bitarteko iraunkorretan; egoera objektibatuan dagoena, kultura ondare gisa (liburuak, argazkiak, hiztegiak, etab.), eta egoera instituzionalean dagoena, aparte aztertu beharreko egoera objektibatu bat (...), kultura kapitalari propietate guztiz originalak ematen dizkiolako.” (batez ere, titulu akademiko instituzionalak dira -lizentzia, doktoregoa, etab.-) (Bourdieu, 1986: *online*³⁵).

Ekonomia kapitalak, bestalde, gizarte eragile batek metatutako ondare materialei eta diruari egiten dio erreferentzia, gizarte kapitalista klasedun batean haren gizarte posizioa definitzen baitute.

Amaitzeko, kapital sinbolikoa dugu. Bourdieu-ren arabera, “zeinahi kapital mota da (ekonomikoa, kulturala, soziala, etab.), gizarte balioa emateko gaitasuna duten gizarte eragileek onartzen duten neurrian” (Bourdieu, 1993: 55). Testu horretan bertan, Bourdieu-k botere sinbolikoaren agerpenaren adibide argigarri bat ematen du: ohorea, mediterraneoko gizarteetan, kapital sinbolikoaren forma tipiko bat da, ospearean (botere hori beste pertsona batzuek onartzea) bidez gauzatzen dena. Aldi berean, kapital sinboliko hori hainbat modutan ager daiteke, eta horien artean bi nabarmentzen ditugu, txostenaren emaitzen analisisian garrantzitsuak izango direlako: hizkuntza kapitala eta kapital politikoa. Lehenengoak hitz egiteko, adierazteko eta diskurtso bat sortzeko gaitasunari egiten dio erreferentzia, eta lotuta dago, besteak beste, hizkuntza kodeen ezagutzari, hizkuntzen ezagutzari, adierazten jakiteari, etab. Ikus daitekeenez, kultura kapitaleko jarrera baten gizarte aitortzari lotuta dago (hizkuntzak ongi ezagutzea edo hiztegi formala erabiltzen jakitea kultura izateari lotuta dagoen neurrian). Kapital politikoa (lanaren sarreran definitu dugun eremu politikoari lotutakoa) politika egiteko onartutako gaitasuna izango litzateke. Azken batean, eragile baten gaitasuna da, bere interpretazio politikoak gizartean eragiteko aukera gehiago izan dezaten.

Lankidetzako (*zerbaiterako*) botere motaren erabilera zehatzen agerpenen bidez, berrikuntza demokratikoko esperientziak -sarreran genioen moduan ordezkartzeko demokraziaren krisia agertuz geroztik areagotzen ari direnak- Smith-ek bereizitako lau ondare demokratikoetan (inklusibitatea, herri kontrola, epaia eta gardentasuna) sakonduko duten prozesuak izan daitezen, esperientzia horiek demokratizatzeko gaitasun handiagoa izango dute (eta horrela aurkezten dira), alde batetik, herritarren eta estatuaren arteko erlazioetan,

³⁵ <https://www.marxists.org/reference/subject/philosophy/works/fr/bourdieu-forms-capital.htm> [2015eko urtarrilaren 26a]

eta bestetik, gizarte eragileen artekoetan. Lehenengoak, Tilly-ri jarraituta, herritarren eta estatuaren arteko erlazioetan hedadura, berdintasuna, babesa eta lotura areagotzeari erreferentzia egiten dion bitartean; bigarrenak -herritarrek elkarren artean lotzen dituenamenderatze erlazio objektibatuak eta barneratuak eraldatzeko gaitasunari egiten dio erreferentzia. Azken horiek, Pierre Bourdieu-ren arabera, erabateko lotura dute parte hartzen duten eragileen gizarte posizioarekin, zeina beren kapitalen eskuragarritasunaren arabera zehaztuko baita.

Adierazten ari garen moduan, partaidetzako demokraziaren teoriaren hipotesiekin bat etorrita, BDak demokratizazio esperientziak direla ulertzen dugu. Haatik, esperientzia horiek politika, gizarte eta ekonomia testuinguru batean sortzen dira, eta horren ezaugarri bat "sexu-generoko menderatze sistema bat" egotea da (Mouffe, 1984), gure iritziz, BDen demokratizatzeko gaitasuna murrizten duena horren baitan gertatzen diren tentsio batzuen bidez (publiko-pribatua; emozio-arrazaia; hegemoniko unibertsal-mendeko pribatua). Bestela esanda, bokazio demokratizatzailea izango duen BD bitarteko bat sor daiteke, sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema bat birsortuko ez duen estatu edo estatuaren eraginpeko eragile patriarkal batetik? Gure erantzuna da, sarreran aurreratu dugun moduan, menderatze sistema hori pixkanaka indargabetuko duten bitartekoak sor daitezkeela; baldin eta, horrelakoak sortzen eta horietan parte hartzen dutenek sistema zer kontraesanen bidez birsortzen den jakinez gero (bai egoera barneratuan, bai objektibatuan). Hori bera emakumeen parte hartzearen arloari eramanda -horri buruz ari baikara-, berrikuntza esperientziak, gaur egun ezagutzen ditugu eran, espazio publikoan erabakiak hartzeko prozesuetatik tradizioz baztertuak (emakumeak, etorkinak, etab.) izan diren eragileak barneratzeko bidean aurrera egiteko sortzen badira ere, azken batean, SGMM sistemak menderatzen duen testuinguru batean sortutako produkzio soziopolitikoak dira, eta emakumeen parte hartzea mugatzen dute, bai maila objektibatu batean (l. kapituluaren aipatutako faktoreei lotuta dagoena) bai maila barneratu batean (lur itsaskorrari lotuta).

Testuinguru horretan, gure iritziz, garrantzitsua da partaidetza berritzailearen bidez sistema hori birsortzen eta mantentzen dituzten tentsioak -emakume askok kontraesan modura bizi dituztenak- identifikatzea, eta horiek pixkanaka indargabetzen jarraitzeko dagoeneko erabiltzen ari diren estrategietan arreta jartzea (arreta berezia jarrita kontrapublikoan).

III. Kapituluua. Sexu-generoko menderatze maskulinoko sistemaren kontraesanak eta birsorkuntza

Aurreko kapituluetan azaltzen saiatu gara, batetik, ikerketa hau zer testuingurutan ulertua izatea nahiko genukeen, eta, bestetik, ikerketan erabili ditugun zenbait tresna kontzeptualen esanahia (hala nola, BD, Kapitala, Boterea). Horrez gain, beharrezkotzat jo dugunean (esate baterako, emakumeen parte hartzeari lotutako oztopoen eta estrategien azterketa), aldeztu aurretik egindako azterketak aipatu ditugu, eta baliagarriak izan zaizkigu lantzen ditugun arazoen alderdi batzuk zer egoeratan dauden jakiteko. Hirugarren kapitulu honetan, gure interpretazio eredu teorikoa proposatuko dugu. Lanaren hasieran genion moduan, teoria feministak opresio sistemei buruz egindako lan asko erabili ditugu, askotariko diziplinetatik egindakoak, hala nola zientzia politikoa, soziologia, antropologia, historia eta psikoanalisiak.

Gure ikerketaren garapenean, oraindik biografia guztiak egin gabe zeudenean eta, beraz, errealitatearen zati handi bat ezagutzen ez genuenean, emakumeek kontaktzen ari zizkiguten pasarteak oinarri hartuta identifikatu zitezkeen jada berrikuntza demokratikoaren espazioen antolakuntzan eragina duten hiru tentsio/kontraesan. Hiru tentsio horiek landu izan dira, bereizita, teoria feministaren hainbat ikuspegitik, eta horietako bakoitza, beraz, sakontasunez azter daiteke aldagai independente gisa.

Genioen moduan, tentsio horiek identifikatu ahal izan ditugu, ikerketan parte hartu duten emakumeek beren biografien bidez emandako gakoetan erabateko arreta jarri dugulako. Lagungarria izan da, halaber, hainbat diziplinetatik egindako zenbait lan teorikoren berrikuspen eta interpretazio oso pertsonala egitea; lan horien xedea, izan ere, menderatze maskulinoko sistema zer bitartekoren bidez mantentzen eta birsortzen den azaltzea da. Entzutea, ulertzea, irakurtzea, aditzea, kontrastatzea eta interpretatzea batera eman dira ikerketa osoan (edo horretan saiatu gara, behintzat).

Carole Pateman-ek, Cristina Molina Petit-ek edo Linda Nicholson-ek askotan azpimarratu dute zer nolako sarbide pribilegiatua eskaintzen duen menderatze maskulinoko sistema aztertzeak, generoen arabera espazioen banaketaren arabera. Publikoa/pribatua dikotomia eta horrek emakumeen eta gizonen askatasunean dituen ondorioak aztertzeak esan nahi du, besteak beste, menderatze maskulinoko sistema espazioak sexuaren arabera – eta ez ausaz – antolatzen eta banatzen duen sistema gisa definitzea. Espazioan mugitzearen eta egotearen esanahi soziala aztertzea lagungarria da publikoari begirako subjektibotasun bat eta pribatuari begirako beste bat dagoela ulertzeko, baita emakumeek gaur egun tentsio

horren eta sexu-generoko menderatze sistemaren beste tentsio batzuen aurrean eusteko erabiltzen dituzten formak eskuratzeko ere. Zenbait egilek, hala nola Almudena Hernando-k eta Martha Nussbaum-ek, arrazoa/emozioa dikotomia aztertu dute, emakumeen gizonekiko lotura eta menderatze maskulinoko sistema baten existentzia azaltzeko. Emakumeak natura eta emozioarekin eta gizonak kultura eta arrazoiarekin identifikatzearen ondorioz, mugatu egiten da emakumeen bizi proiektuen garapena. Ilustrazioarekin eta arrazoa nagusitzearekin, eta individualizazio prozesua gizakiak bere arrazoa eskuratzeko eta erabiltzeko prozesutzat identifikatzearekin batera, emozioa eta arrazoa bereizi ziren, bigarrena lehenetsiz lehenengoaren aurrean. Kategorizazio horrek balioa gutxitu dio tradizioz "izaki emozionaltzat" hartu izan denari, hots: emakumeari.

Azterketa horren ondorio gisa, ikuspegi politologiko batetik, sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema nagusiki definitu izan da; alde batetik, espazioak eta lanak esleitzeko eta definitzeko gaitasunetik abiatuta (publikoa-pribatua dikotomia), eta, bestetik, arrazoa eta emozioa bereizten dituen sistema gisa; hala, lehenengoa gizonei eta maskulinitateari lotzen zaio, eta bigarrena, berriz, emakumeei eta feminitateari; gainera, lehena lehenesten da bigarrenaren aurrean (horrela arrazoa-emozioa dikotomiak garrantzia hartzen du). Tentsio/kontraesan horiek mundua izendatzen duten kategoriak antolatze modu bat dagoelako sortzen dira, eta hor agertzen zaigu, hain zuzen, hirugarren tentsio/kontraesan bat, lan honetan honela identifikatuko duguna: "unibertsal bihurtzeko bokazioa duen menderatzailea, subalternoaren aurrean". Lehen identifikatutako bi tentsioak ematen dira kategoria bat (arrazoa eta publikoa) sozialki beste kategoria baten (emozioa eta pribatua) gainetik (goian-behean) dagoelako. Goian dagoen guztiak prestigio handiagoa du, behean dagoenak baino. Horregatik azpimarratzen genuen lehen SGMM sistema antolakuntza hierarkiko batean oinarritutako sistema bat dela, batez ere, eta boterea menderatzeko modu gisa finkatutako jokoaren logika batez egituratzen dela. Unibertsal bihurtzeko joera duen antolakuntza horren azpian menderatze mota bat dago. Identifikatutako hirugarren kontraesanaren arabera, sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema honela definitu daiteke: bizi esperientzia (maskulinoa) baten bidez sortutako ikaskuntzak eta ereduak unibertsal bihurtu nahi dituen sistema bat. Hau da, SGMM sistema asmo unibertsalizatzaileak dituen sistema bat da, menderatzailea mendekoaren gainetik hierarkizatzen duena. Horrek guztiak bizi esperientzia maskulinoa eredu bakartzat hartzearekin du lotura. Laburbilduta, hirugarren tentsio horrek hierarkien sistema baten unibertsalizatzeko asmoak azaltzen ditu, non publikoak eta arrazoiak prestigio handiagoa duten pribatuak eta emozioak baino.

Ikerketa honetan defendatzen dugu sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema definitzeko forma horiek guztiak baliagarriak eta elkarrekiko osagarriak direla. Gure ustez, gainera, menderatze sistema batek horretan parte hartzen duten eragileen proiektuei zer modutan eragiten dien ahal den neurrian azaltzeko, gizarte bitarteko bat aztertu nahi badugu, emankorra izan daiteke emakumeentzat hiru kontraesan horiek agertzeko modu zehatzetan arreta jartzea. Zehazki, ikerketa honetan landu dugun ideiaren arabera, kontraesan horiek, gutxi-asko, gizarte erlazioetan esku hartzen duten gizarte instituzio eta egitura guztietan agertzen dira, berrikuntza demokratikoko bitartekoak barne.

Horrez gain, lehen genioen moduan, ikerketaren oinarrian tentsio horiek modu objektibatu³⁶ batean eta modu barneratu³⁷ batean agertzearen ideia ere hortxe dugu. Esate baterako, familia instituzioaren ikusmolde patriarkalak (gizona ogia dakarrena da - emakumea familiako egitura afektiboa mantentzeko arduraduna) emakumeari esleitzen dio espazio bat (pribatua), funtzio bat (zaintza) eta esfera bat (emozioena). Era berean, sistema horrek baldintza egokietan funtzionatu dezan, gizarte egitura eta instituzio batzuen bidez (eskola, hedabideak, lagunak) familia mota jakin eta partikular bat unibertsala izatearen ideia zabalduko da, eta SGMM sistemaren esparruan proposatutako hierarkia kontzeptuala urratzen duten beste familia forma batzuk (esate baterako, guraso bakarreko familiak edo sexu bereko pertsonen osatutako familiak), berriz, alboratu egingo dira, gutxi-asko sotilak (legezko errepresiotik, barregura ematen duten gaitzespen sotileraino) izan daitezkeen bitartekoen bidez. Aldi berean, familia eratzeke modu hori hainbat instituzioren bidez (eskola, hedabideak) transmititzen da, emakumeek eta gizonen ama edo aita izateko modu hori barneratu eta bereganatu dezaten; horrela, genero rola birstortzen dituzten egitura mentalak sortzen dira, eta ama batek errudun sentimendua izango du, bilera batera joaten denean seme-alabak bakarrik utzita. Ikuspegi honetatik, formala eta sotila, egiturazkoa eta agentziala, kontzientea eta inkontzientea osorik aztertzen dira.

Sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema

Aurreko bi kapituluetan, Chantal Mouffe (1984) belgikar filosofoak proposatutako sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema terminoa erabili dugu. Horren bidez, maskulinoa femeninoaren gainetik jartzen duen hierarkia batean oinarritutako erlazio

³⁶ Espazio publiko eta pribatuaren generoaren arabera banaketa gertaera bat da. Erabakiak hartzeko guneetan emakumeek gero eta gehiago parte hartzen duten arren, esfera publikoak kutsu maskulino nabarmena du oraindik.

³⁷ Lekukotza askotan, emakumeek diskrezioaren zama sentitzen dutela esaten dute; diotenez, gorputzaren gehiegizko mugimenduak kontrolatzeko diskrezioz jokatu behar dutela sentitzen dute, keinu gehiegi egin gabe, atentzioa gehiegi deitu gabe; azken finean, pribatuak izanik espazio publikoan.

sistema bat izendatzen da, gizonen eta emakumeen arteko erlazioak antolatzen dituen eta guztiari eragiten diona³⁸.

Izaera ahistorikoagatik patriarkatu terminoa erabiltzeari egindako kritika marxistarekin bat etorrita, 1984an, Madrilen, *Jornadas de Feminismo Socialista* izenburuan egindako jardunaldi batzuetan, Chantal Mouffe-k sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema terminoa proposatu zuen, Rubin-ek 1975ean proposatutako sexu-generoko sistema oinarri hartuta. Rubin-ek honela definitu zuen: "gizarte erlazioen sistema bat, sexualitate biologikoa giza jardueraren produktuetan eraldatzen duena eta behar sexual historikoki espezifikoak biltzen dituen" (Rubin, 1975). Bere proposamenaren bidez, Rubin-ek azalpen sozial bat, ez biologikoa, ematen zion gizonen eta emakumeen arteko botere desorekari. Mouffe bat dator proposamen horrekin, baina ñabardura hau gehitzen dio: "sistema horrek maskulinitatearen edo feminitatearen ezaugarriak ez ezik, horien arteko erlazio mota ere definitzen du, zeina, teoriarik, izan baitaiteke berdintasunezkoa, menderatze maskulinokoa edo menderatze femeninokoa. Bistan denez, ezagunak diren gizarte gehienetan menderatze maskulinoa duen sexu-generoko sistema dugu. Bereizketa hori, ordea, sozialki eraikitzen da beti, eta ez da desberdintasun biologikoen emaitza" (Mouffe, 1984: 451).

Mouffe-ren arabera, sistema terminoak menderatze maskulinoan oinarritutako erlazioen antolaketa zer modu konplexuan egituratzen den erdizka erakusten digu, eta gu bat gatoz ideia horrekin. "Sistema" nozioak antolaera jakin bati zentzua ematen dioten instituzioak egituratzeko konplexutasunaz ohartzeko aukera ematen du. Nozio horrek ongi erantzuten die menderatzearen alderdi barneratuari (*embodied*) nahiz formalari. Mouffe-ren planteamendua hedatuta, menderatzaile femeninoko SGS matriarkal batean, emakumeek gauzatuko lukete *zerbaiten gaineko* boterea. Berdintasunezko sistema bat, berriz, genero kategoriarik gabekoa izango litzateke, kategoriak berak menderatzea baitakar. Amaitzeko, SGMM sistema batean, gizarte egiturak eta instituzioak gizonak emakumeei (haien gainetik egon) nagusiko zaizkiela bermatzeko antolatzen dira. Azken batean, lan honetan SGMMS nozioa lehenetsi badugu ere, gaur egungo testuinguruan uler daiteke, halaber, patriarkatua eta sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema sinonimoak direla, Celia Amorós filosofoak adierazi duen moduan (1992: 41-58).

Edonola ere, SGMM *zerbaiten gaineko* (gizonak eta maskulinoa emakumeen eta femeninoaren gainean) boterearen logikan oinarritutako hierarkizazio sistema bat da, batez ere. Sistema

³⁸ Erabaki dugu "x" erabiltzea hizkuntzaren erabilera inklusiboa bermatzeko; hortaz, nahi duen orok bere burua ordezkaturik ikusiko du.

horrek gizarte gertaerei esanahia ematen dieten kategoriak antolatzen ditu, batzuk besteen gainean egotearen hierarkiaren arabera; hots, maskulinoa femeninoaren gainean. Horrez gain, sistema horrek antolatu du pentsamendu politiko klasikoa hasiera-hasieratik.

Jarraian, gure ikerketaren protagonisten estrategiak identifikatzeko eta oztopoak ulertzeko baliagarriak izan zaizkigun tentsioak aztertuko ditugu banaka.

Publikoa eta pribatua aurrez aurre

“Pribatuaren eta publikoaren arteko dikotomiak oinarritzko eginkizuna bete du, testu eta borroka politiko feministako ia bi mendeetan. Egia esanda, dikotomia horretan datza, funtsean, mugimendu feminista (Pateman, 1996: 31)

Sarreraren genioen moduan, egile askoren iritziz, espazio publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomia menderatze maskulinoko sistemen oinarria da; izan ere, dikotomia horren analisiaren bidez “agerian jar daiteke patriarkatuak botere (zerbaiten gainean) forma gisa duen ezaugarri deigarrienetako bat; hots, femeninoaren espazioak esleitzeko (eta izendatzeko) gaitasuna” (Molina Petit, 1994:24)³⁹.

Pentsamendu liberalak publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa klasikoari –aurreko atalean Aristoteles, Rousseau edo Prodhom-en pentsamenduan azalduta ikusi duguna– propietatearen ideia gaineratzen dio, eta pribatuaren ideiarekin barruan propietatea eta etxekotasuna bereizten ditu, Cristina Molina Petit filosofoak *Dialéctica feminista de la ilustración* (1994) lanean azaldu zuen bezala. Egileak bere lanetan deskribatzen du nola liberalismoak pribatu-etxekoaren kontzepzio bat heredatzen duen pentsamendu politikoaren tradizio klasikotik, non pribatua emakumeei erreserbatutako “politika-aurreko” esfera bat den. Politika-aurreko esferaz mintzo da; hain zuzen, “beharraren esferari” lotuta dagoelako eta natura egoerari lotuta jarraitzen duelako. Carole Pateman-ek proposatutako irudi politikoaren arabera, kontratu sozialaren⁴⁰ aurreko “kontratu sexualari” lotuta egotearen ondorioz emakumeek bizi duten lotura egoera da.

Pentsamendu politiko klasikoaren tradizioak esfera pribatua oinarritzko premiei –zaintza, ugalketa, nutrizioa, etab.– erantzuteko esfera gisa ulertzen du. Hortaz, soilik bizitzaren

³⁹ Letra etzana testu zatietan eta aurrerako partaidetzaren kontakizunetan erabiltzen dugu, eta horren bidez lan honen egileen oharrak eta zehaztasunak bereizten ditugu.

⁴⁰ Teoria kontraktualistaren arabera, kontratu soziala gizakiek segurtasuna eta ongizatea eskuratzeko modua da. Gizakiek bere askatasunen zati bat izaki handiago baten esku uztea onartzen dute, bizikidetzaren izenean (Rousseau), berezko egoismoari amaiera emateko (Hobbes) edo desberdintasunak mugatzeko (Locke). Askatasunaren izenean eta patriarkaren boterearen aurka sinatutako itun hori alde aurreko kontratu baten sinaduraren bidez egiten da, zeina ikusezin geratu baita historiaren begietara Carole Pateman pentsalari politikoaren arabera: kontratu sexuala (Pateman, 1988, v.e 1995). Kontratu (irudizkoa) horren bidez, gizonek erabakitzen dute, emakumeen oniritzia izan gabe, ezkontzaren eta prostituzioaren bidez bermatuko dela gizon bakoitzeko emakume bat, lehen kasuan, eta emakume talde komun bat gizonentzat, bigarren kasuan.

oinarrizko premia horiek konpondu ondoren sar daiteke esfera publikoan, goza daiteke aisialdiaz eta izan daiteke herritar bertutetsu bat. Bestela esanda, soilik joan daiteke auzoko bilera batera, baldin eta gaixorik ez badago, jan bada, edo existitzen bada. Molina-k dio, modu egokian gure iritziz, liberalismoak, premiaren ideia horri eusteaz gainera, propietate nozioa gehitzen duela; horrela, pribatua "intimo" bihurtzen da eta, beraz, gehiago baloratzen da. Hau da, pribatua bereizteko eta norberaren berezkotasuna azpimarratzeko modu bat izatera pasatzen da. Pentsamendu klasiko liberal ilustratu horren baitan, "emakumeak ez dira gizabanakotzat hartzen, propietaterik ez dutelako"; hori dela eta, emakumea esfera pribatuaren etxekotasunari lotuta bakarrik irudikatzen da. Emakumeen etxeko erabilera iraunarazten duten erakundeei forma eman nahian, Carole Pateman-ek emakumeen etxekotasuna mantentzeko bi egitura identifikatzen ditu: ezkontza eta prostituzioa. Horien bidez, emakume bat bermatzen zaio gizon bakoitzari, eta emakume komunitarioen talde bat, gizon guztiei.

"Kontratu sexual" horrek ahalbidetuko du emakumeek familiarako "etxeko" lana egitea (lan gisa aintzat hartzen ez dena, soldatarik ematen ez delako), beren senarrek (gizonak) espazio publikora sartzeko eta bertan parte hartzeko aukera izan dezaten (Molina Petit, 1994: 106-108). Hemen azpimarratu nahi dugu espazio pribatuaren eta etxekotasunaren arteko lotura horrek emakumeari, leku jakin bat esleitu baino gehiago, ezaugarri batzuk ematen dizkiola; alegia, etxeko emakume baten nolakotasunaren gaineko arau bat eraikitzen du (sortzen du gizartean). Batzuetan subjektibotasun⁴¹ gisa izendatu dena lantzen du, hau da: bere gorputza mugitzeko eta prestatzeko modu bat (eta berea izateari uzten diona horregatik), familia eta etxeko berotasuna zaintzeko xedea duena. Orain arte defendatu dugun moduan, etxekotasun horrek herritar bati auzi publikoaz arduratzeko aukera ematen dio. Partaidetzako demokrazia eredu baten defendatzailatzat jo dezakegun teoriagile kontraktualista baten ekarpenei buruzko gogoeten harira, Molina Petit-ek zera gogoratzen du: "Rousseau-ren herritarra posiblea da, emakumeak (*Sofiak*) esfera pribatuan daudelako, eta emakumeek, sentimendua eta desira izanik, premia afektiboei erantzuten diete; alabaina, pasioa ordezkatzeko dutenez, arrazoien mende eduki behar dira, herritarren ordenak bere horretan jarrai dezan" (Molina Petit, 1994: 85). Horregatik, espazioen zatiketa lekuen banaketa hutsa baino zerbait gehiago da: kontzeptualizazio zabalago bat da, lanei dagokiena

⁴¹ Marcela Lagarde-ren arabera "subjektuak munduaz eta bizitzaz duen kontzepzio partikularra (...) kontzientek eta inkontzientek, fisikoak, intelektualak, afektiboak eta erotikoak diren arauak, balioak, sinesmenak, hizkuntzek eta mundua ikasteko moduek osatutakoa" (Lagarde, 1990: 319).

eta pribaturako borondatea duen subjektibotasun bat eratzen duena, "Sofiaren sindrometzat" jo genezakeena (pribatuari begirako izaera bat eta jarduteko modu bat).

Horrela, emakumeak etxekotasun horretan oinarrituta kontzeptualizatuko dira modernitate osoan. Emakume pribatua, "kontratu sexual bati" lotutakoa, etxeko emakumetzat hartuko da, "emazteama" bat⁴² (Lagarde, 1990), eta familiaren adiera (ezkontzan sortutakoa) patriarkalaren, amatasunaren, eskolaren eta beste gizarte instituzio batzuen bidez etxeko zaintzan eta horri lotutako lanetan espezializatuko da: janaria prestatzea, eta familiako giro osasuntsua zaintzea eta mantentzea, besteak beste.

Atal honetan, banaketa horrek SGMM sistema baten birsorreran eragiteko aukera agerian uzten da, baita berrikuntza demokratikoko espazio zehatzetan ere. Azken horiek esfera publikoan emandako demokratizazio prozesuak dira, non interes orokorreko hartutako gaiak lantzen diren gehienbat eta oso gutxitan heltzen zaien "etxeko" gaiei.

Berrikuntza demokratikoen teoriak, begirada esplizituki feministarik ez duenak, gutxitan aztertzen ditu familia barruko botere erlazioak, eta teoria horretan gutxitan aurkituko ditugu partaidetzaren ikuspegitik ordezkartzeko ereduari eginiko kritikak, non espazioen generoaren arabera banaketa kalitate demokratiko gutxi adierazle gisa aipatu den. Haatik, jarrera esplizituki feministetatik, eta erabakiak hartzeari lotutako partaidetza moduen bidez espazio horien banaketa horren birsorrerari dagokionez, Carole Pateman-ek adierazten du sakontasun demokratikoa aireportuetan, hipermerkatuetan eta, oro har, etxeetan eman behar dela (Pateman, 1987:222). Deliberazioaren teoriagileek antzeko argudioak eman dituzte; eta, horien artean, Phillips-ek, "eguneroko bizitza demokratizatzearen" garrantzia azpimarratu du (Phillips, 1991: 2). Phillips-ek nabarmendu du zer-nolako kaltea egiten duen demokrazia liberalean autokonplazentziak, bere promesa guztiak ase dituelakoan, "autokonplazentzia hori oztopo handi bat da demokratizazioa areagotzeko" (Phillips, 1996: 91). Egilearentzat irrigarria da pentsatzea demokrazia osatuta dagoenik, emakumeak metodo demokratikoan orain dela gutxi sartu direla aintzat hartuta (boto eskubidea). *Engendering Democracy* lanean, azpimarratzen du, besteak beste, mugimendu feministaren tradizio demokratikoa, eta adierazten du, bosgarren kapituluan, mugimenduak berak, barne antolakuntzan, erroko jarduera demokratikoak erradikalizatu dituela, bere espazioen demokratizazioaz arduratuta. Aurrerago ideia hori hainbat modutan aztertuko baldin badugu ere, Phillips-ek gogoratzen du, esate baterako, Ipar Amerikako

⁴² Marcela Lagarde antropologo feministak erabilitako kategoria amatasunak eta ezkontzak emakumeen bizitzan duen egiturazko pisuari erreferentzia egiteko (ikus XI. kapitulua, Legarde, 1990).

60ko hamarkadako feministek hitz txandak banatzen zituztela, disko kopuru mugatu baten arabera, edo sorkuntza lanak eta lan errepikakorrak bereizten zituztela, gonbidatu guztiei bietan parte hartzera gonbit eginez.

Lan honen II. kapituluari aipatu dugun moduan, berrikuntza demokratikoko bitartekoak espazio publikoa demokratizatzeko diseinatzen dira, espazio publikotik bertatik. Hortaz, alde batera uzten da subjektibotasun bat dagoenik etxera bideratuta (ezagunak diren munduko gizarte gehienetan emakumeak horretan gizarteratu dira) eta beste bat publikora bideratuta (gizonak horretan parte hartzeko presatzen dira). Sotila izateagatik garrantzi handia duen dimentsio hori kontuan hartzen ez bada, espazio publikoaren demokratizazio formal hutsak ez du bermatuko, beraz, subjektu subalternoen inklusioa.

Horregatik, I. kapituluari genioen moduan, genero ikuspegitik partaidetza (bai agerpen bidezkoak bai gonbidapen bidezkoak) eta deliberazio esperientziak eta, modu zabalago batean, gizarte mugimenduetan emakumeen esperientziak aztertzen dituzten lanek azpimarratzen dute emakumeek oztopo asko dituztela, teorian, integratzaileagoak diren espazioetan. Egile horiek adierazten dutenez, generoaren araberrako lanen, rolen eta espazioen banaketa prozedura horiei atxikita dago (Gret, 2008; Pateman, 2014; Martínez, 2015), eta, besteak beste, honelako ondorioak ateratzen dituzte: “begirada feministarik gabeko partaidetzako aurrekontuak ez dira inoiz edo ia inoiz sexuen arteko gizarte erlazioak eraldatzen laguntzeko tresnak” (Sintomer, 2008: 276).

Horrez gain, aurreko ikerketa batzuetan hauteman da “kontratu sexualak” emakumeen parte hartze librea eragozten duela (Pateman, 2014) eta “koefiziente sinboliko negatibo femeninoak” (Bourdieu, 1998)⁴³ ondorio ekonomikoak izan dituela partaidetzako aurrekontuetan eta horren antzeko prozesuetan (Martínez, 2015). Hain zuzen ere, kontratu sexualari dagokionez, Porto Alegreko (Brasil) partaidetzako aurrekontuei buruz honako hau genion beste leku batean:

“Parte hartu duten pertsonen profilari buruzko azterketa berriek inola ere berria ez den joera bat berresten dute; izan ere, PAetan gehien inplikatzeko diren emakumeak 50 urteko ezkongabeak dira, eta ezkonduen parte hartze indizea horiena baino txikiagoa da. 2009an, emakume parte hartzaileen % 50,1 ezkongabeak ziren, eta soilik % 24,0 ziren ezkonduak. Gizonei dagokienez, ehunekoetan ez daude horrelako aldeak; izan ere, gizonen % 44,6 ezkongabeak dira, eta % 36,0a, berriz, ezkonduak (Martínez, 2015: prentsan).

⁴³ Bourdieu-ren arabera, “gizarte espazioan edozein maila izanda ere, emakumeek gizonengandik bereizten diren koefiziente sinboliko negatibo bat partekatzen dute, zeinak, beltzen azaleko koloreak edo talde estigmatizatu baten kideatasunak adierazten duten beste zeinahi keinuk bezala, diren edo egiten duten guztiei modu negatiboan eragiten baitie, eta desberdintasun homologoen multzo sistematiko baten hasieran dago” (Bourdieu, 1998: 116).

Koefiziente sinboliko femeninoak emakumeen parte hartzean duen eraginari dagokionez, lehen, agerian utzi dugu, halaber, Porto Alegreko aurrekontuen ordezkartzako organoetan emakumeen presentziaren handitzea bat etorri zela aurrekontuen deslegitimatze egoera batekin:

“Emakumeak erantzukizuneko egituretara sartzearekin batera, PAetan partaidetzaren jaitsiera ziklo bat eman zen, eta inoiz hautemandako pare hartzaileen berrikuntza tasarik txikiena (% 31,7); bi egoera horiek finantza eta krisi egoera batek eragin zituen, PT Porto Alegreko alkatetzatik ateratzea ekarri zuena, baita nolabaiteko interesik ezak eta PAen gizarte deslegitimazioak ere. PAetan herritarren erabakitzeko boterea zalantzan jarri zuten parte hartzaileek, 2002 eta 2005 urteen bitartean. Aurrekontuetan herritarrek erabakitzen dutela irizten dioten pertsonen ehunekoa % 69tik % 57ra jaitsi zen, data horietan (Fedozzi, 2013: 46). Gertaera horrek berresten duen ideiaren arabera, emakumeek erantzukizuneko egituretan izandako igoera azaltzen da krisi egoera batean boterea inork eskuratu nahi ez zuelako edo jokoan ezer ez dagoela pentsatzen zutelako” (Martínez, 2015: prentsan).

Azken batean, orain arte egindako azterketetan, adostasuna dago emakumeen eta gizonen artean “partaidetza desberdintasun bat” egoteari dagokionez, eta horren arabera, emakumeak etxekoari eta gizonak publikoari lotuta daude. (Martínez, 2012; Martínez, 2013; Boetzkes, 1998; Agüera, 2008: 29, Osóro, 2004).

Orain arte esandakotik ondorioztatu dezakegu generoaren araberako espazioaren banaketa ez dela espazio fisikoaren banaketa “hutsa”, emakumeen eskubideei eta nahiei eragiten dieten inplikazio teorikoak eta praktikoak baititu. Hau da, auzia ez da espazioaren esleipen hutsa, baten prestigioaren aurrean besteak balioa galtzea baizik; hau da, Pierre Bourdieu-k “koefiziente sinboliko negatibo femenino” (Bourdieu, 1998: 116) deitu zuen hori. Horren bidez azaltzen zuen, hain zuzen, menderatzaile maskulinoko sistemetan, baloia galtzen zuela automatikoki emakumeekin eta femeninoarekin identifikatutako orok.

Gure iritziz, gogoeta feministarik gabe sortutako Berrikuntza Demokratikoen partaidetzari erreparatuta, publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa hori bi modutara eman daiteke. Alde batetik, argudiatu dugun moduan, espazioaren okupazioan bertan eta horretan gizarteratu denak eta etxeko giroari lotuta egon denak horretan duten trebetasuna. Etxeko emakumearen ideien inguruan gizarteratu denak, ordea, espazio publikorako sarrera urraketa baten modura biziko du, seguru asko. Ez da bakarrik hainbat instituzioren bidez –ezkontza kontratua edo modu patriarkalean ulertutako amatasuna– bere energiak eta denbora xurgatuta espazio pribatuari atxikitzen dioten egitura objektibatuekin haustea, bere gorputza prestatzeko modu jakin batekin haustea baizik. Jarraian, labor bada ere, alderdi horri helduko diogu, eta berriro landuko dugu lanaren hirugarren zatian.

Publikoa-pribatua dikotomia gorputzetan ere haragitzen da Horren erakusgarri dugu “mikromatxismoei” edo egunerokotasunaren sistema sexistaren errepresentazioei buruzko egungo eztabaida, indarkeria forma naturalizatutzat hartuta. Orain dela gutxi, Txileko zenbait talde feministak egindako kanpaina horren adibide bat dugu. Kanpaina horretan, emakumeei animatzen zitzairen gizonak metroan eserita joateko duten jarrera menderatzailea argazkien edo dokumentu grafikoen bidez salatzea. Gizonak maizago eramaten dituzte hankak zabalik, eta emakumeek, berriz, itxi edo gurutzatu⁴⁴ egiten dituzte. Lan honen azaleko irudia beste adibide bat dugu (*Erresistentziak opresioari*, Jaio, 2015). Horren bidez, agerian utzi nahi dugu SGMM sistemaren dimentsio barneratua eta hura birsortzeko naturaltasuna. Esertzeak hankak zabal-zabalik jarrita eta espazio gehiago okupatuta erosotasuna adierazten du; haatik, esertzean, hanka gurutzatzeak, ixteak edo ahalik eta espazio gutxien okupatzeak norberaren gorputzaren gaineko kontrola adierazten du, diskrezioa, etxekotasuna gorputzetik bertatik hasita. Hori dela eta, haustura eta erresistentzia hori dimentsio barneratuan ager daitekeela azpimarratu nahi dugu. Mari Luz Esteban-ek agerian jarri duen moduan, kasu honetan gorputzek hitz egiten dute, parte hartzeko oztopoei buruz ez ezik, parte hartzeko proiektuei eta erresistentziei buruz ere (Esteban, 2013).

Bestalde, emakumeei “sozialki inposatutako agorafobia” horrek (Bourdieu, 1998) publikoari eta pribatuari lotutako lanen eta gaien bereizketa bat dakar. Zaintzak, hezkuntza informala, familiaren antolakuntza eta familiako kohesioa iraunarazteko ardura etxeko gai modura definitzen dira, eta, beraz, etxean denbora gehiago igarotzen dutenei daude lotuta. Bestalde, ekonomia, arkitektura edo politika espazio publikoaren gai eksklusibotzat definitzen dira. Gure ustez, BDetan, kontraesan horren bidez SGMM sistema birsortzea eragin dezaketen askotariko arriskuak daude. BDak espazio publikoan garatzen direla aintzat hartuta, tradizioz espazio publikoan aztertu izan diren gaiak lantzeko joera nagusitu daiteke, bertan denbora gehiago igaro duenaren argudioak eta esperientziak lehenetsita. Horrek etxeko gaiak eztabaida publikotik kanpo geratzea eta dikotomia birsortzea dakar. Beste gauza bat ere gerta daiteke; alegia, etxekotzat jotzen diren gaiak aztertzeako aurrerapausoa ematean, gai horiek emakumeen erantzukizunpean geratzea, eta modu horretan emakumearen etxeko funtzioa esfera publikora hedatzea.

Aukera horien aurrean, BDetan bi esferen dikotomia agertuz gero, eman daitezkeen erantzunak izan daitezke, alde batetik (feminismo liberala), ez eztabaidatzea, hots,

⁴⁴ <http://www.rebelion.org/noticia.php?id=193752> [kontsulta: 2015/01/13]

emakumeak esfera pribatuari lotuta kontzeptualizatu izana sakontasunez ez aztertzea, eta adiskidetze politikak txertatzen saiatzea, etxeko lanak –amatasuna, familia, etab.– eta espazio publikoa uztartzeko. Horrek, batzuetan, emakumeak egin beharreko gauzen zerrendara beste lan bat (eta estres gehiago) gehitzeko arriskua du. Bestalde, erantzuna izan daiteke publikoaren eta pribatuaren arteko banaketak askatasunean dituen ondorioak onartzea; gizonen eta emakumeen proiektuak egin ahal izatea, eta horren egiturazko erroak onartzea; erantzun horrek, zalantzarik gabe, aldaketa osoagoak eragingo lituzke bitarteko horietan.

Arrazoia eta emozioa aurrez aurre

Pentsamendu klasikoan, emakumeak, askotan, izaki irrazional, ez-perfektu eta amaigabe gisa kontzeptualizatu izan dira. Oso ezagunak dira Aristotelesek utzitako "perla" misoginoak, hala nola: emakumea, gizon elbarria; emeak bigunagoak dira, gihar gutxiagokoak, garun txikiagoa dutenak, eta bere burua defendatzeko gaitasun gutxiago dutenak. Edo Plantonen baieztapen hauek "batzuei eta besteei (*emakumeak eta gizonak*) naturak bakoitzari ezarritakoa eman behar zaie, *eta* bereziki emeei dagokienez". Sekulakoa dena eta gizontasunerako joera duena gizonei berez dagokie; haatik, zuhertasunerako eta moderaziorako joera duen oro emakumeei berez dagokie (*Legeak* VII, 802e), Amalia González Suarez-ek aipu batean jasotakoa (2012: 212). Adibide horiek agerian uzten dute pentsamendu politiko klasiko nagusiak izaki irrazional, arrazoigabe eta emozioz betetakotzat kontzeptualizatu zituela emakumeak. Horretaz baliatuta, emakumeak espazio eta botere publikotik kanpo geratu dira historiaren aldi luzeetan.

Gero, pentsamendu kristaua errotzearekin batera, eta emakumeei egotzitako emozionaltasunaren esparruan, emakumeak emozionalki erlazionatzeko duten moduari buruzko bi irudi daude, elkarren aurkakoak. Lehenengoa emakume bertutetsuarena da, sistema patriarkal orotan sustatu dena. Irudi horretan, emakumeak bere sumina kontrolatzen du, eta Rousseau-k deskribatutako emakume otzanarekin konektatzen du. Besteak zaintzeko prest dagoen emakume (ez hainbeste bere burua) onbera, arduratsua eta diskretua da. Erlijio katolikoan, Andre Maria da irudi horren errepresentazio gorena. Bigarrena aurrekoaren guztiz kontrakoa da: emakume apetatsua, kontrolik gabekoa eta kanpoko begiradatik kanpo dagoena. Emakume bat, testuinguru patriarkaletan emakumeei egozten zaizkien jaiotzetiko ontasunetik urrun dagoena. Emakume eroak dira, edo Marcela Lagarde-k dioen moduan:

"emakume eroak hauek dira: suizidak, histerikoak, neskazaharrak, sorginak eta sorginduak, lekaimeak, deabrutuak eta argieginak, ama txarrak, amaordeak, seme-alaba hiltzaileak, putak, kastoak, lesbianak, menopausikoak, antzuak, abandonatuak, politikoak, jakintsuak, artistak, intelektualak, emakume bakartiak, feministak" (1990: 683).

Euskal mitologian, sorginak bigarren emakume ereduaren adibide ona dugu, bizitza lizuna eta desinhibizioz betea eramateagatik kondenatzen baitituzte. Izan ere, beste nonbait esan dugun moduan, mitologiak, ipuinen eta kondairen bidez, emakume izatearen bi eredu horien arteko talkaren adibide egokiak eskaintzen dizkigu, non batzuetan sumina eta besteetan enpatia hautatzen duen emakumea agertzen baitzaigu desiragarria ez den ezinezko baten modura (Martínez: 2013: 349-376).

Dakigunez, ilustrazioarekin eta liberalismo ekonomikoaren garapenarekin, arrazoa nagusitu zitzaion emozioari, eta gizakia arrazoiaren eta ezagutzaren bidez indibidualizatzearen ideia unibertsal bihurtu zen. Arrazoiaren argia, ordea, ez dirudi guztiengana iritsi zenik, eta unibertsaltzat aurkeztutako proposamen hura soilik gizon zuriak, klase altukoak badira hobe, eta, jakina, heterosexualak arrazoiaren bidez askatzeko proposamen batera mugatu zen. Paradoxikoki, Celia Amorós-ek ongi adierazten duen moduan, testuinguru historiko horretan "Emakumea Arrazoitik kanpo geratzen da, gizaki guztiei hura partekatzeko aukera ematen dien ustezko unibertsaltasuna arrazoi ilustratuaren ezaugarrietako bat izan arren. Arrazoa ilustrazioaren balio nagusia da, baina, neurri handi batean, "arrazoi patriarkal bat da" (Amoros, aipatua hemen: Molina Petit, 1994: 116).

Hortaz, Ilustrazioan, arrazoa emozioaren gainetik hierarkizatu zen, eta gainera lehenengoa gizonei lotu zitzaien, eta bigarrena, berriz, emakumeei. Alicia Puleo ekofeminista filosofoak "Una ilustración olvidada" (1993) lanean aztertzen duen moduan, zenbait pentsalarik, hala nola Diderot-ek, D'Alembert-ek, Condorcet-ek edo Olympe de Gouges-ek, emakumeak arrazoiaren izenean menderatzearen aurkako argudioak eman zituztela egia bada ere (ikus, adibide gisa, D'Alembert-k Jean-Jacque Rousseau-ri igorritako gutunaren zati bat behean), ilustratu gehienetan esentzialismo generikoa zen nagusi, eta, itxura batean, kontraesan handirik gabe uztartzen zen berdintasun eta zuzentasun handiagoko gobernuen aldeko aldarrikapenekin.

"Ez dut aztertuko, Jauna, <<Non aurkituko dugu emakume erakargarri eta bertutetsu bat?>> deiadar egiten duzunean arrazoirik ote duzun. Gizakia oso zorigaitzekoa izango litzateke, gure errespetuaren objektu duinena baieztatzen duzun bezain urria izango balitz. Bada, zoritxarrez, arrazoa izango bazenu. Zein izango litzateke horren zergatia? Emakumeei ezarri diegun esklabotasuna eta degradazioa, haren adimenari eta bihotzari jartzen dizkiogun trabak, haiekiko dugun erlazioan guretzat eta haientzat jarri dugun jargoi umiliagarria eta ezdeusa, landu

beharreko arrazoirik edukiko ez balute bezala edo horretarako duin ez balira bezala (D'Alema-
ek Jean- Jacques Rousseau-ri igorritako gutuna, *in* Puleo, 1993: 74).

Arrazoi eskaera partzial honetan, nahitaez aipatu beharreko pentsalari politiko bat dugu: Kant. Immanuel Kant-ek, Luisa Posada Kubissa-k dioen moduan, emakumeentzat "hain purua ez den arrazoi praktikoaren" (1992) eredua ematen du. Posada Kubissa-ren analisi hermeneutikoetatik ateratako Kant-en hitzetan oinarrituta, lantzen ari garen ideiari begira, ondorioztatzen da emakumeak jaiotzen direla eta bizi behar dutela arrazoi objektu orotatik aldenduta eta, beraz, baita indibiduaziotik ere. Horren adibide bat topatzen dugu, Kant-ek emakumeen eta liburu/ezagutzaren arteko erlazio artifiziaia deskribatzen duenean. Honela zioen pentsalari alemanak: "emakume ikasiei dagokienez (...) liburuak ordulariak bezainbeste behar dituzte; alegia: eramaten dute badutela erakusteko, nahiz eta geldirik egon edo eguzkiarekiko orduan jarrita egon ez" (Kant, 1912: 847; *in* Posada, 1992:19).

Erreferentzia horiek guztiek gune bakarrera eramaten gaituzte: historia hegemonikoa emozioen lekua emakumeei erreserbatzeko borondatearen gainean eraiki da, itxuraz oso askatzailea ez den arrazoiaren batengatik.

Arrazoi hori bilatze aldera, Almudena Hernando historiaurrelari feministak arreta berezia jartzen du arrazoi-indibiduazio erlazioan. Defendatzen du, hain zuzen ere, emakumeak emozioen eta zaintzen espazioan historikoki espezializatu izanak gizonen indibidualizazio prozesua ahalbidetu duela, emakumeen kaltetan. Egilearen arabera, gizonek indibidualtasunaren (hark "gizabanako eta pertsona kontzeptuen identifikazio" gisa definitzen du 2012: 94) fantasia lor dezaten, emakumeek laguntza emozionala eman behar izan dute, eta horrek haien indibidualizazioa eragotzi du. Horregatik, hain zuzen, egileak "gizonek historian garatutako identitate modu hori mendeko indibidualtasuna" deitzen dio (Hernando, 2012: 116). Emakumeen espezializazio horrek arrazoian oinarritutako identitate indibidual bat eraikitzeke aukera eman die gizonei. Aurrez aurre leudeke -emozioarekiko autonomia den arrazoi bat dagoela sinetsarazita-, alde batetik, emozioan oinarritutako identitate erlazonala, eta, bestetik, arrazoian oinarritutako identitate indibiduala. Lehenengoa emakumeen esku egongo litzateke, eta bigarrena, gizonen esku.

Ikuspegi historiko huts baten arabera azterketaz harago, gure ustez, tentsio horren adierazpen bat topa daiteke guztia inbaditzen duen zeharkako egitura batean: hizkuntza eta haren adierazpena; alderdi hori sakon aztertu du deliberazio teoriak. Deliberazio demokraziari buruzko lanetan kontraesan hori aztertuz gero, hizkuntzaren garrantziaz jabetuko gara.

Hala, deliberazio esperimentuak ikuspuntu enpiriko batetik generoko begirada batez analizatzen saiatu direnek adierazi dute gizonek eta emakumeek desberdin ikusten dituztela argudiozko eztabaidak eta prozesuak (Mendelberg et Karpowitz, 2007, Agüera, 2008; 2010; Mansbridge, 1980). Zehazki, hainbat egileren arabera, emakumeek deliberazio prozesuak egiteko joera handiagoa dute, eta gizonek, berriz, ekintzari begirako logika faktikoagoei erantzuten diete. Mendelberg-ek eta Karpowitz-ek, esate baterako, beren ikerketan ondorioztatu zuten eztabaiden deliberazio kalitateak gora egiten zuela talde txikiak nagusiki femeninoak baldin baziren eta erabakitze araua guztien adostasuna baldin bazen. Bestalde, Norris-ek bere ikerketan ondorioztatu zuen, halaber, emakumeek gutxiago ematen dituztela hierarkian oinarritutako irizpideen arabera eraikitako argudioak, eta balio handiagoa ematen dietela zintzotasuna bezalako balioetan oinarritutako argudioei (Norris, 1996: 93). Era berean, Mansbridge-k *Femism and Democratic Community* (1994: 444) lanean adierazi zuen enpatizatzeko gaitasuna gehienbat femeninoa dela: “neskek eta emakumeek gehiago sakontzen dute emozioa eta adierazpena laguntasunean; eztabaidetan gehiago lantzen dituzte erlazioak instrumentalizazioa baino”.

Ildo berean, Susan Stall eta Randy Stocker (1998) egileek komunitate garapenerako bi eredu aipatzen dituzte: *Alinsky* eta *Women Centered Model (WCM)* ereduak; azkenekoa aurrepolitikotzat jo izan da. Aurrekoarekin alderatuta, WCMren ezaugarria da “giza izaera zaintzaren, botere ko-aktiboaren eta erlazionalaren etika batetik definitzea” (1998: 737).

Era berean, espainiar estatuan berriki egindako ikerketek erakusten dutenez, emakumeek beren argudioak partaidetza “esperientzial” (norberaren esperientziaren diskurtso batez egituratuta) eta erlazional batean oinarritzeko joera dute, eta gizonezkoek ez hainbeste, haien diskurtsoak, bizipen propioei baino gehiago, politikaren makro eskalei lotuta baitaude (Agüera, 2010). Ikuspegi horretatik, hobeto “ulertzen” da errealitatearen esanahia finkatzeko lehiakortasun diskurtsibo handiko testuinguruetan diskurtso esperientzialak eta erlazionalak bigarren mailakoak izatea, arrazoi unibertsal baten defentsan oinarritutako argudioen aurrean. Hartara, bigarren mailako esperientzial-erlazionalari egindako opresioa, emozio/afektibitate/bizipen/erlazioarekiko loturarik ez duena, argudiatze mota autozentratu batez agertzen da, ustez unibertsala dena, “ezpurutasun” emozionaletatik urrun dagoena, positibo eta faktikoa dena. Argudiatze eredu ahalguztidun eta unibertsal gisa aurkezten bada ere, horren bidez biztanleriaren zati bat bakarrik gizarteratzen da; izan ere, beste zatian, emakumeen artean, alegia, eredu horrek, besteak beste, ziurgabetasun handiak sortzen ditu argudiatze prozesuetan esku hartzeko unean.

Modu berean, gure ustez, kontraesan hori sakon gorpuztutako adierazpen batean ageri da, zeina gorputzaren hurrengo adierazpenetan hauteman baitaiteke bileren edo komunitate antolakuntzen testuinguruan: harrerako jarrera bat edukitzea eta iritsi berriari ongi sentiaraztea, hura ukituz, irri eginez, eserlekua erakutsiz, iristekotan denari arreta jarritz. Azpimarratu nahi dugu hori ez dela, gure iritziz, jarrera negatibo bat (bestea ongi senti dadin kezka bat egotea). Arazoa zera da: jarrera hori ez gizarteratzea gizonen eta emakumeen artean; emakumeek bakarrik lantzea bileren zaintzari begirako gorputzeko prestasun hori, alderdi emozionala jarduera demokratizatzailean sartzeko joera hori. Are gehiago, egiazko arazoa da orientazio hori betebeharrak bat bezala sentitzea.

Aurrerago azalduko dugun moduan (lanaren hirugarren atala), adierazitakoaz gainera, jarrera edo adierazpen erlazional horiek gaizki ikusita daude espazio publikoetan; batzuetan, “profesionaltasun” gutxikotzat jotzen dira. Zilegitasuna kentzeko argudio horiek arintze aldera, ulergarria da boterera iritsi nahi duten emakume batzuk Teresa Del Valle (2008:147) aipatutako estrategia batez baliatzea. Antropologoaren arabera, zenbait emakumek distantzia emozionala mantentzea eta edukien eragina gutxitzen duten sentimenduak ez kanporatzea hautatzen dute, kontraesan horrek sortzen dituen ondoez irtenbide bat emateko. Egindako behaketen ondoren, defentsa mekanismo horri lotutako hainbat gorputz estrategia gehi ditzakegu, hala nola begietara eta aurpegira ez begiratzea hitz egitean, eta besteen begiradetan onespena ez bilatzea. Estrategia horiek sakonago aztertu beharko lirateke.

Horregatik, emozioek edozein gizarte produkzioan esku hartzen ez dutela esateak ez du ez hankarik ez bururik. Eta BDetan eta botere erlazional eta inposatzailearen beste forma batzuetan emoziorik ez dagoela esatea espazio horietan arnasa hartzeko airea ez dela beharrezkoa esatea bezalakoa izango litzateke. Kontua ez da BDetan emoziorik ez esku-hartzea eta soilik arrazoiak baliatzea, horrelako agertoki bat posiblea eta desiragarria ez izatea baizik. Hortaz, kontua da onartzea garrantzitsua dela zenbait emozio eta balio erlazional inklusibo lantzea; izan ere, tradizioz eta kontzeptualizazio historikoaren eraginez emakumeen eskutik joan izan dira gehiago, gizonezkoen eskutik baino; alabaina, gizaki oroengan aurkitu eta landu daitezke⁴⁵. Emozio “zintzoak”⁴⁶ eta bidegabekeria eta opresioa sortzen duten emozioak bereizte aldera, Martha C. Nussbaum pentsalariaren azken lanak (*Emociones políticas*, 20014: 16) oso argibide interesgarriak ematen ditu, BDetan lantzeko.

⁴⁵ Ikusi beharko litzateke nola agertzen diren horrelakoak BD espazioetan bere bizitzen zenbait alditan parte hartu duten eta gizarte psikopatiak dituzten gizakiengan.

⁴⁶ Nussbaum, gizarte zintzoak aipatzen ditu bertutetsu gisa.

Egileak dio proiektu politiko guztietan eta, jakina, demokrazian ere, agertzen direla nazka, inbidia edo beldurra bezalako sentipenak: “Nazka eta inbidia edo besteak lotsarazteko desira gizarte guztietan ageri dira eta, ziur asko, giza bizitza indibidual guztietan. Kontrolatu ezean, kalte handia egin dezakete” zeinahi proiektu kolektibotan. Hori dela eta, bere lanaren hirugarren zatian, proposamen argia egiten du erakundeek sinpatia eta maitasuna bezalako emozioak bultzatu, eta emozio arriskutsuak umorearen eta beste tresna batzuen bidez kontrola ditzaten. Hirugarren zatian ikusiko dugunez, emakume asko erabiltzen ari dira dagoeneko umorea, barrea eta sinpatia beren partaidetza proiektuak aurrera eramateko. Eta aurrerago aipatuko dugu, halaber, emakume askok eta bereziki KSF bat eratzen dutenek partekatutako jarrera emozionalen multzo bat egotearen aukera (*habitus* emocional, Gould, 2009), emozioen erabilera positibora (“zintzoa” Nussbaum-en terminoetan) bideratuta egongo dena emakumeen jardura politikoari zentzu bat emateari begira.

Nussbaum-ek bezala, guk ere uste dugu emozio inklusiboak gizarte erlazio guztietan lehenetsi behar direla. Gure iritziz, gizarteratze bereizle baten bidez eta beste gizarte prozesu batzuen bidez emozio batzuk sozialki gehiago egokitu zaizkio emakumeei gizonezkoei baino, hala nola ontasuna edo enpatia (bestea ulertzea) bezalakoak edo, azken horren aldaera feminista: sororitatea. Eta, berehala, koefiziente sinboliko negatibo femeninoaren eraginez, emozio horiek profesionaltasun gutxikotzat jo izan dira, espazio publikoan aplikatu direnean. Horregatik, emakumeek emozio eta lankidetzaren balio horiek ikusgarri egiteko jarrera estrategiko bat edukitzaren ideia defendatzen dugu; hortaz, horiek hautemateko, garrantzitsua izango da arreta jartzea emakumeek parte hartzean mobilizatzen dituzten balioetan.

Unibertsal bihurtzeko bokazioa duen menderatzailea eta eredurik gabeko menderatua aurrez aurre

Simone de Beauvoir-ek *Bigarren Sexua* (1949: 16) liburuan hau zioen: “mundua gizonaren obra da; hark egiarekin nahasten duen bere ikuspegitik deskribatzen du.” Hura baino lehen, dagoeneko aipatu dugun feminismoaren ezinbesteko pertsonaia batek hau zioen: “Badakizue zenbat liburu idazten diren urtean emakumeei buruz? Badakizue zenbat liburu idatzi dituzten gizonek? Konturatzen zarete, agian, unibertsoaren animalia eztabaidatuena zaretela? (Woolf, 1929 – erabilitako bertsioa: 1986: 43). Emakumeek errealitatea beren berezko terminoetan adierazteko edo izendatzeko duten gaitasuna da Virginia Woolf-en eta Simone de Beauvoir-en pentsamendu feministaren kezka nagusietako bat. Biek ala biek, beren testuetan, emakumezko irakurlea bideratzen dute menderatze sistema ororen eta, jakina, SGMM sistemaren oinarritzko kontraesan/tentsio bati buruz gogoeta egitera, alegia:

nork zer izendatzen duen eta zer-nolako gaitasuna duen hura unibertsaltzat emateko, natural bihurtzeko, adierazpen prozesuan parte hartu ez duenarengan (klase menderatua, gizarte talde menderatuak) bere burua islatuta ikustearen ilusioa sortzeraino.

Lehen aipatu dugu mundua izendatzeko gaitasuna eta gainerako gizakiek esanahi horiek botere sinbolikotzat hartzeko ideia (ikus lehen zati honen II. kapitulua); hortaz, ez dugu errepikatuko. Azpimarratu nahi dugu, ordea, menderatze sistema oro hierarkikoa izatearen ideia; hau da, menderatze sistema orok kategoriak modu hierarkikoan antolatzen ditu, eta, kategoria horien arabera, elementu batzuk, egiteko modu batzuk eta munduan egoteko modu batzuk (gainean/goian) beste elementu batzuen, egiteko modu batzuen eta munduan egoteko modu batzuen gainetik daude (behean/azpian).

Hirugarren kapitulu honetan orain arte esandakoa kontuan hartuta, esan dezakegu SGMM sistemak publikoa pribatuaren gainetik antolatzen duela, eta arrazoia emozioen gainetik. Menderatze modu hori gutxi-asko naturalizatu daiteke, edo, Gramsci-ren hitzetan, hegemoniko bihurtu. Publikoa-arrazionalak pribatua-emozionalaren gaineko hegemonia lor dezan, ordea, beharrezkoa da elkarren artean erlazionatuta dauden (bata bestearen ondorioa dela esan daiteke) bi bitarteko erabiltzea, berrikuntza demokratikoko testuinguruetan ere ematen direnak. Bata, menderatzaileak, batzuetan, sorreratik duen unibertsaltasun bokazioa da, eta, bestea, menderatutako gizarte taldeen edo eragileen ereduen gabezia/ikusezintasuna.

Unibertsaltasun bokazio horren adibideak Frantziako Iraultzaren (1789) oinarritzko dokumentu batean topa ditzakegu, hots, *Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpenean*; izan ere, 1791ean Olympe de Gouges-ek (*Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubideen Adierazpena*) erantzuna eman bazion ere haren artikuluei zerien unibertsaltasun faltsua argudiatuta, dokumentuaren 1. artikulua honela zioen: “Gizon guztiak askeak dira eta eskubide berdinak dituzte jaiotzetik”, gizonak jartzen zuen lekuan, gizonak eta emakumeak adierazi nahian. Adierazpena, nolanahi ere, gizonak idatzi zuten (horrela hezi eta gizarteratutakoak), arrazoi ilustratuaren eta askatasunaren izenean. Idatzi zuena bere bizi esperientzian oinarritu zen, eta ez zitzaion bururatu munduan egoteko era hori norbaitentzat arrotz izateko aukera; alegia, ez zuen pentsatu bere burua islatuta ikusiko ez zuen inor egon zitekeenik guztia bereganatu nahi duen hitzaren quasi-unibertsaltasunean: “gizonak”.

Puntu honetara iritsita, hemen garatzen dugun hirugarren kontraesan horren espezifikotasuna azpimarratu nahi genuke; izan ere, SGMM sistemaren birsorrera azaltzen duen kontraesan (bereizia-propioa) modura aurkezten dugun arren, argudiatu daiteke ez

dela bere horretan tentsio bat, menderatze sistema ororen ezaugarri nagusia baizik, non beti baitago menderatzen duen norbait eta menderatua den beste norbait. Hala, publikoa eta arrazoa elementu menderatzaileak dira, pribatuaren eta emozioaren aurrean. Beste tentsio baten modura aurkezteko arrazoa da, hain zuzen ere, SGMM sistema birsortzeko espezifikoki diseinatutako mekanismoak daudela, menderatzailea menderatuaren gainean egotearen ideari lotuta daudenak (unibertsaltasun pretentsioa eta ereduaren gabezia-ikusezintasuna).

Horren harira, menderatzailea bere agenda betetzeko aukera izan duen horixe da, eta nahikoa botere sinbolikoa du mundua izendatzeko bere modua unibertsala, neutroa, dela sinetsarazteko. Halere, Bourdieu-k gogoratzen zuen moduan –eta gu harekin bat gatoz– “unibertsaltzat jotzen ditugun giza obra gehienak (...) banaezinak dira (...) bai baldintza ekonomikoetatik, bai horiek posible egiten dituzten eta inondik ere unibertsalak ez diren gizarte baldintzetatik” (Bourdieu, 1997: 213). Hitz gutxitan esanda, izendatzeko saialdi bakar bat ere ez da neutrala, ez unibertsala. Horren aurrean, menderatze egoera batean dagoenak mundua bere hitzez izendatzeko aukera gutxiago ditu. Cristina Molina Petit-ek oinarritzko menderatze iturria ikusten du horretan. Honela dio egileak “norbaiten bidez hitz egiteko gaitasuna eta besteei lekuak adierazteko aukera dira, hain zuzen, patriarkatuaren ezaugarriak menderatze sistema gisa” (1994: 26).

Gure iritziz, kontraesan hori, aurreko biak bezala, objektibatua eta haragituta agertzen da berrikuntza demokratikoko espazioetan. Aurrerago ikusiko dugun moduan, alde batetik, berrikuntza demokratikoko espazio horietan egoteko modua tradizionalki horietan egon denak balioesten du: sexurik ezagutzen ez duen partaidetza unibertsal bat marrazten du, ongi egindako diskurtsoa eta ezagutza balioesten dituen. Kode horiek, hots, partaidetza *habitus* hori⁴⁷ duenak botere sinbolikoa izango du. Emakume batzuek beren ondoeza adierazi dute, espazio publikoan egoteko modu hori eskuratzeko ezintasunagatik, bere egoteko modua gutxietsita. Beste batzuek ereduaren gabeziak hitz egin dute. Eta beste batzuek, konturatu gabe, modu unibertsal horretara egokitzen saiatu direla onartu dute, eta gero “kolonizatuak” sentitu dira.

⁴⁷ *Esquisse d'une théorie de la pratique* (1972: 175) lanean, Bourdieu-k honela definitzen ditu *habitus*ak: “antolara iraunkorreko sistemak, egitura egituratzaile modura funtzionatzeko ezarrita dauden egitura egituratuak”. Gizarte produktu txertatu bat da, gure gizarte jarrerak eremuan dugun mailaren arabera bideratzen dituen. Partaidetza *habitus*a aipatzean, oro har, partaidetza testuinguruetako eragilearen antolara berraztertzea ari gara. Honi egiten dio erreferentzia: eremuan mugitzeko modua, gustua, argudiatzeko forma, etab.

Puntu horretan, zentzua bereganatzen du berriro Fraser-en kontrapublikoen ekarpena. Egile hori kezkatuta dago botere sinbolikoa duen menderatzailea eta adierazteko gaitasun urria duen menderatua bereizten duen SGMM sistemaren agerpen horrekin, non lehenengoa unibertsala dirudien. Horrez gain, gogoratzen digu susmoak dituela ere espazio publikoa lankidetzan hartzeko modu berritzaileen inguruan. I. kapituluaz azaldu dugun moduan, pentsalariak azpimarratzen du “nigandik” “gugana” doan partaidetzako adierazpen prozesuak menderakuntza ezkutatzeko duela. Hau da, partaidetza bilera/batzaletan erabaki bat bertan dauden pertsona guztien (gu) izenean hartu dela esaten denean, komenigarria da, dio Fraser-ek, susmoak izatea “gu” horren atzean dagoenari buruz. Eta susmo horiek, modu nabarmenean, hobeto azalatu ditzakete kontrapubliko subalterno feministek.

Azpimarratu nahi dugu, gainera, Fraser-en planteamenduan, menderatze hori praktikan bi unetan eman daitekeela. alde batetik, prozeduran (nola iristen gara nigandik gura?, eta, bestetik, emaitzan (nor da gu hori?). Hala prozeduretan nola emaitzetan nabarmendu nahi ditugun mekanismoak agertzen dira: batetik, espazio publikoan parte hartzeko eta hura hartzeko modu unibertsal bat dagoela pentsatzeak prozesuan “gu” hori “ni” maskulino bat izatea eginarazten du (horrek “unibertsal bihurtzearen” mekanismora eramaten gaitu berriro); bestetik, gu erabat unibertsal bat egon daitekeela pentsatzeak espazio publikoan emakumeen abiapuntu espezifikoak zein den identifikatzea zailtzen du (“ereduen gabeziaren” mekanismora eramaten gaituena).

Hori dela eta, Fraser-en kontrapublikoen proposamen zehatzak garrantzi handiko balio teorikoa eta praktikoa hartzen du; izan ere, baztertutako taldeek, non emakume asko dauden, elkarriketa hasteko espazio bat (beraiena) ez badute eta espazio horretan egoteko eredu alternatiboak sortzeko aukerarik ez badute, SGMM sistemaren birsorrera segurua da beste emakume batzuentzat.

BIGARREN ZATIA

IV. Kapituluia. Esparru metodologikoa

Euskal berrikuntza demokratikoak. Hurbilketa bat ikerketaren laginera.

Berrikuntza demokratikoko prozesuetan emakumeek beren partaidetza proiektuak aurrera eramateko dituzten oztopoei antzemateko eta beren partaidetza egokitze erabiltzen dituzten estrategiak aztertze asmoz, berrikuntza demokratikokotzat jotzen ditugun (II. kapituluaren deskribatutako irizpideen arabera) hamabost espazio hautatu ditugu Euskal Autonomia Erkidegoan.

Laginak demokratizazio espaziotzat hartzen ditu hainbat gai biltzen dituzten hamar arlo: gizarte eredia, eredu sozioekonomikoa, kultura, lurzorua erabileren kudeaketa, ingurumena, estatu eredia, immigrazioa, guztionaren kudeaketa, ekonomia eta komunitate garapena-hezkuntza.

Horrez gain, batetik, gonbidapen bidez, eta, bestetik, agerpen bidez sortutako BD espazioen artean egon daitezkeen aldeak ezagutze aldera, laginak bereizi egiten ditu agerpen bidezko sei esperientzia (15M mugimendua, BBVAren kontrako plataformaren akziodunen batzarraren aurkako prozedura, Gasteizko gaztetxea, Bilboko Konpartsak, Irungo Alarde mistoa, Astrako partaidetza prozesua, desazkundearen aldeko mugimenduaren batzarra, erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku Dago prozesua, “Abusua Sarean” proiektua), eta gonbidapen bidezko sei (Azkoitiko immigrazio kontseilua, Laudioko auzo batzarrak, Oñatiko partaidetzako aurrekontuak, Gipuzkoako partaidetzako aurrekontuen sarea, Donostiako “Auzo eta Herriak Donostia indartzen” partaidetza prozesua). Lehen taulan jasotzen den moduan, gaur egun martxan dauden hamabost esperientzia dira, baina haien ibilbidea bestelakoa da. Batzuk sortu berriak dira (esate baterako desazkundearen aldeko plataforma), eta beste batzuek hogei urtetik gorako eskarmentua dute (esate baterako, Laudioko auzo batzarrak, Araban). Laginen aniztasun horren bidez, emakumeek identifikatutako oztopoetan alde handiak ote dauden hauteman dezakegu, esperientzia agerpen edo gonbidapen bidezkoa izatearen arabera, edo esperientziak berak egindako ibilbidearen arabera. Ikusiko dugunez, aldagai hori bigarren maila batean geratzen da, eta

aldeak askoz ere handiagoak dira KSF eratzen duten edo ez duten emakumeen esperientzien artean.

Lagina hautatzeko, hiru informazio iturri nagusi erabili ditugu: bi bigarren mailako datuetan oinarritzen dira, eta bat, lehen mailako datuetan. Bigarren mailako informazio iturriei dagokienez, alde batetik, Parte Hartuz ikertaldeak bultzatutako *Observatorio vasco de la democracia participativa* ikerketa proiektuak egindako herritarren partaidetzako esperientzien zerrenda egin dugu. Horren arabera, gaur egun ehundik gora partaidetza espazio daude martxan Euskal Herrian (EAE, Nafarroa eta Iparraldea). Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak egindako datu-basea erabili dugu. Bertan, lurralde historiko horretan, 2011-2013 urteen bitartean egindako herritarren partaidetzako esperientziak biltzen dira. Orain dela gutxi, liburu batean eman dira argitara, *Herritarrekin, parte hartzeko esperientziak Gipuzkoan* (2011-2013)⁴⁸ izenburupean.

Analisi lagina identifikatzeko erabilitako lehen mailako iturriei dagokienez, hiru elkarrizketa sakon egin dizkiegu partaidetza prozesuen ezarpenean aritu diren oinarritzko hiru informatzaileei: bi agente teknikari, Euskadin partaidetza prozesuak martxan jartzeko ardura dutenak, eta euskal administrazio publiko bateko herritarren partaidetzako zuzendaria. Aurrerago zehaztuko dugun moduan, elkarrizketa horietan, informatzaileei eskatu zaie ikerketarako interesgarritzat jotzen dituzten partaidetza esperientzien zerrenda bat egiteko.

Hala, gure ikerketaren lagina hiru informazio bide konbinatuz eta gurutzatuz osatu da. Hamabost esperientziak, berriz, ehundik gorako esperientzien zerrenda batetik hautatu dira, lehen aurreratutako irizpideen arabera, hau da: proposamenaren sustatzailearen aniztasuna (agerpena-gonbidapena), gaiaren aniztasuna, lurraldeen arteko oreka (ahal den neurrian, EAE osatzen duten hiru lurralde historikoetako esperientziak hautatzen saiatu gara), eta esperientziak kontrapubliko feminista izatea ala ez. Albo batera utzi ditugu gizonen eta emakumeen arteko eskubide eta aukera berdintasuna sustatzeko gaiak lantzen dituzten esperientziak (hala nola berdintasunerako kontseiluak) eta soilik emakumeek osatutako espazio ez-mistoak (emakumeek soilik bultzatutako prozesu demokratizatzaileak); izan ere, lehenengoak emakumeek aurre egin beharreko oztopoak arintzera bideratuta daude, eta, beraz, espazio libreak dira, ikuspegi feminista eta generokoa ez izateari lotutako oztopo

⁴⁸ On-line eskuragarria http://www.gipuzkoaherritarrekin.net/uploads/files/irakurketak/herritarrekin_liburua.pdf [Kontsulta: 2015eko urtarrilak 29].

hemen:
[Kontsulta:

batzuk ez dauden neurrian. Eta, bigarrenek, berriz, albo batera uzten dituzte espazio bat gizonekin partekatzeari lotuta sor daitezkeen oztopoak.

1. taula. Ikerketan aztertutako esperientzien lagina.

<i>Berrikuntza demokratikoko esperientzia mota</i>	<i>Esperientziaren izena</i>	<i>Esperientzian landutako gaia</i>	<i>Esperientzia zer lurraldetan egin den</i>	<i>Noiz egiten ari den esperientzia</i>	<i>Esperientziak egindako bizi historien kopurua⁴⁹</i>	<i>Kontrapubliko subalterno feminista duten espazioak</i>
Agerpen bidezko berrikuntza demokratikoko esperientziak	15M mugimendua	Gizarte eredua	Bizkaia	2011-gaur egun	3 emakume	
	BBVAren aurkako plataformaren akziodunen batzarraren aurkako prozedura	Eredu sozioekonomikoa	Bizkaia	2007-gaur egun	2 emakume/gizon 1	
	Gasteizko gaztetxea	Kultura	Araba	1988-gaur egun	Emakume 1	
	Bilboko Konpartsak	Kultura	Bizkaia	1978-gaur egun	5 emakume	
	Irungo alarde mistoa	Kultura	Gipuzkoa	1996-gaur egun	5 emakume	
	Astrako partaidetza proiektua	Lurzoruaren erabileren kudeaketa	Bizkaia	2005-gaur egun	Emakume 1	
	Desazkundearen aldeko mugimenduaren batzarra	Ingurumena eta ekonomia eredua	Bizkaia	2009-gaur egun	4 emakume/2 gizon	
	Erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku Dago prozesua	Estatu eredua	Autonomia Erkidegoa	2013-gaur egun	3 emakume/gizon 1	
Gonbidapen bidezko berrikuntza demokratikoko esperientziak	Azkoitiko immigrazio kontseilua	Immigrazioa	Gipuzkoa	2005-gaur egun	3 emakume/2 gizon	
	Laudioko auzo batzarrak	Guztionaren kudeaketa	Araba	1977 AGM / 1999/ gaur egun	Emakume 1	
	Oñatiko partaidetzako aurrekontuak	Ekonomia	Gipuzkoa	2013-gaur egun	4 emakume	
	Gipuzkoako partaidetzako aurrekontuen sarea	Ekonomia	Gipuzkoa	2013-gaur egun	3 emakume	
	“Auzoak eta herriak Donostia indartzen” partaidetza prozesua	Guztionaren kudeaketa	Gipuzkoa	2011-gaur egun	Emakume 1	
	“Abusua Sarean” proiektua	Komunitate garapena-Hezkuntza	Bizkaia	2009-gaur egun	4 emakume	
	Arabako kontzejuak	Guztionaren kudeaketa	Araba	1181-gaur egun	2 emakume	

Iturria: egileek egin.

⁴⁹ Esperientzien arteko desoreka bat hauteman daiteke, biografiaren bidez parte hartu duten emakumeen kopuruan. Hori gertatzen da espazioetan parte hartu duten emakumeen kopurua desberdina delako eta esperientzia bakoitzean emakumeek erakutsi duten prestutasuna ere desberdina izan delako.

Goian aipatutako 15 BD esperientziak baliagarriak izan zaizkigu demokratizazio prozesuetan parte hartzen duten gizon-emakumeekin harremanetan jartzeko. Zentzu horretan, azpimarratu nahi dugu BD espazio bakoitzaren garapen historikoa eta deskribapena eskaintzea interesatzen zaigula; izan ere, espazio horiek guretzako emakumeen esperientzietara iristeko bitartekoak baino ez dira, emakumeak baitira lan honen elementu nagusia.

Hala, hamabost espazio horiek hauteman ondoren, 48 pertsonen kontatutako bizi esperientziak eskuratu ahal izan ditugu: 42 emakume eta 6 gizon. Behean adierazten dugun moduan, 48 pertsona horiek partaidetzan –adiera zabalean ulertuta– izandako esperientzia pertsonala kontatu digute. Kontakizunetan, emakumeek eta gizonek modu askotan helarazi dizkigute partaidetzan aurkitutako oztopoak eta erabilitako estrategiak. Elkarrizketetan BD esperientzietan izandako partaidetzari buruzko biografiaren zatiari arreta berezia eskaini bazaio ere, biografiatutako pertsonen informazio ugari eman digute partaidetzaren aurreko eta ondorengo uneei buruz, eta informazio horretan oinarritzko datuak eman dizkigute BDari lotutako oztopoak ulertzeko. Horregatik, lanaren hirugarren zatian eskaintzen ditugun emaitzetan, BD espazioei buruzko kontakizunak ez ezik, partaidetzaren aurreko eta ondorengo uneetakoak ere mobilizatuko dira, kasu bakoitzean zer testuingururi egiten zaion erreferentzia adierazita.

Ikerketaren ikuspegia eta faseak

Ikerketa bi fase nagusitan garatu da, 2014ko uztailetik 2015eko maiatzera. Prozesuan, ikerketa ekintza parte hartzailearen (IEP) printzipioetan oinarritutako ikerketa subjektuarekiko hurbilketa dialektikoa lehenetsi da.

Tomás Alberich-ek tradizio marxista azpimarratzen zuen, ikuspegi dialektikoa haren zorduna baita, eta tradizio horren oinarritzko bost ezaugarri gogoratzen zituen. Lehenengoa, egilearen arabera, gizarte gertaera oro erlasionatuta egotea da; hots, errealitatearen gaineko ikusmolde bat dago, “natura eta gizartearen elkarrekintzan dagoen osotasuntzat” ulertzen duena (2000: 46). Bigarren ezaugarriak guztia eraldatzen dela adierazten du; ezin dugu gizartearen pertzepzio estatiko bat eduki, etengabe eraldatzen ari baita. Hirugarren ezaugarriak aldaketaren balioa goraipatzen du; ikuspegi horren arabera, “aldaketa kuantitatiboen metaketak aldaketa kualitatiboak ekartzen ditu” (2000: 46). Ideia hori emakumeen parte hartzera eramaten badugu, esan dezakegu emakumeek politikan presentzia edukitzeak zenbait aldaketa kualitatibo dakartzala. Gai horrek, bestalde, erabateko lotura du lehen aipatu eta gero berriro aztertuko dugun eredu eta erreferenteen

ikusezintasunaren bitartekoarekin. Laugarren ezaugarriak jarrera marxista ororen nozio nagusia azpimarratzen du: gatazkaren garrantzia, aurreratzeko edo aldatzeko. Hala, errealitatea kontraesaneko terminoetan aztertzeak gizarte errealitate orotan ezkutatutako botere eta menderatze erlazioak bereiztea ahalbidetzen du. Amaitzeko, bosgarren ezaugarri bat dago, Lefebvre-ek teorizatzen duena, eta horren arabera, gizarte errealitate berriak "ez du aurrekoa suntsitzen; haatik, bere baitan txertatzen eta hobetzen du, hura gaindituz" (2000: 46).


Tradizio dialektikoaren printzipioei jarraituta, IEPn oinarritutako hurbilketa lehenetsi dugu. Egileak berak onartzen zuenez, IEP definitzeko eta aplikatzeko modu asko eta askotarikoak izan arren, horren ezaugarri nagusiak biltzen dituen definizio bat egin daiteke:

"honela definitu daiteke: egoera kolektiboak hobetzeko emaitza fidagarriak eta erabilgarriak lortu nahi dituen ikerketa eta ekintza metodo bat da, ikerketaren oinarrian ikertu beharreko taldeen partaidetza jartzen duena. Horrela, taldeak ikerketaren "objektu" izatetik ikerketaren subjektu protagonista izatera aldatzen dira, ikerketa prozesua kontrolatuz eta elkarrekintzan jardunez (diseinua, faseak, itzulketa, ekintza, proposamenak...), eta kanpoko ikertzaileak aztertu beharreko komunitatearekin inplikatu eta bizikidetzat egin behar du" (2000: 47).

IEP metodoa gizarte esku-hartze eta gaikuntza prozesuetan erabili izan da. Halere, bideragarritzat jo dugu IEPren printzipioak eramatea esku-hartze proiekturik gabeko ezaugarri klasikoagoko ikerlanetara, gure kasuan bezala. Parte hartzaileek ikerketa proiektuaren diseinuan eta prestakuntzan parte hartu ez duten arren, ikerketa prozesuaren gainerako aldietan izan dira beren bizi esperientzien kontakizunak, oztopoak eta kezkak hautemanez, eta partaidetza ahalbidetzeko beren estrategien berri emanez. Gainera, lan hau ikerketa feministen tradizio batean kokatzen da, eta horren izateko arrazoia, hain zuzen, lankidetzat da, SGMM sistema pixkanaka indargabetzeko lanean. Hau da, maskulinoak, gaitasundunak, heteronormatiboak, burgesak eta dirudunak menderatutako gizarte hierarkikoak eraldatzea, berdintasun eta justizia handiagoko gizarteak izan daitezkeen biztanle guztientzat. Helburu hori bideragarria izan dadin, sortutako ezagutza gizarteratu behar da, eta horretarako esperientzietan aurpegia jarri dutenei, bereziki, eta gizarteari, oro har, lana itzultzea *conditio sine qua non* da.

Egin dugun lanaren bi ikerketa faseetan, Alberich-en definiziotik ondorioztatutako IEPren printzipioak islatu nahi dira: opresioko errealitate kolektiboak errealitate bidezkoagoetan eraldatzea, horrelakoak lehen pertsonan bizi dituztenen partaidetza aktiboaren bidez.

1. eskema. Ikerketa faseak



Iturria: egileek egin.

Hala, lehenengo faseak hasierako logika bat dauka, eta horren bidez, ahal bezain beste oztopo eta estrategia gogoetatsu eta barneratu bilatu nahi izan dira, baita partaidetzan mobilizatutako balioak ere. Horretarako, 1. eskeman ikus daitezkeen moduan, honako ikerketa teknika hauek erabili ditugu: partaidetzaren biografiak emakume eta gizonekin, eta zuzeneko behaketa batzuk, zenbait BD espazioetan. Lehenengo fase honen laneko logika indibiduala da; izan ere, diagnostikoa finkatzeko topaketak banaka egin ziren, biografiatutako pertsonaren eta ikertaldeko pertsona baten artean. Hasierako logika horren ondoren, bigarren ikerketa fasea egin zen, amaitzeko joera batean oinarrituta. Horren bidez, kontalarien esperientzian eta zuzeneko behaketan eskuratutako ezagutza ordenatu nahi da. Amaierako logika horrek aurretik identifikatutako oztopoei, estrategiei eta balioei zentzua eman nahi die lankidetzan, eta lehen fasean oharkabean pasatu diren oztopo, estrategia eta balio berriak hauteman nahi ditu. Horretarako, hainbat eztabaida talde egin dira (*focus group*), eta ikerketan inplikaturako pertsonen parte hartu dute horietan.

Eskeman irudikatzen den moduan, ikerketa prozesuan bi une nagusi daude. Lehenengoa (A) ikerketaren hasierako unea da, non lanaren sarreran adierazitako oharrek zentzua ematen baitiote lantzen ari garen arazoari, hau da: nola birsortzen den SGMM sistema demokratizazio prozesuetan. Hori egiteko, lehen deskribatutako lagina hautatzen da. Bigarrena (B) lana amaitzeko eta horretan parte hartu duten pertsonen, bereziki, eta gizartearen, oro ar, lana itzultzeko unea da.

Ikerketa teknikak

Baldin eta, ontzat ematen badugu, defendatu dugun bezala, gizarte instituzioak eta erlazioak egituratzeko modu jakin batek, hierarkian oinarritutakoak, sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema iraunaraztea eta birsortzea eragiten duela, bada, ondorioztatu dezakegu, Teresa del Vallek et al.-ek bezala, emakumeak estutzen dituzten egiturak aztertzeke, horiek egituratuta dauden instituzioak aztertu beharko direla (Del Valle et Al., 2002: 23). Gizarte instituzio horiek antolatzeke modura iristen bagara, emakumeen partaidetza librea baldintzatzen dituzten formak identifikatu ahal izango ditugu, baita emakumeek baldintza horiei aurre egiteko erabilgarriko estrategiak ere. Ostera, soilik instituzioetan oinarritutako analisi bat egingo bagenu, ezingo genuke barneratutakoa – haragitutakoa– (*embodied*) ikusi; hau da, ez ginateke iritsiko gizarte egitura barneratuetara. Hori dela eta, ikerketarako aurreikusitako erreminta kaxan teknika kualitatiboak eta partaidetza teknikak ditugu, elkarriketan, entzuketetan eta behaketan oinarritutakoak; izan ere, gure ustez, dimentsio barneratuaren zati bat, lagin bat, eskuratu daiteke, baldin eta modu sistematizatuan behatzen, aktiboki entzuten, eta inoiz izendatuko gabekoa adieraztea ahalbidetuko duen konfiantza eta gogoetan oinarritutako elkarriketa bultzatzen badugu.

Hala, sarreran aipatzen genituen hipotesien gainean lana egiteko, testuak eta bigarren mailako informazio iturriak, eta partaidetza eta politikan emakumeen presentzian espezializatutako datu-baseak (Emakunderen txostenak, INE, IVAP edo Eustaten datuak, besteak beste)⁵⁰ aztertzeaz gainera, honako teknika hauek erabili ditugu: elkarriketa sakonak, partaidetzaren biografiak, *focus group* eta zuzeneko behaketak.

Elkarriketa sakonak

Elkarriketan oinarritutako teknika mota honen oinarritzko printzipioa da pertsonen galdetza erantzunak lortzeko. Ikerketa honetan elkarriketek eta galderek garrantzi handia

⁵⁰ Gogoratu nahi dugu gure hipotesia: erabakiak hartzeko espazio inklusiboagoak sortzeko prest egon arren, berrikuntza demokratikoko prozesuak produktu politikoak dira, eta sexu-generoko menderatze maskulinoko sisteman baten arabera erlazioak antolatzen dituzten gizarteetan sortzen dira; hori dela eta, espazio horiek ez dira diseinatzen eta ezartzen menderatzearen logikan oinarritutako boterearen modu baztertzailerik gabe.

gutenez, elkarrizketa sakona oso tresna emankorra izan da, ikerketaren lehen fasean (hasierakoa), gehienbat.

Patxi Juaristik⁵¹, Selltiz eta Wrightsman-ri jarraituta, gogoratzen duenez elkarrizketa sakona “elkarrizketatzaile baten eta informatzaile baten arteko elkarrizketa profesional bat da, eta bizitzari, oro har, edo gai, prozesu edo pertsona baten esperientzia jakin bati buruzko informazioa eskuratzeko egiten da. Elkarrizketa sakonaren bidez, elkarrizketatzaileak elkarrizketatuarentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu nahi du; ulertu nahi du; hain justu, hark bere mundua, oro har, edo ikerketarako interesgarria den gai edo arlo jakinen bat nola sailkatzen edo interpretatzen duen” (Juaristi, 2010: 2).

Elkarrizketa sakonen sorta handiaren artean, ikerketaren lehen zatian (hasierako logika) erdiegituratutako elkarrizketa sakon batzuk egin dizkiegu oinarrizko zenbait informatzaileri, honako helburu hauekin:

- Ikerketaren egokitasun teorikoa eta metodologikoa egiaztatzea, partaidetzan, ikerketa feministetan eta generokoetan, eta gizartea ikertzeko tekniketan espezialistak diren agenteekin.
- Aztertze modukoak izan daitezkeen berrikuntza demokratikoko esperientzien ahalik eta zerrenda zabalena egitea.
- Aurrerapausoak ematea, elkarrizketatutako pertsonen kontakizunetan ager daitezkeen oztopoak, estrategiak eta balioak identifikatzeko.

Horretarako, eta lan honen 1. eranskinean emandako elkarrizketa gidotiaz baliatuta, zazpi elkarrizketa sakon egin ditugu, ordubete eta hiru ordu bitarteko iraupenekoak. Zazpi elkarrizketetatik bost grabatu eta transkribatu egin dira, eta beste bietan oharak hartu dira, gero sistematizatzeko.

Bigarren taulan, elkarrizketatutako zazpi pertsonen profilak jasotzen ditugu, baita bakoitzaren ikasketen arloa eta elkarrizketaren garapenari buruzko oinarrizko datuak ere.

⁵¹ Eskerrak ematen dizkiogu Patxi Juaristiri ikerketa osoan emandako laguntzagarritik eta ikerketaren inplikazio etikoei buruz eztabaidatzeko erakutsitako interesagarritik. Horri buruzko eztabaidak oso garrantzitsuak izan dira ikerketaren behin betiko forma zehazteko.

2. taula. Ikerlanaren hasierako fasean elkarriketatutako pertsonen profila.

<i>Kodetzea</i>	<i>Identifikazioa eta intereseko datuak</i>	<i>Espezializazio arloa</i>	<i>Elkarriketari buruzko datuak</i>
Partaidetzan espezialista (1)	Emakumea, partaidetza teknikaria, gaian hamar urtetik gorako eskarmentua duena.	Herritarren partaidetza	Iraupena: 2 ordu Lekua: Bilbo Data: 2014ko martxoaren 13a
Partaidetzan espezialista (2)	Emakumea, Euskadin herritarren partaidetzako teknikari lanetan aritutakoa, gaian bost urteko eskarmentua duena.	Herritarren partaidetza	Iraupena: 1 ordu 32 minutu Lekua: Leioa Data: 2014ko apirilaren 14a
Partaidetzan espezialista (3)	Emakumea, ikerketa egiteko unean herritarren partaidetzako zuzendaria euskal erakunde publiko batean.	Herritarren partaidetza	Iraupena: 45 minutu Lekua: Leioa Data: 2014ko ekainaren 23a.
Ikasketa feministetan espezialista (1)	Emakumea, emakumeen partaidetza politikoan espezialista.	Ikasketa feministak	Iraupena: 46 minutu Lekua: Leioa Data: 2014ko martxoaren 7a
Ikasketa feministetan espezialista (2)	Emakumea, antropologia feministan espezialista	Ikasketa feministak	Iraupena 2 ordu 45 minutu Lekua: Donostia Data: 2014ko apirilaren 29a
Ikasketa feministetan espezialista (3)	Emakumea, teoria politikoan eta filosofia feministan espezialista	Ikasketa feministak	Iraupena: 59 minutu Lekua: Leioa Data: 2014ko martxoaren 13a
Gizarte ikerketarako tekniketan espezialista	Gizona, gizarte ikerketarako teknika kualitatiboetan espezialista.	Ikerketa teknikak	Iraupena: 35 minutu Lekua: Leioa Data: 2014ko ekainaren 24a

Iturria: egileek egina.

Partaidetzaren biografiak⁵²

Partaidetzaren biografiak elkarrizketa sakonen mota bat dira, agente jakin batek partaidetzan –zentzu zabalean ulertuta– bizi izandako esperientzian oinarritzen direnak. Pertsonen bizitzara hurbiltzeko modu hori hautatu dugu, bat gatozelako Miren Lonarekin ideia honetan “ahozko historiako elkarrizketa arrunt batean esaten dena ez da inoiz esan modu horretan” (2012: 29), eta ezaugarri horretan datza, hain justu, haren bertutea. Bi⁵³ pertsonen artean egindako elkarrizketa mota bat da, eta horren xedea da elkarrizketatutako pertsonen partaidetza ibilbidea ezagutzea. Elkarrizketa horien berezitasuna da, halakorik izatekotan, Bertaux-ek “ikuspegi biografiko” deritzon horretan oinarritzen direla. Bizi historiek, horrenbestez, askotariko intersekzioetan kokatzen dituzte pertsonak, eta horrek, bere ikuspegitik hizketan ari denaren subjektibotasunetik abiatuta, ahalbidetzen digu agerian uztea egoera bakoitza zer modutan dagoen menderatzeen eraginpean.

“Ikuspegi biografikoaren” (Bertaux, 1980) bidez, kontatzen duen pertsonaren eta kontakizuna jasotzen duen ikertzailearen arteko subjektibotasuna bilatzen dugu. Emakumeen partaidetzari buruzko biografia erabili dugu, sinesten dugulako agente bakoitzaren egoera dela munduaren ulermenean aurrera egiteko modurik onena. “Ilusio biografikoan” (Bourdieu, 1997: 74-83)⁵⁴ ez erortzeko arreta jarritz gero, uste dugu agente guztiek igaro beharreko intersekzioek informazio pribilegiatua ematen digutela opresioaren askotariko alderdiei buruz.

Bere denbora eskaini digun gizon eta emakume bakoitzak arreta jarri du bere partaidetza proiektuaren forma azaltzeko bere ustez garrantzitsua den horretan, eta proiektu hori zailtzen duten elementuak hautemateko hainbat hausnarketa maila erakutsi ditu. Gure planteamenduan, hausnarketa maila hori lotuta dago, goian aipatu bezala, aldezturik emakume izateak bere egoerari nola eragiten dion jakiteko diagnostiko bat egin duen kontrapubliko subalterno feminista bat eratzeari, edo ez. Horregatik, ahal den neurrian, aztertutako esperimentu bakoitzeko harremanetan jarri gara, kontrapubliko subalterno

⁵² Hasiera batean, agenteen partaidetza ibilbidean oinarritutako bizi historiei buruz hitz egiten genuen. Mari Luz Estebani zor diogu partaidetzaren biografiak terminoa. Proposamena eskertzen diogu, leialtasun handiagoz jasotzen duelako elkarrizketa horien izatera.

⁵³ Azpimarratu nahiko genuke ez dugula baztertzeko horrelako elkarrizketak pertsona gehiagorekin egiteko aukera.

⁵⁴ Bourdieu-k hau zioen: “bizitza bat gertaeren segida bakar eta nahiko baten modura ulertzen saiatzea, [...], zalantzarik gabe, izen propio baten egiaztapen bakarra duten «subjektu» bati lotura besterik ez izatea, gutxi gorabehera, metro ibilbide bati zentzua ematen saiatzea bezalakoa da, sarearen egitura kontuan hartu gabe; hots, geltokien arteko erlazio objektiboen matrizea (Bourdieu, 2002:82). Bourdieu ilusio biografikoaz mintzo denean, gizakiok gure bizitza gertaera logiko baten segida batez kontatzeko dugun joerari buruz ari da, bizitza errealean horrela gertatu ez diren arren.

feministako kide den emakume batekin, gutxienez. Hirugarren taulan ikus daitekeen moduan, KPF bat eratzen duten emakumeak biografiatutako pertsonen % 33 dira. Aurrerago sakon azalduko dugun moduan (ikus “kontrapubliko subalterno feministei buruzko ohar metodologikoak” puntua), kasurik gehienetan, kontrapubliko horiek eratzen dituzten emakumeek, talde feministetan parte hartzeaz gainera, berrikuntza prozesuetan parte hartzen dute.

Oztopoak, estrategiak eta balioak hautemateko asmoz, partaidetzaren 48 biografia egin dira, 3. taulan jasotzen den moduan banatuta.

3. taula. Partaidetzaren biografien banaketa

<i>Emakumeak/gizonak</i>	<i>Deskribapena</i>	<i>Egindako biografia kopurua</i>
Emakumeak/ bere burua emakumetzat duten pertsonak	Emakume gazteak (30 urtetik beherakoak), kontrapubliko subalterno feminista bat <u>eratzen</u> dutenak.	9
	Emakume helduak (30 eta 50 urte bitartekoak), KSF bat <u>eratzen</u> dutenak.	5
	Emakume nagusiak (50 urtetik gorakoak), KSF bat <u>eratzen</u> dutenak.	2
	Emakume gazteak (30 urtetik beherakoak), kontrapubliko subalterno feminista bat eratzen <u>ez</u> dutenak.	6
	Emakume helduak (30 eta 50 urte bitartekoak), KSF bat eratzen <u>ez</u> dutenak.	17
	Emakume nagusiak (50 urtetik gorakoak), KSF bat eratzen <u>ez</u> dutenak.	3
Gizonak/ bere burua gizontzat duten pertsonak	Gizon gazteak (30 urtetik beherakoak), KSF bat eratzen <u>ez</u> dutenak.	2
	Gizon helduak (30 eta 50 urte bitartekoak), KSF bat eratzen <u>ez</u> dutenak.	1
	Gizon nagusiak (50 urtetik gorakoak), KSF bat eratzen <u>ez</u> dutenak.	3
Guztira (horien artetik KSF direnak) (horien artetik KSF ez direnak)		48 16 32

Iturria: egileek egin.

Egindako 48 biografiek ordu eta erdi eta bi orduren arteko iraupena izan dute, eta elkarrizketak ikerketan parte hartzea onartu duten emakumeen etxeetan egin dira, edo berrikuntza esperientzia egiten den espazioaren inguruko auzo etxeetan. Horrez gain, hala behar izan denean, bigarren aldiz elkartu gara biografiatutako pertsonarekin. Elkarrizketa guztiak grabatu, transkribatu eta aztertu egin dira.

Biografia egin aurretik, galdeketa labur bat egin zaie ikerketan parte hartu duten emakumeei, gizarte mailari buruzko hainbat datu jasotzeko (jaiotza, bizilekua, ikasketak, familia mota, zaindu beharreko pertsonak, ikuspegi ideologikoa...). Horrez gain, elkarrizketa hasi aurretik, isilpekotasun eta anonimatutasun dokumentu bat sinatu da, ikerketetan parte hartzen duten pertsonak emandako informazioa erabat zaintzea eta errespetatzea bermatzen duena. Hori dela eta, lanaren hirugarren zatian, emakumeak ez dira identifikatzen kide diren BD esperimentuaren arabera; baizik eta, adinaren, gonbidapen edo agerpen bidezko espazio bateko kide izatearen, edo KSF bati atxikita egotearen edo ez egotearen arabera. Hori guztia parte hartzaileak identifikatzeko aukera guztiak ezabatzeke egin da.

Biografiak egiteko, gidoi ireki bat erabili da, emakumeen diskurtso librea lortzeko asmoz. Bizitzaren ordena kronologikoa baliatuta, biografiatutako emakumeak bere partaidetza proiektuaren eraldaketa kontatu du (ikus 2. eranskina). Biografien gidoian ikus daitekeen moduan, kontakizuna hiru etapa nagusitan banatu da: partaidetzaren hasiera; partaidetzan emandako bigarren pausoak; eta, egungo egoera, berrikuntza demokratikoaren prozesuan. Etapa guztietan, galdera giltzarri bat egin da, agente kontalariaren bizitzaren beste alderdi batzuk ezagutze aldera (zer gertatzen ari zen garai horretan zure bizitzan?). Galdera hori gakoa izan da, partaidetzan izandako gorabeheren, sartu-ateren eta eraldaketen arrazoiak ezagutzeko. Gidoia egokitu egin da, biografia eman duen emakume bakoitzaren egoeraren beharretara. Esate baterako, partaidetza BD esperimentuan hasi duten emakumeen kasuan, lehenengo bi zatiek garrantzi gutxiago izan dute hirugarrenak baino; bestalde, funtsezkoa izan da, batetik, biografia guztietan partaidetzaren kontakizun deskribatzailea saihestea, eta, bestetik, lehenetsuna ematea gogoetan oinarritutako kontakizun bati, bizitzaren une bakoitzean emakume bakoitzaren egoera egituratu duten instituzio guztiei lotutakoa (lehen aipatutako intersekzioei buruz ari gara).

Parte hartzaileak hautatzeko, jarraian azalduko dugun metodoaz baliatu gara. Aztertu beharreko ID esperientziak identifikatu ondoren, parte hartzaileak hautatzeko irizpideak

ezarri ziren, honako aldagai hauen arabera: sexua, adina eta KSF bateko kide izatea. Modu horretan, ahal izan den neurrian, aniztasuna bilatu da aurrez ezarritako aldagai bakoitzean.

Ikerketan parte hartu duten emakumeengana iristeko, bide hauek erabili dira:

- Parte hartzaileen auto-hautaketa, zuzenean harremanetan jarrita bitartekari funtzioa bete duten pertsonekin⁵⁵ -BD espazioa dinamizatzeko arduradun teknikoak (gonbidapen bidezko esperientzien kasuan) eta koordinatzailea (agerpen bidezko esperientzien kasuan). Espazioaren dinamizatzailearekin harremanetan jarri, eta ikerketaren helburuak dagokion aurkezpen dokumentuaren bidez azaldu ondoren, haren lankidetzara eskatu zen, emakumeei ikerketan parte hartzeko gonbita egin ziezaien. Kasu honetan, emakumeak berak, espazioaren dinamizatzailearen eskutik aurkezpen dokumentua jaso ondoren, harremanetan jarri ziren ikertaldearekin. Bide horren bidez jarri ginen harremanetan emakumeen % 45ekin.
- Profil jakinen arabera hautaketa, bitartekarietara harremanen bidez. Kasu honetan, bitartekariari eskatu zitzaion ikerketan parte hartzeko interesa eduki zezaketen balizko emakumeak identifikatzeko, adinaren, sexuaren eta KSF batekiko atxikipenaren baldintzak betetzen zituzten emakumeen artean. Zerrenda eskuratu ondoren, ikertzaileak harremanetan jarri ziren guztiekin, ekimenaren nondik norakoak emateko eta parte hartzera gonbidatzeko. Horrela, emakumeen % 35ekin jarri ginen harremanetan.
- Hautaketa, elur pilotazko teknikaren bidez. Emakumeen % 10 hautatu dira modalitate honen bidez. Horren arabera, dagoeneko ikerketan parte hartzen ari diren pertsonen eskatzen zaie parte har dezaketen beste parte hartzaile batzuk bilatzeko.
- Hautaketa, zuzeneko behaketaren bidez⁵⁶. Kasuen % 10ean, zuzeneko behaketa egin ondoren gonbidatu zitzairen emakumeei parte hartzera, haien profila interesgarria izan zitekeelako ikerketa prozesuan.

Gizonen kasuan, hautaketa prozesua bestelakoa izan da. Ikerketaren hasieran horien parte hartzea aurreikusten ez bazen ere, adituekin egindako elkarrizketen bidezko egiaztatze prozesuaren ondoren, beharrezkotzat jo zen gizonen lagin txiki bat sartzea, soilik ikerketaren hasierako fasean parte hartzeko. Ikerketa honen helburua emakumeek (bere burua horrelakotzat duten pertsonak) parte hartzeko unean dituzten oztopoak hautematea bada

⁵⁵ "Gure informatzaileak izan daitezkeen pertsonentzat garrantzitsuak izan daitezkeen hirugarren pertsonak dira", eta ikertzailearen eta ikerketan parte hartuko duen pertsonaren arteko bitartekari gisa jardun dute (García, 2012: 70).

⁵⁶ Eskerrak ematen dizkiogu Jordi Estrivili, Herritarren Partaidetza eta Komunitate Garapena Masterraren ikastaroan horri buruz egindako iruzkinagatik. Horrek gonbidapena behaketen bidez egitera animatu gintuen.

ere, badirudi beharrezkoa dela jakitea ea oztopo horiek gizonengan ere agertzen diren; nolana ere, azterketa hori ez da hain sakona izan, ikerketaren iraupena eta muga materialak direla eta. Balizko erkaketa hori egiten hasteko, sei biografia egin zaizkie gizonei; etorkizuneko ikerketetan gehiago egin beharko dira. Gizonen profila, berriz, lehen aipatutako aldagaien arabera identifikatu da (adina eta KSF bat eratzea edo ez). Gizonen kasuan, KSF bat eratzen duen gizonik ez genuen aurkitu; beraz, irizpide hori arintze aldera, alde batetik, kontzientzia feminista duten gizonak hautatu dira (partaidetzan haien emakume lankideek horrela identifikatu dituztenak), eta, bestetik, feminismoarekiko ageriko kezkarik ez dutenak. Hala, BD espazioetan parte hartu zuten eta aurretik biografiatuak izan ziren emakumeen bidez jarri ginen harremanetan gizon horiekin. Hortaz, emakume horiek bitartekariak izan ziren, gizonei ikerketan parte hartzera gonbidatzeko.

Amaitzeko, egindako biografia kopuruari dagokionez, asetasun metodoaz baliatu ginen. Ikerketa prozesuan, diskurtsoa asetzeko ahalegina egin da; hau da, honako hau egiten saiatu gara: “errepikapenak finkatu arteko biografiak egitea, bizitakoa eta bizi kalitatea estandarizatzeko eta kualitatiboa kuantifikatzeko” (Miren Llona, 2012: 39). Asetasun maila gorenera iritsi ez bagara ere, baieztatu daiteke, hasierako prozesua (lehen fasea) amaitutzat jo denean, errepikapen ugari hauteman direla diskurtsoetan mobilizatutako oztopoetan, estrategietan eta balioetan.

Focus group

Ikerketaren bigarren fasean, *focus group*ak edo eztabaida taldeak erabili dira. Teknika horrek, aurrekoak bezalaxe elkarrizketan oinarritzen bada ere, bi pertsona baino gehiagoren arteko talde eztabaida bat proposatzen du (dinamizatzailerak kontuan hartu gabe). Manuel Canales eta Anselmo Peinado egileek dioten moduan, eztabaida taldea “bitarteko bat da, subjektibotasunean diren leku komunak aztertzeko eta modu horretan subjektibotasun artekotasuna lortzeko diseinatu dena” (1994: 296). Talde simulatuak eta manipulagarriak dira: “simulatuak dira, soilik alegiazko taldeak direlako (...), manipulagarriak, tutoreak eskura dituelako taldea mugiarazten duten hari guztiak” (Ibañez, 1992: 271). Izaera artifiziala eta moldakorra izan arren, taldeak, ongi erabilita, informazio iturri baliotsuak izan daitezke, agentearen diskurtso gogoetatsura iristeko. Parte hartzaileen arteko eztabaida gidatuaren bidez, eztabaida taldeek ahalbidetzen digute parte hartzaileak normalean iristen ez diren gogoaren eta diskurtsoaren eremuetan sartzea; izan ere, parte hartzaileek normalean ez diete eremu horiei arreta eskaintzen, denboraren banaketan horretarako tarterik aurreikusten ez

dutelako edo horiei buruz hitz egiteko eratutako gizarte taldeetara iristeko aukerarik ez dutelako.

Ikerketaren bigarren fasearen helburua, amaierako logikan kokatutakoa, lehen fasean identifikatutako oztopoei, estrategiei eta balioei zentzu komuna ematea denez, eztabaida taldeak tresna egokiak dira gure ikerketarako. Hortaz, ikerketaren bigarren fasean, bost eztabaida talde jarri genituen abian. Talde bakoitzean ikerketaren lehen fasean parte hartutako bi eta sei pertsona artean zeuden. Hona iritsita, ohar bat egin behar dugu taldeen eraketa kuantitatiboei buruz. Eztabaida taldeetako espezialistek gomendatzen dute bost eta hamar pertsona arteko taldetan lana egitea (Canales eta Peinado, 1994: 300; Juaristi, 2010: 25). Alabaina, ezin izan zaio beti gomendio horri eutsi taldeak eratzeko unean; izan ere, denbora eta prest egoteko aukera direla eta, bigarren fasean parte hartzera gonbidatutako pertsona guztiek ezin zuten parte hartu.

Eztabaida taldeetan parte hartzeko aukera izan duten ala ez albo batera utzita, lehen fasean parte hartutako pertsona guztiei gonbit egin zitzaion, ikerketaren bigarren fasean laguntzeko. Gonbidapen gutunarekin batera, deitutako emakumeek –gogoratu behar dugu lehen fasean parte hartu zuten gizonei ez zitzaizela gonbidatu bigarren fasean parte hartzera– eztabaida taldean landu beharreko gaiei buruzko hiru lan dokumentu jaso zituzten. Taldea dinamizatzeko, gidoi erdiegituratu bat prestatu zen (ikus 3. eranskina), eta horren bidez hiru galdera multzo lantzen ziren, bi orduan. Lehen multzoan, biografien bidez identifikatutako eta ikertzaileek aldeztatik kategorizatutako oztopoen zerrendari buruz eztabaidatzeko eskatzen zitzaion parte hartzaileei. Bigarren multzoan, oztopo mota jakin bati buruz eztabaidatzera gonbidatu zitzaion: gizarte egitura barneratuak edo genero arauak; izan ere, ikerketak aurrera egin ahala, ikertaldea egitura horiek demokratizazio espazioetan duten izaera mugatzaileaz jabetu zen. Amaitzeko, hirugarren multzoan, emakumeek beren partaidetza proiektuak aurrera eramateko erabilitako estrategiei buruz eztabaidatu zen.

Bost eztabaida taldeak, parte hartzaileen prestasunak baldintzatuta egon badira ere, honako irizpide hauen arabera eratu dira: parte hartzaileen bizilekua edo lurraldea, eta kontrapubliko subalterno feminista bateko kidea izatea ala ez. Bi irizpide horiek eta, genioen moduan, bakoitzaren prestasuna konbinatu ondoren, taldeak 4. taulan jasota dauden moduan eratu dira.

4. taula. Ikerketan egindako eztabaida taldeak

Kodetzea	Parte hartzaileen kopurua	Taldearen ezaugarriak	Taldearen garapenari buruzko datuak
Pilotua, Ez KSF	2	Bizkaian egindako eztabaida talde pilotua, KSF bat eratzen ez duten emakumeek osatutakoa.	2014/10/15ean egin zen, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, Leioa. Iraupena: 2 ordu.
Pilotua, KSF	6	Bizkaian egindako eztabaida talde pilotua, KSF bat eratzen duten emakumeek osatutakoa.	2014/10/15ean egin zen, Bilbon. Iraupena: 2 ordu.
KSF	6	KSF bat eratzen duten emakumeekin Bizkaian egindako eztabaida taldea.	2014/10/28an egin zen Bilbon, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko egoitzan. Iraupena: 01:58:32
Mistoa (1)	4	Bizkaian egindako eztabaida taldea, KSF bat eratzen duten bi emakumek eta horrelakorik eratzen ez duten beste bik osatutakoa.	2014/10/26an egin zen Sarrikon, Enpresa Zientzien Eskolan. Iraupena: 2 ordu.
Mistoa (2)	3	Gasteizen egindako eztabaida taldea, KSF bat eratzen duen emakume batek eta horrelakorik eratzen ez duten beste bik osatutakoa.	2014/12/2an egin zen, Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolan, Gasteiz. Iraupena: 2h 10 min.
Guztira	21 pertsona 5 eztabaida talde (bi pilotu)		

Iturria: egileek egina.

Taulan erakusten dugun moduan, bi esperientzia pilotu egin dira, eta horien oinarritzko balioa izan da eztabaida taldearen diseinu orokorra frogatzea, eta gidoiaren eta horretarako diseinatutako dokumentuen erabilgarritasuna egiaztatzea. Talde pilotuetan parte hartzera gonbidatutako pertsonak ez dira lehen fasean parte hartutako guztiak izan; dena den, berrikuntza demokratikoko esperientzietan parte hartzen duten emakumeak dira. Horregatik, lanaren hirugarren zatian, eztabaida talde horien diskurtsoak ere mobilizatu ditugu.

Zuzeneko behaketa

Erabilitako azkeneko tresna zuzeneko behaketa izan da, eta, batez ere, hasierako lehen fasearen bigarren zatian erabili dugu. Zuzeneko behaketaren jatorrian dagoen ideiaaren arabera, gizarte portaerak modu sistematizatuan behatuz gero, horren inguruko elementuak uler daitezke, eta modu horretan errealitatea azaldu. Ruíz de Olabuénagak eta Ispizuak dioten moduan, zuzeneko behaketak “berariazko komunikazioa ezartzen du behatzailearen eta behatutako gertakariaren artean. Komunikazio hori, normalean, hitzik gabekoa izaten da, eta ikertzaile-behatzaileak arretaz zaintzen ditu hautematen dituen gauza garrantzitsuak, horietaz baliatuko baita gertatutakoa interpretatzeko; horrela, behatutako errealitatearen ezagutza sistematikoagoa, sakonagoa eta osoagoa lortzen du” (Olabuénaga eta Ispizua, 1989: 80).

Horregatik, eta modu gutxi-asko esplizituan biografietan sortzen joan diren oztopoen eta estrategien dimentsio barneratura iristeko, behaketa parte hartzailea bi aldiz egin da, bi BD espazioetan. Esate baterako, espazio publikoan, oztopo gisa “diskretua izateko beharra” jasotzen duen diskurtso baten gorputz adierazpena ulertzeko asmoz, bi behaketa egin dira, eta horien bidez behatu ahal izan dira agenteen gorputz jarrera (erlaxatua edo tentsioan, esate baterako), baztertze bitarteko barneratuak (begirada baztertzaileak) eta espazioen banaketa, bai gorputzekoak (esertzeko moduak) bai altzarienak (mahaia eta aulkiak antolatze modua).

Azaldu behar da, ordea, hasiera batean behaketa gehiago egitea aurreikusi genuela. Halere, espazio batzuek ikertzaileen presentzia onartu ez zuten eta ikerketa egin bitartean beste batzuek bilerarik egin ez zuten, behaketa 5. taulan jasotako bi une horietan bakarrik egin ahal izan zen.

Agerpen bidezko bi espazio dira, eta bietan dago kontrapubliko subalterno feminista. Ikerketaren lehen fasean parte hartu zuten kontrapubliko horien bidez tramitatu zen espaziora sartzeko baimena. Ikerketaren zati horren gabeziez jabetuta (agerpen bidezko bi

espazio dira; hortaz, espazioaren sustatzailearen identitatean ez dago aniztasunik; gainera, bi behaketek, sakonak izan arren, ez dute aukerarik ematen beste espazio batzuetara eraman daitezkeen ondorioak ateratzeko), bi behaketen emaitzak erabakigarritzat eman gabe, modu osagarrian erabiliko dira biografietan eta eztabaida taldeetan ageri diren diskurtsoen azterketan laguntzeko. Horregatik, ikergai horri (sexu-generoko menderatze maskulinoko sistemaren birsorkuntza) heltzen dioten etorkizuneko ikerketetan, sakontasun handiagoz landu beharko dira behaketaren bidez lortutako emaitzak.

5. taula. Ikerketan egindako zuzeneko behaketak

Kodetzea	Behatutako espazioaren deskripzioa	Behaketaren datuak
Agerpena-sortu berria	Espazio sortu berri batean (2009an hasitakoa) egindako laneko batzar bat da. KSF antolatu bat dago, eta ingurumena eta eredu sozioekonomikoa lantzen dira. Kontrapublikoa BDan parte hartzen duten emakumeek osatzen dute, gehienbat. BD espazioan parte hartzen duten pertsona guztiak daude batzarrera gonbidatuta; hortaz, espazio irekitzat hartzen da. Esperimentuaren elkargune nagusia da. Joandako pertsona kopurua: 14 (6 emakume eta 8 gizon)	Behaketa 2014ko ekainaren 28an, larunbata, egin zen, 10:30etik 14:30era, Bilbon.
Agerpena-Ibilbide luzeko espazioa	Ibilbide luzeko (1978) espazio batean egindako laneko batzar bat da. Espazioan KSF antolatu bat dago, eta kultura da landutako gaia. Kontrapublikoa talde feminista bateko kide diren emakumeek osatzen dute, eta BD espazioan talde gisa parte hartzen dute. Berrikuntza esperimentuan parte hartzen duten taldeetako ordezkariak gonbidatu dituzte batzarrera; hortaz, publikora irekita ez dagoen ordezkari-tza espaziotzat hartzen da. Joandako pertsona kopurua: 37 (14 emakume eta 23 gizon).	Behaketa 2014ko azaroaren 3an, astelehena, egin zen, 19:30etik 21:45era, Bilbon.

Zuzeneko behaketa parte hartzaileak, erdiegitutako protokolo bat diseinatu da, eta *expert validity* testa egin zaio, erabili aurretik (ikus 4. eranskina). Baimena eskatu ondoren eta alde aurretik ikerketaren azalpen bat emanda, ikertzaileak beste bat gehiago bezala parte hartu du berrikuntza prozesuetan, laneko bileretara eta batzarretara joanez. Behaketan, nagusiki, elementu hauei erreparatu zaie: esperientzia egingo den lekuaren deskripzio fisikoa, bertaratutako pertsonen kopurua eta sexua, bileraren hasierari buruzko datuak, bertaratutako pertsonen batez besteko adina, espazioaren banaketa (gizarte espazioaren dimentsio fisikoa), joandako pertsonen itxura fisikoa eta osagarriak, espazioaren rolak, espazioen barne antolakuntza, komunikazio estiloa eta hizkuntza erregistroa, hitzezkoa ez den komunikazio estiloa, gorputzen jarrera eta portaera, denboren eta hitzen antolakuntza, eta arloen eragina eta gaien banaketa.

Behaketa biak ikertaldeko pertsona bakarrak egin ditu, eta behaketaren (bideoz edo ahotsez erregistratu gabekoa) ondoren, landa oharrak sistematizatu ditu, elkarrizketa, biografia eta eztabaida taldeetan lortutako materialen osagarri gisa erabili ahal izateko.

Kontrapubliko subalterno feministei buruzko ohar metodologikoak

Gogoratu nahi dugu ikerketarako oinarritzko tresna kontzeptuala Nancy Fraser-en kontrapubliko subalterno feministei buruzko proposamena izan dela. Ikerketa honetan sostengatzen dugu, Fraser-en tesia hedatuz, kontrapubliko bat eratzea lagungarria da huraosatzen duten pertsonen behar propioen –sexu-generoko menderatze sistemak baztertu, gutxietsi edo ezkutatutakoak– identifikatzeko, eta hori lagungarria da partaidetza baldintza onenak diseinatu ahal izateko, tradizioz erabakiak hartzeko espazioetatik kanpo geratu izan diren gizarte taldeentzat. Planteamendu horri jarraituta, eta lanaren 1. kapituluari adierazi dugun moduan, kontrapubliko subalternoek aukera gehiago dituzte beren partaidetzan aurkitutako oztopoei, estrategiei eta balioei buruzko diskurtso gogoetatsu bat eskaintzeko, haien abiapuntua ezin hobe baizita, sexu-generoko menderatze sistemaren inplikazioei buruz alde aurretik egindako gogoeta dela eta. Eta berriro diogu: oztopoak identifikatzeko gogoeta sakonagoa egiteak horiek erabat gainditzea bermatuko ez duen arren, pentsa daiteke horien identifikazioa eman beharreko lehen pausoa dela emakumeen askatasuna mugatzen duten botere erlazioak arian-arian indargabetzeko.

Gaizki ulertzeak saihesteko, azpimarratu nahi dugu pertsona bat KSF bateko kide ez izateak ez duela esan nahi pertsona horrek nortasun feministarik ez duenik edo feminista ez denik. Ikerketa honen xedea ez da, inola ere, 48 pertsona horien artetik zein diren feminista eta zein ez zehaztea. Pertsona bat KSF bateko kide izatzen hartzeak esan nahi du pertsona hori Nancy

Fraser-ek eskainitako eta talde horietan aplikatutako definiziora hurbiltzen dela. Hartara, ikerketa honetan KSF bat eratzeko hiru bide hauteman dira; hau da, KSF bateko kideztat hartu dira honako baldintza hauetarakoren bat betetzen duten emakumeak:

- Talde feminista bateko kide diren eta berrikuntza demokratikoko espazioan talde horretako ordezkari gisa parte hartzen duten emakumeak. Kasu honetan, talde feministaren barruan gutxi-asko formalizatutako elkarrizketa tarteak eta espazioak daude, eta BDan parte hartzen duen pertsonak horietan azaltzen ditu bere iritzak, eta aholkua eskatzen du bertan aztertutako gaiak lantzeko. Horrela, beren beharretara ongien egokitzen diren esku hartzeko moduak eta diskurtsoa identifikatu dezakete. Kasu honetan, talde edo kolektiboa espazio bat da, “eztabaida agertoki paralelo bat” Fraser-en hitzetan, eta horren barruan behar espezifikoak identifikatu daitezke, BDan landutako gaiei dagokienez.
- BD espaziotik berariaz kontrapublikoa izateko bokazioz eratutako talde batean parte hartzen duten emakumeak. Kasu bat topatu dugu, non BD bitartekoa bokazio feministarik gabe sortzen den. Horrek talka egiten du hura osatzen duten zenbait emakumeren behar feministekin. Emakume horiek emakume talde bat sortzea erabaki dute nahi dituzten gaiak, egoki deritzen moduan eta denboran lantzeko. Horrela, zubiak eraikiko dituzte publiko menderatzailearekin; kasu honetan, BD bitartekoa bera.
- Talde feminista bateko kide iraunkorrak izan gabe (ez dute bere burua taldeko kideztat hartzen), mugimendu feministako ekintzetan parte hartzen duten eta bere esku-hartzeen bidez partaidetzarako baldintza onenak identifikatzeko lankidetzan diharduten emakumeak (hitzaldiak, mintegiak, unean uneko bilerak). BD esperimentuetan parte hartzen edo ordezkaritza duten talde feministek proposatutako manifestazio, ikasketa jardunaldi, mintegi edo hitzaldietara joaten dira emakume horiek. Horrela, haien ekarpenak lagungarriak dira kontradiskurtsoak eratzeko eta beren interesak eta beharrak identifikatzeko.

Publiko horiek, kontrapublikotzat hartuak izan daitezzen, Fraser-en arabera, baldintza hauek bete behar izan dituzte: erretiratzeko eta biltzeko espazio gisa funtzionatzea, eta publiko zabalagoetara bideratutako jarduerak prestatzeko espazio bat izatea. BD espaziotik bereizita biltzen diren publikoak dira, termino feministen bidez adierazi nahi dituzten pertsonak elkartzeko; espazio horietan aztertzen ez diren edo haiek nahi duten moduan lantzen ez

diren gaiak aztertzen dituzte; diskurtso bat lantzen eta prestatzen dute, eta gero publiko menderatzaileari helarazten diote (BD baten batzarra, esate baterako).

Amaitzeko, ierketa honetan kontrapubliko feministak emakumeek soilik eratu dituzten arren, azpimarratu nahi dugu horrek ez duela esan nahi gizonak kontrapubliko horietako kide izan ezin daitezkeenik. Biografiatutako gizonak horietako baten kideak ez badira ere, aukera hori zabalik geratzen da. Aurrera begira egingo diren ikerketan, interesgarria izango litzateke gizon horiek BDetan izandako esperientzia ezagutzea.

HIRUGARREN ATALA

V. Kapitulua. Oztopoak, estrategiak eta balioak emakumeen eta gizonen parte hartzean

Arestian deskribatutako landa lanaren emaitza nagusiak eskainiko ditugu kapitulu honetan. Oztopoak antolatzeko, III. kapituluko interpretazio eredua hartu dugu oinarri, SGMMSaren birsorkuntza forma objektibatuan eta barneratuan gertatzen diren hiru kontraesanetatik abiatzen dela planteatzen baita: **publikoa eta pribatua aurrez aurre; arrazoa eta emozioa aurrez aurre; eta unibertsal bihurtzeko bokazioa duen menderatzailea eta eredurik gabeko menderatua aurrez aurre**. Jarraian adieraziko ditugu emakumeek erabili dituzten estrategiak beren parte hartzeko proiektuak aurrera eramateko; horretarako, bi aldagairen konbinaziotik –estrategia horien genero arauetako buruzko harremana eta burura eramaten dituen agentearen nortasuna– sortzen diren emaitzen eredu bat baliatuko dugu. Azkenik, generoen rola birsortzen ez dituzten estrategiei loturik, azpimarratu egiten dira emakumeek beren parte hartzeko proiektuaren garapenean higiarazi dituzten balio batzuk, beren borondate inklusiboagatik eta, ikusiko dugun bezala, *habitus* emozionalagatik baitira aipagarri.

Zerk oztopatzen ditu emakumeen parte hartzeko proiektuak?

Erabilitako hiru informazio iturri nagusien bidez (biografiak, *focus group* eta zuzeneko behaketak) identifikatu ahal izan diren oztopoak adierazten dute oztopo horiek forma eta modu askotarikoak izan arren denek eragozten dietela emakumeei beren parte hartzea haiek nahi bezala garatzen. Zenbaitetan oso oztopo sotil edo meheak dira (esate baterako, begiradaren bidezko gaitzespen edo arbuio sistematikoa –baita iheskorra ere–), halakotzat hartzen zail dira, gurekin lan egin duen emakume batek zioen bezala "*te da miedo parecer una loca que sobre interpreta y saca las cosas de contexto*" (Emakumea, KSF, agerpen bidezkoa, 40 urte). Beste kasu batzuetan lehenagoko azterlan batzuetan mahaigaineratutako oztopoak dira, era berean ordezkariak espazioetan topatzen ditugunak berak. Esate baterako, hortxe dago gaien banaketa orokorraren kasua, emakumeak zaintza eta hezkuntza kontuen inguruan lan egiteko joera erakustera behartzen dituen; edo eztabaidetan hitza hartzeko txandan desorekak kontrolatuko dituen moderatzaile baten absentiaren kasua.

Lan honetako III. kapituluaren aurkeztutako interpretazio ereduari jarraiki, gure ustez badago aipatu oztopoak produktu sozial orotan SGMMSaren birsorkuntzaren oinarri diren hiru kontraesanetatik abiatuta azaltzea. Horregatik, hemen identifikatzen ditugun oztopo sorta

batzuk hiru tentsioek presionatuta dauden arren, gure ustez badago haietako baten nagusitasuna hautematea.

Publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa nagusitzen den oztopoetan inertzia patriarkala da indarra hartzen duena, emakumeen parte hartzea etxeko kontuekin lotzeko joera bultzatzen baitu. Tentsio horretan behin eta berriz eragin duten instituzioen artean daude amatasuna, familia, bikotea, ikastetxea eta lana. Gainera, ongi asko nabari daiteke parte hartzeko bitartekoaren egitura formalaren logika batzuek elikatu egiten dutela tentsio hori.

Arrazoiaren eta emozioaren arteko banaketa nagusitzen den oztopoak zuzenean daude lotuta kapitalak edukitzearekin edo ez edukitzearekin, II. kapituluan adierazi bezala, harreman sozial guztietan baitute eragina kapital horiek. Atal honetan garrantzi handia hartzen du sinbolo eta kultura kapitalak bere hizkuntzaren adarrean, arrazoiaren eta ezagutzaren artekoa oso lotura estua baita, pentsamolde ilustratuaren oinordekotza. Era berean, badago bitartekoaren egitura formalean emozioak hitzez adierazteko gaitzespena aurkitzea eta emozioak zerbait ez serio edo ez profesional gisa aurkeztea, eta horrek arrazoia eta emozioa aurrez aurreko kontraesanarekin lotzera eramaten du.

Azkenik, unibertsal bihurtzeko bokazioa duen menderatzailea eta eredurik gabeko menderatua aurrez aurrekoaren artean identifikatu dugun kontraesanari dagokionez, bitartekoaren / BD produktuaren beraren sorkuntzan (ekoizpenean) topatzen dugu bide pribilegiatu bat haren bidez parte hartzeak esan nahi duen forma nagusi bat birsortzeko, parte hartzearen adiera zabalarekin zerikusirik izan ohi ez duena.

Era berean, lan honetako III. kapituluan azaldu bezala, oztopo bakoitzak dimentsio txertatu bat du eta beste dimentsio objektibatu bat. Lehenengoa funtsean *habitus*-ean islatuko litzateke gorputzaren eta bere keinuen bidez. Bigarrena, berriz, espazioaren edo boterearekiko harremanen egokiera materialean hautemango litzateke. Dimentsio barneratuari esplizituki arreta emateko eta hiru tentsioak nola gurutzatzen diren azaltzeko, egitura sozial barneratuei aparteko atal bat emateko erabakia hartu dugu; eta uste dugu etorkizunean garrantzi handiagoa eman beharko zaiola kontu horri.

Oztopo hauetan publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa da nagusi
Hezkuntzarekin, zaintzarekin eta lanarekin lotutako instituzio sozialak

Amatasuna

Nancy Chodorow-ek zioen amaren egitekoa “funtsezkoa dela sexu-generoa eskemaren antolakuntzan; baina ez soilik funtsezkoa antolakuntzan, baizik eta baita sistemaren

birsorkuntzan ere”, haren iritziz “amaren egitekoa baita emakumea esparru pribatura-etxekora mugatzen duena, esparru hori amatasunaren “berezko” luzapen gisa ulertzen delarik (Petit, 1994: 223). Chodorow-en aburuz, amatasuna ez da berezko gertaera, azalpena behar duen gertaera kulturala baizik. Egileak hitzaren barruko adieran ulertzen du amatasuna, haurrak etxeko beroan eta intimitatean haztearekin lotzen baitu. Haurrak etxean elikatzea, zaintzea, besarkatzea eta irakastea izan da emakumeen egitekoa euskal gizartean eta mendebaldeko gizarte gehien-gehienetan.

Hortaz, zaintzeko egitekoa guztiz espazio pribatuan gauzatzen den jarduera denez, ez da harritzekoa jarduera hori bideratzen duenak –edo jarduera hori burura eramateko gizarteratua izan denak– zailtasunak edukitzea guztiz bestelako trebetasunak (lehiakortasun diskurtsiboko testuinguruak definituak) eskatzen dituzten beste jarduera batzuekin bateragarri bihurtzeko. Lehendik beste psikoanalista batek, Mabel Burín-ek, amatasunak emakumeen jarduera parte hartzaileari gehitzen dion garrantzi sinbolikoaz ohartarazi zuen, beren zaintzeko rola espazio publikora zabaldurik (Burín, 2001).

Ikus dezagun noraino esan daitekeen amatasuna, espazio intimo batean (etxean) garatzen den jarduera intimo gisa bizitakoa, jarduera parte hartzailearen aurrez aurre gertatzen den. Ideia hori berretsiko lukeen lehenengo datua da biografiara jaso ditugun 42 emakumeetatik 11 baizik ez direla ama. Emakume ama guztiak daude 30 eta 60 urte arteko adin tartean, eta denek diote, inolako salbuespenik gabe, zail dutela beren bizitzan amaren egitekoak eta parte hartzeko proiektua bateragarri egiteko. Oso argi azaltzen du hurrengo emakumeak, agerian uzten du nola bizi duen bere parte hartzeko proiektua burura eramatearen eta bere amatasuna modu intimoan bizitzearen arteko tentsioa.

“nik uste dot hau dala bebai... hori, azkenean ba beti goaz leku berdiner, eta benetan amorrua ematen du ze... horri buruz hitz egitean, batzutan emoten du sensaziñua alperrik dala, osea... ze gaizki dabil porta eiten sistema hau gurekin. Gurekin eta, batez ere, emakume eta ama garen pertsonakin, bai. Bai. Jartzen gaitulako tesituratan eta egoera batzutan nun zergatik aukeratu behar dot, hori eta horren artian, ez? Ez? Ez da justua. Ez da justua jan ahal izateko, osea hautu horrek egin behar izana. Neretzat ez da justua. Orduan... hori, bai pentsa eiten dot ba... dauzela egitura batzuk edo badauzela... eragile batzuk edo pertsona batzuk be baita, gauza batzuk erraztu ahal dituztenak eta ez dekote borondaterik, ez asmorik, ez gogorik...” (Mujer, No CPSF, Irruptivo, 36 años).

Idea horrekin bat datoz emakume guztiak, amak izan ala ez. Guztiak bat datoz “ama izatea eta parte hartzea bateragarri egitea zein zaila den” azaltzean. Egiaztatu egiten dugu emakumeen artean nagusi dela “emakumea etxean geratzen da haurrekin, eta parte hartzeko gaietarako gizonak joaten dira” delako ideia (2. eztabaida talde mistoa).

Solastatu garen emakume amek jakinarazi digute amatasunak haustura ekarri diela, parte hartetik irteteko arrazoia izan dela (aldi baterako zenbaitetan, betirako bestetzetan). Funtsean haurren hazieraren aurreneko bi urteek erabateko etena eragin diela emakume askoren parte hartzeko proiektuei. Puntu horretan esaten dute bizi izan dituztela arazo handienak beren lanari eusteko etxeko esparruan ama gisa eta beren lana egiteko esparru publikoan parte hartzaile gisa. Hala eta guztiz ere, aldaketa bat nabari da adintsuen eta gazteen arteko diskurtsoan haurren zaintza lanak etxean banatzeko gaiari eta bikoteekin negoziatutako amatasun planteamenduei loturik; 40 urtera iristen ez direnen artean oraindik handiagoa da amaren presentzia, batik bat haurren aurreneko bi urteetan, esparru publikotik “bazterturik” eta gerora berriro ere “gizarteratzeko” gogoak zapuztutik. Bere parte hartzea nerabezaroan abiarazi zuen KSF emakume honen testigantza da adierazitakoaren erakusgarri.

“Luego va pasando... que empiezo a tener hijos... Y se corta toda la actividad... Si. Además, cuando le tuvimos al primer hijo, pues... Nosotros estábamos los dos solos aquí. Yo soy de [capital de provincia] y mi marido tiene toda la familia en [capital de provincia fuera de la CAPV]. Con lo cual no podíamos contar absolutamente con nadie. Con nadie... de familia, bueno, entonces, pues... el primer año incluso dejé de... ya no estaba en [nombre de colectivo]. Y dejé el trabajo, el primer año. Y... bueno, pues ahí ya empezó otra historia diferente. Luego tuve otro, a los cuatro años, Y... luego, cuando me quise incorporar, ahí tuve problemas” (Mujer, CPSE, irrupción, 52 años).

Lehendik ere azaldu dugun bezala, amaren parte hartzearen eraldaketa ekarri du berekin batean amatasunak, baina ez du horrelako eraginik izan solastatu garen gizon aiten artean. Elkarriketatutako emakumeek esan dute euren seme-alabak jaio eta gero heziketa eta zaintza bezalako gaietara bideratu dutela euren parte hartzea, seme-alaben hazierarekin eta heziketarekin estu lotutako gaietara. Gainera, emakumeek agerian utzi dute beren bizitzaren kontakizuna amatasunaren arabera antolatzeke joera, gizonak horrelakorik egin ez dutenean. KSF bat osatzen ez duen eta hiru seme-alabaren ama den emakume honen moduko testigantzek haren parte hartzea seme-alaben jaiotzaren arabera antolatzera behartzen duen errealitatera hurbiltzen gaitu, eta ama izan ostean bere parte hartzeak bizi izandako eraldaketa uzten du agerian.

“nire lehenengo semea jaio zenean joan nintzen bizitzera beste herri batera, gero bueltatu nintzen baina semea jaio zenean utzi nuen parte hartzea (...) Orduan, nire bigarren haurdunaldiarekin batera, elkartu ginen familia batzuk bueno, orduan eskolan euskal dantzetako klasea zegoen, gero hurrengo urtean ez zegoen. Gero etortzen zen andereñoa eta ikusi genuen zerbait egin behar zela, eta erabaki genuen elkarte bat sortu eta ... hiru familia ginen eskolakoak eta sortu genuen elkarte bat ziurtatzeko gure semeek euskal dantza modu dezente batean ikasiko zutela. (...) Orduan badago zure elkartearen lana, zure bizitza pertsonala, zure lana eta gainera [IDaren izena]. Orduan, ba egon nintzen buru-belarri hor, eta hainbat proiektu atera genuen aurrera hiru lau urtetan.

Baina gero hirugarren semea jaio berritan zegoenean ba ... ez du denborarik ematen. (...) Arratsalde batean bilera badaukat geratzen dira kanpan jolasten eta begiratu egiten dut. Bai egon da momentu bat ... egon dela holako..." (Mujer, No CPSF, Irrupción, 40 años)

Kontakizunaren azken esaldian hautematen da emakume horrek estrategia bat garatu duela bere kabuz amatasuna eta parte hartzea bateragarri egiteko, bateragarri egiteko zeregin hori bere gain hartzen jarraitzen duela. Kontua da parte hartzen duen artean "zaindu" egiten dituela seme-alabak. Aldi berean bi espaziotan jartzen du arreta, etxeko esparruan eta esparru publikoan, eta horixe da, inolako zalantzarik gabe, emakume batzuek beren kontakizunetan adierazten duten nekearen eta indar galtzearen arrazoia.

Amek parte hartzeko garaian topatu dituzten zailtasun zehatzen artean bada bat oso ongi islatzen duena batetik, etxekoandrearen irudia funtsezkoa den amatasun menderatzailearen (intimoa) ereduaren eta, bestetik, esparru publikoan behar diren trebetasunen eta baliabideen arteko haustura: kontua da ezinezkoa dela emakumeek nahi duten parte hartzean pentsatzeko "denbora ateratzea".

"Jo ni... momentu batzutan, erreflexioa egiteko denbora gutxi dakot... sensaziñu hori dakot. Dakot pentsa eiteko denbora gutxi, eta batez be... haurra, etxea, lana... ez dan gauza batengan pentsa eiteko denborarik ez dakot (...) Eta horrek izugarritzko pena ematen dozte. Horrek penia emoten dozte. Penia emoten dozte... beste espazio eta leku batzuk ezin bizi ahal izatia edo... ba momentu batzutan nolabait nere buruari... holako... pff... ez dakizu? Aske izateko espazio bat eskaini ezin izatia, ez?" (Mujer, No CPSF, Irrupcion, 36)

Praktikan aurrez aurre ageri diren bi esparruak bateragarri egiteko erabakia hartu dutenek bestelako estrategiak erabili izan dituzte, ondorengo emakumeak, gizarte maila ertain altukoa eta kultura kapital garrantzitsuarekin, erabilitakoa erakusgarri. Emakume guztien irismenean ez dagoen estrategia horretan idazketaren bidez egon da harremanetan esparru publikoarekin: informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) bidez egunkarirako artikulua edo idatziak izkiriatu eta igorri ditu, eta horrek aukera eman dio modu batean edo bestean parte hartzeko esparruan egoteko bere haurrak oso autonomia maila urria izan duen urteetan.

"ni asko errespetatu naute alde horretatik, igual beste batzuk ez hainbeste. Nik idazten nuen. Bileretan ezin nintzenean egon egiten nuena zen idaztea. Eta aitarekin asko eztabaidatzen dut nik, orduan, nik beti izan dut erreferente hori. Eta esaten nion: "aita! Egingo dugu artikulua bat?" eta berak: "ez, ez! Artikuluak ez!". Orduan, aliziente hori neukan. Nahiz eta bileretan ezin egon... Ze klaro! Gizonen mundua hasten da gaueko zortzietan; lan egiten dute... denak ziren edo enpresarioak, edo irakasleak... lan egiten zuten eta ez zeukaten etxeko ardurarik. Es que asuntoa zaintza da! Orduan, zaintza horrekin, nola parte hartuko dugu emakumeok umeak txikiak direnean? Ba, ez badaukazu gaitasunik idazteko... ez badago teknologia berririk parte hartu ahal izateko... eta, igual hori izan daiteke bidea, ze gauza asko egin daitezke etxetik, ez dakit, ordenagailuz edo, ez dut teknologia ezagutzen baina... Baina klaro, emakumeok biltzeko arratsaldean... nahiko egiten dugu! Lan

egiten dugu etxetik kanpo, gero etxera heltzen zara eta zaintza daukazu, eta umeekin egon behar da! Umeek nabaritzen dute ez bazaude! Eta, gainera, hasierako urteetan gehiago! Gero paso egiten dute, baina hasierakoa bai da... (...) Nahi nuen egin, baina esaten nuen: "nik lehentasuna eman behar diot nire bizitza pertsonalari, nik umeekin egon nahi dut, eta ez dut ikusten". (Mujer, no CPSF, Irrupcion, 46 años).

Beste estrategia bat izan da haurrak bileretara eramatea. Hala egin dutenak eskuarki gutxi izan diren arren, oro har KSF bat osatzen duten arren, parte hartzeko esparruko pertsona batzuen aldetik begirada gaitzesgarriak nozitu dituztela diote, haurrak zarata handia egiten duelako eta hitz egiten uzten ez duelako, edo amaren arreta eskatzen duelako bileran edo batzarrean lantzen ari den gaiak ere amari beste horrenbeste eskatzen dionean, ama "despistatu samarra edo gaian ez zentratua" bezala utzirik.

Emakumeek nork bere aldetik baliatu dituzten estrategia horiek eutsi egiten diote, modu batean edo bestean, amatasun intimotik espero den etxekotasunari. Hala eta guztiz ere, salbuespen interesgarria topatu dugu. Aztertu dugun BD espazioetako baten diseinuaz arduratzen den emakume batek azpimarratzen du gutxi direla parte hartzeko esparrura hurbiltzen diren emakume seme-alabadunak. Emakume horren eskarmentuaren arabera, seme-alabak dauzkateneak gutxitan eramaten dituzte bileretara, baina hala egiten dutenean amarentzat eta taldearentzat eragin onuragarria sorrarazten dute. Alde batetik keinu horrek aukera ematen diolako amari esparru publikoan jarduteko (nahiz eta betiko etxeko rolari eusten dion); bestetik, dio gure berriemaileak, espazioa toki naturalago eta adeitsuago bihurtzen dutelako denentzat, espazio emozionalago azken batean:

"Ez gaude oso ohituta, ezta ere orokorrean, ez bakarrik partaidetza prozesuetan, baizik eta beste egoera batzuetan umeen presentzia aguantatzeko, bai? Molestatu egiten digute, segidon. (...) Baina beste batzuetan, emakume batzuek ekarri izan dituzte beraien umeak. Eta agian, bueno, bat besotan, gogoratzen det, ba, besotan zegoena eta joan zen pasatzen auzoko emakumezkoen, batzuen besoetatik, eta ja emakume horren presentzia posibleago izan zan horregatik, baina baita ere, bilera osorako ematen dio beste tonu bat. Esan nahi det, hori onartzen denean ondo, bilera horren giroa hobe da. Naturalagoa da, konfiantza sortzen laguntzen du. (...) Orduan, emakume horrentzat lagungarria izan da, baina denentzat lagungarria izan da. Denentzat lagungarria izan da, zeren dira neurri batzuk, taldeak onartzen dituen mugimendu horiek, taldea lasaitu egiten da asko. O sea, naturalagoa dala taldea. Konfiantza gehiago sortzen da. O sea, apurtu egiten dira... ez dakit... corsé horiek, eta, bueno ja, si aceptamos que corran y no sé qué, pues ja ere, lasaiago hitz egiten det. (Mujer, No CPSF, Invitación, 48 años).

Amatasun intimoa eta parte hartzea aurrez aurre daudelako ideia ez dugu soilik emakume helduengan aurkitzen. Ama ez diren baina izan nahi duten 30 urtetik beherako emakumeek ere, KSF bat osatu ala ez, argi ikusten dute amatasuna galga dela parte hartzeko. Erreferentziala da hurrengo emakumearen kasua: ama izaki, mugimendu feministan baizik ez du parte hartzeko aukera ikusten, mugimendu feministan badagoelako amatasuna eta

parte hartzea aurrez aurre jartzen ez dituzten formak identifikatzea eta gero forma horiek beste espazio batzuetara eramatea.

"Jartzen dot nire helburua ama izateko horretan eta desde luego bakarrik mugimendu feministan ikusten dot nire militantzia. Zeren beste lekuetan. Joder! Bilerak gaueko 9.30etan egiten dira, astelenetan. Ni ez naizela amak kostaten jata joatea, nekatuta nau, lasai egoteko gogoarekin. Eta joaten naizenean gainera danak gizonak eta ni baiono 20 urte helduagoak, orduan..." (Mujer, CPSF, Irrupción, 23 años)

Gauzak horrela, KSF emakume gazteen amatasun proiektu batzuk atzeratuta geratu dira hain zuzen ere diseinatu zuten parte hartzeko proiektua ezin burura eramateko beldurragatik, eta besteek bere amatasunari esleitzen dioten zentraltasunari dioten beldurragatik. KSF bat eratzen duten emakume gazteez osaturiko Eztabaida talde batean honelaxe adierazi zen (Eztabaida talde pilotua, KSF):

**O sea, yo, eso, nosotros pensamos que queríamos ser padres en el mes de agosto y ya en septiembre dije: <<no, no, ya no quiero ser madre>>. Me puse otra vez a utilizar un método anticonceptivo y, sobre todo, para mí, después reflexionando por si lo retomamos o no, mi problema era identitario. O sea, a mí, ya no tanto como me vea yo, que también, ¿no? Pero, ¿a mí la gente me va a volver a ver en algún momento como B? ¿o voy a ser madre todo el rato? O sea, cuando yo hable con la madre de O, ¿yo voy a poder hablar de comida, de historias de [nombre de un país]...? ¿O todo se va a totalizar en...? Y con mi familia igual. Y con mis padres, con mis hermanas, con mis amigos y con mis amigas. ¿Yo voy a poder ser B fuera de algo que voy a querer muchísimo, porque además es consciente la decisión que he tomado? Y yo creo que eso es algo de género, porque cuando lo debato con mi pareja, que también lo está reflexionando, que no es: <<venga si tú quieres tenemos hijos>>, él se lo está planteando... Sus preocupaciones no son esas. Sus preocupaciones son: yo seré buen padre, yo podré darle, yo haré, yo no sé qué... Pero no es: ¿y yo volveré a ser O? Eso él no se lo plantea, y yo sí, y yo creo que ahí sí hay algo de género. Porque... porque de hablarlo con otras mujeres me di cuenta de que si tú te vas a un congreso cuatro días fuera, la gente no lo entiende igual que si O se va cuatro días a trabajar a otro sitio. Porque es ahora que yo viajo un montón. Y los vecinos se cachondean: <<¿pero tu vives aquí o no?>>. Vivo y pago. Pero ya, eso como... el cachondeo. Vives aquí o no. Hombre, sí vivo, lo que pasa es que salgo mucho fuera. Y yo cuando él ha estado temporadas fuera, a mí no me hacían tanto chiste.*

***Claro, imagínate, si tienes una criatura y sigues saliendo fuera. O sea, vas a ser la peor madre del mundo mundial."*

Aparteko gogoeta beharko lukete kontakizunetan beren aitatasuna azaldu ez duten gizonek. Hutsaren hurrengo dira hemen aurreratu ditzakegun emaitzak, etorkizunean kontrastatu beharko dira, elkarrizketatu ahal izan ditugun sei gizonetatik bi baizik ez baitira aita. Biek izan dituzte hizpide beren alabak, lortu dituztenak azpimarratzeko edo aitak zein harro dauden adierazteko, baina inolaz ere ez dute adierazi beren aitatasunak parte hartzetik urrundu dituenik, parte hartze hori eraldatu dienik eta are gutxiago eten dienik. Horrek agerian uzten du amatasunak / aitatasunak ez dutela berdin eragiten emakumeen eta

gizonen parte hartzeko proiektuetan. Ama izateak emakumeei beren parte hartzeko proiektuarekiko haustura (aldi baterako edo betirako) ekarriko dielako ideia oso orokortuta dago, baina ez da horrelakorik nabari gizonen kasuan.

Instituzio hau modu intimoan eta pertsonalean bizi da oraindik ere, eta emakumeek pisu espezifikoak edukitzen jarraitzen dute, zeregin biologikoaz haratago beren egiten baitute etxekotasunarekin estu lotuta dagoen eginkizun soziala. Amatasunak luzatu egingo luke, modu batean edo bestean, emakumeen zeregina etxean; eta horrek eragina du emakume horien bizitzaren alderdi askotan (lanean, lagunartean, etab.), baita esparru publikoan izan dezaketen parte hartzean ere.

Familia

Jakina da gizarteratze familiarraren pisua dela funtsezko mekanismoetatik bat sexu-generoko menderatze sistema birstortzeko (Moghadom, 2004; Parras, 2013). Baina gure aztergaiari dagokionez, gizarteratze hutsetik haratago, familiak zeregin ezin garrantzitsuagoa betetzen du emakumeek beren buruaz eta, beraz, parte hartzeko prozesuetan duten eginkizunaz, egiten duten balorazioan.

Familiak elkarrizketatu garen emakumeen parte hartzeko proiektuetan duen pisuari dagokionez, bi talde handi aurkitzen ditugu: batean agente higiarazle gisa jardungo luke familiak, emakumeen parte hartzeko dinamikak sustatuz eta bultzatuz; bestean familiak oztopo gisa jardungo luke bi mekanismoren bidez; lehenengoa beldurraren bidezko presioa da (esparru publiko ezezagunean gerta litekeenaren beldur) edo parte hartzeko esparrua uzteko eta etxeko esparrura itzultzeko errua; bigarrenak familia patriarkalaren ereduan emakumeari esleitutako zaintzailearen egitekoa (etxekoandre zaintzailea) baliatzen du bere zereginak betetzeko eta esparru publikoko bizitzatik urrunarazteko. Bi talde horiek zuzenean daude lotuta familiak parte hartzearen esparruan bizi izandako joerarekin. Honenbestez, parte hartze zabala (senitarteko gehienek parte hartzen dute edo hartu dute esparruren batean) bizi izan duten familietatik datozenek diote familiak berak izan direla parte hartzera bultzatu dituztenak, familiak izan direla eredugarri parte hartzeko espazioetan esku hartzeko eta imitatzeko. Aitzitik, parte hartzeko kultura eskaseko familietan hazi direnek diote familia handicap garrantzitsua izan dela parte hartu ahal izateko.

Kasu horretan, arestian adierazitako familiaren estimuluaren eta familiaren parte hartzeko joeraren arteko zuzeneko harremana bezalakoa zehaztea ezinezkoa den arren, behin eta

berriz errepikatzen den joera bat hauteman dugu guk. Izan eren KSF bat osatzen duten emakume gazteen (30 urtetik beherakoak) kasuan biltzen dira familiaren zeregin higiarazlea azpimarratzen duten testigantza gehienak.

Familiaren dimentsio proaktiboa, ahalbideratzailea (ikusi bezala, bada dimentsio hori), alde batera utzirik, eta instituzio sozial horrek emakumeenganako presioa nola bideratzen duenari erreparatuz, bi mekanismo garrantzitsu topatzen ditugu hori azaltzeko, arestian azaldu bezala: alde batetik, beldurraren eta erruaren erabilera dugu; eta bestetik, emakumeei egiten zaien deia familiaren baitan zaintzailearen rola bete dezaten.

Lehenengo mekanismoaren kasuan, funtsezkoa da amaren irudiari erreparatzea, itxura guztien arabera ama baita beldurra gehien baliatu duena beren alabei gogoak kentzen saiatzeko eta, gisa horretan, amaren ustez bederen, esparru publikoko balizko arriskuetatik salbu edukitzeko. Esan dezagun 30 urtetik gorako emakumeak direla, 60 eta 90 urte bitarteko amen alabak; sistema politiko frankistak ezarririko balio erlijiosoetan gizarteratutako emakumeak dira horiek denak, zalantzarik gabe esparru pribatua emakumeei esleitzen zien sistemara egokituak dira. Emakume batek zioen moduan “Nire ama oso heziketa klasikoa jaso duen emakumea da, oso tradizionala, Gaztelakoa, eta beti pentsatu izan du emakumearen zeregina dela oharkabea pasatzea eta zaintza lanak egitea eta dena ongi egotea” (Emakumea, Ez KSF, agerpen bidezkoa, 30 urte). Ez da kontua amei errua egozte beren seme-alaben zailtasunengatik, baizik eta ulertzea gizartean zuten posizioak eraman dituela balio jakin batzuk, zenbaitetan SGMMS batek bizirauteko beharrezkoak dituen balioekin bat egiten duten balioak, transmititzera. Testuinguru horretan, emakume kopuru garrantzitsu batek dio amari zerbait (zaintza) “zor” diotela pentsatze hutsa elementu eragozgarria dela parte hartzeko esparruan jarduteko:

“Nire amak anaia eduki eta alargune gelditu zen. Orduan, ama beti izan da ama langilea, aurrera ateratzeko lan egin behar izan duena. Oso baldintza kaskarretan, umea eduki eta lan mundutik kanpo gelditu zen gu zaintzeko, eta horren ostean berriz integratu behar izan zuen... Baina bueno, horrek ez ninduen guztiz baldintzatu. Bilbora joan nintzen ikastera, Bilbon egon nintzen bizitzen, esan nahi dut... nik bizitza normal bat eduki dut baina nire amaren karga horrekin. (...) Uste dut agian nire amak ere baldintzatu ninduela asko. Nire harremana amarekin oso berezia da. Nik badaukat anaia, baina ni baino 14 urte helduagoa da, orduan, gure harremana da oso... ez da apenas gogoratzen hirurak bizi ginen garaiaz... Nire amarekin badaukat oso harreman polita baina oso dependientea. Orduan, ikastera joan nintzenean gaizki pasa nuen, bakarrik utzi beharra... Eta nire amak hori pixka bat erabiltzen zuen... Gero egin ditudan prozesu feministetan konturatu naiz oso ohikoa dela gurasoek alabekin egiten duten txantaje emozional hori” (Mujer, CPSF, Irrupción, 31)

Familia parte hartzeko oztopo dela dioten 30 urtetik gorako berriemaileen amek mezu bat helaraziko zieten beren alabei haien beldurraren eta segurtasun ezaren bidez, eta horrek

sendotu egingo zuen etxekoandreaken irudia. Baina, ispilu alderantzikatzaille baten moduan, amaren irudiak indar handia hartu du baita lehendik parte hartzeko joera izan duten familietako emakumeengan ere. Kasu horretan higiarazlearena beteko luke amak, baina baita aholku emailearena ere. 45 urtetik gorako emakumeen artean argia izan da aholkua: “gizonek baino gehiago balio behar duzu haien baldintzak eduki nahi badituzu”. Beren buruari balioa emateko ideia, lan gehiago egiteko ideia, hainbat aldiz geratu da agerian emakume helduen artean, amarengandik jasotako ikaskuntzat dute, ongi zaindu beharra:

“Oso nortasun handiko ama izan dut. Nire amak beti esaten zidan: “zu emakumea zara, beraz, ikasketak egin behar dituzu eta prestatuta egon behar duzu gizonek baino hobeto, ze, borrokatu beharko duzu askoz ere gehiago!”. Orduan, nolabait ere, zen... ez dakit, nik alabari ere esaten diot, nagusiak eta besteak... ba bueno, espabilatu behar dute, baina l-ri esaten diot, gainera, oso bizkorra da bera! Bizkorregia batzuetan. Eta esaten diot: “nik hurrengo bizitzan nahi dut izan gizona, altua eta ahots grabeduna”. Baina, txikia, emakumea eta ez baduzu ahotsa altxatzen inork ez dizu kasu putarik egiten! Nik uste dut borrokariaren zentzu hori etxean jaso dugula, ze, nire gurasoak oso borrokariak izan dira, zentzu onean, eh! Eta aitak oso momentu latzak pasa ditu, eta amak ere bai.” (Mujer, No CPSF, Irrupción, 46 años).

Erruaren eta beldurraren kontu horretatik haratago, emakumeak familia patriarkalean bete duen rola eskutik letorke familiaren instituzioa baliatuz oztopo gisa jardungo lukeen bigarren mekanismoa: zaintzailearena. Emakumeek esan dute beren bizitzaren uneren batean parte hartzeari utzi behar izan diotela familiako norbait zaintzeko, beste inork ez baitzuen lan hori bere gain hartzen; beren gurasoak, izebak edo ahizpak zaindu beharrak urrunarazi dituela beren parte hartzeko proiektuetatik, gerora berriro ere parte hartzeko espazioetara biltzeko zailtasunak ezarriz. Gainera, kideren baten gaixotasunagatik aparteko zaintzaren beharra izan gabe, 30 urtetik gorako emakumeen taldean familiekin haien parte hartzea mugatzeko joera izan dute, familia horien egituraren arabera emakumeen esku uzten baitira etxeko lan gehien-gehienak, BD batean parte hartzeko proiektuari ekin nahi dioten emakumeei denborarik uzten ez zaiela eta gainera neka-neka eginda, ondorengo testigantzan ikus dezakegun bezala:

“Participé un año, porque luego ya otra vez se me complica con el tema familiar, porque mi madre estaba, no estaba muy allá, bueno, no ha estado nunca muy allá, porque ya cuando le tenía... cuando le tuve al mayor, no estaba muy bien, quería un poquito irse del pueblo, a toda costa... Porque esta... Mi hermano, no vive en el pueblo, pero está muy... está mucho en el pueblo y... y tienen un poco una relación de amor-odio. Entonces, bueno, no puede estar sin él, pero a la vez. Tampoco con él y... Y a las... Pues eso, ella es... ha sido muy proteccionista con él siempre. Y, eso quizá hace... y que está casado, pues... durante mucho tiempo ha seguido haciéndole la comida y lavándole los buzos, y lavándole la ropa y... Es un tema también de ella. (...) cuando se fue mamá, me metí en el grupo de feminismos. (...) Mi casa, encima, que tengo todo chicos... Me miran como diciendo, tú... O sea, ¿qué haces tú? No... Entonces, bueno, pues, el tema del tiempo libre... mi marido... para él era sagrado. Y para mí no era sagrado. Bueno, no era sagrado entre comillas, claro. Porque yo sí que he

pensado, pues, joe, pues necesitará ese tiempo, ¿no? no sé qué... Pero luego él se iba... Le gustaba andar en bici, encima, que no es que vas a correr 20 minutos Claro. Y... claro, <<¿puedo ir?>>. Y yo le decía: <<si>>. Y luego me quedaba yo y... ¡cómo que sí! Estoy yo aquí en casa con el crío, que no doy a basto, que tengo que comprar, que tengo... ¡Y él andando en bici! O sea... Y el niño. ¡Estaba yo de una mala hostia que pa' qué Me decía: <<es que no te entiendo>> y digo: <<jode, o sea, es que... es que no, no...>>. Pero entonces, en ese momento, leí un libro, que yo no sé... a veces he querido recuperarlo, pero no lo tengo. Y me ayudó a entender muchísimo, dije, joe, claro, todo el tema de las contradicciones que vivimos entre lo que se nos ha educado, todo el rol de cuidadoras y tal, y el tema de la contradicción personal que eso te crea, ¿no? que estas un poquito... Y si, me ayudó a entender. Me ayudó a entender, y a decirle: <<no, no. No te vas a andar en bici, te quedas aquí>>” (Mujer, CPSF, Irrupción, 52 años)

Kapitulu honen amaieran itzuliko gara agentearen posizioaren interpretazioari berari berariaz lagundu diezaioketen eduki feministako liburu baten irakurketa edo idazketa bezalako banakako estrategia batzuen ideia. Gure kontalariaren kasuan “hemen geratzen zara” esapideak esan nahi du, besteak beste, erabaki duela haren denbora garrantzitsua dela eta askapenerako estrategia agerikoa dela.

Gizonen kasuan ere arestian adierazitako bi talde handiak aurkitzen ditugu: alde batetik, parte hartzeko tradizioa duten familietatik etorritakoak ditugu, eta horrenbestez parte hartzeko eredua beren familietan aurkitzen dutenak, eta bestetik, eredu horiek ezagutu ez dituzten familietatik heldu direnak. Berriro ere amaren irudia ageri da parte hartzeko proiektuan galga gisa. Antza pisu gutxiago du gizonen kasuan emakumeenean baino: emakumeek xantaia gisa deskribatzen duten bitartean –eta horregatik nozitzen dute–, kezkatu behar ez den pertsonatzat dute beren ama gizonak, eta horrexegatik erantzuten dute ondokoak dioten moduan, amaren kezkaren aurrean semearen segurtasuna agerian utzirik:

“Bueno, bai, bueno, piztu, ez zen ... ziurtasuna ematen zizun ondo ari zinela. Ondo ari zinela. Guk ziurtasun guztia genuen ondo ondo ari ginela. Eta niri horrek balio izan dit. Nik askotan, adibidez nire amarekin hitz egiten eta esaten nion, zuk izan gauza bat seguru” Nik ez diot inori kalterik egingo. Nik nire buruarekin kontsekuentea naiz, eta nik ez diot beste inori kalterik egingo” (Hombre, No CPSF, Irrupción, 40 años).

Familiarekiko harreman hori bestelakoa dirudi 29 urteko gizonaren kasuan, parte hartzeko ereduez hitz egiteko garaian lehendik ados azaldu baitzen emakume gazteekin kontu batzuen inguruan. Haren kontakizunean onartu egiten du bere familiak ez duela begi onez ikusi parte hartzeko egindako bidea, familiari gustatuko litzaiokeela bere arauen eredu nagusiari egokitzea: bikotea-lana-seme-alabak. Gizonaren kontakizunean ongi asko nabari da nola bere etxeko alderdia ez (arriskuarekiko beldurraren bidez emakumeengan ongi asko nabari baitaiteke) baizik eta soldata egonkorren hornitzaile gizon-ogi-irabazlearen rola sendotzen duen haren familiak. Kasu horretan ere gure kontalariak antza modu ezatseginean bizi duen oztopo gisa jarduten du familiak. Hala eta guztiz ere, publikoaren eta

pribatuaren arteko kontraesanak bestela jarduten du, elikatu egiten du gizon langilearen, familia heterosexual baten baitan egonkortua den gizonaren, estereotipoa:

"nunca, nunca ha sido muy fácil, eh, en relación tanto con mis amigos como con mi familia, sobre todo mi familia. Con mi familia muy mal nunca lo han visto muy bien, o sea, sí porque, para mi la participación política ha sido el, ha sido el eje de mi vida, o sea desde que tengo pues eso desde esa edad, los dieciocho-diecinueve años. Y va! Pues imagínate, la familia, encima es medianamente conservadora, pues como la mayor parte de las familias, pues no ven eso. Tienes que trabajar, echarte novia, comprarte una casa y gastar todo lo que puedas y claro, pues tú todo lo contrario a lo que, a esa inquietud tuya ¿no? Entonces, eh, siempre muy mal, muy mal porque todo el, prácticamente, casi todo el tiempo que he tenido pues lo he dedicado a eso y nunca lo han visto muy bien. Y los amigos también, porque, sobre todo porque te vuelves muy crítico y hay cierta, hay muchísimas cosas que decides que no quieres hacer o que no vas, o que por ahí no vas a pasar y... y bueno, sí que te hace distanciarte de muchas personas" (Hombre, No CPSF, irrupción 29 años).

Era berean, bestela jarduten du emakumeen eta gizonen artean zaintzailearen rolararen mekanismoak. Lehen ere esan dugu emakumeen etxekotasunari zuzenean egiten zaiola dei etxean ez daudenean bete gabe utzitakoak betetzeko premiatik abiatutik; 30 urtetik gorako gizonen artean kasu bakar batean ere ez da horrelakorik hauteman. Parte hartzeko esparruetatik atera direnean beren burua zaintzeko atera dira, gaixotasun edo unean uneko lesio bat tarteko. Aitzitik, gazteenak dio bere bizitzaren une batean "orduan garrantzitsua zenari heltzeko, egin beharrekoak egiteko" erabakia hartu zuela: ama gaixorik zuen une hartan. Orduan erabaki zuen parte hartzeko jarduerak oro bazterrera uztea eta behin haren zaintza lanak amaituta parte hartzeko jardueretara itzultzea. Itzulera ez da arazo beretzat – bai ordea emakume askorentzat hirugarrenen zaintza beren bizitzako zeregin nagusi bihurtu ondoren–, guztiz bestela baizik, nahi duen parte hartze motan jarduteko aukera izango baitu:

"bueno ahora voy a recuperar mi vida" y ya la recuperé de la manera en la que quería recuperarla, o sea digo "voy a romper con lo que, con lo que igual no, con lo que no estaba a gusto, no estaba a gusto del todo y voy a coger lo que me apetece y fue así un poco" (Hombre, 29, Irrupción)

Honenbestez, familiari dagokionez, berriro ere halako bat etortzeak ikusten ditugu gizon gaztearen eta emakume gazteen artean, beste garaietako adinkideen artean nabaritzen ez direnak.

Esan bezala, sexu-generoan oinarritutako menderatze sisteman gizarteratutako emakume horrek familian aurki dezake bere parte hartzea zailtzen duten oztopoak gainditzeko laguntza.

Bikotea

Gizon batzuek (heterosexualak) beren bikoteek parte hartzen duten agertokia onartzen duten arren, parte hartze hori afektibotasunaren planoarekiko batura huts joko gisa ulertzen

dute, eta hori estu lotuta dago etxekoandrearen eta emakume parte hartzailearen arteko kontraesanarekin. Beren kontakizunean bikotea, sotilki bada ere, beren parte hartzea mugatu dezakeen harreman motatzat hartzen dute, eta bikote bera ez baizik eta bikotearekin zerikusia duen pasarte baten berri eman dutenek, beren parte hartzea mugatu duen eragiletzat hartu dute.

Emakume gazteek (kasu honetan 35 urtetik beherakoak) zaharragoek baino hein handiagoan lotzen dute harreman mota hori harreman zapaltzailearekin beren bizitzako uneraren batean. KSF bat osatzen duten emakume gazteen kasuan ongi asko ikusten da beren bikoteekin zerikusia duten pasarte batzuk direla euren parte hartzea mugatzen dutenak: baten kasuan mutil laguna espetxeratu zuten, eta beste baten kasuan, emakumeak eta haren senargaiak parte hartutako bilera berean, gizonaren hitzek bereak baino pisu handiagoa zutelako ustea nagusitu zen emakumearengan.

“X. atxilotzen dute, eta horrek moztu ninduen pila bat, ezin nuen parte hartu, ezin nuen beldurra neukalako, ez? (...) ez dakit da ekatonbe bat bezela e.. pufff... osea mundua desmoronatzen zait hor momentu horretan... Ba justu elkarrekin bizitzen hasi ginen, ya ez nuen hemen, ikasten, ya hasi nintzen N-n ikasten ba hori, hezkuntzarekin eta hezkidetzarekin oso motibatuta nengonez hor sartu nintzen eta... eta hori X. atxilotzen dute, generamatzen elkarrekin bizitzen hiru hilabete eta mm... eta hori, ba goizeko ordu bitan datoz etxera, poliziak. Oso gogorra izan zen, eta... eta karo, eramaten dute hor e... ezin dut ikusi, e... bost egunez inkomunikatuta dago, badakit zer egiten ari diren bost egun horietan” (Mujer, CPSF, Irrupción, 26 años)

“Bikotea izanda kriston zaillasuna sortzen zitzaigun bioi hori kudeatzeko zergatik ematen zuen bera ari zela nire salbatzaile bezala jokatzeko, hori ez genuen nahi, ehh gero era berean gertatzen zen bileretan, bera dela pertsona bat urte askotan jurdun duena komunikazioan eta a parte da tipo bat ona dala... berak hitz egiten zuenean denak pues ya está. Baina ni egiten nuenean nire hitzak balio askoz gutxiago zuten eta niretzat hori oso zaila egiten jartiat” (Mujer, CPSF, Irrupción, 23 años)

Emakume horiek iragan bat eta etorkizun bat marrazten dute kontrapublikoa osatuta, kontrapubliko *bilakatu* baino lehen eta hain zuzen ere urrats hori egiteagatik gai izan baitira bikotea (kontzepzio patriarkalean formulatua, Mari Luz Estebanek (2011) eskaintzen duen maitasun erromantikoaren nozioari estu lotua) elementu zapaltzaile gisa ikusteko:

“Fue hace un montón. Pero fue un acto al que iba a asistir me chantajeo para que no fuera porque él no quería esperarme. Porque no estaba, porque él estaba haciendo no sé qué y se tenía que ir a casa y vivíamos en un caserío y me hacía sentir mal porque no quería... no quería hacerle esperar. Entonces no fui (al acto)” (Grupo de discusión piloto CPSF)

Bestelakoa da KSF bat osatzen ez duten emakume gazteen kasua, arestian adierazitako batura huts jokoa eskaera meheetan gauzatzen baita, harremanetarako espazio publikoa alde batera uzteko eta berriro ere esparru pribatuari heltzeko eskaeretan, hain zuzen:

"mi pareja ha tenido una paciencia que te mueres que es que he tenido que llamar es que no ha habido más remedio solo hubo algunos pequeños momentos de: jooe es que llevo sin cenar en casa contigo una semana, pues yo le decía; es que no puedo hacer otra cosa. Y bueno sin más, esa queja se quedaba ahí, el entendía pero cuando le entraba la morriña me decía: ¿no puedes cenar alguna noche conmigo? Bueno ya llegara esa noche de nuevo." (Mujer, No CPSF, irrupción, 35 años)

Baina batzuetan esplizitu bihurtzen da eskaera sotil hori:

"Una pareja que tuve pues, la verdad es que casi siempre me desanimaba para todo y...y... Bueno, eh, mi pareja actual, eh, pues no me desanima para nada, lo que pasa es que bueno, tenemos otra dinámica y estamos, o sea,...Yo, yo, yo, me he retirado siento, o sea, yo me he retirado de participar en colectivos en este momento por varias razones..." (Mujer, No CPSF, irrupción, 29 años)

Bikotearen eragin mugatzailea handiagoa da emakume gazte honen kasuan, haren kontakizunean ongi asko nabari baita bikote harreman zapaltzaile batek emakumeak eskuragarri dituen parte hartzeko espazioak ez ezik bere bizitzan zehar gerora egindako hautuak ere (lanaren esparruan) baldintzatzen dituela. Elkarrizketan zehar adierazi digu berak laneko espazio batzuk partekatzen zituen gizonarekin kutsatzailatzat duen harremana eduki ostean, aipatu gizonarekin bat egiten zuen parte hartzeko espazioetatik baztertu ez ezik lanean dimisioa ere eman zuela. Maitasun erromantikoaren ideian oinarrituta antolatutako bikotearen eragin mugatzaileak ondorio gaiztoak ditu emakumeen bizitzaren alderdi guztietan eta bakoitzean:

"Después de una bronca muy grande (con quien era su pareja) que me organizo por teléfono, decidí romper cualquier tipo de relación sentimental con esta persona, y decirle; yo te he dicho desde un principio que no quería nada serio contigo, y bueno, pues hasta aquí, vamos a intentar ser amigos. Claro, yo a esta persona la tengo que ver en estos dos espacios (de participación), entonces mejor mantener las cosas tranquilas. Pero él no acepta esa situación y empieza a generar situaciones de tensión, cuando entra de manera violenta, no saluda, no se despide, pega portazos, me intenta provocar (...), y yo con miedo a veces de acercarme a ciertos espacio porque...porque digo quizás me pueda encontrar con él" (Mujer, No CPSF, irrupción, 30 años).

50 urtetik gorako emakumeen kasuan ere badira alde batzuk. Hauek beste era batera definitzen dute bikotea, beti ezkontzaren kontratuari lotuta; eta horrek berriro ere eramaten gaitu sexu kontratuaren eta parte hartzearen artean dagoen harreman finaren inguruan gogoeta egitera (Pateman, 2012). Kontratu horrek, etxea eta etxeko lanak emakumeei dagozkielako ideiatik abiatuak haren molde patriarkalean idatzita baitago, beren denboraz eta aukerez gabetuko zituen emakumeak. Halaxe islatzen da gizarte maila ertaineko eta kultura kapital handiko emakume baten testigantzan:

"Los dos estábamos participando. Entonces surgió un movimiento de participación muy fuerte, y estábamos ahí implicados. Pero claro, en el momento en el que hay que entrar más... ¡yo también lo hice! Le dije: "¡venga, ánimo!". Entonces, él se anima y yo me quedo. Eso ha sido así en bastantes fases de mi vida: "¡venga, ánimo!"

y yo me quedo!". Entonces, ahí me quedé con toda la movida (...) porque él llegaba a casa a las once de la noche. Entonces, estaba yo un poco agobiada con la escuela y los niños. Estaba muy sola. ¡Y tengo la tercera hija! Entonces, ahí sí que tenía que dedicar más tiempo a la familia, y él, sin embargo, le dedica mucho más tiempo a lo social. Ahí sí que yo creo que cuando en una pareja los dos son comprometidos y tienen que comprometerse más, el que se compromete es el hombre. Además, yo apoyo ese compromiso. No se me ocurre decirle que sea él el que se quede en casa. Se me podía pasar por la cabeza, pero tampoco quizá tenía tanta confianza en mí misma. También era verdad que él tenía más campo que yo en la participación social. Tenía más formación personal. Yo nazco en una familia en la que no había un libro (Mujer, No CPSF, irrupción, 63 años).

Kontalari horren kasuan errealtate dira gorago adierazi ditugun "kristalezko sabaia" eta "zoru itsaskorra" nozioak.

Azkenik, gizonen dagokienez, kasuren batean maitasun kontuko bat ez etortzeren bati erreferentzia egin bazaio ere, bat ez etortze horrek sekula ere ez du eragin gizonaren parte hartzeko dinamikan.

Ikastetxea

Ikastetxeari eta hartatik eratorritako heziketari dagokienez, alde handiak aurkitu ditugu gizonen eta emakumeen artean beren eskola urteak kontatzeko orduan. Adina edozein dela ere, gizonen jarduerak eta ezinegon handiko urtetzat dauzkate eskola urteak, egunaren zatirik handiena kalean ematen zuten edo mugimendua eskatzen duten jarduerak burutzen, beti espazioa okupatzen (futbolean, kaleetan lasterka, etab.). Jarduera horiek garatzen zutenean edo jarduera horiek burutzeko ez zuten eragozpenik hautematen: askatasun eta jarduera biziko urteak dira.

Gizonak bat datoz "guztiz bestelakoak" diren bi mundu hautemateko garaian, neskek osatzen dute bata eta mutilek bestea, eta bakoitzarenean jarduera jakin batzuk eramaten dira burura. Era berean gizonak bat datoz nesken mundura hurbiltzeko interes ezaren ideiarekin, beste mundu horrekin harremanetan jartzea "gaizki ikusia" zelako edo nahiago zutelako jardueren mundura jolasaren eta esperimenduaren bidez iritsi⁵⁷. Oso adin eta gizarte jatorri ezberdineko bi gizonen (gizon helduak langile familia batean du jatorria, gazteak gizarte maila ertaineko familia kontserbadore batean duen bitartean) antzeko sentazioak azaleratzen dituzte elkarren artean inolako zerikusirik ez duten bi mundu horiek hizkipe dituztenean:

⁵⁷ Emakume gazte askok diote BD esparruan gizonak ez direla emakumeak bezain beldurtiak esperimendatzeko orduan, ez direla haiek bezain beldurtiak huts egiteko garaian; eta esperimendatzeko joera horrek pisu handiagoa duela gizonen artean emakumeen artean baino ikastetxeari eta haurtzaroari buruzko diskurtsoan. Honenbestez, agerian utzi nahi dugu ikastetxeak duen garrantzia gizonen eta emakumeen artean berdintasunean oinarritutako esparruak sortzeko garaian.

"porque hasta cierta edad yo recuerdo de que siempre estábamos los chicos por un lado y las chicas por el otro. Y siempre intentabas sentarte con tus amigos chicos para, pues para, el vacilón, para las risas y eso de chaval las chicas me gustaban, pero a mi lo que me gustaba estar es con, con chicos o sea, y de hecho no, yo no concebía salir con chicas... o sea igual, sí nos mezclábamos sí. Pero yo por ejemplo, que fueran todo chicas y yo chico sólo pues, eh, no, o sea, además estaba como mal, no sé, no estaba bien visto eso. O bueno, o no lo veíamos nosotros bien para nosotros, no sé, de todo un poco. Y eso, pero igual si es cierto que igual ya con, no sé con diecisiete, con dieciocho años, ya cuando ya eras un poco más mayor ya te das cuenta de que no, o sea, que puedes tener amistades, eh, iguales, eh, da igual que sean chicos o chicas ¿no? Os sea que sí, sí. Si yo creo que... pero bastante mayor el empezar a darte cuenta de esas cosas pero bueno. O no darte cuenta sino dejarte de sentirlo así, darte cuenta, pero si no lo analizas, vete a saber por qué es ¿no? Pero sí que, sí que dejar de sentir eso, de que tú no tienes por qué estar con chicos todo el rato, sino que también podías estar en un grupo mixto o solamente con chicas... generalmente pues lo que haces con esa edad; a ver cómo puedes liarla un poco para echarte unas risas, quedar, procurar estar el tiempo máximo con tus amigos que parece, era lo único en tu vida en ese momento y... y intentar hacer gamberradas. (...). Yo marcaba más las chicas y los chicos. Las chicas hacían unas cosas, los chicos hacíamos otras, eh, hombre sí que tienes marcado mucho la diferencia entre chicos y chicas, pero no, o sea no, yo no percibía nada en ese momento, o nada negativo por lo menos, o nada que me llamara la atención. Sin más, eso era así y ya está" (Hombre, 29 años, irrupción).

"Éramos chavales de barrio, nadie te confirmaba nada, si no habías sido insultado antes que llegaba la tarde ya habías conseguido bastante. estamos hablando de un grupo de chavales de 14/15 años de 15 o 20 personas. Y en ese mundo las chicas tenían poco papel. Cuando digo las chicas me refiero, a chicas del barrio. Las chicas del barrio se movían en un ambiente diferente, y a partir de que aparece el desarrollo "hormono-genital", hay un momento que las chicas de no existir, es que de un elemento de pesadez, aparecen, como algo alucinante y incompresible" (Hombre, 56 años, irrupción)

Gizonen artean ez bezala, adinaren arabera alde nabariak hautematen dira elkarriketatutako 42 emakumeen taldean. 30 urtetik gorako emakumeek, KSF osatu ala ez, aurreneko diskriminazio ekintzen lehenengo espazioa ikastetxean ikusten duten artean, emakume gazteek ez dute ikastetxean beren etorkizuneko parte hartzeko proiektua baldintzatu edo mugatzen duen elementua ikusten. Emakume gazte bakar batek (KSF) aipatu du bera eta bere laguna ikastetxez aldatzera eraman zituen jazarpen gertaera bat.

30 urtetik gorako emakumeek aipatzen duten diskriminazioa bestelako bi bideetatik iristen zaie. 48 urtetik gorako emakumeen kasuan hezkuntza plan baten bidez instituzionalizatutako indarkeria mota bat hautematen da, irakasgaiak eta balioak bestelakoak baitira emakumeentzat eta gizonentzat. Emakumeek josten zuten artean, eraikuntza jarduerak egiten zituzten gizonak. Ikastetxea bera, bere prestakuntza planaren bidez, etxekoandreak eta gizon publikoak egiteko "fabrika" zen. Eskola frankistan edo frankismo ostekoan hezitako emakumeak dira, eta ordena politiko horrek emakumearentzat gordetzen du familiaren etxeko espazio pribatua, eta gizonarentzat ordaindutako lanaren esparru publikoa. Emakumearen etxekotasun horrekin batera doa etxeko *habitus* bat,

espazioaren gutxieneko okupazioak, norberaren gorputzaren gaineko kontrolak eta emakumeen gorputz mugimendua baldintzatuko duten fintasuna eta dotoretasuna zaintzeko deiak ezaugarritua eta emakumea publikoa denera baino pribatua denera bultzatuz.

“Zentroaren estiloa erabat ezberdina zan, bai? Eta... orain pentsatuta, ba, esango nuke... gehiago tratatzen... tratatu nahi gintuztela emakume bezela, edo femenina... edo feminitate... ez dakit, femenina ikuspuntu horretatik edo, gehiago jorratzen zutela, hori, ezta? Ba... ba, uniforme... Bietan, beti izan det uniforme. Baina hemen, bueno, hemen pues... nik uste erreferentzia gehiago egiten ziren, ba, gure itxura, gure... uniforme eramateko formatan (...) esaten ziguten: <<a ver, las chicas no tienen que ir... con los calcetines bien altos, tenéis que ir bien vestidas...>>. Joera hori, como... esatea guri, emakumeak izateagatik, edo neskak izateagatik, joan behar ginela, bueno, pues, finago... garbiago... esan nahi det... Bai, gogoratzen det hori. Gure formak, mugitzeko formak...hanka horiek ez jarri horrela, eh... ez joan korrika, eh... halako... bai. Bai. Bueno, bestean ere batzuetan, ezta? Pues, <<no bajéis las escaleras como caballos>> esaten ziguten, ezta? Eh... <<ir más finas>>, o... <<no dobléis las piernas no sé cómo...>>. Holakoak, bai? Harritzekoa zan, adibidez, ostiral arratsaldeetan posible genuela joatea jantzita uniforme ez zan arrokekin... Bueno, irekitzen zen ate hori. (...)Batzuk ez ginen joaten, o sea... eta mantentzen genuen uniforme aste osoan, esan nahi det, baina ja irekitzen zen ate bat, ba... bueno, bilatzeko... parte...coqueta hori, edo ez dakit nola esan...” (Mujer, No CPSF, invitación, 48 años).

Etixerako heziera horrek, gorputzaren gaineko kontrola ere exijitzen duen heziera horrek, emakumearengan zaintzara bideratutako etxeko rola berezko egitea du helburu. Gure hurrengo berriemaileak dioen bezala horrek bizi osorako markatu du, eragina izan du parte hartzeko garaian gai bati edo besteari heltzeko orduan egindako hautuetan, eta eragina izan du parte hartzen duen BD espazioaren barruan bere hitzetan besteenganako duen jarrera arduratsuan:

“A mí me educaron para agradar, para preocuparme de los demás, claramente. Ésa fue la educación que yo recibí, y todavía la llevo, eh... más adelante he sido consciente. Pero aunque era consciente es una educación que te cuesta quitar. Lo haces conscientemente, pero no puedes deshacerte de ello, es muy difícil. No para agradar, eso ya lo quitas. Pero sí para cuidar. Para preocuparte de los demás, eso es muy difícil de erradicar. O sea, no para agradar a nadie, eso hace mucho que... bueno, hace mucho no, ¡me ha costado! Pero sí para preocuparte de los demás, eso es muy difícil de cambiar, cuando lo has hecho, lo has vivido, tienes hijos” (Mujer, No CPSF, invitación 63 años).

Instituzionalizatutako diskriminazio horrek desagertzeko joera erakusten du 30-50 urte bitarteko emakumeen artean, eta ikastetxean euren etxekotasuna elikatu duen esparru bat ikusten duten arren, ez diote prozesu hori irakasleei edo ikasketa planari egozten. Adin tarte horretako taldeko emakume bakar batek kontatu digu pasarte bat zeinetan andereño batek gogorarazi baitzion haren berezko espazioa pribatua dela, eta ez errebindikazioarena:

“yo estaba en el colegio, me solían llamar las profesoras, siempre, la abogada de los pobres. Sí que me decían, porque te metes en donde no te llaman, y si no va contigo porque te metes. Si veía cualquier cosa que no me vaya bien yo me metía. Siempre me daba, ganas de meterme.” (Mujer, No CPSF, irrupción, 35 años).

Emakume horien kasuan batik bat ikastetxeetako esparru ez formaletatik –patiotik eta jolasetatik– iristen da publikoa denaren aurreko prestasuna zehaztuko duen diskriminazioa. Mutikoei esleituriko jarduerak egiteko interesa agertu duten emakumeek, dela futbolean jokatzeko dela kirol maila altua eta espazioaren okupazioa eskatzen duten jokoetan aritzeko, asmo horiek bazterrera uzteko gonbita jaso dute. Adin tarte horretako emakume askok aipatu dituzte beren sexuagatik trufen jomuga izan diren uneak, irain horiek beren haurtzaroa markatu zutela, baita publikoa den espazioarekiko duten pertzepzioa ere. Emakume horiek “aspaldiko” oztopoetatik (baina ez dira desagertu) berrietara ari dira igarotzen. Emakumeak espazio pribatura –lasaitasunaren espaziora, pasibotasunera eta zuhurtasunera– itzultzeko xedean ikastetxe baten esparru ez formalean egindako dei gutxi gorabehera sotilaren bi adibide dira ondoko hauek:

“Eta.. e.. juen ginen, eta esan genien, eta gainera gogoratzen dut.. esan zigutela: “¿Que vais a jugar, con falda?”, en plan... ta bueno... “ezz.. jolastu nahi dugu eta listo”. Eta orduan bakarrik animatu zen.. auzoko.. super mozkortxo gu entrenatzen” (Mujer, CPSF, Irrupción, 32 años).

“Y ya un momento les pedía para jugar al fútbol y...¡hombre! Es que siendo niños también no sé, pero mi percepción ha sido también que a ver... que a ti era la última a quien elegían para ser de su equipo, o en el colegio por ejemplo me acuerdo que yo hasta... hasta primero de BUP o así siempre he estado en el patio jugando con los chicos pero... era más por una necesidad de divertirme, de pasártelo bien de ¿no? de... tener ahí como tu... ese pequeño tiempo libre que es la hora del recreo pues de estar haciendo algo que te divierte porque lo que es tener camaradería con... con los niños o los chicos de mi clase no... nunca he tenido porque ellos (...) como que tú eras la otra, de hecho en alguna ocasión me decían <<pero tú que haces aquí, tú tienes que ir con las chicas no sé qué>> los típicos... típicos comentarios así y entonces siempre estás como un poco excluida o sea realmente no... no participas..., no estás integrada, tampoco creo yo que haya tenido mucho interés de estar integrada en sus formas, sus modelos y tal eh porque... porque también hay muchas cosas que... como que has ido identificando en cierto perfil de la masculinidad que a mí en particular me provocan mucho rechazo, entonces como siempre he tenido también mucha capacidad de abstraerme de eso y ser como un poco más... más pragmática pues... pues a mí me gusta jugar a fútbol, estoy aquí y que me digan misa” (Mujer, CPSF, Irrupción, 38 años).

Eta guztiarekin ere, komenigarria da hemen gogoraraztea emakume biek lortu zutela futbolean jokatzea, eta gure ustez hori mendekotasunaren aurreko erresistentzia txikiaren, egunerokoaren eta aldi berean erraldoiaren adibidea da.

Lana

Aniztasuna da elkarriketatu garen emakumeen parte hartzeko proiektuetan lanak duen eragina ongien definitzen duen hitza. Hala eta guztiz ere joera batzuk hautematen dira 35 urtetik beherako emakumeen artean; izan ere, adin tarte horretako emakumeak dira lan prekarietate handiena nozitzen ari direnak (Eustaten datuen arabera, 2015eko urtarrilean, % 44,8koa da 25-44 urte bitarteko adin tartean dauden emakumeen langabezia tasa; adin tarte bereko gizonen langabezia tasa % 40,6koa den artean).

Emakume batzuen bizitzetan lanaren nagusitasunak ezaugarritzen du aurreneko joera. Horien kontakizunaren arabera, beren bizitzaren une batzuetan lanak hartzen zuen denbora guztia, lanak urrunarazten zituen parte hartzeko asmo orotatik, parte hartzeko aukerak eramanezin bihurtuz, edo haren parte hartzea lana gidatzen duten balioen arabera egituratuz:

“si no tienes un objetivo que sacar, o sea, si no hay algo de trabajo que sacar, y es simplemente divagar o bueno, aunque tú no quieras estás construida por lo que has venido viviendo y eso, sacar producto y estar en una jerarquía y cumpliendo objetivos, que a lo mejor tampoco es eso, pero yo me ponía mala. O sea, yo ahí. Me ponía mala. Vamos a ver que decimos y con todos los puntos, y el conceso de mínimos. No podía con ello. (...) Igual es porque yo llevo muchos años trabajando consiguiendo cosas no sé... Pues... Probablemente tendrías que construir a la mente derivado de eso. En vez de la percepción de que se consiguen cosas con resultados no solo cuando hay un proceso; aunque no sea cierto, tampoco estoy de acuerdo con eso exactamente. Pero yo si tengo ese, o sea ese feeling de necesitar ver resultados aunque sean pequeñitos. (...) Porque estoy muy estructurada para el curro, como trabajo tantas horas, al final parece que no pero cala. Te absorbe y al final acabas pensando así en sacar producción” (Mujer, No CPSF, irrupción, 32 años)

“yo imagínate: yo trabajo de nueve a ocho más o menos, o sea, salgo tarde; y bueno, luego algún día a la semana quiero hacer deporte, o ir a bailar, o cosas de estas que hago yo para mantener mi cuerpo firme. Y un día todas las semanas, mínimo, tenía por la tarde... Empezaba un poco antes la asamblea, antes de que yo saliera de trabajar, pero bueno, estaba al lado de mi curro así que bien. Empezaba la asamblea de la comisión. Entonces claro, iba de siete a nueve. Entonces bueno, pues yo... Llegaba un poco tarde, pero salía un poco antes de trabajar y aun así llegaba tarde, y tenía asamblea hasta las nueve de la noche. Acababa agotada.” (Mujer, No CPSF, irrupción, 32 años)

30 urtetik beherako gazteen artean bereizitako bigarren joera batek azpimarratu egiten du lan prekarietatearen, parte hartzeko baldintza materialen absentiaren eta parte hartzeko jardueren murrizketaren artean dagoen harremana. Lan prekarietateak, gaizki ordaindutako lana izategatik edo lanik ez izateagatik, baldintzatu egin du emakumeen parte hartzeko proiektua, eztabaida talde misto batean eztabaidatu zen eta gonbidapen bidez BD bitarteko batean parte hartu duen emakume immigrante batek esan zigun bezala:

“Vosotras hablabais de jornadas largas y tal yo no, en este momento no tengo jornada laboral porque no tengo empleo, tengo muchísimo trabajo, pero no tengo empleo, nadie me paga por lo que hago. Y, y a mi, pues yo estoy en un punto de mi vida que, que sí que tengo que decidir, si le doy a la causa, a la causa o a las causas o priorizo

en mi proyecto vital que tiene que ver con ese vicio que es comer todos los días y tener un casa ¿no? Pero claro, no hay relación o sea, la pirámide de las necesidades de Maslow si no está lo de abajo cubierto, lo de arriba no se sostiene” (Grupo de discusión mixto 1)

“La mayoría de mujeres que están aquí están trabajando de..., pues casi de esclava, o sea, ¿sabes Y ellas que no tienen tiempo de..., siempre que las invito, así de <<mi reina tengo dos horas de vacaciones al día, trabajo de lunes a domingo, un domingo, así libro de vez en cuando, yo no tengo tiempo mi reina de... de ocuparme de nada más ¿no?>>, pues claro, pues estar..., oyes y hasta me da vergüenza invitarlas ¿no?, es como de, tienes razón, o sea, a ti qué te va a ayudar ¿no?” (Mujer, No CPSF, invitación, 32 años)

Azkenik hirugarren joera bat bereizten dugu emakume gazteen talde honetan. Horren arabera, laneko ingurunean emakumearen etxekotasunari egiten zaio dei, eta era askotan gogorarazten zaizkio esparru publikoan arreta deitzen duen emakumea izateak sorraz ditzakeen laneko arriskuak (enplegua galtzea edo laneko balizko promozioak bertan behera uztea). Emakume batzuek aitortu egin dute BD bateko bozeramailetzaren antzeko rol publikoetan ez dutela parte hartzen gerora jasan ditzaketen laneko errepresioen beldur. Esate baterako, ondoko testigantza hauetan aurkitzen dugu lanean bideratutako etxekotasun deia:

“Entonces bueno, también fue bastante curioso porque, haber yo nunca he tenido miedo a ni que me echen de los trabajos ni laboralmente, yo cumplo laboralmente hasta que creo que tengo que cumplir, con los salarios que te dan. Pero me decía la gente a ver si no estaba loca, poniéndome, delante de la alcachofa de la televisión, que poniéndome delante de la alcachofa de la televisión a ver si no iban a verme los directores, pero si ellos ven mal esto es su problema, si consideran motivo de despido, también va ser su problema porque, porque eso no es motivo de despido, y yo necesito hacer esto y a mi trabajo y mi manutención de todos los días ya encontrare cualquier cosa, pero lo que no van hacer es que bastante que tengo aguantar, trabajando en un sitio que va en contra de mis principios, como para encima tenerme comerme los principios en mi tiempo libre” (Mujer, No CPSF, Irrupción, 32 años)

“Algunas compañeras mías también dicen: “Tía no sé de qué vas, te van a echar”, ese tipo de cosas. Siempre relacionado con el tema laboral. Claro, me tienen súper-fichada, pero bueno. No de... Pues me ha supuesto problemas pero no he perdido el trabajo. O sea, si ha sido bastante hándicap a la hora de promocionar y tal, pero bueno. De hecho ya me han visto la gente del curro y no me ha venido muy bien, obviamente, y es que estas cosas no están nada bien vistas. Y de hecho me ha venido un poco mal, pero bueno (...) No favorece mi promoción... Pero bueno de momento tampoco me han despedido. O sea, voy manteniendo mi puesto de trabajo” (Mujer, No CPSF, Irrupción, 32 años).

Gizonen kasuan handiagoa da homogeneousutasuna, izan ere, lanpostu hobeak eduki dituzte (geure laginari egiten diogu erreferentzia) eta beraz, parte hartzeko denbora gehiago eduki nahi dutela dioten arren, ez dute instituzio honetan parte hartzeagatik kargu hartzen dien ingurunerik identifikatzen edo ez dituzte beren lanpostuan jarraitzea baldintzatu dezaketen arriskuak hautematen.

Lagunartea, lagunak, berdinen taldea edo, hedadura zabalagoan, ingurunea

Egitura instituzional afektiboen esparru honetan, kurioski, parte hartzeko bitartekoetan neska lagunak sareek duten pertzepzioari buruzko gogoetak ere hautematen dira. Honenbestez, ugari dira berdinek ulertzen ez dituztela dioten emakumeak. Baina, familian eta bikotean ez bezala, baldintzatzeko botere handia baitute biek ala biek, ez dirudi lagunak sareen balorazio negatiboak oso kontuan edukitzen direnik, eta elementu bereizgarri eta positibotzat hartzen dira ez gutxitan. Guk uste dugu paradoxa horren azalpena dela emakumeek adiskidetasun konbentzional horiek (sarri askotan txikitako lagunak dira) gehitu eta are ordezkatzeko dituztela beren parte hartzeko ibilbidean egindako lagunak adiskidetasunarekin. Eta hori hobe ulertzen da adiskideen sare afektiboen bilaketa ikerlan honetan hautematen ari garen oztopoei aurre egiteko erdi ikusten bide den estrategia sendoenetako bat den neurrian. Barneratutako estrategia bat identifikatzen zuen Almudena Hernandok banakotasun independente bat edukitzeak dakarren bakardadetik ihes egin nahi zuten emakumeengan (Hernando, 2001: 103). Parte hartzeko prozesuen esparruan sare emozionalak eta afektiboak (bitarikoak batzuetan, batik bat feministak bestetzetan, bereziki kontrapublikoetan) osatzeko estrategia horrek aukera ematen die emakume horiei familiaren edo bikotearen instituzioetan aurkitzen ez duten segurtasun espazioak edukitzeko.

Hala eta guztiz ere, gure ikerlanean topatu ditugu kasu batzuk zeinetan emakumeen parte hartzeko dinamiketan galgarena egiten duen elementua hurbileko ingurune soziala den; izan ere, gizarte patriarkal batean emakumearengandik espero diren egitekoak betetzeko deia, etxekoandrea izateko deia, egiten zaio emakumeari. Landa eremuetako emakumeen kasuan, inguruneak bideratutako eraso latzak identifikatu ahal izan dira emakumeen parte hartzeko proiektuak zapuzteko. Ideia hori bat dator I. kapituluaren aipatzen genituen Inglehart eta Norris adituen lanekin, ingurunearen kultura politikoan ikusten baitute emakumeen parte hartzea oztopatzeko elementu garrantzitsua. Ondoko bi testigantza hauetan bi emakumeren esperientzia topatzen dugu, biak landa eremukoak:

"Trainak jaso ditugu parte hartzeagatik: bigotudas, putas... behin emakume batek esan zidan... tú vete a fregar... eta nik pentsatu nuen: ez du nahi izango zerbait ezberdina bere alabentzat? (Mujer, CPSE, Irrupción, 27 años).

"A mí una mujer me dijo que me tenía que ir a casa a cuidar de mis hijos y de la cocina, me lo dijo así, me dijo que ahí no pintaba nada y que les estábamos quitando el sitio a los hombres". (Mujer, No CPSE, Invitación, 40 años).

Gutxienak badira ere, inguruan oraindik topatzen ditugu emakumeenganako zuzeneko apelazioak, beste emakume zaharragoek eginak (emakumeen etxekotasunaren garrantzian

heziak) eta, ikusi berri dugun bezala, modu oldarkor batean gonbit eginez beste emakumeei berrikuntza demokratikorako esparruan betetzen duen zeregina uztera pribatua den esparrura itzul dadin. Eta ez dugu inguruneak edo lagunek eragindako antzeko egoeraren (ez bederen oldarkortasun eta esplizitazio maila horretan) bat azaldu duen kontakizunik aurkitu gizonen aldetik.

Bitartekoaren egitura formala: kanporako lanak barrurakoak baino gehiago balio duenean

Salbuespenik gabe, lankide izan ditugu emakume guztiek identifikatu dute BD espazioan izandako parte hartzearen uneren batean generoaren arabera espazioaren banaketa. Hemen interpretatzen dugunaren arabera, emakumeek pribatuari loturiko egitekoen (idazkaritza, garbiketa lanak eta kontuhartzailatza, esate baterako) arduratzeko moduan egituratzen da bitartekoa; zeregin horiek behar-beharrezkoak dira, baina, emakumeek diotenez, eskuarki ez dira gizonei uzten dizkiegun beste zereginak (bozeramailatza, lehendakaritza, etab.) bezain sortzaileak. I. kapituluaren esan dugun bezala, ideia hori behin eta berriz mahaigaineratu dute emakumeek gizarte mugimenduetan duten parte hartzea aztertzen duten ikerlariak (Falquet, 2005; Alfama, 2010; Alvarez, 2012).

Gure ikerlanean lortutako datuetatik abiatuz, ez dago arrakalarik diagnostiko horretan. Gainera, landako testuinguruak baldintzatutako kasu batzuetan (lehenengo sektoreari emandako herriak, 1.000 biztanleko kopurura iristen ez direnak), muturreko indarkeria hauteman da emakumeak etxetik kanpoko posizioak edo rolak bete dituztenean, eskuarki ordezkaritza publikoari lotutako zereginak bete dituztenean. Zuzendaritza esparruetan emakumeen parte hartze aktiboa edo agerikotasun handiagoa zapuzteko xedea duten laido horiek zerikusi handia dute Jules Falquet-ek hiru mugimendu sozial latinoamerikarren inguruan egindako azterketan adierazitakoekin. Lehen ere esan dugun bezala, bere azterketetan ongi asko hautematen zuen zuzendaritza esparruek balioa galtzen zutela haietara emakumeak iristen zirenean (Falquet, 2005). Gure kasuan, emakume batek zioen emakume talde batek aldi batez BD espazioaren baitan jarduerak antolatzeke ekimena abiarazi zuenean, “las amitas del cotarro” esaten zieten. Beste batek gisa honetan birstortu zituen aztertutako hamabost BD bitartekoetako bateko lehendakaritza postua hartu zuen unean nozitu zituen irainak:

“que las putas éstas de fuera que han venido a joder el pueblo, que vengan ahora y que lo arreglen” (Mujer, No CPSF, Invitación, 40 años)

Lanaren banaketa berezitua, sexuaren arabera, identifikatzeko unean arrakalarik ez dagoen arren, alde garrantzitsua hauteman ahal izan da KSF bat osatzen duten emakumeen eta horrelakorik osatzen ez duten emakumeen artean. Lehenengoei banaketa hori oztopo gisa hartzen duten artean, eta emakumeen etxekotasunaren aldeko deitza duten artean, bigarrenak berezko banaketa ez kaltegarritzat dute, zeregin batean edo bestean ezinbestekoak diren gaitasunen absentsia edo metaketan oinarritzen dute azalpen hori.

KSF bat osatzen duten emakumeek, adin askotako emakumeek, honenbestez adierazten dute hitzez sexuaren arabera bereiziriko lanaren existentzia:

“Talde mistoetan nabaritzen zela pilo bat. Teilatuan mutil guztiak. Garbiketan neska. Herri batzarretako oso ebidentea zen ere. Aulkiak eta aurrean mahai bat. Guk hau pairatzen dugun heinean zer egin dezakegu” (Mujer, CPSF, Irrupción, 29 años).

“Gero, nahiz eta onartua sentitu, ba bai ikustea bezela oso harroputz diela, ba gauza arriskutsuagoak edo ausartagoak ba azkenean... beti berdinak egiten zuten... Eta pues betiko diru-zaintza ez dakit zer neskei egotzen zitzaizkien gehiago, eta ba bai... iritziak ematerako orduan ere... bai adinarengatik, edo bai karismatik ere, baina baita generoagatik ere ba azkenean nabaritzen zenun ba iritzi batzuk besteak baino pisu gehiago euki zezaketeela (Mujer, CPSF, Irrupción, 26 años).

“Yo el análisis que hago es que las mujeres estamos en lo privado, osea, a las mujeres no se nos ha permitido estar en lo público, entonces, tenemos muchas habilidades fantásticas pero que muchas veces no están adaptadas para estar en lo público. Como lo que te cuento; el tema de organización, estar en una mesa, tomar decisiones... ¡Nos cuesta un huevo tomar decisiones! A nosotras nos cuesta mucho más hablar, yo eso lo he visto en la mesa. En cambio, a ellos... yo he flipado a veces en la mesa; llega un tío que es la primera vez que viene y no le suda prenda decir: “pues a mí esto no sé qué...”, y dices... ¡que está muy bien! Para mí son muy atrevidos, tienen esa licencia para participar en lo público que las mujeres no tenemos. Entonces, es una virtud, porque tienes el poder de gestionar eso o de opinar o de decir lo que quieren, que eso está genial, pero también muchas veces... claro, con poco respeto o poco cuidado, ¡porque soy hombre! Porque la educación que les han dado es ésa. Y las mujeres en el otro lado. Yo estoy cansada de ver... pues eso; las mujeres preparando la semana cultural, y cuando hay que hacer: “yo hago el chocolate, yo voy a por lo niños...”, ¡haciendo cosas! Y ellos: “voy a hacer una llamada a no sé quién a ver si nos trae no sé qué”, y es como: “¡vete a por ello, chico!” (Mujer, CPSF, Invitación, 40 años).

Beren hitzetatik ondorioztatzen da sexuaren arabera lanaren banaketari eta taldearen kanporantzko zereginen (esate baterako bozeramailetza) nagusitasunari egiten dieten kritika, kanporantzko eginkizun horiei balio handiegia ematen zaiela taldearen kohesioan jarri beharreko arretaren aldean; batez ere harremanen esparruko lanak dira, eta KSF emakume gazteek osaturiko eztabaida talde batean zioten bezala, horiek gabe ezinezkoa litzateke berrikuntza demokratikorako bitartekoa existitzea.

“Gauza hauek edo rol batzuk ez ditugu txartotzat eman behar baizik eta “simplemente se necesita que se les coloque donde se les tiene que colocar, donde se les de la importancia”. A veces, la mujer, a la hora de intentar

encontrar un sitio dentro del colectivo, acaba siendo anulada, o su potencial de participación política activa etc, porque para de alguna manera convivir, se autoimpone el rol de cuidadora. Como que se autoresponsabiliza del bienestar de las personas que forman el grupo. Entonces, se convierte ... pues eso, como elemento, yo soy importante aquí porque soy un elemento de cohesión, porque actúo como pegamento, porque me preocupo, si una persona está bien, si una persona está mal, entonces se me tiene en cuenta en tanto y en tal. O sea, al final acabas siendo una mujer florero, una mujer que hace bonito, que hacer más agradables las reuniones, la marcha del colectivo, las diferentes actividades. En ese sentido también negativo. Luego claro, cuando escuchaba a I. decía; es que alguien también se tiene que ocupar de cuidar a la gente del colectivo, y se le debe dar también esa importancia no?" (Grupo de discusión compuesto por mujeres CPSF).

Gorago adierazi dugun bezala, sexuaren arabera lanaren banaketa naturalizatzeko joera agertzen dute KSF bat osatzen ez duten emakumeek, haien arazo ez dela iradokitzen dute.

"Todos los temas prácticos me tocaba a mí y a otras compañeras, sobre todo chicas, hacer la organización interna de la estructura, más que ideas políticas, y de hecho yo no me metí en propuestas luego participe en asambleas que quedaban abiertas para ciertas cosas, pero no me metí y de hecho, eso días recuerdo bastante poco (...) Allí había bastantes mujeres, en principio si, luego se van quedando más hombres que mujeres, y sobre todo yo creo que teníamos una participación bastante organizativa. Muy organizativa. También teníamos, compañeros que estaban en labores organizativas e, pero yo creo que a nosotras igual nos daba más por ahí. (...) yo, o solía tener la etiqueta del rol consensuador, eee cuando se atascaban las cosas, para mí las, casi siempre he sido bastante fácil Y normalmente solía encajar en y bueno me gustaba esa labor, me parecía interesante. (...) aunque noto una presión que casi, igual te impide dar tus ideas." (Mujer, No CPSF, Irrupción, 32 años).

"Y lo que sí he notado es que los chicos han sido más atrevidos a la hora de dar charlas que las chicas. No sé si eso masculino o femenino... Lo que sé es que nosotras tenemos que tener más, tenerlo más atado que ellos. Entonces, yo ya estoy dando charlas; pero a mí me ha costado, ganar en seguridad de puedo hacer esto lo suficientemente bien como para sentirme a gusto. Yo no he tenido experiencias previas, entonces, yo no sé si eso es así o no. (...) Pero no creo que haya diferencias de género a nivel participativo. No creo que haya ninguna. Que igual las hay pero yo no las percibo" (Mujer, No CPSF, Irrupción, 36 años).

Gizonen kontakizunari dagokionez, eurek parte hartzen duten esparruetan inolako alderik ez dagoela eta, gonbidapen bidez espazio batean parte hartutako 56 urteko gizon batek zioen bezala, "gizon edo emakume izatea" berdina diola esateko joera azaldu dute. Soilik KSF bat dagoen BD bitarteko batean parte hartutako gizonak azaldu dute jarrera kritiko bat bitartekoaren alderdi batzuen aurrean, bitartekoa bera egituratzeko moduan aurrean. Bitartekoko gizonen artean, boterean duten posizioa sendotzeko xedean, itun "ikusezin" baina iraunkor batzuk zeudela zioen gizonetako batek.

"gizonen artean ematen den holako elkarriketa bat. "Compadreo" bat edo... Ez dakit. Hori batzuetan ikusten duzu. Eta, jakinda horiek direla boterea dutenak" (Hombre, No CPSF, Irrupción, 51 años).

Gaiari buruzko ekintzak eta eztabaida abiarazitako KSF bat dagoen espazioan parte hartutako beste gizon batek hitz hauekin azaldu zituen espazioaren egiturak berak batik batik emakumeei sorrarazten dizkien eragozpenak. Gizonarengan erabateko aldaketa eragin zuen bere erosotasuna beste emakumeentzat deserosotasuna zela ohartu izanak.

“Notábamos que esto no funcionaba y las más que había un montón de chicas y que las chicas cada vez participaban menos. Porque no hablaban. Por que no hablan, porque si...pero todo eso estaba muy bien, pero allí nadie hablaba. No se hablaba, no funcionaba. aquí nos metimos con FC., nos dios un recorrido! O sea pero una cosa es el recorrido que le pego aquí al personal. Pero por ejemplo a listillos de la vieja guardia, como somos como G. y yo, tu sabes lo que es la sensación, te coge alguien, te saca la piel a tiras, sobre lo que tu dominas, porque a mí me viene este hablándome de que si la huella ecológica, pues me quedo tan tranquilo. No, no, sobre lo que yo creía que dominaba, o sea me saco así, el pellejo a tiras, y me dijo, y esto es lo que no tenéis, desgraciados! bueno oye entre lo que nosotros hacíamos y lo que hacíamos no había relación. Que era imposible que nosotros hiciéramos cosas. Tú no puedes conseguir que la gente participe si tú haces cosas para que haga que no participe, o impida la participación. El tipo de debate el tipo de participación, diferentes formas de trabajo, la insistencia absoluta en el debate libre, la no preparación de las reuniones, no tener cuenta las dificultades de participación de todo. Y sobre todo, el control rigurosísimo del ego. O de los egos” (Hombre, No CPSF, irrupción, 56 años).

Azken ideia horrek kontrapublikoen existentziaren eraginkortasuna uzten du agerian, bai norberaren ongizatearen eta kontrapublikoak osatzen dituzten pertsonen parte hartzearen kalitatearen hobekuntzaren alorretan, bai horien gaitasunean pertsona menderatzaileei egoeraren ikuspegi subalternoa helarazteko.

Kontrapubliko horiek taldeko ikerlari batek aztertutako bi espazioetan dauden arren, gizonek eta emakumeek espazioa bestela okupatzen dutela ageriko egiten duten elementu barneratu batzuk hauteman ahal izan dira. Elementu horiek gorputzen jarrerekin, generoaren *habitus*-arekin dute zerikusia, eta askoz ere estugarriagoak dira emakumeen artean gizonen artean baino. Gure esertzeko modua egituratzen duten mekanismoekin dute zerikusia, espazio gehiago edo gutxiago okupatzeko, besteen aurrean gutxi gorabehera eroso agertzeko.

Hona hemen espazioetan parte hartutako ikerlariak jaso zituen oharrak. Emakumeen gorputzen jarrerak gizonenenak baino diskretuagoak direla dio, eta meheki bada ere, lanetan generoaren araberako banaketa bat gertatzen dela nola edo hala⁵⁸:

“Las posturas más distendidas las tienen los hombres. Según avanza la reunión esas posturas distendidas se van generalizando a hombre y mujeres. El hombre nuevo (JR) tiene durante la mayor parte de la reunión las

⁵⁸ Hitzek hitz jasotakoak dira kako zuzen bikoitzen (""") artean bildutakoak. Espazioko agenteetako batek zuzeneko kontakizun baten baitan gutxi gorabehera erabilitako hitzak, berriz, kako zuzen arruntan (") artean jasoak dira.

piernas estiradas. Quienes se definen como “padres y madres” del espacio de ID en general tienen posturas menos rígidas, más distendidas, como si estuvieran a gusto. Las dos personas que son pareja no se sientan juntas, en el descanso se abrazan. Los grupos de afines no se sientan juntos. Durante la asamblea no se crean conversaciones paralelas. Son las mujeres las que toman notas PR anota las cosas que le parecen interesantes (citas próximas, eventos, etc.). IT (mujer) toma acta. Un hombre me pide papel para anotar, es el hombre más joven del espacio junto con JR (30 aprox.)” (Espacio nuevo)

Hay visiblemente más hombres que mujeres por lo que no es raro que los espacios centrales estén ocupados por los hombres (ver el croquis de los anexos). La coordinadora ha cuidado, intencionadamente, la presencia de hombres y mujeres entre las seis personas que están en la primera fila, tres hombres y tres mujeres. Cuento a nueve hombres con las piernas claramente abiertas. Uno joven que interviene en 7 ocasiones en la reunión es el que más abiertas las tiene mostrando una pose cómoda. Otro hombre que interviene tres ocasiones tiene los brazos estirados apoyándolos en el respaldo de la persona que está a su lado. Las chicas tienen en su mayoría las piernas cruzadas o a lo sumo sin cruzar pero juntas. Toman activamente notas durante la reunión 5 personas, de las que 4 son mujeres y una hombre. (...) En el momento de la recogida de sillas dos mujeres y un hombre recogen las sillas. Existe una tendencia a que cada uno recoja su silla, pero quedan varias sin ordenar y una mujer las recoge. Un hombre propone ir a tomar algo. Un grupo de hombres le sigue. Se forman grupo mixtos. La mujer que constituye un CPSF se rodea con mujeres. (...) Las mujeres no se han movido de la silla durante la reunión. Sólo una para ir al baño. Los hombres se han levantado, aunque no hayan hablado para: ir a fumar, cuando ha habido ruidos en la calle, para arreglar cosas (papeles o recados). La forma de sentarse difiere entre hombres y mujeres, siendo estos primeros los que se sientan con las piernas abiertas en mayor medida que las mujeres. (Espacio viejo)

Oztopo hauetan arrazoiaren eta emozioaren arteko banaketa da nagusi

Elkarrizketatu ditugun emakumeek eta gizonek hitzez adierazitako hamaika oztopoetatik asko eta asko daude kapital formaren baten absentziarekin edo metaketarekin lotuta, Bourdieu-k zioen bezala (eta lan honetako II. kapituluan jada azaldu dugun bezala). Egiaztatu dugu BD espazioa bezalako lehiakortasun diskurtsiboko testuinguru batean, hitza hartzeko “lehia” bat dagoela denak gutxi gorabehera jakitun direla, eta erabateko eragina duten bi kapital modu daudela: kultura kapitala (haren molde instituzionalizatuan eta teknikoan) eta kapital sinbolikoaren modu zehatza, hots, hizkuntzari lotutako kapitala. Hau da, baloratuago dago gai bat teknikoki ezagutzea eta ongi prestatutako hitzaldi baten bidez babesten jakitea, hizkuntz teknikoaren erabiliz, eskarmentuan eta sentsazioetan oinarritutako hitzaldi bat egitea baino.

Oso lotura estua aurkitzen dugu, alde batetik, hemen kultura kapitalaren metaketa gisa aurkeztu dugun ezagutzaren bidezko legitimazioaren eta, beste aldetik, arrazoiaren ideiarekin artean. Emozioan (Nussbaum-ek dioen bezala, berdin emozioak bertutetsuak izan – maitasuna, zaintza – edo kaltegarriak –hira, mendekua–) oinarritutako hitzaldiak baino pisu

handiagoa du arrazoian oinarritutakoak (kultura kapitalean eta kapital sinbolikoan eta hizkuntza kapitalean sostengatua).

Honenbestez, parte hartzaile garen aldetik, berrikuntza demokratikorako espazio batean (esate baterako partaidetzako aurrekontu bat eztabaidatzeko batzarrean) espero dugu eta baloratzen dugu norbaitek hitza hartzea eta argudio teknikoetan (kultura kapitala) oinarritutako hitzaldi koherentea (hizkuntza kapitala) egitea, “zentzuz” erabakitzeko zergatik inbertitu beharko litzatekeen dirua liburutegi bat egiteko eta ez azalera handiko merkataritza gune bat eraikitzeke. Ez dugu espero eta halako mespretxu batez hartzen dugu azalera handiko merkataritza gune bat ez baizik eta liburutegi bat egitea beharrezkoa delako argudioa azaltzeko orduan emozioa baliatuta batzarraren erdian negarrez hasten den baten hitzaldia.

Hala eta guztiz ere, *habitus* emozional garatuagoa aurkitzen dugu KSF bat osatzen duten emakumeen taldean. Honenbestez definitzen du Deborah B. Gould-ek *habitus* emozional hori: "talde bateko kideek modu gutxi gorabehera kontzientean barneratu duten jarrera emozionala da, hau da, sentimendu batzuen aurreko eta horiek adierazteko moduak agertzeko lerratze axiomatikoak dira" (2009: 32), eta geure interpretazioaren arabera espazio publikoan (BD espazioan) emozioak modu gogoetatsuan txertatzea dakar, esate baterako batzarraren esparruan estimuei buruz hitz egiteko leku bat aldarrikatuz. Baina modu barneratuan ere adierazten da, esate baterako, bilera batera iristen dena besarkatuz, ukituz, amultsuki begiratuz edo irribarre eginez (joera hori, KSF emakumeengan nabariagoa den arren, halakorik osatzen ez dutenen artean ere aurkitzen dugu). Emozioak jendaurrean agertzeko eta bilkurak norberaren eskarmentuekin eta bizipenekin aberasteko prest azaltzen den *habitus emozional* hori gutxietsita dago gure ustez, eta hurrengo orrialdeetan ikusiko dugun bezala, “ez oso profesional” irizten diote harekin bat ez datozenek.

Honenbestez, zentzuzko kapital molde bi, kultura eta hizkuntza kapitalak –jakinik erabaki honekin aurrekoekin lotuta dauden beste botere-kapital batzuk (ekonomia kapitala, gizarte kapitala eta politika kapitala) albora uzten ditugula– *habitus* emozionalean gure berriemaileen kontakizunetan nola azaleratzen diren azalduko dugu jarraian.

Arrazoiarekin zerikusia duten oztopoak, kapital molderen baten prestasunarekin lotuak

Kapital kulturala-arrazionala

Gai bat teknikoki eta sakon ez jakiteak eragiten dien segurtasun eza da ikerlan honetan lagundu duten pertsonen diskurtsoetan behin eta berriz adierazi den elementua, batez ere emakume eta gizon gazteen artean da oztopo garrantzitsutzat jo den elementua. Ikusiko dugun bezala, “gai baten inguruan behar beste ez jakite” horrek mugatu egin du emakumeen parte hartzea, eta erosoago sentitzen ziren kontuetara lerrarazi ditu, esate baterako, hezkuntza eta osasun alorretara, parte hartzeko saioetan bide berri batetik birsortuz gaien araberako generoaren banaketa. Interesgarria da ikustea nola KSF emakumeek hori nekez saihesten duten zapalkuntza eta menderatze formatzat hartzen duten eta nola irtenbide bat bilatzen duten kosta ala kosta. Parte hartzen duen BD esparruaren baitan birtualki (posta elektronikoa banatzeko zerrenda baten bidez) antolatzen diren eztabaidak hizpide izan zituenean, honela zioen emakume batek:

“Es gente que tiene... como una gran solvencia en su formación política y... y entonces escribe pues... no sé, unos discursos muy fundamentados, muy bien documentados, muy complejos y... entonces creo que la mayor parte de las mujeres frente a esto nos sentimos como... como excluidas de este ámbito y como incapaces de dar la talla en este alto nivel de excelencia o algo así, en las asambleas, o sea, pasaba exactamente lo mismo, o sea, las asambleas se desarrollaban en forma de debate abierto, había un orden del día y se iban debatiendo los temas, las decisiones se tomaban de forma asamblearia, y entonces en esta forma de debate abierto casi siempre participaba la misma gente, y participaba en forma de grandes discursos eh... muy bien fundamentados, que duraban mucho tiempo, eh... grandilocuentes, incluso con gran vehemencia y casi siempre el perfil de la gente que participaba era el mismo, que eran hombre, mayores con experiencia, con mucha experiencia... activista previa, o sea, ese era... el perfil (Mujer, CPSF, irrupción, 46 años).

KSF bat eratzen duten emakume gazteez (30 urtetik beherakoak) osaturiko eztabaida talde batek gisa honetan adierazten zuen gehiago dakienaren menderatzea edo, Virginia Woolfek esango lukeen bezala, “irakaslearen menderatzea” (Woolf, 1986: 55) nola bizi duten:

** de no ser una persona politizada y llegar a espacios que me interesa, que por mis inquietudes o lo que sea, pues, pretendo participar y no... Sentirme yo insegura, que evidentemente eso también es una historia de género, pero tampoco... como tampoco se facilita dentro de los espacios de participación ese acompañamiento, ¿no? Ese entrar contigo y... pues eso a mí sí que me paralizaba. Y también el qué pensarán. O sea, que esto también es de género...*

*** Yo a eso le sumo, además, el rechazo. Que además siempre suele venir... O yo siempre lo he sentido por parte de los hombres. Intentar participar en algún espacio y que sea como, bueno, yo desde mi ignorancia y mi desconocimiento, pues, me apetece empezar, no sé qué, aprender y tal. Y es como: <<¿pero no sabes esto?>>, <<¿pero no conoces a este autor?>>, <<¿pero no te has leído tal libro?>>. (...) Sí, y además como con tono de... de burla, incluso, también a veces. Y... lo notas en los hombres, no lo notas en las mujeres.*

Era berean, gehiago dakienaren menderatze hori hauteman ahal izan dugu KSF bat osatzen ez duten emakumeen kasuan. Hala eta guztiz ere, hor ez dago errealitate horren zergatia azaltzen dien generoaren araberako irakurketarik, eta hori da fenomeno horren gibelaldean

ezkutatzen den boterearen logika zalantzan jartzeko egin beharreko aurreneko urratsa. Gisa honetan deskribatzen zuen emakume gazte batek parte hartzera hurbildu zen lehenengo eguna:

“y yo o sea no me enteraba de nada, estaban ahí, y recuerdo que fui un, esa primera tarde noche, pues, bueno yo soy así muy tímida, o sea bueno, tengo inseguridad en ciertas situaciones sociales y así, me, me... me cohibo un montón. Y llegué allí y claro era un montón de gente en una mesa, hablando de un montón de...temas que yo no controlaba, es una comisión. Y me asusté un poco y dije yo esto soy incapaz de seguirlo y entonces no, no volví, eh...no sé cuantos meses pasarían, pero en tres meses o así no, no volví (...) más tarde me encontré con dos chicos súper majos de la reunión por la calle y uno de ellos me dijo, oye, que ánimo a venir (...), no sé qué vente hacemos un taller juntos, no sé qué , bueno y así me enganchó fui en septiembre pues empecé a ir de manera eh regular a las reuniones y así” (Mujer, No CPSE, irrupción, 29 años).

Kontu hori estu lotuta dago, hurrengo atalean (oztopo hauetan unibertsal bokazioa duen banaketa menderatzailea da nagusi) ikusiko dugun bezala, emakumeentzako eredu edo sendogarri positiboen gabeziarekin. Zentzu horretan, hark “ezagutza politikoa” deritzona ez izateak mugatu egiten du parte hartzeko bitartekora lehenengo aldiz joan zenekoa kontatzen duen beste emakume haren parte hartzea. Bere bizi esperientzia eta familia heziketan oinarritutako diskurtsoan “txikiaren” kontzeptua identifikatzen du beste handiagoaren, iritsi nahi duenaren, aurrean; eta handiago horren arabera neurtzen ditu bere urratsak:

“pensaba que la gente que participaba, tenía una capacidad de discurso, de tal, de implicación social o pues teniendo todo este tipo de léxico que va unido al tema social, que a mi me resulta, incluso a día de hoy ahora mismo me puede resultar desconocido ciertas cosas que yo me iba a sentir perdida y que era como demasiado político o demasiado organizado ahí, para, para mi, ¿no? Que simplemente es, bueno me interesa, posiblemente, o sea, estoy en contra de tantas tiendas y de tanto venga a comprar, o sea, no sé. Entonces como mi discurso era así pequeñito, entonces de repente era como ¡uf!” (Mujer, No CPSE, irrupción, 40 años).

Lantzen den gaiaren inguruan instituzionalizatutako kultura tekniko kapitalaren jabe den menderatze hori hauteman ere du geure analisia egiteko bereizi ditugun BD bitartekoetako baten diseinuan parte hartzen duen eta dinamizazio lanak egiten dituen emakume batek. Bere kontakizunean dio uneren batean eztabaida hirigintza kontuetara lerratu zela, eta emakumeak baztertuta geratu zirela. Bitartekoaren dinamizatzailer izanik, menderatze horretaz jabetu zela dio, eta arazo horri konponbide bat emateko baliatutako estrategiaren berri ematen du:

“Gero, prozesu honetan eta besteetan ere bai, ikusi egin detena da, ba, gai, edo aurkezpen, lehen esaten genituen horiek, teknikoagoak, hirigintzarekin harremana dituztenak, eta horiek guztiak eta, beti emakumezkoen irakurketa ahulago da. Ba, askoetan, herritarrek ere, gizonezkoak, bat egiten dute horiekin, errefortzatzeko beraien... zera... bai? Beraien maskulinitate edo ez dakit nola esan, bai? Eta... konplizeak bihurtzen dira indar puntu horretan, bai? Neri hori amorru oso handia ematen dit. Eh... zeren askotan, ba... ikusi egiten zaie... nik ez dakit gizonezkoak direlako, baina, bueno, nahi dutelako... klase horren parte izan, ezta? Soy de la

clase de los que saben que la cota es la cota (...) Batzuetan ez dute ezta entzuten emakumezkoak esaten dituzten gauzak, ezta? Ematen du como... gorra gelditu direla edo... Batzuetan, esaten dizute...A ver... Eta ni askotan saiatu behar naiz, porque es como... a ver quién de ellos habla más complicadamente para que... tener la sensación de que... Haiek bakarrik ulertzen dituzte beraien hitzak, ezta? Eta askotan hartzen det nik papera, ez zait inporta, gero errieta egiten diet, zeren... normalmente harreman onak ditut eta ateratzeanesaten diet: <<ya os vale, ezta?>>.Porque askotan, ba, hartzen dute, bere diskurtso horrekin, plano batzuk, eh... ez dakit ze... montaje batzuk... eta porque el viario y la cota... eta ez dakit zer. Eta nik bileretan esaten diet: <<A ver, ¿qué es la cota? ¿qué es el viario?>>. Porque ikusten dituzu aurpegi batzuk, seguramente gizonezkoak, asko ere, ez dakitela, pero ponen cara de que saben. Baina emakumezkoak, ba, askotan jartzen degu aurpegi sintzeroago bat eta como... eta joaten zara pixkana, pixkana joaten direla atzeratzen beraien presentzia, ezta? Galtzen beraien presentzia bileran eta orduan, egin behar dituzu holako ariketa batzuk, que... batzuetan ematen dit amorrua, zeren, bueno, ni ere emakumezko... gainera hauek pentsatuko dute emakumezkoa naizelako (...) nola askotan hainbeste kostatzen zaigu esatea: <<ez det ulertzen, ez dakit zer dan hori, zertaz hitz egiten ari zera...?>>. Emakumezkoa baldin bazara gehiago. Eta gainera sortu bada tonu oso inportante bat gizonezkoen artean, pues agian, ez dakit, ahulago eta ahulago joaten zera egiten. Edo momenturen batean esaten duzu:<<bueno, a ver, que meen todo lo alto que quieran>>, y bueno, pues ya está, ez? Baina bueno, holako momentuak ikusten ditut bileretan. Bai. Edo... emakumezko batek, benetan egiten baldin badu irakurketa bat eta espresatzen du: <<nik emakume bezela egiten ari naiz>>, edo aldarrikatzen du bere emakume bezala irakurketa hori, bueno, en fin, ez da oso inportantea, edo... ez dakit. Holakoak asko... Bueno, ikusten dira.” (Mujer, No CPSF, Invitación, 48 años).

Aitzitik, gizonen kasuan, inoiz ere ez da aipatu gai baten inguruko ez ezagutzak inoren parte hartzea zapuztu ahal izan duenik. Guztiz bestela baizik. Gaiaren inguruko espezializazioa haren parte hartzea legitimatzen duen alderdi positibotzat hartua da. Aitzitik, ez da horrelakorik gertatzen gizon gaztearen kasuan, berriro ere bat egiten baitu emakumeek identifikatutako sentsazioarekin, hots, garrantzitsua dela ezagutza parte hartu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, ez du gaiari buruzko irakurketarik egiten zapalkuntzaren ikuspuntutik. Haren diskurtsoan ez dira adina, sexua, gizarte maila eta arraza ageri ezagutzarekin edo ezagutza gabeziarekin lotuta. Ontzat ematen du parte hartzea ezagutzaren bidez legitimatzeko forma. Eta horrek hasiera batean bere parte hartzea zaildu ahal izan zuela dioen arren, berak ez zuen, lehendik emakume batek zioen moduan, bitartekoa utzi edo abandonatu, ikasten eta prestatzen hasi baitzen beharrezko ezagutzaren jabe egin ahal izateko:

“quieres participar de cosas, pero sabes que no puedes porque no tienes discurso, no tienes, eh, no, no te enteras, no sabes, o sea, vas a una reunión y la mitad de lo que se habla, pues no lo coges. Te tienes, te lo tienen que estar explicando todo. Entonces, te das cuenta de que tienes que formarte, tienes que leer mucho, tienes que, para, para saber de qué se habla en una reunión, o cuando lees una nota de prensa o un comunicado de cualquier colectivo, saber lo que estás leyendo. No sé a mí me parecía importante, bueno importante más que nada porque a mí me generaba malestar el no, el no saber. Entonces quieras que no, pues sí que, “joe, necesito aprender” en el día a día, muchas cosas que no las entiendes aunque no te gustan, pero no sabes el por qué de esas cosas, y, y

tampoco sabes plantear alternativas, o sea es, eh, no sabes de donde vienen, por qué, eh. Entonces, no sé, esa falta de, de eso ¿no? Por ejemplo ¿no? Dice, "a mi no me gustan las guerras", eso lo puede decir cualquiera, pero que, qué discurso es ese, o sea, ¿no? Tienes que saber el por qué de las guerras, lo que, los costes reales que conlleva una guerra, los costes sociales, los costes en el norte, los costes en el sur... todo este tipo de cosas para poder, no sé, es que no puedes decir, no, no estoy de acuerdo con las guerras, tienes que saber por qué son las guerras ¿no? Para decir "hombre pues si las guerras son por petróleo, pues tendrás que tener un discurso contra el petróleo, o contra el modelo de consumo en el norte... por decirte algo ¿no?" (Hombre, No CPSF, Irrupción, 29 años).

Bertatik bertara egindako behaketetan ongi asko hauteman ahal izan dira gizon batzuen diskurtsoetan prestatuta egoteak eta kultura kapitala edukitzeak duen pisuari buruzko xehetasunak. Lerrootara ekarri ditugu aztertutako bitartekoetako baten (berritik sortutakoa) baitan jasotako oharra. Araututako ezagutzak edukitzearekin zerikusia duten balizko botere harremanak indargabetzeko xedean ahaleginak egin eta hainbat estrategia bideratu arren, elementu erreaktibo batzuk hauteman dira:

El hombre desvíe el tema sobre el que tenemos que trabajar a cosas que le interesan ""participa gente de [Partido político] aquí?"" una mujer le responde ""yo no tengo mucha idea de política"" la mujer que va en silla de ruedas que hasta ahora o había hablado, trata de reconducir el tema y le dice a otra que es CSF ""tu qué tiene más experiencia que piensas"", mientras tanto el hombre no mira a los ojos, hace muecas de desinterés. Ocupa más espacio que el resto. Tiene las piernas cruzadas a lo ancho o las piernas abiertas. Vuelve a tomar la palabra para decir ""yo del tema de cuidados ando muy pez el tema de consumo y colapso me llama más"" dice que es economista y nos pregunta qué somos. Qué hemos estudiado.: derecho, políticas, física y psicopedagogía, pregunta a ver si hay más economistas. Dice ""yo ayer hablé con un catedrático y no se puede mandar todo a tomar por el culo"", ""estoy pensando que depende de a donde me meta a participar me puede ser más difícil encontrar trabajo, estamos agarrados de las pelotas (...) me conozco todas las trampas de la economía, nosotros..."" Silencio. Tratamos de reconducir le tema, y aprovecha para seguir ""la economía es muy importante, tenemos que tener a un biólogo, un ingeniero"" ""estoy haciendo un curso sobre eso, yo sé"" ""podemos contar con gente de la universidad"" menciona a [nombre de una profesora de Universidad] como matemática además de a varios hombres más. Ocupa todo el debate y no permite realizar la tarea que había que hacer en pequeños grupos." (Nuevo espacio)

Kapital linguistikoa-arrazionala

II. kapituluaren genioaren hizkerarekin, hizkuntza menderatzeko gaitasunarekin, diskurtso bat antolatzeke gaitasunarekin eta hizlariari halako boterea ematen dioten argudioak modu jakin batean azaleratzeko gaitasunarekin zerikusia duen kapital sinbolikoaren forma bat dela hizkuntza kapitala. Esan dezagun hizkuntza kapitala edukitzeak diskurtso menderatzailearen forma estandarizatueta sarrera izatea eta horiek trebeki gobernatzea dakarrela berekin batean, eta "hizkuntzaren bikaintasuna ezaugarritzen duten ezaugarriak, dotoretasun eta zuzentasun hitzekin laburbildu daitezkeenak" ezagutzea (Bourdieu, 1984: 34).

Zuzen, argiro, tronpatu gabe, urduritu gabe, hitz egitea zerbait agerikoa da, gorputzarekin estu lotua dago, aurrerago ikusiko dugun bezala zerikusia baitu publikorantz prestatutako *habitus* bat edukitzearekin. Sinbolikoa den kapital forma hori –sinbolikoa besteek ezagutu behar dutelako eta horregatik ematen duelako boterea (hau da, ez da nahikoa ongi mintzatzen zarela pentsatzea besteek ez badute horrela baloratzen edo aitortzen, besteek baloratzen eta aitortzen dutenean baizik ezin izango baituzu modu batean edo bestean eragin)– zalantzarik gabe zuzenean dago lotuta, hemen azaltzen dugun bezala, aurreko elementuarekin. Teknikoki arrazoitutako argudioak edukitzeko hizkuntzaren kodeak ezagutu behar dira argudio horiek eztabaidaren baitan pisua izango badute.

Emakume gehien-gehienak larderiatsuak sentitu dira hitza hartzeko unean. Hain dira ugari jendaurrean hitz egiteko beldurra azpimarratzen duten kontakizunak, ez litzatekeela bideragarri izango denak orriotan biltzea. Askok esan dute arazoak dauzkatela hitza jendaurrean hartzeko, eta ezerosotzat jo dute une hori, aurpegiak gorritzen zaizkiela eta bihotz taupadak ohi baino bizkorrago ari direla sentitzen dutela. Ezerosotasun hori egiazki islatu da euren gorputzetan (ahots eta esku dardaratiak, antsietateak jota), eta beraz, garrantzi berezia hartzen du dimentsio barneratuak hizkuntza kapitalaz mintzo garenean. Urduri jarri dira jendaurrean hitz egin behar izan dutenean, baina naturaltasun osoz hurbildu zaizkio etorri berriari eztabaidara bil zedin, edo gauzarik normalena iruditu zaie itzuli eta elkarrizketarako zirkulua handitzea inor baztertuta gera ez zedin. Batak min egin die, bestea berez “irten” zaie. Min hori ezin hobe adierazten du KSF bat osatzen duen 52 urteko emakume batek, eta dio gaur egun ere kostatzen zaiola hitza hartzea, hitza hartzeko lehiatzea, eta oso une bortxatua dela:

El tema de hablar en público... me crea... mucho problema. Siempre. Y, bueno, luego cuando estuve en [nombre del primer espacio en el que está] también, pues, con el tema de las asambleas y todo eso... me tuve que hacer con bastante violencia. Por forma de ser, o sea... Sí llegaba a ser capaz de hablar, incluso de dirigir, pero vamos, pero haciéndome... mucha violencia. Yo creo que es por forma de ser. Que soy introvertida, soy tímida, y entonces, todo el tema de... de participar en... En el tú a tú, no, o en ámbitos donde yo me siento más segura, tampoco. Pero si es un ámbito donde me siento más insegura o más... amplio, me crea... problema. Me cuesta mucho. Me cuesta mucho... (Mujer, CPSE, Irrupción, 52 años).

Aurreko kasuan bezala, KSF bat osatzen dutenek zapalkuntza egoeratzat jotzen dute zalantzen eta diskurtso alternatiboan aurrean hizkuntza bikaintasunak ezartzen duen mendekotasuna, nahiz eta zenbaitetan egoera horretan murgilduta dauden. Halaxe jakinarazi zigun ondoko emakume honek:

“Hay gente que tiene un discurso súper elaborado, que la escuchas y dices, jo, qué guay, que bien transmite las ideas, cuántas ideas... A mí me cuesta mucho, o sea... Yo puedo poner más ejemplos del día a día, y más...”

sencillo, no te cuento un discurso tan elaborado, ¿no? Y... ay, ¿esto a qué venía? Pero como interiorizamos que, que no somos nada o que no tenemos nada que aportar. Y yo también lo tengo interiorizado, eh. Yo siempre digo, jo, es que yo soy la primera que no sé argumentar. Y me encantaría argumentar. Me encantaría, porque en unos debates, es que me pueden. Porque yo tengo muchas ideas, pero es que no sé cómo expresarlas, y tú me estas comiendo porque tienes las ideas súper argumentadas y aparte también, porque tienes un tono de voz, ¿sabes? Digo, y no muestras dudas... Son según los modelos de comunicación, ¿no? y... y yo siempre digo, jo, me encantaría no tener dudas, tener un argumento súper... pero luego dices, es que no es real, ¿no? (Mujer, CPSF, Irrupción, 28 años).

Eta bada KSF bateko kide den beste emakume honen kasua ere, modu ezin garbiagoan azaltzen baitu bera parte hartzaile izandako parte hartzeko espazioetan gertatzen den eztabaida lehia mota. Haren kontakizunean ongi asko hautematen da hizkuntzan dagoen dimentsio barneratua: nola hizkuntza gorputzetik igarotzen den. Honela azaltzen du berak:

"Entonces se van pisando unos a otros. Y tú llevas media hora queriendo decir algo, con lo difícil que ya te resulta intentar ser partícipe de esa asamblea, porque te vas a poner súper nerviosa, mientras intentas coger ese cachito de espacio, yo por lo menos, o sea, físicamente, mi corazón me hace pum, pum, pum, pum, pum. No sé respirar, un poco roja, horrible. Al final es como... o me relajo, hago que no estoy, que no me vea ni Chus.... Quiero pasar totalmente desapercibida. No. Espero no haber emitido ningún ah porque la gente se habrá dado cuenta de que lo he intentado pero no lo he hecho." (Grupo de discusión, mujeres jóvenes CPSF).

Hizkuntza kapitalaren kasuan zuzeneko harremana ikusten dugu kapital horren gabezia gehien aipatu dutenen eta esparru politikoarekin lotutako familia eta gizarte ingurunerik bizi izan ez dutenen artean. Honenbestez, eztabaida sustatzeko familiaren eta gizartearen estimulua zenbat eta biziagoa izan orduan eta txikiagoa izan da oztopo horrek emakumeengan izandako eragina. Oztopo hori aipatu ere ez dute egin gizonek. Bai ordea parte hartzeko hitzaldi on bat egitearen garrantzia.

Hizkuntza kapitalari estu lotuta ageri dira ondorio baztertzailak dauzkaten bi diskurtso mekanismo. Lehenengoak zerikusia du gizon batzuk erabiltzen hasi diren estrategiarekin, genero femeninoko hizkuntza erabiltzen dute beren burua barnean hartzeko eta emakumeak ageriko egiteko, baina emakumeak mendean edukitzeko botere praktikei eutsiz. Erabat bidegabea litzateke esatea beren burua eta besteena barnean hartzeko xedean femeninoaren erabilera egiten duten gizon guztiek praktika zapaltzaileak bideratzen dutela. Hala eta guztiz ere, antza bada sexismoaren edo beste bide zapaltzaileen aurreko akusazioak arintzeko hizkuntza ezkutu gisa erabiltzeko joera. Beste kasu batzuetan, badirudi hizkuntza ez sexistaren erabilera horrek lasaitu egingo zuela generoaren araberako hizkuntza darabilena, ez zuela erne ibili beharko hitzez kanpoko portaeraren, portaera sotil edo arduragabeen, balizko ondorio zapaltzaileen aurrean.

Bigarren diskurtso mekanismoak emakumezko solaskidea deslegitimatze txantxen erabilerarekin du zerikusia, areago feminista bada. Eztabaida taldeetan zabal hitz egin da mekanismo horren inguruan, batzuetan sotilki besteetan arrunki, emakumeak gutxiesten saiatzen baita.

“El tema de las bromas, yo no sé cómo lo veis, pero las bromas no son más que una manera de herir y decir cosas que no se pueden decir en público, de una manera burda (...) yo sentí un montón de normas de género, que hacían que yo no me pudiese comportar como yo quería. O sea, yo tengo carácter, y en ese momento mala sombra, de sobra, como para decirle a ese señor cuatro cosas y ponerle el tenedor de sombrero. Pero, sin embargo, en ese contexto de la cena, pues al final acabé súper incómoda, pero seguí con la clave de broma para tampoco evidenciar que yo me sentía mal y al final aquello fue una mierda como una casa (...) me decían, mujer, no te lo tomes así, si esto no... Quisquillosa...” (Grupo de discusión, CPSF)

*“¿Bromas sobre las mujeres o sobre feminismo? Si o si seguido, si o si, si o si, desde luego, en cualquier parte
“Bueno pues yo estoy soltero, vamos a decir a las mujeres que vengan más”... tonterías de ese estilo, pero oye, que a mí me está doliendo... O sea, ellos no se dan cuenta, pero a mí me está doliendo, pero yo no lo digo porque yo no quiero más problemas...” (Grupo mixto 1)*

Habitus emozionala

Gorago esan bezala bezala, GIBaren aurkako LGBT taldeen borrokatik abiatutik, soziologia politikan aditua den Deborah B. Gould-ek bere *Moving Politics* obran (2009) azaltzen zuen nola talde horietako kideek beren parte hartzea sustatzen zuen *habitus* emozional bat zuten. Talde horiek osatzen zuten kideek sentimendu batzuk eta horiek azaleratzeko forma bat partekatzen zituzten egilearen arabera.

Aurreratu bezala, guk uste dugu oso-oso interesgarria dela *habitus*-aren ideia puntu honetan, alde batetik giza portaeraren alderdi gogoetazalearekin egiten duelako bat, eta bestetik barneratutako atalarekin, gorputzak gordetzen duen informazioarekin. Hain zuzen ere horregatik mintzo gara KSF bat osatzen duten emakumeek partekatutako *habitus* emozional bati buruz. Solastatzeko eta egoteko harreman modu bati balioa eman behar zaiola esan ez ezik, praktikara eramaten du modu hori, parte hartzaileek eginiko iruzkin urri bezain pisutsuetan egiaztatu ahal izan dugun bezala.

Nola deskribatu hizpide dugun *habitus* emozional hori? Izandako elkarrizketetatik eta burura eramandako zuzeneko behaketa lanetatik ondorioztatzen da prestasun bat dela, hobe esanda, emakumeek azaltzen duten bezala, jarduera publikoan emozioak jendaurrean agertzeko eta bideratzeko beharrian bat. Neurri sorta bat da, BD espazioan gertatzen diren emozioak eta haietan parte hartzen duten agenteen emozioak ageriko egiteko, hitzez adierazteko eta hizketagaiaren kategoriaz hornitzeko.

Habitus hori hein handiagoan islatzen da KSF bat osatzen duten emakume gazteen artean. Eta kontu hori estu lotuta dago adina, sexua eta azken batean beren posizio subalternoa gutxietsita "irakaslearen jarrera menderatzailea" beren bizitzan hil ala biziko zapalkuntza gisa hautemateko gaitasunarekin, aldeztu aurretik landutako gaitasunarekin.

Elkarriketetan eta eztabaidetan inplikazio emozional handiagoa izatea eskatzen du *habitus* emozional horrek, indar handiagoa erakustea espazio publikoan, eta horrek akitu egiten ditu emakume asko eta asko. Halako egoera bizi zuen hurrengo emakumeak. Parte hartzen zuen BD bitartekoan neka-neka eginda sentitzen zen indar handiak "inbertitzen" zituelako hartan.

"me lleva mucha energía, en general, participar de un espacio. Y aquello era como... ¡Uf! Un enorme... una enorme maquinaria en la que yo podía ser una pieza, pero veía que era muy agotador. O sea, a mí me lleva mucha... mucho tiempo, mucho... bueno, yo no sé a los demás, yo hablo desde mí, o sea... que me lleva muchas emociones, mucho pensar, mucho... mucho tiempo, mucha energía. O sea, me di cuenta después de esos meses que yo necesitaba mi tiempo para mí, para asimilar, y, o sea, que no se puede estar en todo a cinco mil por hora... Porque entonces, al final, o sea, yo... yo entiendo que hay otra gente que tiene otros ritmos y otras energías, pero yo no. Yo con el tiempo... (...)el hecho de estar en una reunión me, me, me... me lleva energía, por la escucha activa y sobre todo cuando estás delante de gente que no te gustan las formas, o tenemos ideas diferentes... porque también para mí, es muy importante la forma de participar. (Mujer, CPSE, irrupción, 29 años).

Era berean, emozio batzuk, esate baterako beldurra eta lotsa, politiko eta publiko egiteko prestasunari lotuta dago *habitus* hori. Emozio horiek pribaturantz lerratzeko joera dago, baina publiko eginik aukera ematen dute norberaren mailan kudeaketa gutxi gorabehera osasuntsua bideratzeko. KSF emakume gazte baten testigantzan aurkitzen dugu adierazitakoaren adibide bat; beldur zen parte hartzen ari zen espazioa kanpotiko eraso garrantzitsu bati aurre egiten ari zitzaionean:

"Eta 'ala! Ya está otra vez esta que va al baño' eta zen kasi txiste moduara. Bihurtu zen momentu horretan nik neuk kudeatu beharreko zerbait eta gainera kriston paranoia dakazu. (...) nik kriston blokeo izan nuen beldurragatik eta utzi nuen parte hartzea oso osorik. Eta nik bai uste dut egoera horretan ni bai bizi izan nuela gutxiesten batengatik, ez gutxiesten batetik, baina bai segurik ez zen berdina izango ni gizon jaio izan banintz, ez zen berdina izango zergatik beldurra nola azaleratzen dugun, albokoa nola ulertzen duen beldur hori emakume edo gizon batek azaleratzen badu (Mujer, CPSE, Irrupción, 23 años)

Habitus hori estu lotuta dago emakume askok beren burua zehazteko orduan egiten duten definizioarekin, sentiberak direla baitiote: "No sé, yo siempre he sido una persona que soy muy afectiva, o sea, me gusta que... abrazos, besos... eh... No sé, soy una persona que aunque no tenga mucha confianza con una persona, siempre, si considero que pertenece a mi grupo, eh... pues eso, siempre... un qué tal, un abrazo, un no sé qué... y sí que creo que... eh... no sé el horizonte" (Emakumea, KSF, agerpen bidezkoa, 28 urte).

Era berean, hitzeko dimentsiotik haratago, habitus hori hautematen da parte hartzaileengan. Behaketa bietan agerian geratu da emakumeen artean gizonen artean baino joera handiagoa dagoela emozioei leku egiteko bileran bertan edo behatutako espazioan. Hasierako bi behaketa lanak agerpen bidezko espazioetan, sortu berria bata eta aspaldikoa bestea, egin dira, horietan KSF bana zegoela. Ikusi dugu nola espazio sortu berrian, bilerari hasiera eman baino lehen, parte hartzaile bakoitzaren gogo aldarteak eta bizi duen unea labur-labur azaltzeko denbora bat hartzen duten, parte hartzen duen pertsona bakoitzaren diskurtsoa zein testuingurutan egokitzen den ezagutzeko xedean. Teknika horrek, KSFk egindako proposamenari jarraiki abiaraziak, erantzun egiten dio emakume askok adierazten duten beharrianari, hots, aurrean dutenaren egoera zehatza jakiteko beharriari, hortik abiatutik elkarriketa egokia bideratu ahal izateko. Eta, era berean, erantzun egiten dio espazioaren baitan emozioaren eta arrazoiaren arteko oztopo bat ez sortzeko berariazko borondateari.

Nola espazio batean hala bestean, "babes gabeko" egoeran dagoen "berriari" (kasu honetan ikerlariari) emakumeek egin diote harrera. Emakumeen gorputzak harrera egiteko prest agertu dira, besarkatu egin dute, eta begiradarekin eta irribarrearekin erantzun diete haren balizko beharrei. Bileretan eztabaidatutakoari eta harrerari buruzko honako ohar hauek jaso dira, eta horietan ongi asko hauteman daitezke hizpide dugun *habitus* emozionalari lotutako elementu batzuk:

"Cuando llego hay dos personas, una mujer y un hombre (IÑ y IT) de las que conozco a una (IÑ). La mujer me da dos besos, me abraza con cariño (...) las mujeres, cuando me han mirado me han sonreído, otro hombre también el resto no" (OD, Espacio nuevo)

"Los hombres no se acercan y permanecen hablando de la reunión de cómo van a distribuirse los temas. Las mujeres intentan ponerme sobre antecedentes, sobre la temática que se va a tratar y la forma en la que van a presentarme. Uno de los hombres el más joven (27) me conoce. Se muestra más atento conmigo, me sonrío." (OD, Viejo)

"A la hora de hablar las mujeres miran al resto de personas, los hombres tienen a hacerlo al suelo o al vacío. A avanzar la reunión las posturas se van volviendo menos rígidas." (OD, Nuevo)

"Excepto [nombre de una mujer], las mujeres han usado un tono más relativo, menos contundente que los hombres. Al finalizar una frase dicen "'no sé si he dicho todo'" o han preguntado "'zer pentsatzen duzue besteok'". El hombre más mayor que ha expuesto el tema de los [nombre del tema] ha venido documentado y ha legitimado su discurso en el trabajo realizado y en el tiempo dedicado (OD, Viejo)

Habitus emozional hori, batik bat KSF bat osatzen dutenak saiatzeko baitira hari balio handiagoa ematen emakumeen eta gizonen artean ekarrita, erabat arbuiatu dute aztertu ditugun BD espazio batzuetan. Emakume batek esan zigun nola apal-apal saiatzeko zen

espaziotik kanpora geratzen zena hurbilarazten, beste emakumeen lanari balioa ematen, baina nola besteek estrategia hori bere profesionaltasun faltarekin identifikatzen zuten:

“A ver, nere estrategia, askotan ez dagoela inon idatzita, baina... nik beti bilatzen det gertutasunaren ibilbidea, esan nahi det. Eta... sencillo, humilde... hitz egitearen eta hurbiltzearen estrategia. Bai? Eh... Horrekin, askotan, gizonezkoen artean, talka handia dago. Gizonezkoengana jotzen dezunean talka handia dago. Eta talka handia dago, ez bakarrik hirian, herritarrekin, baita ere badagoela, baizik eta ere administrazioan ere bai (...) Gainera hemen administrazioan gizonezkoen perfila... edo, esan nahi det, tekniko lan, haiek esaten duten lan tekniko horiek, ematen du besteok egiten ditugula, ez dakit, lan... no sé, ez dakit zer-nolako lana egiten degun (...) Porque identifikatzen da, ez-profesionaltasun... o sea, profesional izango ez balitz bezela, esan nahi det. Eh... estrategia horiek... Esan nahi det, nik ez ditut banatzen gehiegi, edo ez ditut urruntzen nere bizitza pertsonalaren estrategiak eta nere bizitza profesionalaren estrategiak. Momenturen batean, dudak sortu zaizkit, baina erabaki nuen momentu batean ja, berdin zaitela besteak zer pentsatzen zuten. (...) Erabaki det nahi detela estrategia hori aurrera eraman, baina aldarrikatzen det ere estrategia profesional bada. Esan nahi det, estrategia pentsatu bat (...) nere estrategia hori, esan nahi det... Konfiantza bilatzen dezu, konfiantza sortu nahi dezula, nahi dezula besteari entzun gehiago zuk hitz egin baino, eh... nahi dezula bilatu bere diskurtsoan baloreen jarri daitezken gauzak... Holako estrategia bat, nahiko pentsatuta dagoena. Bueno, ez dago inon idatzita, baina, nahiko pentsatuta dagoela, eta aztertua dagoela ere bai (...) ba, hori da nere estrategia, pixka bat, ezta? Konfiantza sortzearena, bilatzea, ba, hori, partekatzea elementu guztiak, baloreen jartzea besteek esaten dutena, egiten dutena, eta... Eta bueno, hori” (Mujer, No CPSF, Invitación, 48 años).

Nola esku hartzeko moduak hala estrategiak hartzen ditu *habitus* emozionalak, eta etxeko espazio pribatuan egoteko modua ez banatzeko (are gutxiago aurrez aurre jartzeko) ideian oinarritzen da alde batetik, eta espazio publikoan jarduteko moduan bestetik. Batean goxoa eta atsegina ez izatea eskatzen du, eta bestean harroa eta ez inklusiboa. *Habitus* emozional horretatik interesatzen zaiguna da emakume askoren ekintza akuilatzen duela. Azken buruan, Carol Gilligan-ek aipatzen zuen “zaintzen etikarekin” (1982), talde feminista batzuk gizarteratzen saiatzen diren etikarekin, oso lotuta dago *habitus* emozional hori.

Bitartekoaren egitura formala: emozioak bitartekotik at geratzen direnean

BD espazioetara eta haiek egituratzen diren forman eramaten dira lehen deskribatutako elementuak, betiere eskarmentuan-emozioetan oinarritutako argudioei baino askoz ere balio handiagoa emanez arrazoietan oinarritutako argudioei. Aztertutako bitarteko sortu berrian parte hartzen duten emakumeak alde batera utzirik, esan bezala KSF baten bultzadak aukera eman baitu dinamika bat sortzeko, nola dagoen eta zer esaten den aurrez aurre gertatzea saihestu nahi duena dinamizatzeko batzordearen bidez edo bileraren hasieran kide guztiek beren gogo aldartea zein den azalduz, ikerlan honetan parte hartu duten beste emakumeek esan dute, modu batean edo bestean, ikerlanean parte hartutako emakumeak ezin argiagi esandakoa:

"lo de que los sentimientos se queden fuera de la asamblea yo lo llevo muy mal, yo, creo que a los sentimientos, no los sentimientos contra otro ni los dañinos, pero que sólo se tenga en cuenta el tema que se están tratando y no se tenga en cuenta, pues que bueno es que ha habido una discusión por e-mail hace dos días, llegamos a una asamblea y no se trata el "oye, ¿qué ha pasado aquí?" "tenemos que cuidarnos", no sé, hablamos ya cara a cara que mas fácil que es con los tonos del e-mail. El ver en la otra persona como una persona con sentimientos, que no sólo somos autómatas que vamos a participar en, jno vamos a la guerra! Y aún así en la guerra también hay sentimientos seguro, pero... Que tenemos que ver al otro, el "si digo esto, de esta manera" le puedo hacer daño"
(Grupo de discusión, mixto 1)

Bitartekoetan emozioetarako lekurik ez dagoelako ideiarekin bat datoz emakume guztiak. Beste emakume batek honenbestez adierazi zuen emozio jakin batzuk, esate baterako bere jarrera parte hartzailea baldintzatzen duen beldurra, agertzeko ezintasuna:

"Pues cómo poder compartir eso y decir bueno, o sea, mi límite esta aquí. O, no sé, o estoy cagada de miedo y no sé, y no soy menos militante que toda la gente que está aquí, ¿no? Y esto en muchos espacios no puedes, ¿no? (...) los entornos no nos dejan expresar la inseguridad y el miedo y entonces, pues no sé, como que yo creo que de ahí, pues, tú te pones un límite, ¿no? Vale, estoy cagada de miedo pero como voy a... si voy aquí no voy a poder expresarlo, pues no voy" (Grupo de discusión CPSF)

Zaintzeko dei hori BD espazioen antolamenduaren aurreko kexa da, parte hartzaileek une jakin batean sentitzen dituzten emozioei buruzko iruzkinak ahuleziaren erakusgarritzat hartzen baitira eta zalantzan jartzen. Baina guk azpimarratu egin nahi dugu hain zuzen ere zaintzeko dei horrek osatzen duela KSF emakumeen *habitus* emozionala. Eta horixe da gaur egun emakume asko beren KSFetan egiten ari direna, eta kasu batzuetan publiko menderatzaileengana iristea lortu dutela esan behar dugu (halaxe gertatu da bitarteko sortu berrian).

Hala eta guztiz ere, emozioei balio handiagoa emateko aukeraren kontuari dagokionez, hizkuntza inklusiboaren "okerreko erabilerarekin" gertatzen zen bezala, kasu gutxi batzuetan, emozioak ageriko egiteko "okerreko saioaren" bidez, jokamolde inklusiboen aurkako "lagunen tiro" (Taylor, 2007) esan diezaiekegun pasarteak identifikatu ahal izan ditugu. Eztabaida talde batean argi eta garbi mehatxutzat jo zuen honako pasarte hau azaldu zuen emakume batek:

"Hitzegiten ari garenarekin, adibide bat, iruditzen zait, orain erdi modan edo ari da kokatzen, zaintza lanak egin behar dugula, hitzegin behar dugula sentumenduz. Bueno, lagun batzuk ari dira asanblada batzuk antolatzen herri batean, eta bueno, nire bikoteak harreman handia dauka neska batekin oso ona dena antolakuntzan eta metodologietan. Eta behin komentatu zion beraiek udalekuetan daukatela emozioen arduraduna, eta orduan zela espazio ba emozioak gehiago kontrolatzen zituen, norbaitek ez bazuen hitzegin gelditzen zuen, eskatzen zuen ... bueno pixka bat espacio gehiago. Bueno pues nire bikoteak komentatu zuen

⁵⁹ Judith Taylor-ek lagunen tiro esaten dio "mugimendu baten barruan egokitzen diren eta, kide izan gabe, haren helburuekin bat datozen taldeek aipatu mugimenduaren helburuak mehatxatu ditzakeen prozesuari" (2007: 66).

haien taldean, eta bati oso ideia ona iruditu zitzaion, eta inorekin komentatu gabe, herri honetan asanblada dinamizatzen ari zenea esan zuen; bueno eta akta hartzeaz gain, norbaitek arduratuko da emozioen kudeatzaile edo organizatzaile izaten. Gizon batek egin zuen hau. Eta denak; bale ze ideia ona..Baina gero, balorazioa egin zutenean, orokorrean hartu zutenean talde bakoitzean atera zena, mutil honek ez zuen galdetu zer baloratu zuen emozioen kudeatzaileak. Orduan, bai, oso ondo geratzen da, eta mutilek ere hartzen dugu gure gain, baina gero, pasatzen dugu akta hartzeko garaian. Eta adibidez, hor taldean zegoen neska bakarra oso preokupatuta geratu zen hau egin zelako modu honetan” (Grupo de discusión CPSF)

Gero eta gizarteratuago dago “izaki emoziodunak” eta “izaki sortzaile argudiodunak” aurrez aurre ez jartzearen garrantziari buruzko diskurtso feminista, eta horretan bada zalantzarik gabe onartu eta hauteman beharreko arrisku bat, ezerezean utziko bada: balio feministak dauzkaten proposamenen balizko kapitalizazioa eta horien erabilera bidegabea.

Puntu honetan arestian aurreratutako joera bat azpimarratu nahi dugu. Bitarteko sortu berrian hauteman genuen joera hori, bitartekoaren baitan antolatutako KSF baten presentziak hitza eta denborak guztiei emateko eta guztien gogo aldarteei eta emozioei buruz hitz egiteko xedean dinamika jakin eta zehatz batzuk sustatu baitzituen. Aurrerago “genero arauekin hausteko xedea duten taldeko estrategiak” esango diegu neurri horiei. Eztabaidan menderatzeak oro saihesteko, espazio sortu berrian paper zurren arabeko metodoa diseinatu da, metodo horrek pisu handiagoa ematen dio espazioaren dinamizazioari, eta gogora ekartzen ditu auto-laguntzarako talde feministek hasieran batean erabili zituztenak (Phillips, 1991). Parte hartzaile bakoitzari hiru paper zurrun ematen zaizkio bileraren hasieran eta honako mezu hauek irakur daitezke horietan: “eskatu nahi dut/argitu nahi dut”, “gaia ez da hori, heldu gureari” eta “hitz egin/galdetu nahi dut” (ikus 5. eranskina). Barne antolakuntzarako sistema horrek pisu handiagoa ematen dio espazioaren dinamizazioaz arduratzen den batzordeari. Horretarako, batzorde dinamizatzaile bat diseinatu da BD bitarteko sortu berrian hitza guztiek hartzeko modua bermatzeko eta eztabaida inklusiboa abiarazteko. Taldeko ikerlari bat izan zen bileran agerian zeuden errebindikazio feministak egiten zituzten errotuluak, dei egiten zieten bertaratuei bilera dinamizatzaile horietan parte hartzera (ikus 6. eranskina).

Oztopo hauetan unibertsal bihurtzeko bokazioa duen menderatzailearen eta subalternoaren arteko banaketa da nagusi

Lanaren atal honetan babesten dugun argudio nagusia da BD mekanismoen diseinuak bere baitan ez diola beti leku egiten aniztasunari. Izan ere, mekanismo bat diseinatzen duenak gizarte mailan duen posizioari doitutako parte hartzea proiektatzen du. Nahita bilatu gabe, proiektatzen duenak bere gizarte mailakoak –eskuarki posizio menderatzailean daudenak edo “elite diskriminatuko” kide direnak (García, 1994)–, bere arauak eta gizarte kodeak

lehenesten ditu. Horra hor espazioetan gehien-gehienetan topatzen dugun aniztasun urriaren azalpena. Halaxe zioen eztabaida taldeetako batean KSF bat osatzen zuen emakumeak:

"Yo también veo que hay menos, menos diversidad en los espacios (de participación), o sea un perfil de hombre – mujer blanca- blanco, eso mediana edad, sin hijos, sin, digamos, cuidados a su cargo, eh, no sé. Me falta color, me falta... eso, otras procedencias étnicas, otro, otra vida, no este capacitismo" (Grupo de discusión mixto 1).

Aniztasunaren gabeziaren erakusgarri da ikerlan hau burura eramateko xedean harremanetan jarri garen emakumeen eta gizonen profil nagusia. Metodologiaren atalean azaldu bezala, ikerlan honetan parte hartu duten emakume gehien-gehienek euren burua aukeratuta parte hartu dute, baina horrek ez du inolaz ere esan nahi lankide izan ditugun emakumeek taldearen aniztasun osoa ordezkatzeko dutenik. Hala eta guztiz ere, kontuan eduki beharreko datu esanguratsu batzuk daude: emakume kontalarien profil nagusiaren arabera, ezkongabea da, 25 eta 45 urte bitartekoa, seme-alabarik gabea, heterossexuala, zuria, gizarte maila ertainekoa, mugitzea eragozten edo mugatzen dion gaixotasunik gabea, eta bere haurtzarokoak gogora ekartzen dituenen "urte zoriontsuak izan ziren", "haurtzaro zoriontsua bizi izan nuen", "haur zoriontsua izan naiz, ez dut arazo handirik izan" esan ohi du.

Era berean, behaketa egunetan, bertatik bertara egindako behaketa lanetan, taldea osatzen zuten pertsonen buruzko datu hauek bildu ziren. Datuok sendotu egiten dute gehien-gehienak talde homogeneousak direlako ideia, gizarte alorreko araudira oso ongi egokituta dauden taldeak baitira:

"El número de personas asistentes (sin contar a la observadora) es de 37, Número de Mujeres, 14 Número de hombres: 23, Otrxs 0. (...) La edad media de las personas oscila entre los 30 y 35 años. Hay 8 personas (6 hombres y 2 mujeres) visiblemente más mayores que se sientan en el centro de la sala, no intervienen en la reunión de forma activa. Hay dos personas un hombre y una mujer de origen latinoamericano. Excepto la mujer joven antes descrita el resto tienen una forma de vestir similar, pantalones y ropa cómoda. No hay mujeres con zapatos de tacón y dos tienen las uñas pintadas. Botas de monte y zapato de lluvia. Mujeres con pelo largo. Destacan los colores oscuros de ropa y no llegan ningún complemento llamativo como pendientes o anillos. El hombre que toma el acta lleva un sombrero de paja y un collar de flores hawaiano que durante la reunión se quita. No interviene en ningún momento" (Espacio viejo)

"El número de personas asistentes (sin contar a la observadora) es de 14 (la última media hora se suma un hombre más), Número de Mujeres 6, Número de hombres 8, Otrxs Un perro. De estas 14 personas hay un chico nuevo, es su primera asamblea. La edad media aproximada es de 40- 50 años. La mujer más joven tiene 28 años. Se trata de personas sin hijxs en su mayoría. Sólo tres personas de las 14 tienen hijxs. Hay una mujer en silla de ruedas con movilidad reducida. Todxs lxs asistentes visten con ropa cómoda, no ostentosa, austera. Ninguna mujer lleva tacones, mayas o vaqueros y camisetas de manga corta, estamos en

verano y el día aunque no es soleado es caluroso. No llevan las uñas pintadas. Al lleva los labios pintados de granate, es la única. Cuerpos medios de tamaño, no se caracterizan por ser especialmente delgados ni gordos, ni altos ni bajos. La mujer con movilidad reducida tiene una malformación que le impide mover los brazos con agilidad. De las 14 personas 10 tienen trabajo. Son trabajos en la administración pública o de responsabilidad con un sueldo medio-alto. Son cuerpos de los que podemos considerar "normativos", menos el de la mujer con diversidad funcional. No parece que ningún complemento de los que lleven las mujeres les dificulte su estar en el sitio (pendientes demasiado grandes que molestan, sujetados demasiado apretado, flequillo o pelo tan largo que no se ve). Todas las personas son del País Vasco excepto una que es de Andalucía (hombre)" (Espacio Nuevo)

Bitarteko bietan badira normatibotasunaren mugetan sartzen ez diren edo zapalkuntza motaren bat nozitzen duten pertsonak: immigranteak, mugikortasun murriztua duen emakumea, edo sexualitate ez normatiboa duten pertsonak. Hala eta guztiz ere, argi eta garbi dira gutxienak, eta rol betearazleak betetzen dituzte espazioan, ez zuzendaritza lanak.

Hori esanda, bada atal honetan aztergai dugun kontraesanaren erdian aurkitu eta zentzu guztia hartzen duen galdera: Nork diseinatzen du zer eta norentzat? Nor da produktu horien balizko kontsumitzailea? Nork osatzen du publiko menderatzailea? Eta, ondorioz, nor geratzen da publiko menderatzaile horiengandik kanpora?

Bitartekoaren sorrera eta bere testuinguru soziala

Itziar Ziga idazleak berriki hitz hauekin adierazi zuen zapalkuntzari soilik sexismotik ez baizik eta angelu guztietatik erreparatzeak duen garrantzia:

"Ahí está la trampa, cuando el feminismo con la excusa de no perderse ni dispersarse por el camino, sólo atiende a la opresión de género. Porque, ¿quiénes son las mujeres a las que solo afecta la opresión de género? Las blancas, heterosexuales, burguesas, pertenecientes a un pueblo no colonizado, diagnosticadas como mujeres al nacer y cuyas capacidades funcionales cumplen la norma (...) a estas alturas de la jugada, ya deberíamos haber aprendido que un feminismo que solo haga frente al sexismo será siempre privilegiado y reforzará todas las demás opresiones" (Ziga, 2014: 11-12).

Hain zuzen ere horixe da agenteen gorputzak hartzen dituzten zapalkuntza moldeak hautemateko formak sistematizatzen saiatzen diren interseksionalitateari buruzko azterlanen ideia nagusia. Hasieran interseksionalitatearen kategoria (1991) formulatu zuen Kimbelé Crenshaw-ek emakume beltzen bizitzan arrazak eta sexuak elkarren artean jarduteko (eta ez bata bestea gainditzeko) zuten forma azaltzeko; izan ere, beren bizi esperientziak ez zuen inolako antzik gizon beltzen bizi esperientziarekin, nahiz eta denak partekatutako menderatze sistema batean –arrazan oinarritua– bizi diren. Orduz geroztik zapalkuntza kategoriek gorputz eta esperientzia batean eta berean duten jarduteko moduak

aztertzen ditu interseksionalitateari buruzko literaturak: halatan, bi emakumek, zuria bata eta beltz lesbiana besteak, zapalkuntzaren aurreko bestelako pertzepzioak dauzkate, bata beltza zuria baino gutxiago den arraza sistemak hartzen duelako eta bestea heteronorativitateak jota dagoelako (horren arabera heretosexuala ez izatea estigmatizatuta dago gizarte mailan). Interseksionalitateak gogora ekartzen du menderatzaile dena soilik dimentsio batetik (sexismoa) ez aztertzeak duen garrantzia.

Lan honetan gure egiten dugu Itziar Zigak hain argi eta garbi adierazten zuen kezka, interseksionalitateari buruzko azterlanek gutxienez azken hiru hamarraldietan aztertutako kontua bera. Mendekotasuna eta zapalkuntza angelu askotatik aztertzekeko modu zabal horrekin bat egiten dugu guk, eta horrexegatik nahi dugu lanaren atal honetan honako hau azaldu: parte hartzeak badu sexua, badu adina, badu kolorea eta badu forma menderatzailea. Aipatu menderatzea azaltzen den modua gizarte motaren arabera da, baina badira batetik bestera aldatu daitezkeen elementu komunak, sistema arrazistak, klasistak eta gizonen menderatzeak ez baitute mugarik ezagutzen. Argudiatzen genuen parte hartzea kontzeptualizatzeko bide estu bat dela unibertsalaren itxura edukitzeko nahia agertzen duen baina modu batean edo bestean emakume eta gizon gazteak, immigranteak, gizarte maila baxuetatik iristen direnak eta, azken buruan, normatibotasun sozio-sexuala betetzen ez dutenak baztertzen dituen elitearen parte hartzea.

Argudio horri jarraiki, esparru publikoaren zabaltzea publiko menderatzailearen parte hartzearen irudian oinarritu dela esan genezake, eta ondorioz, pribilegiatuena bihurtu da esfera publiko hori, eta gazteek, emakumeek eta bazterrekoek hitz egin eta parte hartzeko gaitasuna mugatua dute horietan. Habermas-ek zioen bere *The Structural Transformation of the Public Sphere* (1962an alemanez, 1989an ingelesez) lanean ordura arteko espazio publiko menderatzaileak “esparru publiko burgesaren eredu liberal” baten forma hartu zuela, maila menderatzaile baten egiteko moduekin, eta burgesia osteko eredu inklusiboago bat diseinatu beharra zegoela. Haren ustez, sakondu egin behar da gizarte talde guztiak bilduko dituen gogoetan, parentesi artean jarri behar dira subjektuaren bizkar zorroa betetzen duten elementuak (arrazza, sexua, adina, etab.), hitz egiteko gaitasuna mugatzen baitiote horiek.

I. kapituluari adierazi bezala, Habermas-en lana funtsezkotzat jotzen bada ere esparru publikoan publiko menderatzaile bat nola osatzen den azaltzeko, alderdi feministetatik aurre egin diote ideia horri argudiatuz burgesia osteko espazio horrek birstortu egingo lituzkeela esparru publiko burgesaren menderatze molde asko eta asko (horren erakusgarri da Craig J. Calhoun-ek Habermas and the Public Sphere obran (1992) jasotako testu bilduma).

Honenbestez, gaur badago esparru publikoaren zabalkundea –besteak beste, interneten bidez eta parte hartzeko eta gogoeta egiteko bitartekoen bidez–, zalantzarik gabe xede demokratizatzailea duen zabalkundea, publiko menderatzailearen arabera garatzen ari dela azpimarratzen duten formulazio teorikoak aurkitzea, izan ere, berriro ere diogu, gogoetak baditu gizarte maila ez ezik sexua, arraza eta adina.

Gogora dezagun esparru publiko horrek aurpegi menderatzailea izateak berak ematen digula aukera hartatik kanpora daudenei (putak, txiroak, lesbianak, etab.) eta beren beharrianak beren moduan zehazten saiatzen direnei kontrapubliko subalterno deitzeko.

Hain zuzen ere esparru hori menderatzailea izateak, emakumeak kezkatzen dituen gai batzuei ateak ixteak eta forma eta adierazpen sozial batzuk legez adierazten ez uzteak ekarri dute kontrapubliko subalterno feminista bat osatu izana. Kontrapubliko hori osatzen duten taldeek hizkuntza partekatu baten erabilera dute komunean, modu gutxi gorabehera esplizituan bat egiten baitute publiko menderatzaile baten presentziari kritika egiteko garaian: arrazoia eta emozioa aurrez aurre jartzen dituzte, eta publikoaren eta pribatuaren arteko kontraesana birsortzen dute.

Laburbilduz, gogora ekarriko dugu lan honetako I. kapituluan azaldutako funtsezko ideia bat: kontrapublikoek beste modu batean –euren moduan– azaldu nahi dituzte azaldu beharrekoak, eta kritikatu egiten dute parte hartzeko eredu unibertsal bat badelako ilusioa birsortzea.

Kontrapubliko horiek kritikatu egiten dute publiko menderatzailean bazterrean geratzea gai batzuk, kontrapubliko diren aldetik landu nahi lituzketen gaiak izanik. Ikerlarietako bat izan zen batzarretako batean aurkitzen dugu errealitatea beren hitzetan zehazteko beharrianaren adibide bat. Honako ohar hauek jaso zituen ikerlariak:

“El siguiente tema es expuesto por una mujer CSF, comunidades de financiación y proyecto de ciudadanía. Se le presta atención. Dos hombres miran al suelo cuando habla, las mujeres a los ojos. Una mujer que usa la tarjeta quiero hablar y habla de la posibilidad de abrir el tema a otro territorio. La mujer que expone dice “mi sensación es que el decrecimiento ignora la crisis de los cuidados, se habla de ella pero no la toma en cuenta” ofrece datos concretos “los hombres parados realizan menos trabajo doméstico que las mujeres empleadas”. A todo el mundo le parece interesante el trabajo que presenta esta CPSF. Se pasa de tiempo. El moderador no dice nada.” (Espacio nuevo)

Kasu horretan ongi asko hautematen da nola gai bati (desazkundea) heltzeko moduak baztertera uzten duen KSfarentzat hil ala bizikoa den kontu bat: zaintzen krisia. Kasu zehatz honetan KSf bat dago bitartekoaren baitan. Halatan, gaia KSf gisa landu ondoren, berau

osatzen duenak eta gainera publiko menderatzailean parte hartzen duenak bitartekoaren agendaren atal izateko nahikoa “indarrarekin” azal dezake bere iritzia.

KSF bat izatearen potentzialtasunak azalduta, azter ditzagun orain oztopoak. Ikusiko dugunez, BD bitartekoaren agenda hein handian zehazten duen publiko menderatzaile pribilegiatu horrek bazterrera uzten ditu, ez ordea modu formalean (sarreran ez dugu “debekatuta dute parte hartzea putek, eroek eta txiroek” dioen afixarik aurkitu), zapaltzaile gisa ageri diren gutxienez bost ardatzek jotakoak. Eta esan dezagun behar-beharrezkoa dela ardatz horien arteko interseksionalitatea ikertzen jarraitzea: adina, sexualitatea, jatorria-arraza, gizarte maila era sexua.

Adina

Adina da emakumeek elementu zapaltzaile gisa beste edozein elementu baino gehiagotan mugiarazi dutena. Eta ez soilik 30 urtera iristen ez diren emakumeek, baita bitartekoko parte hartzaileen batez besteko adina euren baino 20 urte zaharragoa zela ziotenek ere. Honenbestez, berriro ere, diskurtso kritikoa aurkitzen dugu KSF batosatzen dutenen artean, eta etsipenezko jarrera horrelakorik osatzen ez dutenen artean. Baina, bi kasuotan, gazte izateak mugatu egin ditu emakume gazte ia guztien sormena eta parte hartzeko askatasuna. Gisa honetan azaltzen zuten batzuek:

“Hezkuntza ez formalean, helduen eta umeen arteko harremana berdintasunean oinarritzen da, ez autoritate figura bat. Horizontalitate horretan behintzat saiatzen dira erreferente izaten beti umearentzako, baina esparru formalean, edo orokorrean, bizitzako, beste esparruetan, gurasoak, irakasleak edo edozein heldu, umeak edo gazteak tratatzen dituzte autoritate figurarekin. Hay que maja que dice algo! apur bat legitimate barik edo, orduan nik uste jende artean zelan ulertzen apur bat gaztaroa, dela fase bat pasatzen dena, fase bat bizi behar dena.” (Mujer, CPSF, irrupción, 29 años)

Gazte izateak nei, dispositiboaren antolakuntza barruan... nei bai, badaude sententzioak seguruenik askotan nik hitz egingo banu gaztetasun horrek desakreditatuko nauela, ez? “Ya baina zuek ez duzue ni puta ideia gu bizi izan ditugun...garai horietaz, ez? Eta hemen egon garenak...” Osea pixkat da sententzioa), beraiek horrela bizitzen dutela, ez? Eta da como “bai, bai, pero no me vengas de guay zu zure super ideiarekin, edo gauzak eraldatu nahi dituzula goitik behera baina... hemen egon behar izan den jendea, ez? Pues hemen gu egon gara.” Pixkat... beldur hori bai daukat zentsu batean, ez? (Mujer, CPSF, irrupción, 26 años,)

Kontakizun horietan ongi asko hautematen da parte hartzeko eragile gisa lan egiten duen emakume batek (eta beraz, BD prozesuen diseinuez arduratzen da) gazte jendearen ideien eta eskarmentuen aurreko “jarrera inperialista” gisa identifikatzen zuena. Norberaren ideiak legitimatzeko adinari eta adinaren araberrako eskarmentuari erreferentzia egiteak deslegitimatuta egin ditzake eskarmentu txikiaren –denborari dagokionez– gainean oinarrituta dituenaren ideiak.

"Administrazioetik sustatzen diren prozesu horietan ez degu asmatzen... gazteak hurbiltzen, bueno, hurbiltzen, edo gu gerturatzen beraingana, esan nahi det, gu beti saiatzen gara joaten jendea dagoen tokira, baina... ez dugu arrakasta handirik. Eta gainera... normalmente ere, etortzen baldin badira, hemen, eh... gertatzen da emakumezkoekin bezela, ezta? Askotan helduok ez diegula beraiei beraien espazioa ematen, esan nahi det... Nik uste det ere,ba, kolektibo batzuekin, oraindikan, esfortzuak egin, bueno esfortzuak, saiakerak egin behar ditugu, eh, ba... inkluditzeko, ezta? Eta gazteekin askotan, ba, helduok portatzen gera oso modu inperialistan, esan nahi det:<<niri esango didazu! nik 40 urte daramazkit hemen bizitzen...>>. Holako komentarioak, que ya por defecto ya te excluyen, o sea...(...) Eta gazteak, gazteen artean neskak eta mutilak, hor ez det alderik ikusten."

(Mujer, No CPSF, Invitación, 48 años)

Sexualitate ez normatiboa

Gutxi dira sexualitate ez normatiboa duten eta parte hartzeko bitartekoetan parte hartzen duten emakumeen kontakizunak, eta lankide izan ditugun gizonetako bakar batek ere ez du heterosexualak ez diren harremanen berri eman. Lehenengo datu hori interesgarria da publiko menderatzailearen interesen arabera gaiak sexualitate ez normatiboak dauzkaten agenteen interesetatik at zehazten direla adieraz bailezake. Aztertutako BD mekanismoetako bakar batean ere ez zaio sexualitatearen gaiari heldu, eta beraz, agente bakoitzaren intimitatean gordetzen da. Hala eta guztiz ere, parte hartzeko testuinguruetan, halako presioa hauteman dugu, beste gizarte esparru batzuetara ere hedatzen den presioa, sexualitate ez normatiboaren aurrean. KSF bat osatzen duen emakume batek zioen nola hitz anbiguoak erabiltzeko erabakia hartu zuen haren lagunaz hitz egitean: bikote esaten zion (*partner* ingelesez, *couple* frantsesez) espazio horretan ere aktibatu ez zitezen emakume lesbianen aurrean aktibatu ohi diren estereotipo batzuk –estereotipo horien jakitun da, txikitatik bizi ditu, hitz egitea komeni ez zen zerbait bezala identifikatzen ditu–:

"de pequeña pues que percibes que tú eres, que te sientes como un poco diferente eres una chica pero te gustan las chicas y... y al mismo tiempo sabes que no conviene... que no conviene decirlo entonces mis primeros recuerdos van un poco... van un poco por ahí y de alguna manera con... con esa carencia de todavía no saber cómo encajar eh... eso que te está sucediendo pues también tengo recuerdos de... en algunos momentos haber deseado o incluso haber estado en el campo de fútbol ahí, en el pueblo jugando con otros niños y presentándome a mí misma como si fuera... como si fuera un niño, a pesar de... de ir vestida y... súper femenina o.... cómo te vestía tu amaxu (...) mis primeros recuerdos van un poco por ahí de no... de no poder ser, de no ser consciente de que eres pequeña pero de que no eres libre para expresar lo que te gusta o por... lo que te decantas. (...) como que tú tienes ahí un archivo como una pequeña carpeta que la tienes ahí como con un pequeño candado que sabes que no se puede abrir y... es la carpeta que pertenece un poco más a la... a la expresión pues de tu inquietud sexual o a tu... el... mundo de ¿no?, de tus afectos o de... tus deseos y... y eso es una represión de... con mayúsculas vamos pero en ese momento como que no la..., o sea, yo no estaba ahí como deprimida ni no lo vivía tan fatal de la muerte.

(...)

En el espacio de ID yo veo como que la gente es muy abierta ¿no? de <<No pues este fin de semana nos vamos yo y [Nombre de chica] >>, refiriéndose a su novia, <<nos vamos a pasar>>, así como que la gente habla de su vida o de sus cosas de su vida ¿no? y..., yo a lo más que he llegado, bueno, también un poco con la cobertura que a veces da el Euskera (...) que tampoco hace falta que tengas que especificar pues bueno, pues igual yo también he expresado que tengo una vida personal o que tengo pareja y tal pero..., pero sin profundizar vaya, y supongo que también será por cierta... inseguridad mía o cierto miedo al... al rechazo o cómo, o qué pueda derivar de ahí ¿no? porque...porque igual también me ha tocado escuchar algún comentario con connotación..., claro, es que para mí lo que es homofobia y lo que para ellos igual es homofobia también hay..., hay un, o sea, para una persona que tiene súper interiorizado, o sea, como muy..., para quien es muy usual hacer el comentario de <<Ya vamos a empezar con mariconadas no sé qué>> pues para mí, eso ya es como..., denota una serie de cosas ¿no?, entonces ahí a veces sí que me muevo como que soy consciente de... que me asaltan como ciertas duda ¿no?, como de que hasta qué punto tengo que ser yo también exigente o... rígida o hasta qué punto me merece la pena meterme en..., o sea, meterme en..., pues este chico ha hecho un comentario con una connotación muy homófoba, pues él sabrá, o sea, no sé si es esa mi pelea en el contexto ahora de [Nombre del espacio de ID al que se refiere]" (Mujer, CPSE, irrupción, 38 años).

Emakume horrek ez zuen arbuiorik identifikatzen, parte hartu nahi izan duen KS Fak alde batera utzirik, ez du bestee bere sexualitateagatik bazter utzi izana bezalako esperientziarik bizi izan. Hala eta guztiz ere, halako tentsioa iradokitzen du mekanismora biltzeko garaian bere iritziak edo proposamenak jasotzeko forman eragina izan lezakeen sexualitate ez normatibo bat agertu behar badu.

Arraza eta jatorria

Elkarrizketatu ditugun pertsona immigrante guztiek, gizonek eta emakumeek, azaldu dute pasarteren bat zeinetan beren jatorriak baldintzatu duen euren parte hartzea ez soilik dagokien BD espazioan, bazik eta baita, modu zabalagoan hartuta, pertsona horiek "hartu" egin dituen gizartean ere. Pasarte zehatzak dira, eta haragitan bizi izan dute beren esperientzia zehatza, atzerritar gisa gutxietsia izan direla atzerritar ez direnen esperientziaren ondoan.

"Porque nosotras, por ejemplo, como mujeres inmigrantes, lo que notábamos es que teníamos muchísimos obstáculos, por ejemplo en participar en muchas cosas porque una mujer inmigrante, a parte del idioma en muchos casos, pues tiene la dificultad en participar en muchas cosas por el tema de, de, del sistema administrativo, las situaciones administrativas. Luego, eh, el tema de la precariedad laboral, que tú te agarras a lo que haya. Si tienes que trabajar un domingo, pues vas un domingo, que si tienes que trabajar sesenta horas a la semana, pues trabajas sesenta horas a la semana. Hay mujeres que han llegado a este país y nunca han visto la calle, no saben donde está el Guggenheim porque han ido a trabajar de internas y no, no salen a la calle. Es mañana, tarde y noche, están metidas dentro de una casa, sesenta horas semanales el no tener una red social de apoyo. Tú llegas a un país distinto y dices "¡Dios mío! O sea, eh ¿Con quién hablo? Eh, ¿dónde está qué?"

⁶⁰ Emakume afrikar bat, bi emakume latinoamerikar, Europako ekialdeko emakume bat, gizon pakistandar bat eta Europako ekialdeko beste gizon bat.

¿sabes? “¿Dónde puedo comprar? ¿Dónde puedo ir? ¿Qué...?” la cultura es otra, eh, la forma de pensar, los valores son completamente otros, o sea, entonces, es un obstáculo tremendo. ¡La forma de vivir la política!” (Grupo de discusión piloto, no CPSF)

“Pero en mi caso, tengo mucha experiencia en el ámbito cultural y al comienzo la plataforma quería impulsar el [nombre de un espacio de participación vasco] y ahora solo estará la casa del euskera y parece que la experiencia es importante, pero yo contaba la experiencia de las [espacio de participación previo al dispositivo en el que participa en la actualidad] y parece que se minusvaloraba (gutxitu), bueno, esa igual no es la palabra, pero era como que otras experiencias eran como más importantes, la de [nombre de un dispositivo de id] de Barcelona, la de otra casa de cultura, no sé si es porque las de América son menos importantes, o se las considera menos... No sé si es por el origen o por lo que representa... Pero eso no tiene nada que ver con ser mujer.” (Grupo de discusión mixto 2)

Gizarte maila

Lehen ere esan dugu elkarrizketatu ahal izan ditugun emakumeak, kasu guztietan dagokien BD espazioaren ordezkari ez direlarik, gizarte maila berekoak, jatorri berekoak eta ezaugarri bertsukoak direla, eta aldi berean bitarteko horietatik baztertuen zein geratzen diren adierazten digutela. Elkarrizketatu ditugun gizarte maila apaleneko emakumeak talde zehatz batekoak dira gehien-gehienak: emakume immigranteak dira, horietatik askok eta askok instituzionalizatutako kultura kapital urria dute, baita gizarte kapital urria ere, gorago orriotara ekarri ditugun bi emakumeetako baten testigantza arabera atzean uzten dituztelako beren harremanak eta jatorriko harreman sozialak, eta hemen ez dutelako harrera egiten dien talderik edo erreferenterik. Halako ezaugarriak dituzten emakume gutxi bildu dira geuk analizatutako espazioetara.

Hala eta guztiz ere, aukera izan dugu harremanetan jartzeko aztergaia immigrazioa duen BD batean parte hartzen duten hiru emakumerekin. Horien kontakizunetan agerian geratzen da jatorriko gizarte mailaren eta kide izatearen garrantzia espazio horretara biltzeko garaian: parte hartze jarraitu bati eusteko euren arabera ezinbestekoak diren baldintza materialak ez dituztelako eta beren interesekoak diren gaiak heltzen ez zaielako. Bere haurtzaroa definitzeko garaian “nahasmendu handiko haurtzaroa” izan zela zioen emakumeak, ikasketak 18 urte zituenean alboratu zituenak bere alaba zaintzeko, honela kontatzen zuen bere esperientzia:

“no conecta con lo que necesitábamos pues porque tampoco era de ayuda ¿sabes?, o sea... de ayuda real ¿no?, o sea..., más bien espantaba a la gente más que atraía. Dejamos más, bueno pues que el técnico lleve la onda porque nosotras somos voluntarias ¿sabes?, y también esta clase de cosas pues necesitan tiempo ¿no? entonces yo prefería centrarme más en la relación íntima que... en una cosa institucional, yo no sé ...¿no?, entonces dije pues bueno, yo... pongo mi granito en asistir a los talleres y ver qué pasa ¿no?, pero pues empezamos quince, terminamos tres (...) al principio no, bastante tenía con buscar trabajo y comer, pero luego te da pa ponerte a

pensar estas cosas, no sé, o sea eso es verdad, que las necesidades básicas están requetecubiertas ahora ¿no? y como yo no... no necesito ni... ni pensar en ropa nueva ni en esas cosas pues... pues me fijo en... en cómo puedo hacer que este lugar pueda seguir siendo así de bonito, solo esto, es mi..., esto para mí es... un globito, así chiquitín, ya, lo demás se me a..., si esto ya es... uff..., muy grande, lo demás ya muy grande, sí” (Mujer, No CPSF, irrupción, 32 años)

Gizarte mailaren, arrazaren eta sexuaren bidegurutzean aurkitzen dugu elkarriketatu ahal izan ditugun emakumeetatik bik azaldutako estrategia interesgarri bat. Biek diote BD espazio batean audientzia menderatzaile bat zegoela, ez ziela kasurik egiten diru sarrera apalak zituzten emakume immigranteen interesei. Bi emakume horiek (32 eta 27 urtekoak) zioten emakume batzuk ezin zirela BD espaziora hurbildu euren erlijioaz egiten duten interpretazioak galarazten dielako espazio publikoetan gizonekin batera egon ahal izatea. Arau erlijioso horrek ez du eraginik bi emakume horiengan (latinoamerikarra da bata eta Europako ekialdekoa bestea), baina eurentzat arazo larria da emakume horiek instituzionalizatutako espazio publikoan ez egotea. Horrexegatik bultzatu zuten espazio paralelo bat sukaldearen eta kulturaren inguruan, sukalde tailerraren formarekin; jatorriaren arabeko emakume taldeek, hilero, beren herrialdeetako plater tipiko bat prestatzen zuten, eta beren herrietako dantzen erakustaldi bat eskaintzen zuten. Bilerak seme-alaben eskola orduetan egiten ziren amek parte hartu ahal izan zezaten. Nolanahi ere den, kontrapubliko subalternoen ezaugarrietako batzuk sustatzen dituzten espazio horiek, ez dute zalantzan jartzen eta ez dute eztabaidatzen BDaren beraren espazioa, ez ditu BD espazioak kezkatzen. Aitzitik, femeninotzat hartutako jardueren inguruan garatzen dira bertan parte hartzen duen emakumearen rola eta amaren egitekoak aldatzen saiatu gabe. Hala eta guztiz ere, espazio eraginkorrak dira haietan parte hartzen duten emakumeen gizarte kapitala handitzeko.

Gutxienez bi ideia ondorioztatzen dira orain arte adierazitakotik. Lehenengoa da “koefiziente sinboliko negatiboa” aktibatzen dela emakumeek, gazteek, emakume immigranteek eta gizarte maila apaleko emakumeek hitz egiten dutenean. Bigarrena da itxura guztien arabera espazio horiek, egun egokituta dauden bezala, ez direla normatibotasunaren bazterrean (esate baterako emakume prostitutak aniztasun funtzionalarekin) dauden pertsonak gogoan prestatu. Kontua da pertsona horiek gabe ezinezkoa dela demokratizazioa. Aztertu dugun prozesuetako bat diseinatzeaz arduratu den emakume batek honela azaldu zuen bere kezka gai honen aurrean, bere ustez jarduteko gaitasuna ere mugatua zuela gaineratu zuelarik:

“Partaidetza prozesuen helburu nagusia esaten dezunean, nik uste det, a ver, oro... oro har, gure helburu nagusia da herritarrek izatea politika publikoen definitzeko partaideak. Bai? Eh... Eta ahalik eta modu gardentasunean, inklusiboan... esan nahi det, eh, bueno, eh... influentzia handia izatea erabaki arte.

Erabakitzearen... erabaki arte, bai? bilatzen degu ere jendea aske sentitzea. Edo helburu nagusi bat bada jendea aske sentitzea. Guretzat helburua bada ere euskararen presentzia bermatzea, handitzea eta abar. Eta, por supuesto, emakumezkoen... o sea, helburu propio bezela degu, eh... jende anitzak parte hartzea, baina haien artean azpimarratzen dugu emakumezkoen presentzia, eta agian presentzia ez zaigu hain zaila egiten, zailago egiten zaigu emakumezkoen irakurketa mahai gaineratzea. (...)Baina askotan, ez degu lortzen edo ahaztu egiten zaigu ere, ez degu ondo egiten, ba, hori, bileretan edo batzarretan, hobeto esanda, eh... gelditzea momentu batean eta egitea... (...) Porque depende de que gizezko edo, ba, ba... ez dute ondo onartzen... Ez dizute esango: <<Aizue, ez, niri ez zait ondo iruditzen emakumezko bezela zuk hemen zure irakurketa egitea>>. invisible-en munduan saiatzen gera bisible egiten. Askotan gelditzen gera diskurtsoan. Oso presente daukagu diskurtsoan invisible-en mundua. Ez dakit zehaztu degun hainbeste, ba, prostitutak direla edo ez, baina bai, ba, kalean bizi diren horiek, edo... jangela gure hausnarketa bat, askotan, bueno, behin baino gehiagotan izan da, nahiko zaila dala lehenengo behar batzuk...ase ez dituzten pertsona horiekin beste saltsa batzuetan sartzea, ezta? Eh... zeren askotan gure elkarrizketak... A ver, eh... nola esango det hau... Gure hirian ematen dira eta ez da sinplekeri bat, esan nahi det, eh... gure hiri bat bezela, bai? Orduan, elkarrizketak, sartzen diren elementuak, batzuetan, ba, jakin... jarriko bazenu... elkarrizketa hori beste herri batean edo beste hiri batean, non... maila ekonomikoa baxuagoa dan... eta ez dakit zer,seguramente,komentario batzuk izango ziren nahiko snob-ak, ez? Esango zuten: <<ba, de qué tonterías se preocupan estos, ¿no?>>. Por supuesto hemen ere arazoak dituzten familiak daudela eta... dudarik gabe. Asko, bai? Baina normalmente bileretara etortzen diren pertsonak, bueno, pues... ez det esango... bueno... ez dira horiek, esan nahi det, bai? Orduan, lehenengo, sartzea lehenengo beharrak, ase... asetunak ez dituzten pertsona horiek, elkarrizketa batzuetan zaila da. Bai, porque ni, ez bazait ailegatzeko dirua jateko ematen nere alabei hilabetearen bukaeran, me importa treinta y tres si el bidegorri va por allí o por allá. (...) zaila egiten zaigu. Zaila egiten zaigu, zeren elkarrizketa arrunt, eta esan dezakegu elkarrizketa arruntak kalifikatzen baldin baditugu guk auzotik ditugunak, arrunt horietan, bueno, ba, ez dakit, eh... nola moldatuko ziren, eta ez dakit ere guk nola tratatuko genituen. Agian... (Mujer, No CPSF, Invitación, 48 años)

Hizpide dugun ardatzetako bat aipatzen duten emakumeen diskurtsoaren testuinguruari modu zorrotzagoan erreparatzen badiogu, harreman bat aurkituko dugu batetik ardatz horien eraginpean egotearen eta, bestetik, beren burua islatuta ikusteko moduko eredu sozialaren gabeziaren artean. Bestela esanda, menderatze sistemak hartuta daudela dioten emakumeek berek ez dute errealitateari aurre egiteko orduan eredugarria izan dezaketen eredurik aurkitzen⁶¹.

Emakumeen ahalduztzearekin zerikusia duen literatura feministak gertutik begiratu dio berdinen arteko ereduak emakumeen bizi proiektuetan izan dezakeen garrantziari (Saraccini, 2003: 139). Literatura horren arabera, emakume izateko balizko ereduak eskaintzea eta benetako eredu gisa aurkeztea litzateke emakumeak ahalduztzeko edo emakumeek boterea hartzeko gakoetako bat. Ideia horrek bat egiten du eztabaida taldean parte hartzen zuen emakumeetako batek esaten zuenarekin: “es que no te lo imaginas hasta

⁶¹ Eskerrak eman nahi dizkiogu Arantxa Elizondori taldeko kide batekin izandako elkarrizketagatik, izan ere, argi geratu zen emakume gazteen artean benetako ereduak ez egotea bere horretan oztupo izan litekeela parte hartzeko. Haren ekarpenak oso lagungarriak izan ziren geroago datuak interpretatzeko garaian.

que te lo ponen delante. Lo que no existe, no existe hasta que alguien no te lo pone ahí” (2. ET mistoa). Parte hartzeko garaian bere erara jarduteko zailtasunaz ari zen KSF emakume gaztea, ez baitzuen bere eskueran eredu hurbilik.

Zaila da norberaren erara parte hartzea egiteko beste forma/eredu posible batzuk ikusezin bihurtzen dituen parte hartzeko joera bateratzailea nagusi denean. Eredu horiek gustura sentitzeko moduko eredu bat sortzeko egiteko moduen erakusleihoaren zeregina bete lezakete, modu horiek “dastatzeko” aukera emango lukete, eta gainera lagunduta: horri buruz ari zen Teresa del Valle tutoretzaz mintzo zenean.

Boterearen erabileraren kulturez mintzo zenean, emakumeen arteko edo gizonen arteko tutoretza ezagutza transmititzeko moduetako bat zela zioen (Del Valle, 2008: 155): eredurik eta tutoretzarik gabe badira munduan egoteko erak, baina ikusezin edo/eta lekukotasunik gabe geratzen dira, galtzeko arriskuarekin. Badira erabat adierazten ez diren parte hartzeko moduak, hitzez adierazten ez diren oztopoak eta horiei aurre egiteko moduak, gizarteratzen ez direnak, esparru pribatura mugatzen direnak eta izaera politikoaz gabeturik geratzen direnak.

Hain zuzen ere eredu eta tutoretza gabezia horrek eraman zuen KSF bat osatzen ez duen 29 urteko emakume bat parte hartzeko saioak bazterrera uztera " no voy a ir a una reunión porque creo que no voy a saber, además no conozco a nadie, ni se cómo hacer". Hala eta guztiz ere, guztiz bestelakoa da gizon gaztearen kasua, gazte izateagatik gutxietsia izan arren, tutoretza aurkitu baitu hurbil, gaur egun ere aholku bila inguratzen zaion eredua. Gainera, parte hartzeko interesa eredu horri zor diola dio:

“Y bueno, la persona que me guió un poco en esto, que fue uno de los monitores de, de la parroquia, que me guió un poco de, bueno, que de hecho tengo mucha amistad con él todavía. Y todavía a veces le llamo y le digo “joe, me pasa esto”. Y él, para él fue, o sea, él me remarcó mucho el tema de que de la formación. Me hablaba también del tema de la eficiencia y todo eso. Digo, y digo si vas a ser mucho más, o sea, vas a conseguir muchas más cosas si estas ahora, si estás un tiempo formándote y que sí, porque si empiezas pues a, a hacer cosas, cosas, cosas, sin enterarte de nada pues, pues vas a estar haciendo cosas toda la vida, o no, en, y, y no va a servir de nada. Y entonces, no sé si que, siempre me marcó mucho” (Hombre, No CPSF, irrupción, 29 años).

Biak dira gizarte maila ertainekoak, familia kontserbadoreetakoak, lehendik ibili gabeak parte hartzeko saioetan, eta gizonak baino kultura kapital handiagoa du emakumeak. Emakumeak ez du hurbileko erreferenterik. Gizonak bai. Ondorioz, hasieran etsi egiten du batek, eta besteak aurrera egiten du parte hartzeko proiektu hasi berrian. Genealogia maskulino horrek emango zizkion indarrak gizonari haren ahulaldietan eta segurtasunik

gabeko uneetan, emakumea are egoera bakartuagoan geratuko zen artean, bere parte hartzeko bidea are nekezago bihurtuz.

Bitartekoaren egitura formal

Diseinuak baldintzatuta dago bitartekoaren egitura; hortaz, puntu honetan txertatu behar dira orain arte adierazitako elementuak. Izan ere, emakumeek beren diskurtsotik bereizi dituzten kontu batzuk topatu ditugu, eta bitartekoa egituratzeko formari dagozkiola ulertzen dugu guk. Horrexegatik aurkezten ditugu besteetatik berex. BD espazioetan emakumeek nabari duten mendekotasuna esplizituki adierazten zuen kontakizunean behin eta berriz aipatzen ziren orain aztertu nahi ditugun bi elementu: denbora eta espazioaren antolaera.

Denborak nork zehazten dituen galdetzea, espazioetan hitz egiteko boterea nork duen galdetzea da. Zentzu horretan, zehaztutako denborekin eroso sentitzen ez den, edo hausnartzeko edo bere moldeko estrategia bat lantzeko denborarik ez duela sentitzen duen baten egoeren deskribapena litzateke espazio baten baitan gertatzen den menderatze egoeraren erakusgarri. Horri dagokionez, berriro ere alde handia nabari dugu KSF bat osatzen duen pertsonaren eta osatzen ez duenaren artean, hurrengo bi testigantzetan ongi asko ikus daitekeenez. Eztabaida gune paralelo horiek osatzen dutenentzat denborak edo denboren gaineko kontrol gabezia aurre egin beharreko izaera politikoko elementuak diren bitartean, talde horietakoak ez direnek beren izaerari, beren kultura politikoari eta, azken buruan, beren erantzukizunari egozten diote “denboretan ezin egokitze” hori.

“Tengo la sensación generalizada de que a veces se toman las decisiones de una manera un poco forzada, o sea, que por la propia dinámica interna de [nombre del dispositivo de ID en el que toma parte] pues hay una manera de entender el asambleaismo que nosotras (como CSPF) desde luego necesitaríamos otros ritmos, otros tiempos para sentir, o... poder decir que nos parece más participativa, que nos parece más..., mas.. mas asertiva, o más incluyente” (Mujer, CPSF, irrupción 38 años)

“Me costaba mucho llegarme a ordenarme las ideas en el momento adecuado, y un poco para entrar en la conversación, y me di cuenta que se estaba hablando, y que otras que es lo que quería comentar, ya estaban, unos kilómetros, mas para adelante. Ahora ya me he acostumbrado y ya vale. Mas que lingüística, por mi lentitud para pensar y expresarme, no entonces con el idioma no tienen mucho que ver, creo. Son de que la verdad. Si al final saltas de temas a otros, y tienes que darle importancia a que darle importancia, y a que mejor pasar, y hacerte un poco de orden en la cabeza. Y eso es lo que me costaba al principio.” (Mujer, no CPSF, invitación, 27 años,)

“Pues a mí me parece que hay momentos en que necesitaríamos..., que necesitaríamos más tiempo para..., para poder debatir porque veo que sí había muchas ganas de..., pero muchas, o sea, de..., de ahondar en el tema, ¿sabes? Y..., y... pues casi siempre había uno <<No, no, no, pero ahora estamos en otra cosa y... no sé qué,

entonces no continúa y... y pues ya ¿no?, se dispersa el debate, ¿no? no se deja fluir” (Mujer, no CPSF, invitación, 32 años)

Diskurtso horietan zurruntasuna eta kontrol falta nabari dira denboren (eta espazioaren beraren) zehaztapenean. Denborak antolatzeke zurruntasun hori aretoaren eta espazioaren antolaeran ere egiaztatu ahal izan da. KSF emakume batzuek azaltzen zuten nola aretoa antolatzeke modu jakin batek (ikasgela batean bezala) galarazten zuen parte hartzaileen arteko harremanak berdinagoak izatea:

“Zirikatu ninduten ta hor saiatu ginen. Oso instituzionala da. Gurasoak hor eserita, U baten bezala eserita, oso gutxi egin daiteke. Marra betan gurasoak, hemen aurrekoan, irakasleak, eta zuzendaria eta delegaritzatik etortzen zirenean ordezkariak aurrean, ta gero ikasleak. Ez geunden borobil batean. Borobil batean ixten. Nahastearena para nada. Oso zaila da. Guk aurretik asanbaladak egin behar genituen aurretik, delegatuekin bilerak, guk ezin genuen bertan. Dago eginda ikasleek parte ez hartzeke, metodologia oso zaila zen. Eta gogoratzen dut hor, pues hor geundela, saiatzen ginela, baina ez horrela oso motibatua edo...igual ez zuelako emoten ez? frustrazio puntu hori ta gero autoritatearekin topatzen zarenean” (Mujer, CSPF, irrupción, 29 años).

“creo que tampoco ayuda el... el que no haya en esos espacios una dinamización apropiada para la participación, o sea, se abre el espacio... y el que se atreve habla, y el que no se atreve pues... se queda callado... Entonces, o tienes mucha cara y no te importa lo que los demás piensen de ti, o... Creo que mucho es eso, que el formato no es para nada apropiado... Y también he sentido que hay poderes invisibles, eso es muy claro, o sea, es cierto que hay espacios (guneak) para la participación, pero también es cierto que hay estructuras o jerarquías muy marcadas... igual no se acepta o no se reconocen, pero allí están (...) Ez dakit, ez du ematen eztabaida batetarako edo zeozter produzitzeko aukerarik, ee... areto batek non denak mahai bateri begira gauden eta... eta... entzuten dugun eta... ausarta baldin bazara, eskua altxatu eta zerbait esaten duzun, 200 aurpegi giratu eta zuri begiratzeko... Eta ia ez diot euskaraz parte hartu nahi baduzu ia... osea ni te digo.” (Mujer, CPSF, invitación, 29 años)

Ahalik eta ahots kopuru handienaren inklusioa bermatzen saiatzen diren dinamizazio neurrien gabeziak blokeatu egin du inklusiboagoa den denboren eta espazioaren antolakuntza. Laburbilduz, betiere da baztertzalea dinamizazio eza edo joera patriarkalean oinarritutako dinamizazioa.

Gizarte egitura barneratuak: hiru tentsioen txertatzea genero arauen bidez

Genero araez mintzo garenean, mundua eta berau osatzen duten agenteak antolatzeke generoaren⁶² kategoriari eusteko gizarte araez, idatziak egon ala ez, ari gara. Genero arauak (GA aurrerantzean), geuk ulertzen ditugun bezala, gizonen eta emakumeen zuzendutako arau sozial batzuk dira, gizon eta emakume horiek sexu-generoko menderatze sistema batek

⁶² Lehendik definitu dugu generoaren eta sexu-genero sistemaren ideia (ikus I. kapitulua); hortaz, hemen labur-labur gogoraziko dugu generoaren bidez maskulinoaren eta femeninoaren arteko bereizkuntza sozialaren prozesuari egiten diogula erreferentzia.

hartutako gizartean izan behar dutena izaten jarrai dezaten; emakume batengandik edo gizon batengandik espero den portaera, pentsamoldea eta ibilera bermatzeko. Nazioz gaindiko arauen multzoa osatzen dute, dagokien geografiari egokituta daude, publikoa eta pribatua hartzen dute, arrazionala eta emozionala dena, eta menderatze maskulinoko genero sistema sendotzen dutenez hierarkikoak dira eta unibertsalizatzaileak. Era askotan transmititzen dira arau horiek, instituzionalizatutako bideen bidez, familiaren edo ikastetxearen bidez edo, berdinen taldean, modu ez formalen bidez, esate baterako neska batek beste bati esaten dionean gonak daramatzanean hankak ez irekitzeko kuleroak ikusten zaizkiolako.

“Genero arauak” kontzeptua bi hitzez osatuta dago (arauak + generoa), eta nola berex hala batera hartuta, gauzei mugak jartzeko xedapen sorta bati egiten diote erreferentzia. Michael Foucault-ek zioen gizarte batean norbanakoen portaerak hertsatzen dituen balioen multzo lausoa direla arauak, gizartearen funtzionamendu “normala” zehazten dutela (*Les mots et les choses*, 1966: 368). Genero arauak agintzen dute nola portatu behar duen emakume batek eta nola gizon batek, arau horietatik kanpora geratzen den oro gutxietsiko da sexu-generoko menderatze maskulinoko sistemak mendeetako historia patriarkal-heterosexistan zehar ehundu eta findu duen kontrol eta zigor mekanismoen bidez.

Kontrol mekanismo horiek baliatzen dituen egituraren konplexutasuna bereziki eta sakonki aztertu du *queer* teoriak (Butler, 2001; Preciado, 2002), eta boterearen eta desiraren arteko harremanak txertatuz, nortasunaren politikaren problematizazio sakonagoa zor dio aipatu teoriari teoria feministak. Horrexegatik esan dezakegu genero arauak ez dutela bakarrik jarduten, arrazaren eta adinaren arabera sexu arau klasisten egitura handiago baten atal direla. Heldua menderatzailea den kultura gehienetan bada idatzirik ez dagoen kontrol modu bat, eta gazte batengandik espero den portaera eduki behar du gazteak horren arabera (helduen aholkuak aintzat hartu behar ditu, onartu egin behar du prekarietate ekonomikoa nahitaez egin beharreko urratsa delako laneko egonkortasuna lortu arte, jendaurrean behin eta berriz legitimatu behar du bere burua eskarmentua ez izateagatik bere hitzek balio txikiagoa dutelako) ⁶³. Era berean, bere desira bideratzeko arau sorta bati egin behar dio aurre sexualitate heteronormatiboa ez duenak, eta gainera eguneroko erasoak (laidotzatzeak, erasoak edo hilketa) jasan behar ditu normaltzat hartzen denaren barruan ez egoteagatik.

⁶³ Ez dago adinaren arabera menderatzea beste menderatze mota batekin alderatzea, lehenengoa iragankorra delako (ez gara beti gazte izango) eta besteak ez.

Subjektua diziplinatzea dute xede arauak, agente normatibo, estatuaren eraginpeko agente, agente burgestu eta heteronormatibo bihurtzeko. Gorputzak eta portaerak diziplinatzea dute xede genero arauak, bi genero osagarri behar dituen sistema heteropatriarkalari eustea dute helburu. Gorputzetan eta jokamoldeetan ezarririko diziplina horren adibide bikaina azaldu zuen Bourdieu-k bere *Menderatze maskulino* lanean Yvette Delsaut-ek azafata izateko ikastetxeetan burututako ikerlanaren nondik norakoak azaldu zituenean. Egileak zioen femeninitasun normatiboaren ikaskuntzak molde horretako ikastetxeetan iristen duela bere esplizitazioa, izan ere, “portaera edo egoten jakin ikastaroen bidez (...) ibiltzen ikasten da, zutik egoten, irribarre egiten, eskailerak igotzen edo jaisten (...), egoten jakiten bai itxura aldetik bai janzteko eta makillatzeko moduei dagokienez” (Bourdieu, 1998: 44, 46. zenbakiko oin oharrean). Ikuspegi horretatik, emakumeek bezala jaurti, lasterka egin eta igeri egiten duten emakume heteronormatiboen fabrikak lirateke ikastetxe horiek. Geroagoko beste analisi iradokitzaile batzuek, hurbiltze feminista postestrukturalista lehenesten dutenek, agerian utzi dute badagoela praktika askatzaileak aurkitzea gorputzaren kontrola funtsezkoa den lanetan, esate baterako, modelajea, dantza eta *cheerleading*-ean (Esteban, 2013; Adams eta Bettis, 2003)

Geuk ikusten dugun bezala, arau horietan badago sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema birsortzeko hiru kontraesanak identifikatzea. Honenbestez, lehenik eta behin emakumeak etxeko espaziora itzultzea edo bertan edukitzea dute xede genero arauak. Bigarrenik, emozio eta zaintza lanaz arduratuko den subjektuaz gabetuta ez geratzea bermatu nahi dute. Eta hirugarrenik, generoan oinarritutako menderatze sistema bat bermatzea dute helburu.

Puntu honetara iritsita, ezin oharkabea pasa daiteke arau horien dimentsio korporala. Arau horien gordailu dira gorputzak, eta horregatik da hain garrantzitsua horiek irakurtzea eta aditzea soziala denaren analisia egiteko (Esteban, 2013). Izan ere, emakumeen parte hartzeari buruz egindako lan guztien irakurketatik ondorioztatu daitezkeen konklusioetatik lehenengoa da hori. Gorputzaren eta arauen arteko harreman estua hautematen da beheago hizpide izango ditugun arauak modu batean edo bestean adierazteko unean emakumeek hainbat gorputz adierazpideri erreferentzia egin dietenean.

Hori esanda, burura eramandako landa lanetik lortutako datuak aztertu eta gero, emakumeen parte hartzea mugatzen duten lau genero arau identifikatu ahal izan dira. Arau horiek etxera mugatzen dituzte emakumeak, zaintzari lotutako emozio/afektibotasunaren

esparrura, menderatze sistemaren birsorkuntza bermatzeko. Lau arau horiek dira “emakume perfektiozalea, emana eta arduratsua”, diskrezioa, enpatia eta ahulezia. Era berean, gizonen parte hartzeko proiektuen kalitatea mugatu edo gutxienez txikitu duen arau bat identifikatu ahal izan da, koherentzia. Arau horien barneratzeak, generoaren *habitus* baten osaerak, emakumeen eta gizonen parte hartzeko proiektua kaltetu duela esan behar dugu.

“Emakume emana, arduratsua eta perfektiozalea” hirukoa⁶⁴

Marcela Lagarce-k gizarte patriarkaletan “emakume gatibuen” bizi aukerak egituratzen dituzten elementu batzuk identifikatu zituen⁶⁵. Egileak aipatzen dituen elementu horietatik asko eta asko genero arautzat har daitezke. Haietako bakoitza eta guztiak oso interesgarriak badira ere, kasu honetan bereziki bat interesatzen zaigu guri: emakume gatibuak gatibu dira “definizio politiko gisa ukoan, emanean, mendetasunean eta esanekotasunean” oinarritzen eta egituratzen direlako (1990: 187).

Besteei irazkirik gabe emateko ideia, ezin gehiagora iritsi arte emateko ideia, behin eta berriz agertu da emakumeen kontakizunetan elementu eragozgarri gisa. “Emakume emana” arau hori batik bat emakume gazteen artean eta beren parte hartzeko ibilbidearen hasieran azaldu dela azpimarratu behar dugu. Besteei beren lana eta denbora irazkirik gabe emateko sentrazio horri buruzko erreferentziei emakumeek sentitzen duten nekeari buruzko erreferentziak gehitu zaizkie batzuetan. Haien diskurtsoetan zuzenean lotu gabe, guk uste dugu uneoro besteei emana egoteko sentrazio horrek, norberarenak baztertuta besteen eskaerei erantzun behar horrek, agortu eta indargabetzen dituela emakume asko eta asko egunean zehar.

“Yo si los de [nombre de un grupo] necesitaban alguien que emitiera unas jornadas de no sé que, yo les echaba una mano e iba, otra mano no sé donde a hacer no se qué. Un día me día cuenta que se me habían acabado las manos. Que no tenía tardes para leer” (Mujer, no CPSE, Irrupción, 35 años)

“Oso pertsona urduria naiz eta elementu ugari, eztakizu, ba ni naiz horrela ba emon behar denean zerbait ematen dut dena ehuneko ehuean, eta orduan erretzen naiz barrutik pilo bat, o sea, orduan baja hartu nuen oso garai txarra pasatu nuen, eta erabaki nuen beste era batera planteatu behar nuela hau, bestela bukatuko nuen erreta eta dena uzten eta neukan asmoa hori ez nuela nahi” (Mujer, CPSE, irrupción, 29 años)

⁶⁴ Hiru arau horiek hiruko gisa aurkezten ditugu diskurtsoetan elkarren artean estu lotuta ageri direlako sinonimotzat hartzen ez direnean. Gure ustez besteen edo kanpokoen begiratuak hiru elementu horietan eragiten duen presio handia da horren arrazoia.

⁶⁵ Lagarce-rentzat gatibutasunaren kategoriak “laburbiltzen du emakumeen egoera zehazten duen egintza kulturala mundu patriarkalean: politikoki boterearekiko harreman zehatzean gauzatzen da, eta askatasun ezak ezaugarritzen du” (175, gatibutasunak).

Kontrapubliko bat osatzen duten emakumeen diskurtsoetan ere hauteman dugu beren parte hartzeko proiektuetan ondoeza eragin duen gehiegizko emana, parte hartzeko espazioan egin beharreko lanen aurreko gehiegizko emana, baina emakumeok neurri gabe (edo hobe esanda, besteen neurrira) emateko joeraren aurreko diskurtso kritikoa egin izan dute. Hain zuzen ere irazkirik gabe emateko joerari galgak jartzeko testuinguru horretan ageri da kontrapublikoen eskutik parte hartzean zaintzak eta norberaren zaintzak duen garrantziari buruzko diskurtso ongi egituratua eta hausnartua. Kontrapubliko horrek zenbaitetan lortu egin du zaintzaren gaia publiko menderatzailean barneratzea, parte hartzea kontzeptualizatzeko modu zabalagoaren bidez, norberaren zaintza aurreikusirik eta ikerlanean parte hartutako emakume batek azaldu zigun ideia lehenetsita: “behar bezala parte hartu ahal izateko ezinbestekoa da norbera zaintzea”. Eta horixe da bertatik bertara behatutako parte hartzeko bitarteko berriaren kasua, kontrapublikoak zaintzen gaia parte hartzean sartu ondoren “gogoia zaintzeko” batzorde bat sortzea proposatu baitzen:

Tras las exposición sobre la necesidad de hacer una lectura de la crisis de los cuidados cuando se hable del decrecimiento por parte de una de las mujeres que forma parte del contra público un hombre habla de la necesidad de crear un grupo de “cuidados del alma” como “área de cuidados y quemados de la participación”. Mucha gente quiere participar de este grupo pero “los sábados a la mañana quieren/quemos estar con sus hijos” (argumento fundamentalmente esgrimido por hombres). Se abandona la idea por el momento (Nuevo espacio).

Baina emana ez ezik arduratsua ere izan behar du sistemari eusten dioten eginkizunetako baten (zaintza) ezkutaketan oinarritutako sistema sustatzen duen emakumeak. Carol Gilligan-en arabera, emakumeengan gizonengan baino sarriago aurkitzen den zaintzaren etika batez hitz egin daiteke, eta subjektuaren harremanen dimentsioak pisu handiagoa izango luke bere garapen moralean justiziaren etikan baino (1982). Garapen moral femeninoaren mailez eskaintzen duen azalpenean bada funtsezko elementu bat, bertan pausatzen da egilea ezin modu garbiagoan adierazten duelako zaintzaren etikak haren iritziz duen harreman izaera garbia. Arduraz ari gara. Gilligan-ek bere egiten du Kohlberg-ek Jake eta Amy-ri (seigarren mailako mutila eta neska) proposatutako arduraren dilema ikuspegi feministatik berrinterpretatzeko. Bada, Jake-k eta Amy-k arduraren aurrean zuten ideia bestelakoa dela ohartu zen Gilligan. Mutilak (Jake) arduraren dilemari ekuazio matematiko bat balitz bezala erantzun zion artean⁶⁶, testuinguruaren araberakoa da, harremanaren esparrukoa, Amy-ren erantzuna, “erasoa baino zaintza eta arreta dakartza berekin” (1982:

⁶⁶ “Norberarekiko ardurak eta besteekikoak aurrez aurre gertatzen direnean nola aukeratuko zenuke” galderari honela erantzun zion Jake-k “laurdena emango nieke besteen ardurei eta beste hiru laurdenak neurei” (1982: 67).

74). Amy-ren erantzunak oso aintzat hartzen du inguratzen duen gizakia, eta bere buruaz ari denean zabalagoak diren gizarte harreman sorta batean beste elementu bat dela dio⁶⁷. Zalantzarik gabe ezinbestekoa da moral arduratsu hori planeta justuago eta bidezkoago bat eraikitzeko proiektuan. Gilligan-ek argudiatzen duen bezala, justiziaren etikak ezinbesteko du zaintzaren etika. Horregatik oroz gain azpimarratzen dugu inolaz ere ez dugula parte hartzeko proiektuetan eta oro har bizi proiektuetan arduraren ideia baztertzea babesten. Hori bai, gure kezka azaldu nahi dugu ardura hori soilik emakumeen bizkarrean pausatzen delako eta gainera besteek erabakita pausatzen delako.

Arduraren ideia hori da “adostasun” maila handiena izan duena nola agerpen hala gonbidapen bidez parte hartutako KSF edo KSF ez diren emakume gazteen nahiz helduen artean. Kasu honetan, gainera, ez dago emakumeek zenbaitetan sentitzen duten gehiegizko arduraren aurreko diskurtso kritikorik, diskurtsoetan ez dugu generoari buruzko irakurketarik aurkitu.

Emakume gazte batek (27 urte, KSF, agerpen bidezkoa) bitartekoan parte hartzen ari zenean bere ongizatea hein batean zapuztu zuten bi une izan zituen hizpide. Parte hartze maileri buruzko ikerlan bat egiteko erabakia hartu zen espazioaren baitan, eta bi eginkizun zeuden. Bera arduratuko zen galdetegi bat prestatzeaz eta kideak, gizonak, hitzaurrekoa idazteaz. Zereginak luze jo zuen, ez zen burutu, gizonak ez zuelako bere lana egin. Gurekin egondako emakumeak zioen une ezerosoa izan zela hura, modu ez formalean bada ere batzarrak bere lanari buruzko kontuak eskatzen baitzizkion. Eta berak ezin erantzun zezakeen:

“uno se hizo responsable de hacerlo, no lo hizo, y yo como una amama detrás de él todos los putos días, diciéndole a ver si lo había hecho, porque se nos tiraba el tiempo encima. Yo hice mi parte, yo dije, vale, pues yo hago el cuestionario, y tú haz la historia y... eso si que fue como... yo detrás de esa persona un montón de meses, y al final era, las asambleas generales digo, no, yo he hecho mi parte, o sea...y porque preguntaban: <<¿qué, y el txosten ese?>> y digo: <<si, no sé, preguntádselo, yo ya he hecho mi parte, o sea...>>”.

Kasu horretan, aldean edo barneratuta daramalako, "haren atzetik amama bat bezala" da ateratzen zaiona. Esaldi horrek erakusten digun irudia da emakume bat gizon baten atzetik dagozkion egitekoak egin ditzala eskatzen. Inork ere ez zion emakume horri formalki eskatu (bai ordea modu ez formalean, txantxetan edo kontuak emateko eskatzen ziotenean) lana

⁶⁷ Honela erantzun zuen Amy-k: “Tira, egoeraren arabera. Beste norbaitekiko ardura baldin badut harekin betetzen dut neurri batean, kalterik egingo ez didan neurrian edo egin nahi dudan zerbait galarazten ez didan bitartean, bestela neure burua jarri behar baitut aurretik. Baina gure ardura egiazki nigandik oso hurbil dagoen norbaitekikoa bada, egoera horretan erabaki egin behar dut zer den garrantzitsuagoa, neu edo dena delako pertsona, eta lehen ere esan dudan bezala, horretan erabakigarria da norbera zer nolako pertsona den eta beste pertsonaren edo pertsonen aurrean zer sentitzen duen” (Gilligan, 1982: 67).

amai zedin zaintzeko rola bete zezala. Hala eta guztiz ere, emakumeari berez "ateratzen" zaio horrela jardutea. Hurrengo pasartean azaltzen duen bezala, bitartekoko publikoari bideratutako jarduera batean, berez ateratzen zaio, era berean, argindar kableak modu ez arriskutsuan egon daitezen ziurtatzea, sukaldea garbi egotea eta abar.

"Los primeros años, eh... llevamos tres de [nombre de la actividad]. El primer año, casi no salía de la [nombre de la actividad]. Porque es que entraba a mear, y veía como la cocina era un puto desastre, o sea... Veía que no sé qué de los cables. Y había gente que entraba, meaba y salía. Al segundo año era como en plan mofa, de... mis colegas me decían: <<entras al baño, y si no vienes, nos piramos a otro sitio>>. Tengo esa preocupación O sea, para lo bueno y para lo malo. Eso, que yo creo que a mí me gusta tener una visión global de todo y... y, yo creo que es buena, ¿no? tener muchos campos abiertos y mucha... No sé, era como... Pero luego eso, es que muchas veces no te deja disfrutar porque no tienes turno y estas pensando en que, bua...cómo estarán las cosas dentro"

Pisutsua bada eta gozatzen uzten ez badu, betebeharrak bihurtzen da ardura, gizakien askatasunerako arau kaltegarri. Parte hartzean, hain zuzen ere ardura hori da emakume askok eta askok zuzenean baliatzen dutena parte hartzeko proiektu batzuetatik urruntzeko. Honela diote:

"pues que no me reconozco el derecho de bueno puedo ir el primer día a ver si me gusta o no y si no me gusta no vuelvo (...) hay una parte ahí de que yo no quiero ir a un colectivo y calentar la silla y no poder aportar nada porque no tengo energías, no me gusta a un, ni quiero sentir que estoy en un colectivo y si hay unas tareas que repartir no cogerme nunca ninguna. Y estar siempre con la excusa de no puedo porque, mira necesito estar el fin de semana estar con la mente en blanco, mirando al mar y (...) cuando vas a un sitio y vas a estar diciendo no yo eso no hago o, pues a mí me da un poco de cosa, apuro como no contáis conmigo para este tipo de cosas" (Mujer, No CPSF, irrupción, 29 años)

"No sé a mí se me da mal, ir a un sitio y no trabajar. No estar al de si un líder me dice, es como si yo puedo tener la iniciativa porque voy a esperar a otros que me digan las cosas se hacen así" (Mujer, No CPSF, irrupción, 35 años)

Barneratutako genero arau hori ("emakumeak arduratsua izan behar du besteekin") generoaren *habitus* bihurtzen da, hau da, barneratutako xedapen sozial eta korporal bihurtzen da, egitura, egituratzaile eta egituratu bihurtzen da. Arduraren genero arauaren ondorioak gehitzen baditugu badago emakumeek berek aipatzen duten gorputzaren *irudi* bat identifikatzea:

"Incluso exigirnos más a la hora de prepararnos una intervención en una asamblea. Esto en verdad ya lo hemos hablado un poco antes, ¿no? Cuando ellos levantan la mano y se hacen con el espacio y hablan aunque no digan nada. Y tú vas ahí con tu argumento preparado, además es muy típico, siempre te ves a las chicas con la libretita ahí con su esquema y a los tíos nada." (Grupo discusión piloto, CPSF)

“La disciplina. Yo no salgo de una reunión de ningún tipo sin una tarea. Hay veces que tengo que decir bien alto “y cierro el cuaderno porque no voy a apuntar nada mas” Y digo “a ver si lo digo en alto y me da vergüenza volver a abrirlo” (Grupo de discusión mixto)

Kasu horretan aipatu ardura bete ahal izateko bere gorputza tresna gisa erabiltzen duen emakumearen irudiak kaierera eta aplikatutako idazketa antolatura garamatza. Bileraren ostean egin beharrekoaz gogoratzeko oharrak jasotzen dituen emakumea ikusten dugu. Eta aurrez aurre boligraforik ez duen gizona, edo kasurik hoberenean, orri zuri bat duena, oharrak hartzeko prestasunik erakutsi gabe baina. Bai ordea hitz egiteko. Eta hein batean emakume askok ikastetxean bizi izandako esperientziak gogorarazten ditu, nola mutilen eta nesken kaierak (azken horiek eskuarki arrosa kolorekoak) alderatzen zituzten nesken kaieretan letra hobia zela eta askoz ere ordenatuagoak zirela azpimarratzeko. Eta kaierak zaintzeko nesken jokamoldeari egindako laudorio zuri horren bidez gogorarazten zitzairen oharrak jasotzeko bi modu zeudela, neskena bata eta mutilena bestea. Kaieretan eta bizitzan emakumeari baino gizonari onartzen zaizkio kaosa, nahaspila eta axolagabekeria.

KSF izan ala ez, emakume gehien-gehienek esan dute beren kontakizunetan “diziplina handia dut eta arduratsua naiz” eta “oso koadrikulatua naiz” bezalako esaldiak. Hala eta guztiz ere, generorik gabeko jarreratzat hartu da, interpretazio sozial orotatik aske dagoena. Gure interpretazioaren arabera, ardura hori funtsezko elementua da gizon eta emakumeen fabrika den generoan, eta gorputzak bere biziko papera jokatzeko du horretan, ikertzen jarraitu beharra dago.

Ardurari estu lotuta ageri zaigu perfekzioaren ideia. Perfekzio ideia batera iristeko asmoak, gizonengan eta emakumeengan bestela proiektaturiko asmoak, beste pisu bat erantsi dio emakumeek parte hartuko duten bizkar zorroari. Emakume askok diote “oso perfekziozalea naiz, dena oso ongi egitea gustatzen zait, ongi prestatzea egin behar dudana egiteko” (Emakumea, ez KSF, agerpen bidezkoa, 36 urte), eta lehendik ere azpimarratu dugun bezala, hori ez da eragozpen konpromisoa bere egiten duenaren ongizatea mugatzen ez duen heinean. Arazoa hasten da perfekziozale “izatea”/egin izana berea ez duen neurgailu batean neurtzeko xedea duen ezaugarri bat bihurtzen denean. Bestela esanda, arazo bihurtzen da perfekzioa bilatzeak bat zer den eta nola parte hartzen duen gutxien duenean, edo perfekzioa iristeko bidean ez gozatzea dakarrenean. Perfekzionismoaren ideia modu askotan azaleratu da, eta modu guztiak ezin orriotara ekar ditzakegunez, haietako batzuk bereizi ditugu guk. Ongi ez egiteko beldurrarekin, norberak esperimentatzeko galarazpenarekin eta, hein batean sormena mugatzearekin lotuta azaldu zaigu perfekzionismoa:

También creo que es cierto que sucede que cuando propongo cosas parece que estas no tienen importancia, o no la suficiente, e igual pienso que voy a meter la pata... Y por estas razones y otras yo creo que nos callamos... Y sí que creo que es una cosa que nos sucede de forma más clara a las mujeres, en la medida en que lo tenemos asumido, quizá sin querer o quizá sin darnos cuenta, pero si es algo a lo que me ha enseñado la sociedad, poner en duda (nire burua zalantzan jartzea) mi cabeza, que no tengo que tener tanta confianza en lo que me dice la cabeza, porque igual estoy equivocada... (grupo de discusión mixto 2).

Perfekzionismoak sarri askotan ekarri du ondorio gisa isiltasuna, diskrezioa, publikotik baztertuta egotea, eta hortxe bihurtzen da araua oztopo. Kasu honetan ere perfekzioaren elementu korporala funtsezko kontua da arau honek ezartzen duen zapalkuntzaren osotasuna ulertzeko. Perfektu izateak espazio publikoan emakumearen irudi femeninoa aurkeztea eskatzen du, eta horrek zuzeneko eragina du parte hartzeko proiektuetan. Baina, gainera, eztabaida talde mistoetako batean (2) jasotako pasarte honetan ikusten dugun bezala, emakumeok batzuetan dauzkagun desiren aurka egiten du perfekzio bilatze horrek.

**Es que tienes que esta guapa, el aspecto físico. "Eder edo korrekto egon behar izatea..." No poder ir al gimnasio sin depilarte, o no poder ir con tu resaca brutal a un espacio sin estar maquillada. Para mí está en la primera línea o la segunda. Para mí, el aspecto físico tiene mucha importancia.. La forma en que nos vemos nuestro aspecto físico, lo que nuestro aspecto afecta a la hora de presentarnos, de movernos, para todo. Me asombra mucho... Tengo una amiga que tiene un planteamiento centrado, pero es incapaz de salir de casa sin maquillar. Y a mí me impacta bastante porque eso es lo que le permite salir a la calle. Entonces, y es una persona consciente de todas las cosas, que tiene un planteamiento. En la participación influye totalmente porque si estás a gusto contigo, con tu itxura, pues entonces tienes más seguridad a la hora de hablar, para exigir, para encarar, es muy diferente a cuando sales un día con chándal, con la cara mal hecha y destrozada. O sea, no tienes oportunidad, o fuerzas para hablar, para dar tu opinión entre otros, en público, delante de la gente. No sé si esto solo les pasa a las mujeres, a algunos tíos les puede pasar, pero a las mujeres de forma más exagerada pero el aspecto físico, el concepto, el estereotipo de "edertasuna", tiene una carga importante que nos afecta de todas las formas a la hora de participar*

*** Si, puede ser... porque piensas que si tienes que ir a una reunión con todo tíos, pues empiezas a pensar en qué vestir, porque claro, si vas con una minifalda...*

** Claro, si tienes un escote así (gesto que destapa el pecho) pues claro, te cambias porque (en castellano) "paso de que me estén mirando a las tetas" todo el rato.*

**** yo uniría el aspecto físico a la formación, fíjate, es un poco tontería, porque en nuestro sector tenemos que estar formadas. Si o sí. Cuando yo entré en el [nombre de un ID] había que hacer un curso para hablar en público. Vas a dar una rueda de prensa, y claro, tienes que ser creíble, y con eso vas a la forma de vestirte, tienes que estar elegante para ser creíble. Pero a la vez, si vas muy preparada, te dicen, esta no tiene vacas de leche... En nuestro caso, en el caso del [nombre del ID analizado en la investigación], ahora, es justo lo contrario. Si vas muy elegante, malo... si vas muy elegante, malo... "a dónde va esta?"... no es al uso. Pero por el otro lado te están diciendo, tienes que estar formada y "vete elegante porque si no lo que vas a decir no te lo van a creer los que tienes delante de ti". No exigen estar formadas, saber de todo, y encima aparentar que lo sabes. Pero creo*

que a los tíos les pasa lo mismo, en el [nombre del ID], son ganaderos, pero todos se cambian de ropa para venir, para estar sin la ropa de trabajo, pero claro, si yo me paso... Fíjate, esta mañana he tenido que pensar qué es lo que tenía a lo largo del día para ver qué me ponía Yo no me visto según quiero, sino según que tengo... "tengo [nombre del ID], no tengo..." Me condiciona totalmente

Besteen begiradari estu lotua da emakume emana, arduratsua eta perfekziozalea. Arauen bidezko besteen begiradaren indarrak bestelako eragina izan du gizonengan eta emakumeengan, zeregin zapaltzaileagoa izan du bigarrenengan. Ez da ideia berria. Demokraziaren erradikalizazioaren pentsalari handi batek XVII. mendean argi eta garbi azaltzen zuen besteen begiradak gizonengan eta emakumeengan eduki beharreko pisua. Halaxe zioen Rousseau-k:

"No importa únicamente que sea fiel la mujer, sino que su marido la tenga por tal, sus parientes y todo el mundo" (Rousseau, ed.2005: 246)

"Hay una clase de hombres que tienen en mucho las miradas del resto del universo, que saben ser felices y estar contentos de sí mismos con el testimonio de otro más que con el suyo propio (...) no corresponde a mi entender mostrar cómo de semejante disposición nace tanta indiferencia para el bien y para el mal (...) cómo al reducirse todo a apariencias, todo se convierte en ficticio y fingido: honor, amistad, virtud (...) (Rousseau, ed.1980: 286.)

Rousseau-renean bezala, ongi asko hauteman dugu "emana-ardura-perfekzionismoa" hiruko horrek, besteen begirada horrek, bestelako pisua eta balioa dutela gizonengan eta emakumeengan. Elkarrizketatu ditugun gizonetatik bakar batek ere ez du esan presionatuta sentitu denik besteari eman behar izateko ideia horregatik.

Bistan denez, horrekin guztiarekin ez gara esaten ari ardura eta besteen zaintza mundua hobetzen duten jarrerak eta *habitus* bertutetsuak ez direnik. Behar-beharrezkoak dira eta haien gizarteratzea funtsezkoa da berrikuntza demokratiko feminista bat lortuko bada. Baina argi utzi nahi dugu arau horiek kaltegarriak direla inoren proiektua mugatzen dutenean, bai arauak betetzea talde sozial bakar baten esku uzten direlako (emakumeen esku) bai beste talde sozial baten esku uzten ez direlako (gizonen esku).

Diskrezioa

Gure ustez hemen gorputzaren eta ahotsaren isiltasunari egindako deia da diskrezioa. Kontua da, Adrienne Rich-ek zioen bezala, "mundu honetan, zeinetan hizkuntzak eta izenak boterea esan nahi duten, zapalkuntza eta indarkeria da isiltasuna (Rich, 1983: 241, Lozanok aipatua, 1995: 132).

Interesgarria bezain luzea litzateke, hona ekartzeko luzeegia aukeran, ibilbide bat emakume diskretuaren irudiaren pentsamolde politiko klasiko eta modernoan barrena. Hala eta guztiz ere, genero arau horren genealogia denboran noraino iristen den azaltzen diguten adibide garbi batzuk laburbilduko ditugu. Aristoteles-ek zioen “emakume batentzat isiltasuna bada harribitxia” (Aristoteles, *Politica*. Carlos García Gualen itzulpena, 1981: 72). Pentsalari grekoa ez zen soilik ideia horretan geratu. Geroago, Julie ou la Nouvelle Héloïse obran honenbestez deskribatzen du Julie “emakume apala eta langilea: <<apaltasuna eta bertutea ditut maiteenak>> dio zalantzarik gabe Rousseau-ren heroinak” (Molina, 1994: 122). Urrutirago iristen da genevatarra honako hau esaten duenean:

“las impetuosidades deben de ser aplacadas puesto que son la causa de muchos vicios propios de las mujeres (...) No debéis consentir que no conozcan el freno durante un solo instante de su vida. Acostumbradas a que se vean interrumpidas en sus juegos y a que se las llame para otras ocupaciones sin que murmuren” (Rousseau, *Emile*, p. 248, en Petit, 1994: 125).

Stuart Mill-ek ere honako hau idatzi zuen: “emakumeei kezkarik gabe eman emakumeen heziketa, saia zaitezte beren sexuari dagozkion zereginak maite ditzaten, izan daitezela apalak, beren etxea zaintzen eta gobernatzen jakin dezatela” (Mill, 1977: 239, Petit-ek aipatua, 1994: 125). Pentsamolde patriarkalari datxekion araua da diskrezio femeninoa.

Era berean, diskrezioa da, geuk ikusten dugun bezala, darabilgun interpretazio ereduan planteatutako hiru kontraesanek bat egiteko moduaren adibiderik garbiena: etxekotasunari, mundu intimo eta emozionalari, egiten zaion deia da, eta batik bat emakumeenganako agindu “neutro” gisa ageri ohi da, mendekotasuna ezkutatz (zenbaitetan agerikoa bada ere).

Diskrezioaren aplikazioaren kasu berri samarra aurkitzen dugu Turkian Emakumeak mendean edukitzeko Estatuaren arau gisa; 2014ko ekainean honako hau esan zuen Bulent Arinc Lehen Ministrordeak: “balio moralak zaintze aldera, emakumeek ez lukete jendaurrean ozenki barre egin beharko”⁶⁸, baina emakume turkiar askok eta askok beren argazkiak zintzilikatu zituzten sare sozialetan eta beste bitarteko batzuetan algaraka ari zirela.

Inori ohartaraztea esan nahi du ezin arreta erakar dezakeela (esate baterako barrearen bidez, ahotsaren tonu zoliaren erabileraren bidez edo argudio sendoen erabileraren bidez) esateak.

⁶⁸ <http://www.abc.net.au/news/2014-07-31/women-in-turkey-defy-call-not-to-laugh-in-public/5637742>, Bulent Arinc-en esaldi hau azpimarratu nahi dugu artikulu horretatik: "The woman should have chastity ... she should not laugh in front of everyone and not be inviting in her behaviour. She should protect her honour" [2015eko otsailak 18].

Ohartarazpen hori da, Rousseau-ren Sofia bezalakoa izate hori, gurekin egoteko aukera izan duten emakumeek karga gisa identifikatu dutena. Agerpen bidezko espazio batean parte hartzen duen 30 urteko emakume baten (ez du KSF bat osatzen) ondoko pasarte honetan argi eta garbi hautematen da kanpotik iristen den ohartarazpena, honela baitzioen eztabaida taldeetako batean; "horren ondoren nire partaidetza bileretan ere asko jaitsi zen, izan zen, como una inseguridad que probablemente ya está ahí, pero con estas cosas como que reaparece":

"se me acusa de querer llamar la atención, de ser una trepa, de no sé qué...y eso a mí me... a raíz de una confrontación más personal con otro compañero del equipo que de repente dio un puñetazo en mi mesa cuando pues yo le digo que no ha hecho las cosas como yo creía que debería haber hecho. Y entonces yo hay me hago muy pequeñita, y empiezo a preguntar a mis amigas; yo cuando participo en las reuniones, cuando estoy hablando y tal, ¿tú crees que doy esta imagen?. Yo sabía que no era así, pero claro, la imagen que das tu no la controlas, entonces te crean ciertas inseguridades. No no no no, para nada, todo el mundo me dice lo mismo. (...) ya no te apetece ser la protagonista muchas veces. Eso sí lo veo eee, e incluso a veces, yo soy muy lanzada por inercia, pero quizás por eso, porque nunca...claro, ahí viene la mochila que tengo yo. La mochila que tengo yo es de rebelde sin causa, o con causa. Entonces cuando entro en un sitio, en una asamblea, aunque no conozca a las personas, pues yo creo que si voy ahí es para hablar, para participar, para intentar aportar. Entonces nunca me había callado hasta ese momento, y durante ese momento pues sí que me corte un poquito ¿no?, y sí que creo un poso en mí. (...) Intento, sí que intento no llamar la atención, pero al mismo tiempo esta esa otra inercia"

Pentsamolde patriarkalean ageri diren binomioak azaltzeko moduari bagagozkio, emakume horren kontakizunean zentzu betea hartzen du "kontraesan" hitzak eta ez "tentsio" edo antzeko hitzek.

Beste esperientzia batzuetan argi eta garbi azaleratzen dira pertsonaren duintasunaren aurkako erasoak. Hurrengo pasartea Rosa Cobo-k (2011) aipatzen dituen "erreakzio patriarkalen" adibideetako bat da. Diskretua izan beharrean eta espazio intimoaz arduratu beharrean emakumeak muturra "kontu guztietan" (publikoan) sartu izanak eragindakoak dira aipatu erreakzioak. BD bitartekoaren baitan zuzendaritza kargua betetzen duen 40 urteko emakume honek dio bitartekoan parte hartzen duten pertsona askok eta askok ez dutela begi onez ikusten emakume bat izatea ordura arte gizonak bideratutako zereginak beteko dituen:

"[quienes participan en el espacio de ID] Creen que me quiero meter en todo. Y yo no es que me quiera meter en todo, pero si es que esa es la legalidad y hasta ahora no lo han hecho así, ¿por qué yo voy a tener que

⁶⁹ Rosa Cobo-ren ustez "aro modernoan ezarritako ordena patriarkalaren krisi kulturala gertatu da, eta krisi horrek eraldatu egin ditu kontratu sexualak oinarri hartutako baldintzak" (Cobo, 2011: 153). Egilearen arabera, emakumeen aurkako erreakzio patriarkalak eragin ditu horrek, eta emakumeen aurrean gizonak duten botere (pribilegio) galtzeari aurre egitea dute helburu.

esconderme? Vale que me toca ser X, me gustaría no tener que ser yo, me gustaría mirarlo de fuera, pero ¿es que tiene que ser así! Es que si tiene que ir una mujer a leer lo del jurado o lo que sea, ¿por qué no lo va a leer ella? ¿Lo tiene que leer el hombre de casa? Es la tradición, yo lo achaco a la tradición, y a que están anclados en el siglo XX y no... Pero el otro día, cuando nos llamaron putas y demás... yo le dije a M: "tú estate tranquila, yo sé con quién me acuesto todos los días y tú también, ¿pues ya está! Que se piensen lo que tienen alrededor ellos. Los que tienen un fallo técnico son ellos por llamarme eso, no yo". Pero sí...Al final, el qué dirán condiciona..." (Mujer, no CPSF, Invitación, 40 años).

Diskrezioaren inposizio hori ez dago bideratua soilik emakumeek posizio publikoak okupatu ez ditzaten edo modu "diskretuan" eztabaidatu beharreko gai intimoei heldu ez diezaieten. Haratago egiten du, eta ongi asko hautematen da gorputza munduaren aurrean erabiltzeko moduan. Ideia hori ezin hobe islatzen da burura eramandako eztabaida taldeetako batean (KSF, Eztabaida talde pilotua) emakume gazte batzuek izandako elkarrizketa honetan:

**También yo he notado mucho la ocupación física del espacio. Un tío se... ¿Sabes? Se sienta así. Y para la discreción, la tía lo interioriza y intenta ocupar cuanto menos espacio posible mejor, ¿no? Que eso se ve en todo, en el metro, en... pero en asambleas también. Yo me acuerdo de estar sentada en una asamblea y estar sentada así normal y tenía un tío aquí, un tío aquí, no exagero, eh, en plan, así, pero así, ¿sabes? Tenía uno aquí, y uno aquí.*

*** El tema de cuando un chico llega tarde no le importa entrar por la puerta para dentro y sentarse y adecuarse y no sé qué. Y yo si llego tarde me quedo en la puerta, me quedo mirando...*

**** Busco un hueco...*

*** Me lo pienso... Y ya, cuando me siento segura, entro. Y ya, al rato, participo. Es como... Llegar tarde no, mal, nunca.*

**** Es como que necesitamos ese periodo de adaptación, ¿no? De llegar, de conocer el sitio, verlo un poco de fuera*

Barneratutako diskrezio horrek eragiten du emakumeari, berea sentitzen ez duen espazio batean sartzen denean, arau bat urratzen duenean ("ez dagokionean" ozenki barre egin duelako, oratoria bikaina duelako, zaintzak politizatzeko deia egiten duelako), aurpegia "gorritzea", "tripako mina jartzea", "eskuak dardarka hastea". Arau bat urratu izanaren gorputz adierazpena da gorri jartzea, tripako mina edo dardara. Emakume gazte askok (KSF izan ala ez) adierazi dituzte "sintoma fisiko" zehatz horiek espazio publikoan egoteko unean eta hitz egiteko garaian. Era berean, emakume askok aipatu dute beldur eszenikoa, beldur hori soinean dutela eta aurre egiten saiatzen direla parte hartzen dute. Emakume askok aipatu duten jendaurrean hitz egiteko beldurra edo lotsa diskrezioa bezalako genero arauari eusteko eta modu horretan generoa eraikitzen jarraitu ahal izateko bitarteko sozial barneratu bat da gure iritziz, eta beraz kontrolerako bitarteko bat.

Enpatia

Etxeko espazioan emakumeak batez ere zaintzeko sortuak izan dira. Cristina Molina Petit-ek gogora ekartzen digu Rousseau-k azpimarratu egiten zuela “emakumeak une oro izan behar dituela berezko sentimenduak ardatz, familiaren esparruan bere sendiaren ongizatea bermatzeko, baina sekula ere ez interes orokorreko kontuak, horiek herritarren eskumenekoak baitira” (1994: 80); horrenbestez eraiki dira pentsamolde liberalean zaintzara bideratutako subjektibotasun femeninoa eta zaindua izatera bideratutako subjektibotasun maskulinoa. Eta emakumeen kontakizunei erreparatuz gero, horrek emakumeen parte hartzea baldintzatzen duela esan behar digu.

Enpatia, beste pertsonen lekuan jartzeko gaitasuna, ezinbestekoa da kalitatezko harreman soziala edukitzeko. Enpatia ezinbestekoa da ongi bizi ahal izateko. Hala eta guztiz ere, enpatizatzeak eskatzen duen ahaleginaren kudeaketaz arduratzeko betebeharra gizarte talde baten (emakumeak) esku uzteak beste talde bat inplikatu gabe, emakume asko gaizki bizitzera (gatibutasun egoeran, zapalduta) eramaten du.

Arau horrek gorputzean eragiten duen ondorio bat izan zuen hizpide emakume batek: nekea. Haren ustez “emakumeok askoz ere energia gehiago galtzen dugu egunaren joanean, asteen joanean, hilabeteen joanean, gizonek baino askoz ere faktore gehiago hartzen baititugu kontuan besteekiko.” (Emakumea, ez KSF, agerpen bidezkoa, 30 urte). Elkarriketetan zehar emakume askok aipatu duten neke horrek gure ustez ahuldu egiten ditu gorputza eta gogo, zapuztu egiten ditu parte hartzeko proiektuak, zergatik ongi jakin gabe proiektuak abandonatzera eraman ditu emakume asko, “nekatuta daudela” argudiatuz, eta beren gorputzek adierazten dieten zentzu sozialari entzungor eginez.

Ahulezia

“Ahulezia femeninoaren” alderdi korporalari helduko diogu gure ustez hortik abiatu arau horren elementu ez hain korporalak identifikatu ahal izango dugulako⁷⁰.

BD espazio bitan gertatutako bi pasarteren bidez helduko diogu gaiari. Bi emakumek kontatuak dira, horietako bat KSF (bestea ez), 30 eta 50 urte bitartekoak biak. Modu batean

⁷⁰ Betiere da interesgarria klasikoek kontu hauen inguruan adierazitakoak irakurtzea. Rousseau-k, zehazki, honako hau esaten zuen ahuleziari buruz: “(...) une des merveilles de la nature il s’agit d’avoir pu faire deux êtres si semblables en les constituant si différemment (...). Une femme parfaite et un homme parfaite ne doivent pas plus se ressembler d’esprit que de visage, et la perfection n’est pas susceptible de plus et de moins (...) De cette diversité naît la première différence assignable entre les rapports moraux de l’un et de l’autre. L’un doit être actif et fort, l’autre passif et faible : il faut nécessairement que l’un veuille et puisse, il suffit que l’autre résiste peu” (Rousseau, ed. 2009: 516)

edo bestean, helburua emakumeen gorputzetan “xedapen iraunkor” gisa txertatzea duen “emakume ahularen” irudiari egiten zaio erreferentzia (Bourdieu, 1998: 81).

Pierre Bourdieu-k azaleratzen zuen kontu bat gogorarazten dute bi pasarteek: emakumearen proiektzio ahularen bidez “horrekin ezin dut” (“I’cant”) ideia barneratzearen arriskua.

Bourdieu-k J. Morris-en hitzak ekarri zituen bere *Menderatze maskulino* obrara “emakumeen artean hain modu jarraituan eta goiztiarrean ezarritako *emakume ahularen irudia nagusia den* Pigmalion efektu negatibo alderantzikatuz” hitz egiteko:

“Cuanto más me trataban como mujer, en más mujer me convertía. Me adaptaba de grado o a la fuerza. Si me supusieran incapaz de retroceder unos escalones o de abrir unas botellas, sentiría, extrañamente, que me estaba volviendo incompetente. Si alguien pensaba que una maleta era demasiado pesada para mí, inexplicablemente, también yo lo consideraría así” (en Bourdieu, 81)

Erreferentzia horrek bat egiten du emakume ahul baten irudiaren gainean eraikiriko “ezin dut” ideia gugan proiektatzeko aukerarekin, ageriko izaera fisikoko jarduera askotan, erabakiak hartzen diren eta ezbairik gabe boterea aplikatzen den jardueretan, emakumeen parte hartzea mugatuz. Hurrengo pasarte hauek berrikuntza demokratikoko bi espaziotan aipagai izan ditugun ideia horiek dakarzkigute. Hona hemen batek esan ziguna:

“O sea, sí las ves y entonces sí que surgen cosas, a esos niveles quiero decir eh, yo no me he encontrado con una negativa o... o...o ¿cómo se dice?, o quitar valor a ..., un día subí al local e iban a traer un pedido de bueno unas linternitas con la serigrafía de [nombre del dispositivo] y era una caja así, bueno, la metió un chico con la carretilla y la dejó en el suelo, y..., casualmente bueno en el local también estaba eh... un chico de [nombre de ID] que es de infraestructura y los de infraestructura..., pues son bueno, a ver <<Esto va allí, y hay que ponerlo aquí, y la electricidad>>, bueno pues son así ¿no? entonces él bueno, vio la caja gigantes y se le ocurrió, pues bueno, pues vamos a guardar estas dos mil cuatrocientas linternitas en..., en cajas pequeñas porque si no, en el almacén esta caja grande no nos va a entrar, pues., bueno yo soy una persona que si a mí me dices..., o sea, yo por ejemplo no tengo..., no me da..., o sea, no tengo reparo en que..., en que un tío me diga qué tengo que hacer, incluso cómo tengo que hacerlo si yo parto de..., de que..., bueno de que soy consciente de que... no sé hacer una cosa, o sea, o sea, no voy a ser tan orgullosa de... de no preguntar y eso, o sea, ahí no., o sea, no soy orgullosa vaya, pero la circunstancia con este chico fue que yo cogí una cajita de esas y... <<¿ya puedes?>>, y yo joder pues es que si no puedo con esto no puedo con nada, o sea, ¿tú le preguntarías a tu madre si puede con las bolsas de la compra?, que en muchas ocasiones llevará más de... de quince kilos entre las dos manos, o sea..., pues esas cositas ¿no?, o sea que es buena gente, a ver si me explico, pero que..., esos tics de..., y luego bueno, hay unas estanterías así, bastante altas y sólo había sitio arriba del todo, entonces se puso ahí a escalar..., y yo ahí pues..., toma que..., o sea, a mí esas cosas no me sientan mal pero las veo” (Mujer, CPSF, Irruptivo, 36 años)

Si está alguno más mayor dentro de la vereda te puede decir: “¡no cojas mujer! Que no puedes...”, pero bueno. A veces le digo: “¡joye!”- “no, si te lo digo para que no te fastidies...”- Pero no lo dicen en plan malo (Mujer, No CPSF, invitación, 55 años)

Emakume biongan proiektatzen da ahuleziaren ideia euren gorputzak horri buruz mintzo direlako. Jendetasun maskulinoak mugatu egiten du emakumeen sormena/egiteko aukera. Kasu horretan ikusten dugu nola KSF batosatzen duen emakumeak ikuspegi kritikoa duen generoaren eraikuntzaren esparruan arazo den gertaeraren aurrean. KSF batosatzen ez duen emakumeak erantzun erantzuten du (“joye!”), baina ez du generoaren zapalkuntzaren alorreko arazorik ikusten.

Koherentzia

Orain arte adierazitako arauetan gizonen esperientziarik ez dago, arau horietako bakar bat ere ez delako oztopo edo antzeko zerbait gizonen kontakizunetan. Gizonen esperientzien azterketatik, baina, elkarrizketatutako gizon bakoitza eta guztiak ukitzen dituen arau bat ondorioztatu ahal izan da: koherentzia.

Lehendik esan dugu generoa den “asmakuntza sozialak” zentzua hartzen duela sistema heretopatriarkala, klasista, ekonomiaren alorrean liberala, arrazista eta sexistari eusteko baldin bada, lanen, rolen eta jarriaren osagarritasunaren ideari eusteko bidea ematen baitu. Emakume ahula edo emana gizon koherente *batentzat* eraikitzen dela azpimarratuko dugu hemen. Emakume emanak hala behar du gizona koherentea izango bada.

Puntu honetan Almudena Hernando-ren lan interesgarria itzuliko gara. Egilearen arabera, emozioen eta zaintzen esparruan emakumeek historikoki izan duten espezializazioak ahalbidetu du gizonen indibidualizazio prozesua emakumeenaren kaltetan (Hernando, 2012). Hernando-ren planteamenduaren hariari tiraka, esan dezagun arrazoiaren eta ekintzaren arteko adiskidetzaren adierazpen zehatza dela koherentziaren araua. Koherentzia latza da eta sarritan (beti ez esatearren) ezinezkoa. Baina bide hori samurragoa izan dadin ezinbestekoa da bihotza altxatzen duen beste “bazterra” (emakume ahula eta emana) egotea.

Baina bere printzipioen aurrean leial eta modu koherentean jarduten duen gizonak beste gizon askoren parte hartzearen kalitatea hondatzen du. Honela zioen bere parte hartzearekiko konpromiso sendoari egozten zizkion hainbat hernia jasandako gizon batek:

Nik nire buruarekin kontsekuentea naiz, eta nik ez diot beste inori kalterik egingo. Orduan “Asumitzen” nuen. “Asumitzen” nuen, “asumitzen” nuen dena. “Asumitzen” nuen zigor penala, “asumitzen” nuen

zigor ekonomikoa, ``asumitzen`` nuen dena, zergatik niretzat garrantziagoa zen nire koherentzia mantentzea (...).Ni ``ernia diskala`` daukat, klaro atzake ... zuk gorputzari exijitzen diozu eta gorputzak ezin du askotan. Nik izan nuen 2009.urtean ahots kordan paralisi bat, ``ernia diskala`` daukat. Orduan, nik ere pasio hori erregulatu beharra daukat eta sintonizatu gorputzarekin. (Hombre, No CPSF, irrupción, 40 años)

Beste gizon gazte batek zioen nahigabetuta zegoela ezin ziolako bere hitzen eta ekintzen arteko koherentziari eutsi. Erruaren sentsazio bat hautematen dugu guk (berak ez du horrelakorik adierazten), haren burua zigortzeko modua, eta gure aburuz kalte egiten dio parte hartzeko duen ilusioari:

“Hemos mamado de cosas construidas ¿no? Acerca de... por ejemplo, al, a la hora de tomar una decisión sobre un estilo de vida, eso no porque al final al, al tener una ideología eso marca mucho tu estilo de vida ¿no? Quieres ser, eh, por lo menos a mi, me, es muy importante el tema de, de vivir como pienso ¿no? Y... pero sí que, si que te, eh, te genera muchos miedos. Por ejemplo, yo una, uno de los pesos que tengo es, no haber sido capaz de dejar de trabajar; yo empecé con dieciséis años a trabajar y sigo trabajando y... tengo un gran discurso contra el trabajo asalariado, pero no he sido capaz de dejar de trabajar. Eso fuer, eso a mi me pesa mucho. El, no sé, sobre todo ciertas comodidades que, que tenemos en, ciertas comodidades que tenemos, eh, yo qué sé, pues que nos hace sentir una falsa seguridad ¿no? Pues como el dinero, la vivienda, no sé, el estado de bienestar este que llamamos ¿no? Tienes, aunque, aunque tengamos un discurso, eh, contrario, o bueno yo por lo menos lo tengo, eh, si que tengo miedo a, a perderlo. Y eso me dificulta mucho, eh, la participación. Yo creo que es un, el mayor, el mayor obstáculo que, que tengo: Los miedos (...) , a mi me encantaría dedicarle más tiempo, lo que pasa que, claro, lo que te he dicho, yo soy as, he sido incapaz de dejar de trabajar porque, no sé, esa seguridad que te da el trabajar o falsa seguridad que te da trabajar que, que esto, de hecho, bueno de hecho estuve tres meses sin trabajar, tres o cuatro meses porque me fui a Perú, también a un proyecto, y incluso, echaba de menos mi trabajo. Y, y cuando estoy aquí digo “¿qué hostias hago aquí?” O sea no tiene ningún sentido, o sea, no, no puedo, no puedo darle sentido ideológicamente no puedo dar sentido a mi trabajo, para nada, entonces, eh, por qué... eso ¿no? Son cosas que tienes, que tenemos dentro, construidas y que, y que no, y que es imposible, o sea, el luchar contra ellas. (Hombre, no CPSF, irrupción, 29).

Gizaki orok landu eta beren portaeren bidez azal ditzakeen nolakotasunak dira emana, diskrezioa, enpatia, ahulezia eta koherentzia. Gainera, segur asko denak dira ezinbestekoak berrikuntza demokratiko feminista baten proiekturako. Denak, bai, baina gizarteratuta. Generoen beharra duen askotariko menderatzeen sisteman funtsezko euskarri dira bitarikoak: Gizon koherente arrazionala publikoan vs. Emakume ahul emozionala pribatuan. Eta hori parte hartzean ez ezik bizitzaren antolamendu orokorrean ere gertatzen da. Bitariko erregimenari eusten ahal zaio soilik gorputzen gaineko kanpo eta barne (kanpotik barneratua) presioa eragiten bada “diskrezio femeninoa” berezkotzat den zerbait bezala hartua izan dadin.

BDak bezalako bitarteko demokratizatzaileetan oraindik eztabaidagai dira genero arauak, eta garrantzitsuak dira eskubideen eta aukeren berdintasunari buruzko hitzaldi politikoki

zuzenak (eta beharrezkoak) eraldatu egin duelako emakumeen parte hartzeko proiektuak mugatzeko xedean joera patriarkalak baliatzen duen forma.

Hala eta guztiz ere, emakumeen biktimizazioak haien emantzipazioari jartzen dizkion eragozpenak agerian uzten dituzten feminista askok eta askok gogorarazten duten bezala, emakumeen historiak ia beti dira erresistentziari buruzko historiak, eredu gisa adierazteko eta baliatzeko prest dauden estrategia sortzaileez beteak. Segur asko estrategia horietako askotan aurkituko ditugu aurrera egiteko bideak menderatze maskulinoaren sexu-generoko sistema eta gizarte maila apaleko emakume beltz eta gainera lesbianen bizimodua okertzen saiatzen diren beste zapalkuntza sistemak arian-arian desaktibatzeke zeregin honetan.

Parte hartzeko proiektuak burura eramateko estrategiak

Estrategiak dira emakumeei oro har beren bizitzako helburuak burura eramatea eta bereziki parte hartzeko proiektuetan parte hartzea ahalbidetzen dieten ekintza guztiak, hausnartuak izan edo barneratuak (batzuetan “hori egiteko gogoak dut” bezala azaldu ditugunak). Hemen adierazitako estrategia guztiek dute helburu kapitulu honen lehenengo atalean azaldutako erasoei aurre egitea. Estrategiak egoteak berak adierazten digu badaudela zapalkuntza arian-arian ezerezean uzteko aukerak, eta gainera egun egintza bat dela hori.

Guk baino askoz ere lehenago, beste ekintzaile feminista batzuek landu dituzte geure bizitza osasungarriagoa izateko eta geure desirak egingarriago izateko emakumeok erabili ditzakegun estrategiak. Besteak beste, “soberakinaren kudeaketa”, beste emakumeen bizi esperientzien balorazioa (Del Valle, 2008: 164), “emakumeen eta emakumeen taldeen artean estrategiak eta aliantzak ehutearen” garrantzia (Euskal Herriko IV Jardunaldi Feministak)⁷¹, “sororitatea” (Lagarde) eta konfiantza edo segurtasun sareen garrantzia (Pare, hautsi ditzagun kateak Talde Feminista) aipatu da horietan. Ez da gure helburua hemen ezin konta ahala estrategia sortzaile eskaintzen dizkiguten lanak, aldizkariak, e-mailak, sare sozialetako taulak eta beste azaltzea. Besteren bat gehitu nahi dugu guk (eta beste batzuk errepikatu), eta lan honetan orain arte erabili dugun interpretazio ereduaren arabera antolatzeke forma bat proposatuko dugu.

Oso itxaropentsua eta pozgarria da ikerlan honetan parte hartutako 42 emakumeen kontakizunetan adierazitako estrategia guztiek merezi duten denbora eta espazioa edukitzeko orriak, egunak eta orduak falta zaizkigula egiaztatzea. Aurreko orrietan eman

⁷¹ Eskerrak ematen dizkiogu Tania Martínez Portugalí Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministetako txostenak eta hausnarketak biltzen dituen material baliotsu hau helarazteagatik.

ditugu estrategia horietako batzuen berri. Orain arte aipatu ez ditugun beste estrategia batzuetara mugatuko gara orain.

Ikerlan hau ahalbidetu duten 42 emakumeen biografiak entzun eta irakurrita ondorioztatzen den lehenengo gauza da erresistentzia abian dela, ez dela teoria bat, eta milaka emakume direla egunero-egunero erresistentzia praktikatzen dutenak. Guk hainbat estrategia identifikatu ahal izan ditugu, gutxi gorabehera esplizituak edo/eta barneratuak, baina denak baliatzen dituzte emakumeek beren parte hartzeko proiektu orokorretan eta bereziki BD esperientzien esparruan. Emakumeen bizitzako une ezberdinei egiten diete erreferentzia estrategiek, eta ez soilik BDen testuinguruei. Emakume askok ez diote esplizituki parte hartzeko proiektu bati egiten erreferentzia, baizik eta bizi proiektu orokorrari.

Estrategiak askotarikoak direla ikusirik, haiek sistematizatzeko forma bat erabiltzeko erabakia hartu genuen. Kapitulu honen hasieran azaldu bezala, bi elementu hartzen ditu aintzat forma horrek: genero arauetikiko harremana eta arau horiek betearazten dituen agentearen forma. Honenbestez, genero arauak birsortzen dituzten estrategia borondatezkoak/indibidualak⁷² eta genero arauekin hausten saiatzen diren estrategia indibidualak bereiz ditzakegu. Era berean, taldean garatzen diren estrategiak identifikatzen ditugu, eta aurrekoek bezala, arauak birsortzen edo hausten dituzte horiek. Estrategia horiek banatu daitezkeen lau espazio aurkezten baditugu ere, bada emakumeek esperimentatu ez duten bat (arauak birsortzen dituzten taldeko estrategiak).

Gainera estrategia estatikoak ez direla argitu nahi dugu. Elkarren osagarri direla; hau da, egun berean, bilera berean eta elkarren segidan egindako bi keinutan badagoela genero arauak birsortzen eta hausten dituzten estrategiak baliatzea. Gainera, emakume askok esan diguten bezala, norberaren beharrianetara egokitze prozesuan daude une oro estrategia horiek, eta beraz, ezin esan dezakegu estrategia horiek estatikoak direnik. Guk uste dugu testigantza hauek agerian uzten dutela kontu hori:

“Pues he pasado por muchas... por muchas etapas. Por plantearme el... el dejarlo, el dejar de participar, no dejar... obviamente yo quiero seguir... bueno, participando (...) he intentado hablarlo... de peor y mejor manera, pues ha pasado algunas veces enfadada, otras veces muy triste... Vamos, llorando mucho, en grupo. No solo yo, sino otras (...), pues desahogarme con... con mis... afines. Y darme cuenta de que también no es el único espacio de participación que puedo tener” (Mujer, CPSF, Irrupción, 29 años)

⁷² Hitz biak erabiltzen ditugu estrategia batetik abiatzen diren eta, munduarekin lotuta dauden arren, motibazio indibidual batetik abiatzen diren estrategiak izendatzeko. Kasu askotan zaila da jakiten ekintza indibidual hori taldeko (bi pertsonak baino gehiagok osatua) jarduera baten aurrekoa den ala ez, eta muga lausoa marrazteko arriskua hartzen dugu, baina azalpenerako balio izatea espero dugu.

“Es fundamental, eh. Como... en qué entorno te sientes tú como para callarte o para responder, porque todos los espacios no son iguales de, de seguros. A lo mejor no es objetivo, pero por lo menos tu sensación de seguridad influye a la hora de llevar una estrategia

***Nik uste dut oso ... niri behintzat, nire esperientzia pertsonala izan dela oso mailakatua, eta joan naizela pausoko pausoka hor gauzak egiten. (...) Baina bueno, bai ematen direla ... nik uste dut, “como” pausoka, igual pixka bat altuago hitzegiten hastea, gero ... ez dakit.*

****Aquí igual realmente el peligro sería si fuera una actitud que se cronifica en ti de alguna manera. Pero el punto de vista que ha dado ella por ejemplo, sí que ... bueno pues para empezar sí que podría ser más un trampolín, te puede ayudar, es una estrategia (hablar bajo). Pero el peligro sería que eso se cronificara en ti. También son etapas ¿no? Y hay que pasar un poco por ciertos ciclos cada una la suya, no es que todas tengamos que hacer el mismo recorrido ¿no?” (Grupo de discusión CPSF)*

Azkenik, aurrekoak bezain garrantzitsua den beste kontu bat azpimarratu nahi dugu hemen. Emakumeek gizartean hartzen duten lekuak ere eragina du estrategia horietan. Jarraian publiko handiaren irismenean dauden estrategia inklusiboak aipatuko ditugun arren, badira kapital sinboliko eta ekonomia kapital handia edukitzeko aukerarekin oso lotura estua duten beste estrategia batzuk (idazteko, argitaratzeko edo denbora erosteko ekintzekin zerikusia dutenak). María Antonia García León-ek “elite diskriminatuak” esaten die halakoak erabiltzen dituztenei, eta eraginkorrak badira ere, ez dira publiko zabalago baten eskura dauden besteak bezain inklusiboak.

Norberaren boluntarismoan oinarritutako estrategiak, genero arauak birsortzen dituztenak

Norberarengandik abiarazten diren estrategia horiek, nahi gabe genero arauak birsortzen dituztenak, batik bat kontrapubliko subalterno feminista bat osatzen ez duten emakumeek eta egun KSF bat osatzen dutenek baina halako bat osatu baino lehen estrategia horiek baliatu zituzten emakumeek erabili izan dituzte.

Naturalizatutako estrategiak dira, emakumeek baliatuak, eta haiengandik espero den irudia eskainita (diskretua, enpatiarekin, ahula eta emana) beren helburua lortzen saiatzen dira: parte hartzen edo gizartean onartua izatea lortzen.

“Txiki egitearena” litzateke erabilitako lehenengo estrategia; hau da, ahalik eta diskretuena izatea BD espazio horietan bere presentzia onartua izan dadin eta ez dadin mehatxu gisa hauteman. Gizon batek emakume bati parte hartzeko esparruan espazio handiegia hatzen zuela iritzita ohartarazi ondoren, emakumeak bere parte hartzea murrizteko eta emakume lagun talde batekin besteen arabera proiektatzen duen irudia kontrastatzeko erabakia hartu zuen. Bere lagunekin hitz egin eta beraren irudia positiboki sendotu zioten arren, antza pisu handiagoa du gizonaren hasierako iritziak, nabarmenegi jarduten duela dihonean:

Y entonces yo hay me hago muy pequeñita, y empiezo a preguntar a mis amigas; yo cuando participo en las reuniones, cuando estoy hablando y tal, ¿tú crees que doy esta imagen? (de trepa y demasiado visible). Yo sabía que no era así, pero claro, la imagen que das tu no la controlas, entonces te crean ciertas inseguridades. No no no no, para nada, todo el mundo me dice lo mismo. (...) Entonces ahí llega el punto en el que presentamos unas jornadas en colaboración con [nombre de una institución], y esas jornadas las había organizado yo, pero por evitar que se dijera nada ni siquiera me atrevo a presentarlas, o sea que las presenta otra persona. O sea yo no quiero dar pie a que se dijera absolutamente nada de eso, o a que se pueda pensar, dije, hazte más pequeñita, habla más bajito y vamos a intentar que las cosas fluyan” (Mujer, No CPSF, Irrupción, 30 años).

“Txikitze” estrategia hori –bileretan fisikoki espazio txikiagoa okupatzera iritsi daitekeena, atzeko ilaretan eserita, atetik hurbil nahi dutenean alde egiteko– erabili dute emakume batzuek, puntualki erabili ere, eta, euren esanetan, ia beti gogo egoera txarrean egon diren sasoietan, kanpotik laguntzarik gabe eta inguruak babestu gabe sentitu direnean. KSF batek euskarri gisa jarduten duen heinean, zentzuzkoa da KSF batosatzen duten emakumeek estrategia hori neurri txikiagoan erabili izana.

Emakume bitartekariaren eta liskar ez sortzailearen ideari lotutako bigarren estrategia, hein batean emakume diskretuaren irudira garamatzana, erasotzat hartutako elementuen aurrean “kontrolatzearena” da. Funtsean hizkuntzaren bidez bideratzen dira horiek:

“Pues eso es, me contengo, sí, porque reconozco que tengo ahí un miedo como de..., o sea, así como... en otras participaciones que he podido tener con chicos, eso no era un problema porque... eran personas que eran muy conscientes de la importancia del lenguaje me siento como que me contengo en, en... determinadas circunstancias, en esos momentos puntuales que tienen que ver sobre todo con el... lenguaje y tal, las bromas eh..., con las chicas es como que no..., me da rabia porque no les pillo el... el código ¿sabes? Cosas como <<Es que parecemos una casa de putas>> y eh... bueno, una temporada apuntaba las cosas que... que a mí me pitaban y eso, para que no se me olvide y pa ver cómo..., luego ya dije <<Bah, no, no... me voy a relajar>> pero tuve una temporada como que en poco tiempo como que varios comentarios acerca de las putas en diferentes formas ¿no?, y a mí eso es otras de las formas que bueno pues... pues igual no se puede ser también tan exigente o que hay que... entender también que en los parámetros en los que yo me muevo y en los que igual se mueven ellos ¡Puff!, están a kilómetros luz y tengo yo... tengo que ser un poco de flexibilidad ahí y tal ¿no?” (Mujer, CPSF, Irrupción, 38 años).

Emakume horren kasuan, bere buruari “tentsioa arintzea” du helburu bere aburuz mingarriak diren iruzkin batzuen aurrean kontrolatzeko eta entzungor egiteko estrategiak, kontrapubliko subalterno feminista izateak eragiten dion nekea gainetik kentzea bila du. Kasu horretan erabat jakitun da ez duela gustuko aditzen duena, baina jakin ere badaki aurkako giro horretan, feminista ez den giro horretan, “berriro ere kontu berarekin” bezalakoak esango dituztela, ezeroso sentituko dela eta azkenean espazioa abandonatzera eramango dutela.

“Bilerak erabat prestatuta eramatea” litzateke hirugarren estrategia. Huts egiteko beldurraren eta inguratzen dituen unibertsoaren gaineko kontrol faltsua edukitzeko beharrianaren aurrean, emakume askok erabiltzen dute estrategia bera: euren esku hartzeko eta ideiak antolatzeko eskema prestatzen dute alde aurretik. Pentsa liteke estrategia hori ez dagoela genero arauak birsortzeko logikaren baitan, KSF bat osatzen ez duten emakumeen artean eskemak egiteko eta parte hartu ahal izateko "norberaren gela" baten ondorio onuragarriak dituela helburu. Hala eta guztiz ere, estrategia horren erabilerak ez du beti helburu hori betetzen, horregatik azpimarratzen dugu hemen. Kasu batzuetan, zuzenean lotzen da huts egiteko beldurrarekin, besteen nahiak betetzeko beharrianarekin eta tronpatzeko ezintasunarekin hitzaldia aurrez prestatuta eramateko erabakia.

Azkenik, oso emakume gutxi batzuek erabiltzen duten eta eurek berek gaitzesten duten laugarren estrategia bat aipatuko dugu, "lortu nahi dituenak erdiesteko emakume babesgabearen irudia" ematean datzana. Soilik birritan aipatu da gisa horretako estrategien erabilera, bietan KSF bat osatzen ez duten emakumeek baliatuta. Eztabaida lehia biziko testuinguruetan baliatu ziren, eta emakumeen aburuz horietan pisu handia zuen kultura kapitalak usteak eta iritziak emateko garaian. Zehazki ondorengo emakume honek beretzat ere “kaltegarria” zen estrategia bat erabiltzeko edo ez erabiltzeko erabakitzeko garaian bizi izan zuen barne tentsioaren berri eman zigun:

“para mi fundamentales es mi relación con los hombres, con cierta clase de hombres...que, eh, hombres con cierta autoridad, intelectualidad, que me ponen... pues, que me generan mucha ansiedad, ¿no? Por mi historia personal, pues con la figura de mi padre o, pero bueno, al final eh, yo me siento mujer frente a un hombre que es como una especie de, es como, son como los grandes dinosaurios que hay en todas partes ¿no? En todos los colectivos, los catedráticos, ¿no? Que, no, porque, eh, “la historia es así, hace muchos años...” Es como; ¡uf!. Y a mi estos hombres me generan, por un lado mucho odio, me, me dan mucho ¡uf! Pero también me atraen mucho, me generan admiración, me atraen y como yo, como yo no he sabido, como mantenerme ahí horizontal con ellos porque, porque me mueven tanto, Pues yo siempre he intentado, eh, de nuevo, eh, generar como, como una especie de..., como una atracción, ¿no? Pues a partir de mi... no sé, mi juventud, el hecho de ser mujer, ¿no? Como intentar ganármelos como, como no era posible en una relación horizontal, o sea como con horizontalidad y como con mi seguridad y mis propios criterios y tal, como haciéndome un poco la niña pequeña o... o sea, cosas. Pero no me gusta. No, porque dices, o sea, ¡puf! eh, ¿yo cómo me lo estoy montando con esta persona? Que yo la quiero en plano de horizontalidad... que me dejaban muy mal sabor de boca la verdad” (Mujer, No CPSF, Irrupción, 29 años)

Kasu horretan, adinean oinarritutako menderatze sistema bat badela hautemanik (eskarmentuduna nagusitzen baita eskarmenturik ez duenaren aurrean), “irakaslearen menderatzea”, emakume gazte horrek estrategia batzuk baliatzen ditu, eta harreman hierarkiko bat ezarrita, emakume kalteberaren eta eskarmenturik gabearen irudia sendotzen

dute estrategia horiek, azaldu beharreko argudioetan ustezko konplexutasun unibertsalaren “maila emateko” presiotik askatzen baitute.

Norberaren boluntarismoan oinarritutako estrategiak, genero arauak hausten dituztenak

Zalantzarik gabe, bigarren kategoria honetan aurkitzen dugu lankide izan ditugun emakumeek baliatutako estrategia kopururik handiena. Batez ere KSF emakumeek erabili dituzten arren, KSF osatzen ez duten emakumeek ere horrelakoak baliatzeko eta beren estrategia disruptiboak (arau hausleak) bideratzeko joera dutela esan behar dugu.

Emakumez inguratzean eta haiekin ereduak edo erreferenteak bilatzeko eta beren parte hartzeari buruzko zalantzak argitzeko konfiantzazko sareak sortzean datza estrategia erabilienetako bat. Emakume eta kontraste eta erreferentziazko sare horietako batzuk, BD bitartekoren baitan edo/eta kanpoan antolatutako KSF bihurtu dira gerora. Beste batzuk ez dira formalki egituratu, eta batik bat unean uneko harremanetan oinarritu dira.

Emakumeen arteko hitzarmen mota horretan “sororitate” egintza batzuk aurkitzen ditugu, baita beste pertsonarengan haien parte hartzeko proiektuan lagun eta bitarteko izatea bila duten “*affidamento*”⁷³ kasu batzuk ere. Beste horren rola ezinbestekoa da, sarri askotan bizi izan duelako antzeko esperientziaren bat. Eta arazo ezberdinei eman dakizkien irtenbideen azalpenak zuzenean egiten du bat emakumeek behar dutenarekin.

Har dezagun aztergai sororitatea. Marcela Lagarde-ren hitzetan “gure garaiko feminismoaren dimentsio etikoa, politikoa eta praktikoa da. Emakumeen esperientzia da, beste emakumeekin harreman positiboak eta bat etortze existentzial eta politikoa aurrez aurre, subjektibotasunez subjektibotasun, bila dituen ekintza zehatzen bidez zapalkuntza molde guztiak gizartetik desagerrarazteko eta emakume guztien ahalduentze orokorra eta emakume bakoitzaren ezinbesteko ahalduentzea lortzeko elkarren arteko laguntza erdiesteko” (Lagarde, 2006: 126). Sororitatearen praktika horrek bestearekin enpatizatzea ekarri du zenbaitetan: bestea aurrez biziako zapalkuntza egoeran identifikatzea eta konfiantza sendotzen duten eta nagusiaren ereduaren alternatiba izan daitezkeen ereduak sorrarazten dituzten aliantza positiboaren bidez bitartekari gisa jardun nahi izatea. KSF bat

⁷³ *Affidamento femminile* hitzak erabiltzen dituzte Milanoko liburu-dendako ezberdintasun sexualaren alorreko emakume filosofoek. Gurera ekartzen zaila den kontzeptu italiar horrekin honako hau eman nahi dute aditzera: “emakumeenganako duen zeregin sinbolikoan ama birgaitzen duen praktika soziala. (...) bitartekaritza sexudunak ez baizik eta soilik balio unibertsalaz estaliriko bitartekaritza maskulinoak aurreikusten dituen gizartean bideratutako bitartekaritza sexudun femeninoaren forma da” (Milanoko Emakumeen Liburu-denda, 1991 Milanoko Emakumeen Liburu-denda, *Ez uste eskubideak dituzunik*. Arg. Horas y Horas, 1991;).

osatzen duen emakume gazte batek (27 urte) gisa honetan azaldu zuen beste emakume batzuk BD espaziora hurbilarazteko xedean baliatuko zuen jarrera:

“Yo qué sé, ver una persona que está... en el... en una presentación o en algún lado, que no sabemos ni quién es y la ves que está sola pues intentar... yo sí que pienso, joo, me voy a intentar acercar, ¡aunque me da un palo de la hostia! Pero bueno, yo qué sé, ha venido aquí pues, se tiene que sentir a gusto, ¿no? o sea... No conoce a nadie, yo también he sido nueva en sitios, ¿no? y siempre agradecerías que alguien se acercase a ti. quizá, mi táctica para no enfrentarme a la dura realidad que existía, es poco a poco, pues eso, con las chicas jóvenes que vienen, pues intentar arroparlas, o... porque sí que hay más chicos que chicas en [Nombre del espacio de ID] y también hay mucha división de tareas y... Si, y no... no mola, pero... Si, no sé. A mí me gusta, eh, o sea, me gusta y me da mucha rabia ir ahí y ver todo tíos en el andamio. Quizá es porque ha coincidido así, pero normalmente las cosas no pasan por casualidad. Es importante (...) cuidarse mucho las unas a las otras, cuando no nos conocemos y... y no sé, ha sido un proceso muy chulo, muy chulo.”

Kontuan izanik gizarte erakundeak egituratuta daudela emakumeen artean laguntzeko eta zaintzeko harremanen instituzionalizatze guztiak saihesteko moduan; ez da zuzena “kontu pribatuez” hitz egitea. Parte hartzeko beldurra izatea, hilekoak norberaren konfiantzan eragina izatea eta abar. Testuinguru horretan guk uste dugu harreman horiek erresistentzia egintza direla bete-betean, erabiltzen dituzten emakumeak ahalduntzen dituzten ekintzak direla alegia. Sororitate praktika horiek eten egiten dute emakumeek sarri askotan iritsi nahi duten perfekzioaren neurri unibertsal ustezkoa, eta, emakumeetako batek zioen bezala, oso lagungarriak dira norbera “ohartarazteko” zeinen garrantzitsua den lagundua izaten uztea.

“Y luego pues eso, el refuerzo y los apoyos, jjo, qué importante son los apoyos!. O sea cuando una persona insiste en que ella sola puede con el mundo, está dejando una cantidad de energía por el camino increíble. Y el aprender a aceptar la ayuda, en mi caso en esa mochila era necesario, y el aprender, bueno pues, pues eso que el aprender a aceptar ayuda y aceptar cariño y otras muchas cosas pues yo creo que me ha venido muy bien” (Mujer, No CPSF, Irrupción, 30 años).

Beste emakume batek agerian utzi zuen beste emakume feminista batekin harreman estuagoa izateko aukerak beregan izandako eragin onuragarria, kontrastatzeko ez ezik eredugarri ere izan zuelako:

“A una mujer en el [nombre del dispositivo de ID] me dijo que me tenía que ir a casa a cuidar de mis hijos y de la cocina, me lo dijo así, me dijo que ahí no pintaba nada y que les estábamos quitando el sitio a los hombres. Entonces, yo me marche súper dolida para casa, con lágrimas en los ojos. Entonces, no sé si conoces a [nombre de una activista feminista]; ella fue la que me apoyó totalmente en el sindicato y después ha sido muy amiga mía... El feminismo me lo metió ella en el cuerpo, no es que yo supiera nada de nada. Y le llamé a [nombre], y le dije que necesitaba hablar del tema con ella. Y me dijo: “te está defendiendo, ella se ve reflejada en ti y te quiere proteger de la que te viene encima. Y es verdad que te lo está diciendo de malas maneras, porque es la única forma en la que sabe decirlo, pero ella se está viendo en tu pellejo. Hace 40 años ella hubiera querido estar en tu pellejo y no ha podido porque la vida no le ha dejado. Y ahora te está haciendo eso pero no lo entiende como si te

estuviera puteando". Yo a [nombre de su referente] recurro a menudo para que me recolque" (Mujer, No CPSF, Invitación, 40 años).

Kontrasteak eta ereduak bilatzeko emakumeen arteko harreman horiek KSFek duten efektuaren antzekoa izan dezakete gure ustez, areago, KSFekin nahasi litezke sarri askotan, espazio horietan BD batean parte hartu bai baina BD horretan hizpide izaten ez diren eta kezkatzen dituzten gaiei buruz hitz egiteko beste bitarteko batera joaten direnak ere badirelako. Aldea da espazio horiek ez dutela KSFek duten berariazko elementu bat betetzen: ez dute lotura sistematikorik eta instituzionalizaturik publiko menderatzailearekin, hau da, harreman horietatik agenda ez formal bat sor litekeen arren, agenda hori ez da esparru publikora iristen, ez du esparru publikora jauzi egiten.

KSF bat osatzen duten emakume batzuek bideratutako ekintza zehatz batzuk azaldu dira BDen testuinguru zehatzean eta oro har parte hartzeko ekintza guztietan. Kontua da bileretan agerian uztea laguntzeko sare ez formal hori, beste emakume/lagun baten ideiak eta iruzkinak jendaurrean sostengatzeko keinuak eginik eta, emakume batek zioen moduan, haren lanari balioa emanik:

A ver, nere estrategia, eta lehen zuk esaten zenuena, askotan ez dagoela inon idatzita, baina... (...) nik beti bilatzen det gertutasunaren ibilbidea, esan nahi det. Eta...sencillo, humilde... hitz egitearen eta hurbiltzearen estrategia. Bai? Eh... Horrekin, askotan, gizonezkoen artean, talka handia dago. Gizonezkoengana jotzen dezunean talka handia dago. Eta talka handia dago, ez bakarrik hirian, herritarrekin, baita ere badagoela, baizik eta ere administrazioan ere bai (...) Gainera hemen administrazioan gizonezkoen perfila... edo, esan nahi det, tekniko lan, haiek esaten duten lan tekniko horiek, ematen du besteok egiten ditugula, ez dakit, lan... no sé, ez dakit zer-nolako lana egiten degun (...) Porque identifikatzen da, ez-profesionaltasun... o sea, profesional izango ez balitz bezela, esan nahi det. Eh... estrategia horiek... Esan nahi det, nik ez ditut banatzen gehiegi, edo ez ditut urruntzen nere bizitza pertsonalaren estrategiak eta nere bizitza profesionalaren estrategiak. Momenturen batean, dudak sortu zaizkit, baina erabaki nuen momentu batean ja,berdin zaitela besteak zer pentsatzen zuten. (...)Erabaki det nahi detela estrategia hori aurrera eramane, baina aldarrikatzen det ere estrategia profesional bada. Esan nahi det, estrategia pentsatu bat (...)nere estrategia hori, esan nahi det... Konfiantza bilatzen dezu, konfiantza sortu nahi dezula, nahi dezula besteari entzun gehiago zuk hitz egin baino, eh... nahi dezula bilatu bere diskurtsoan baloreen jarri daitezken gauzak... Holako estrategia bat, nahiko pentsatuta dagoena. Bueno, ez dago inon idatzita, baina, nahiko pentsatuta dagoela, eta aztertuta dagoela ere bai (...) ba, hori da nere estrategia, pixka bat, ezta? Konfiantza sortzearena, bilatzea, ba, hori, partekatzea elementu guztiak, baloreen jartzea besteek esaten dutena" (Mujer, No CPSF, Invitación, 48 años).

Geuk hautemandako bigarren estrategia batek era berean du helburu norberaren esperientziari zentzua ematea kontrastearen eta ereduaren bilaketaren bidez, kasu honetan modu intimoagoan baina. Irakurtzeko eta idazteko estrategiaz ari gara. KSF bat osatzen duten emakume askok esan dute testu feministak irakurtzen dituztela haietan ereduak eta iturriak bilatzeko eta oro har "para, para sentirme menos sola. O sea, para sentir... sentirme

acompañada. Que no estoy loca, ¿no? Que no soy la única que lo piensa o que no soy la única que...lo siente" (KSF eztabaida talde pilotua). Testu feministen irakurketak edo idazketak emakumeen sareen beste aurpegiaren rola bete dute, harreman intimoagoa sorrarazi dute paperaren, hitzen eta emakumearen esperientziaren artean.

Hirugarrenik, genero arauekin hausten duten estrategia terapeutiko batzuk aurkitzen ditugu, izan ere, modu batean edo bestean "nia" jartzen dute ekintzaren erdian, norberaren zaintza azkenerako uzten duen emakume zerbitzariaren iruditik aldendu nahian. Jakinaren gainean aukeratutako estrategiak dira, haiek burura eramateko lehendik ezinbestekoa baita gutxieneko hausnarketa. Terapia, *coaching* eta meditazioa bezalako estrategiak dira horiek, emakumeek praktikatzan dituzte "harremanetan jartzeko" edo/eta "elkarri entzuteko" xedearekin. Gisa honetako jarduera terapeutikoak (ez dute beti ordaindu zerbitzu horiek jasotzeagatik, batzuetan terapia tailerrak egin dira doan, eta emakume horietako batzuek parte hartu dute) erabili izan dituzte emakume askok eta askok beren bizitzako une jakin batean eta arestian aipatzen genituen emakumeen sareek baino helburu zehatzago batekin: beren buruak hobe ezagutzeko eta, hortik abiatuz, beren desirak proiektatzeko eta betetzeko indarrak biltzeko.

Emakumeek beren bizitzako une batzuetan baliatzen duten *irtenbidearekin* zerikusia duten beste bi estrategia mota bereizten ditugu. Bataren arabera, atzean uzten dute parte hartzeko bitartekoa. Bestearen arabera, bidaia bat egiten dute, emakumeen askatasuna mugatzen duten zapalkuntza sistemen forma parentesi artean geratzea bila duen irtenbide motari bide emanez.

Badira parte hartzen ari ziren bitartekorik irtenda beren parte hartzeko proiektuari azken puntua jartzea erabaki dutenak. Askotarikoak dira irteteko arrazoiak, baina guztiak izan dira norberak hartutako erabaki askatzaileak bezain hausnartuak. Gainera, irteera horietatik gehien-gehienak ezinbestekoak ziren parte hartzeko beste proiektu batzuk abiarazteko. Zenbaitetan guztia zer egin nahi den ongi jakin gabe eta norberaren gorputzari aditu gabe eginaraztera eramaten dituen joerarekin haustean datza irteera horren garrantzia. Gonbidapen bidez bitarteko batean parte hartzen duen eta KSF bat osatzen ez duen 36 urteko emakume honen hitzek agerian uzten dute nola erabaki horretan gorputzari aditu zion:

"gero egon nintzan urte batzuk urte sabatikoak erabaki nebelako... bizitzan erabaki batzuk hartu behar nitula. Izan zalako oso-oso tensoa, energia pilo bat suposau doztanak... Gero nik ba euki nitun harreman emozionalak, ba nere bizitza sozialan, nere bizitza emozionala... Gertatzen ebitzelako bebai... Oso kantseuta bukatu nebelako. Kantsauta bukatu neben, ee... 20 eta piku urte nitun ee... nere bizitza laboralan, bizitza sozialan, nere bizitza

emozionalean, nere bizitza politikoa... apurt bat danari buruz pentsa eiteko behar hori bai neukan, eta garai baten apur bat... nazkatuta egotearen sentsaziño hori euki neben. Gero egixa dana da be, lan... beti kultur eta gai sozialetan lan egin dotela, orduan bebai horrek ere suposa eiten dauen inplikazio pertsonal eta emozionala be potentia da. Orduan bueno ba garai... ee... urte t'erdi, bi urte inguru edo hola..."

Beste emakume batek ere bere parte hartzeko prozesuko une jakin batean irteteko erabakia hartu zuen, eta oso gorputzarenak diren sintomei egiten zien erreferentzia horri buruz ari zenean:

"A mí ya me había dado un taque de ansiedad por medio, pues había decidido que independientemente de lo que sucediera que me iba de allí. Entendía que era un ambiente toxico, y que no tengo por qué aguantar ese tipo de cosas" (No CPSE, Irrupción, 30 años)

Kasu horietan norberaren zaintza praktikara eramaten den unea dakar irteerak, eta beraz, hautsi egiten du sufrimenduaren bidez bere presentzia legitimatzen duen emakume emanaren irudia.

Azkenik, arreta jarriko dugu bidaian, estrategia gisa ulerturik. Modu askotan ageri da bidaiaren ideia (oporraldiak igarotzeko, aste bukaerako lanaldiak ondoko herrian, etxe aldaketak, etab.) baina beti dago kanpoko estimulu bati lotuta, begiradaren aldaketa bati edo emakumearen harreman pertsonalen sarea aberasten duten subjektibotasun berrien ezagutzari lotuta, modu horretan beren egunerokotasunetik ihes egiteko xedean gutxi gorabehera aurrez antolatutako irteera horietan jabetzen diren genero arau batzuk *stand by*-ean uzten dituztela.

Jakin badakigu bidaiatzen garenean aldean daramatzagula estereotipoak, baina gure ohiko gizartetik urrun gaudelarik, zeregin zehatz bat bete behar dugun agente gisa ber-ezagutzen gaituzten lekutik urrutira gaudenean, bagaude geure bizitzako kontu batzuk berrinterpretatzeko moduan. Kapitulu honen hasieran genion pentsalari askok gorde zutela bidaiatzeko eskubidea gizonentzat, emakumeak gizarte kapital horren iturritik urrutira edukita. Bada gaur egun ugari dira aske jarraitzeko eta parte hartzen duten testuinguruetan beren zereginen/rolaren bidez bideratzen diren arau batzuk ito puntuan jartzeko tresna hori erabiltzen duten emakumeak, batez ere 40 urtetik beherakoak, seme-alabarik ez dutenak, gero berriro ere rol hori zalantzan jartzeko indarberrituta itzultzeko jakinik taldean parte hartzen duten pertsonen kritika jasoko dutela:

Batzutan gauza berdina egiteaz eta aldatzeko gogo du, beti rol berdina... eta... bai fase... ez dakit, bai egia da igual batzutan behar dudala zerbaitekin moztu eta nere teknika, askotan hori zen bidaiatzearena, eta alegin egiten nuen hola hilabete ba horrela bapatean eta... taldekoak, askotan esaten ziten "jo tia! Bapatean desagertzen zara gauek egunera eta ez dakit zer hilabete bat eta... (Mujer, CPSE, Irrupción, 26 años)

Genero arauak birsortzen dituzten taldeko estrategiak

Ikerlan honetan ez da emakumeentzako estrategia baliagarritzat azaldu genero arauak taldean eta hausnartu ostean birsortzea.

Genero arauak hausten dituzten taldeko estrategiak

KSF bat osatzen duten emakumeentzako ekintza eta esperimentaziorako esparru bat aurkitzen dugu gisa honetako estrategietan, emakume horiek baitira beren kontakizunetan gisa horretako estrategiak gehien aipatu dituztenak. Aukeren sorta zabal horretan badago bi estrategia bereiztea; espazioaren barne dinamizazioa boterearen desorekei aurre egin ahal izateko gune estrategikotzat hartzea da bata, eta kontrapubliko subalterno feministak osatzea (edo modu zabalagoan talde feministetako kide egitea) da bestea.

Lehenengoari dagokionez, emakume batzuek beren kezka zehatza agertu dute parte hartzen duten bitartekoek dinamizazioa arautzeko duten formaren aurrean. Haien ustez, dinamizatzeko moduek berek (denboren, rolen eta espazioen banaketa) azaltzen dituzte parte hartzeko garaian emakumeek aurkitzen dituzten oztopo asko eta asko. Beraz, zentzuzkoa da dinamizazioari denbora eta egitura ematea. Emakume asko ideia horrekin bat datozen arren (esate baterako, azalpen edo hitzaldi bera baino luzeago jotzen duten interbentzioei erantzuteaz neka-neka eginda daudela diotenean), aztertutako hamabost espazioetatik bakar batek baizik ez ditu benetako neurriak hartu ikuspegi feminista batetik dinamizaziorik ez dagoenean nagusi den joera patriarkala zuzendu ahal izateko. Lehen ere aipatu dugun bitarteko sortu berriaz ari gara, zuzeneko behaketaren bidez aztertua izan denaz. Hain zuzen espazio horretan sorraraziko da geroago kontrapubliko gisa osatuko diren emakume batzuen kezka iturri diren erraztasuna eta dinamizazioa ardatz dituen barne egitura. Egitura horrek espazioaren beraren autodiagnostikoa egiten du lehen-lehenik, talde adimendunetan espezializatutako gonbidatu baten laguntzaz. Honela zioen parte hartzaile batek:

“entonces lo que hicimos fue un taller, bueno pues de un día entero, un montón de horas con un especialista en grupos inteligentes y entonces bueno pues nos dio una serie de pautas de cómo podíamos crear espacios de participación que fueran más democráticos, que pudiera participar todo el mundo y entonces a partir de ahí pues hemos empezado a estructurar las asambleas de otra manera, o sea, nunca ya se estructuran en forma de debate abierto si no que los diferentes temas que hay que abordar se abordan siempre a través de dinámicas que hemos preparado previamente, y bueno que esto a parte exige un montón de trabajo de... de preparación”
(Mujer, CPSF, Irruptivo, 26 años)

Dinamizazioa ardatz duen egitura lehenetsi du bitarteko horrek. Horretarako txandakako talde dinamizatzaile bat sortu du bitartekoko bilerak diseinatzeko eta prestatzeko, denek

ezagutzen dituzten eta bileren hasieran azaltzen diren hitza hartzeko txandak dinamizatzeko, eztabaida bakoitzean denborak zorrotz neurtzeko eta bileraren hasieran parte hartzaile bakoitzaren gogo aldartea ezagutzeko dinamikak bultzatzeko. Guk uste dugu jokamolde egoki horiei arreta handiagoa eman beharko zaiela gaiari buruzko etorkizuneko ikerlanetan.

KSF bat osatzea edo, areago, talde feminista batean parte hartzea da bigarren estrategia handia, lan honetako 1. kapituluari aurreratu bezala aipatu bi bideak sinonimo ez diren arren estu lotuta baitaude. Baina KSF batek dagokion BD espazioarekin zerikusia duen bitartean, talde feministak ez du zertan eduki. Parte hartzaile batzuek “sorginen batzarra” deitu dutena osatzea ekarri du estrategia horrek; batzar horretan, eman eta eskatzeaz gain, egoki irizten diren moduetan azaltzen dira beharrianak eta helburuak. Horrenbestez, kontrapubliko horiek zabaldu egin dute BD espazioetako erritmoak emakumeek beharrezko uste zutenetara doitzen ote diren, BD espazioan aztertzen diren gaiek emakumeek planteatzen dituzten ertz guztien konplexutasuna aintzat hartzen ote duten eta parte hartzeko agendan esku hartzeko aukerak benetakoak ote diren pentsatzeko aukera. Parte hartzen duen BD bitartekoan nabaritu zituen onura batzuen berri ematen digu emakume batek:

*“Gozada bat da, gai izan garelako alkarrekin jartzeko eta esateko: a ver su separatu berri zara, zu ez dakit zer...
(...) Joder alkarri entzuten gabiz eta hori asko da eta hori beste esparru batzuetan falta da eta zati baten da
esaten dugulako denok feministak garelako baina sistema patriarkalak eragiten digulako militantzian bereziki”
(Mujer, CPSF, Irrupción, 23 años).*

Halatan, hutsune tematiko bat betetzeaz gain, kontrapubliko horiek haietan parte hartzen dutenak gaitu dituzte publiko menderatzailearengana (BD espaziora) itzultzeko eta emakumeek berezko duten ikuspegia azaltzeko. Kasu paradigmaticoa da lehen ere aipatu duguna, desazkundearen gaiari emandako BD espazio baten agenda aldatzeko gaitasunari dagokiona, gaian zaintzaren krisiaren dimentsioa barneratu baitzen.

Kontrapubliko horien ezaugarri bat da soilik emakumeek osatuak izan direla. Geuk bildu dugun informazioaren arabera, gizon bakar bat ere ez da haietan izan. Emakumeek presiorik gabe hitz egin ahal izateko espazioak bilatu dituzte horietan, eta horretarako espazio ez mistoetan eta feministetan aurkitu dute tresna egoki bat. Berrito ere azpimarratu nahi dugu taldearen eta publiko zabalaren artean lotura horri eustearen garrantzia, izan ere horrexek ahalbidetuko du agendan aurreikusitako gaietan emakume feministek azaldutako baldintzetan sakontzea.

Roux-ek eta haren taldeak bezala (2005), guk uste dugu espazio feminista ez mistoak behar-beharrezkoak direla emakumeen parte hartzea mugatzen duten genero arauekin hausten duten taldeko estrategiak asmatzeko. Era berean, publiko paralelo horiek beste publiko zabalago batzuekin elkarriketa bilatu behar dutela uste dugu guk, berdintasunaren eta sororitatearen balio feministak egiazki aintzat hartuak izan daitezen demokratizazioari buruzko eztabaidetan eta praktikan. Espazio horiek sustatuta parte hartu nahi duten espazioetan oso "lotsatiak" direlako edo jendaurrean hitz egiteko gaitasun txikia dutelako "egokitzen ez direla" pentsatzen jarraitzen duten emakume askoren ahalduntzea ahalbidetu liteke. Beste hitzetan esanda, espazio horietan ehundu daitezke eta ehuntzen ari dira parte hartzeari sexua, adina, arraza, gizarte maila edo gorputz gaitasuna axola ez diotelako gezur handia agerian uzten duten estrategiak.

Balioak emakumeen parte hartzean

Honako hau idatzi zuten 1985. urtean Teresa del Valle-k eta *Mujer vasca, imagen y realidad* lanean jardun zuen ikerkuntza taldeak: "ikusi dugu nola euskal emakumearen mundua ezaugarritzen duten funtsezko balioak, haren portaera zehazten eta bideratzen duten balioak, familiaren eta familian sortzen diren beharrezko inguruan egituratzen diren" (1985: 221). 20tik gora urte joan dira hitz horiek idatzi zirenetik, eta V. kapituluaren hasieran ikusi dugun bezala, familiak (eta zaintzaren balioak) emakumeen bizitzan instituzio sozial garrantzitsua izaten jarraitzen duen arren, badago esatea egun emakumeak "dauden" espazioak biderkatuta (laneko esparru -gaizki- ordaindua, herri administrazioak, alderdi politikoak, artearen esparrua, irakaskuntzaren esparrua, talde feministak, etab.), emakumeek mobilizatutako balioak ere biderkatu egin direla une oro aberasten ari den mosaiko bat sorraraziz.

Inolaz ere ez dugu hemen Euskal Herrian bizi eta BD espazio batean parte hartzen duten emakumeak mugiarazten dituzten balioen laburpen bat eskaini nahi. Hala eta guztiz ere, gure hondar alea erantsi nahi diogu mosaiko horri, eta KSF bat osatzen duten emakumeek adierazitako balio sorta bat ekarriko dugu orriotara. Hain zuzen ere kontrapubliko baten parte bat osatzen duten emakumeek mugiarazitako balioei erreparatzen zaie batez ere emakume talde hori delako emakumeak mendearen edukitzeko sistemek jartzen dituzten tranpak identifikatu eta haiei buruzko hausnarketak egin dituenak. Gure ustez balio horietako batzuk ageriko egitea da datozen urteetan haiek landu ahal izateko egin daitekeen lehenengo ariketa.

- Plazeraren eta jostetaren defentsa. Angèle Bassolet poeta feminista burkinafasoarrak dio "grinaz egiten dugun horrek ez gaitu gupidaz egiten dugunak adina nekarazten" (Bassolet, argitaratu gabe). Bada hemen aipatu ditugun emakumeek beren egin dituzte Bassolet-en hitzak, oroz gain plazeraren, grinaren eta jostetaren defentsa aldarrikatu dute euren parte hartzeko proiektuetan. Sufrimenduaren kulturatik urrun, eta batez ere sufrimenduaren bidez legitimatzetik urrutira, plazerari irekitako espazioak, beren parte hartzeko erritmoak eta baldintzak askatasun osoz erabakitzeko espazioak, babesten dituzte.
- Espazio inklusiboak sortzeko aniztasuna eta heren garrantzia izan dira KSF emakume guztien topagunea. Modu askotan adierazia, jatorri, sexualitate, arraza eta abar ezberdineko pertsonak dauden espazioetan dagoen aniztasuna bere horretan balioa dela diote, eta sarri askotan kalifikatu dituzte espazio horiek "aberasgarri edo akuilatzaile" gisa. Aniztasunaren balioa azpimarraturik, parte hartutako espazioetan ikusten duten homogeneotasuna kritikatu dute, Berdintasuna. Zalantzarik gabe, jasotako hitzaldi askoren balio eragilea da. Emakume hauek gaitzetsi egin dituzte adinean, gizarte mailan, arrazan, sexualitatean edo sexuan oinarritutako mendekotasun eta hierarkia formak oro. Horizontaltasunean eta aukeren berdintasunean oinarritutako harremanak lehenesten dituzte parte hartzeko proiektuak burura eramateko, eta bitartekaritza eskaintzen diete mugak topatzen dituzten emakumeei.
- Integrazioa, begirunea eta entzutea. Parte hartzeko espazio baten baitan elkarriketa uneak aipatzeko bereziki adieraziak, balio horietan identifikatu dute emakumeek mekanismo horretako kide izan nahi duena biltzeko garrantzia, baina ez soilik harrera egiteko bitarteko baten bidez, baizik eta berria bertaratzeko eta biltzeko mekanismo ez formalak ere baliaturik (hizketan ari denari aurpegira begiratuta, entzunda). Integratzeak, errespetatzeak eta entzuteak denbora eta energiak eskatzen dituela jakinik, balio horiek denborak kontrolatzeko eta denboren gaineko erabakiak hartzeko beharrian handiagoarekin lotzeko joera agertu dute emakumeek.
- Konfiantza eta afektibotasuna. Ikerlanean zehar lankide izan ditugun KSF emakume guztiek gaitzetsi dute modu batean edo bestean afektibotasunaren aurreko arrazionaltasunaren hierarkia, eta argi eta garbi diote ezinezkoa dela euren parte hartzea afektibotasuna baztertzen edo aintzat hartzen ez duen espazio batean, afektibotasuna ezinbestekotzat baitute harreman iraunkor eta osasuntsuari eutsiko

bazaio. Afektibotasuna bigarren mailako elementua ez den espazioen sorreran funtsezko gakotzat jo dute beste pertsonarengan jarritako konfiantzaren balioa.

- Zaintzaren etika. Bukatzeko, zaintzaren etika sozializatzeko edo gizarteratzeko aldarria egin dute modu batean edo bestean emakume hauek. “Zilberrari begiratzeari oinarritzen diren argudioetatik” haratago, bidegabekeria bere osotasunean ikusteko eta bere forma anitzetan arintzen saiatzeko premia planteatu dute.

LAUGARREN ZATIA

VI. Kapituluia Ondorioak. Berrikuntza demokratiko feministak

Bi dira beharbada ikerlan honetatik atera ditzakegun ondorio nagusiak:

Alde batetik, beharrezkoak direla berrikuntza demokratiko feministak (BDF) SGMM sistemarik (hots, menderatze sistema) ez sortzeko prozesu demokratizatzailleen bidez. Bestetik, BDFak ez direla ilusio edo proiektu bat. Hau da, aspalditik existitzen dira, era batean edo bestean, lehen emakumeak bere aurkako bidegabekeriatzat zuen horri aurre egin zionetik, bere bizitza eta partaidetza proiektuaren aurkako gertakari horri aurre egin zionetik.

Lan honen hasieran, Graham Smith-ek berrikuntza demokratikoen inguruan eginiko proposamena aipatu dugu. Gaur egun munduko gobernu eta eragile politiko askok martxan jarriak dituzten BDen helburua da jadanik aipatu dugun demokraziaren krisiari erantzutea, haren printzipioetako batzuk hedatuz: hala nola eragile guztien inklusibitatea, herri kontrola erabakiak hartzeko prozesuan, herritarren epaitzeko ahalmena handitzea eta gardentasun handiagoa gobernuen jarduera politiko-administratiboetan.

Gure ustez, eta hala defendatu dugu, BDek araudi mailan ematen dituzten ondasun demokratiko hauek oztopo bat aurkitzen dute errealitatean gauzatzeko orduan: hots, SGMM sistema baten barnean sortutako produktu politikoen inertzia patriarkala. Beste modu batean esateko, nahiz eta BDen ekarpenetako bat erabakiak hartzeko prozesuetan lortu den gizarte eragile kopuru handiago baten inklusibitatea izan, oztopo batzuk aurkitzen ditugu gizarte talde batzuen presentzia eta ahotsa bermatzeko orduan (egotea eta hitz egitea), eta oztopo horiek espazio horietan nagusi den partaidetza publikoko eremuan lekurik ez izatetik sortzen dira.

Lan honetan, saiatu gara BD horiek ikuspegi feminista batetik aztertzen, demokratizazio espazio batzuk proiektatzeak izan ditzakeen arriskuak identifikatzeko: formalki emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzen duten espazioak, baina praktikan gizartearen zati handi bat baztertzen jarraitzen dutenak. Hau da, saiatu gara esperientzia hauen itsutasun patriarkala problematizatzen, eta horretarako ahalegindu gara interpretazio eredu bat artikulatzen, bere baitan bilduko dituen menderakuntza barneratua, menderakuntza

objektibatua eta, jakina, erresistentziak. Ziur gaude gure ereduak akatsak izango dituela, eta hobetu egin daitekeela, baina uste dugu balio dezakeela BDFei ikusgarritasun handiagoa emango dieten erantzunak antolatzeko.

SGMM sistema, gure interpretazio ereduaren arabera, emakumeek kontraesan modura bizi dituzten hiru tentsiotatik birsortzen da (eta halaxe enuntziatu ditugu): publikoa versus pribatua, arrazoa versus emozioa, eta unibertsal bihurtzeko bokazioa duen menderatzailea versus eredurik gabeko menderatua.

Oztopoen, estrategien eta balioen analisia, partaidetzaren biografietatik abiatuta, erabakigarria izan da honako hauek egiaztatzeko:

- BD espazioetan, emakumeek oztopoak izaten jarraitzen dute beren partaidetza proiektuak gauzatzeko.
- Oztopo horiek eraldatu eta egokitu egiten dira, denboran irauteko, eta hainbat modutan azaleratzen dira. Ordezkaritza espazioetako parte hartzeari buruzko literaturak azken hogeita hamar hamarkadetan detektatu dituen moduak ez bezalakoak dira.
- Emakumeek eragiteko gaitasuna dute estrategiak bilatu eta horien bidez beren partaidetza asmoak gauzatzeko. Uste dugu arreta handiagoa jartzea emakumeek demokratizazio testuinguruetan duten gaitasun horretan lagungarri izan daitekeela BDFak proposatzeko.

Azken batean, birsortzea bai, baina erresistentziak ere bai.

Kontrapubliko subalterno feministak giltzarri dira oztopoak pixkanaka desaktibatzeke, estrategiak lantzean sormena garatzeko eta, azken finean, BDFak egunez egun posibleago egiteko.

Ikerlan honetan, agerian gelditu dira Nancy Fraser pentsalari feministaren proposamen kontzeptualak BDFetan duen zentraltasuna eta ahalmen erresistentea, eta filosofia feministaren adibide argia da, lotu egiten dituen konpromiso praktikoa eta interpretazio esparru libreagoen eraikuntza.

KSF bat eratzen dutenek gogoeta ahalmen handiagoa erakutsi dute beren proiektuei mugak jartzen dizkieten oztopo sotilenei erantzuteko orduan, eta kritikoki erantzuteko gaitasun handiagoa, askatasunez jokatzeko beren aukerak handiagotzen dituen. Horrela, emakume hauek gai izan direnez bikotea, familia edo lan harremanak egituratzen dituzten modu batzuek beren bizitzan sortzen dituzten mugak enuntziatzeko, errazagoa izan da muga

horiei aurre egiteko estrategia berriak sortzea. Alde horretatik, egia bada ere KSF batek ez duela ziurtatzen egitura horiek oztopo ez izatea norberaren bizitza proiekturako, egitura horiei aurre egiten dien erresistentzia espazio bat bermatzen du. Hurrengo kapituluan aipatuko dugun moduan, aurrera begira beharrezkoa izango da estrategien gaia lantzea, elkartasuna eta enpatia sendotzeko kontrapublikoen artean.

Jada esan dugunez, BD espazioek oztopo batzuk aurkitzen dituzte, eta oztopo horiek jada enuntziatuak izan dira emakumeen eta ordezkariak egituren (kultura politikoa edo sistema politikoa) arteko harremana aztertutako egileen lanetan. Hala eta guztiz ere, espazio berri hauek inklusiboagoak izateko duten xedearen ondorioz, oztopoen jardun eremua beste maila batzuetara lekualdatu da, eta sotilagoak egin ditu horrek, larritasun berbera izaten jarraitzen badute ere.

Gure lanaren asmoa izan da ideia nagusi batzuk mahai gainean jartzea, abiapuntu hartuta XXI. mendearen lehen hamarkadako EAE eta 42 emakume eta 6 gizonen biografiak. Ondoko lerroetan, ideia horiek laburtuko ditugu. Publiko/pribatu zatiketa nagusi den oztopoei dagokienez, aipatzekoa da amatasun eredu jakin bat, erantzukizuna eta zaintza lanak emakumeen gain jartzen dituenak. Beste zeregin batzuetan aritzea eragozten dien muga argia da emakumeentzat. Oztopo hau, ama izan diren emakumeek ez ezik, ama izan ez direnek ere identifikatzen dute (bigarrenak eragozpen gisa ikusten baitute). Bateriaezintasun honen inguruan (amatasuna gauzatzeko ideia menderatzaile baten eta partaidetza proiektu baten arteko bateraezintasuna) ama izan direnek eta izan ez direnek agerian utzi duten bat etortzeak agerian uzten du oztopo honek duen indarra. Partaidetzak eta amatasunak ez dute elkar hartzen, eta aztertutako egin beharko litzateke zer estrategia erabil daitekeen bata bestea baztertu gabe gauzatu ahal izateko, eta kontziliario politikek batzuetan sortu ohi dituzten erantzukizun berrien zamarik ez izateko. Familia, mugak jartzen dituen erakunde gisa, pisua galduz doa; aldiz, enplegua, lan prekarietatea... nagusituz doa, emakume gazteen artean bereziki. Emakume horiei, mezuak helarazten zaizkie beren lan eremuetan, zuhur jokatzeko eskatuz, parte hartzearen arriskuez ohartaraziz, eta mezu horiek gai dira kasu batzuetan partaidetza proiektuak zapuzteko. Alde horretatik, ez da harrizkoa maitasun erromantikoa opresio iturri izatea, ez bakarrik bizitza proiektuetan, baita partaidetza proiektuetan ere, azken horiek ez direlako eraikitzen gainerako bizitza espazioetatik kanpo. Eskolak, familiak bezala, pisua galdu du emakume gazteen partaidetza proiektuen modelatze mugatzailean, eta pisu hori genero arauetara transferitu da, espazioetan transmititzen diren arauak, beren

egituratzearen bitartez, edo, jada esan dugun moduan, bikotearen edota amatasunaren bidez.

Edonola ere, oztopoei dagokienez, arrazoiaren eta emozioaren arteko kontraesana da emakume gazteek gehien aipatzen dutena. Emakume hauentzat eta KSF baten parte direnentzat, “emozioak BD espazioetatik kanpo gelditzea” izan ohi da oztopo garrantzitsuenetakoa, eta, argudiatze prozesuan, “profesionaltasun edo legitimitate gutxi” izatea leporatzen zaie batzuetan. Argudio honek ñabardura bat behar du. Izan ere, Martha Nussbaum-ek dioen bezala, ez da egia emozioek lekurik ez dutenik demokrazietan eta erabakiak hartzeko egituretan (egile honen argudioek geure buruari galdetzeraz behartzen gaituzte: Zenbat erabaki politiko hartu dira nazkak eraginda? Eta ezezagun denak sortzen duen beldurrak eraginda?). Izan ere, uko egiten zaio emozioen eragina publikoki onartzeari, argudioak eta erabakiak arrazionalak direlako ilusioa mantentzeko. Bestetik, tresna gisa ikusten dira oraindik kultura kapital instituzionalizatu bat eta hizkuntza kapital handi bat edukitzea, deliberazio espazioetan boterea ematen duten baliabideak. Kapital horien aurrean, KSF bat eratzen duten emakumeek *habitus emozional* bat –Deborah B. Gould-ek sortutako esapidea– garatu dute, emozio mota bat (hala nola ongizatea, plazera, bestearen zaintza edo gogobetetasuna) ekintza iturri bihurtzeko.

Menderatzaile/menderatu kontraesana nagusi den oztopoei dagokienez, SGMM sistema ez da bakarka aritzen, eta gurutzatu egiten da mundua ordenatzeko modu hierarkiko baten arabera sortutako beste sistema batzuekin. Sistema horien adibide dira: sistema klasista, arraza sistema, heterozentrista edo adin nagusiko pertsonen esperientzia adin txikikoenen gainetik ordenatzen duena. Hala, esan daiteke partaidetzak sexu, adin, arraza, klase eta sexualitate menderatzaileak dituela. Garrantzitsua da agerian uztea eredu arau-emaile menderatzaile hau, kontuan izanik, kasu askotan, BD bitartekoak proiektatzen dituen pertsonak gizarte elite edo “elite diskriminatu” baten posizioetatik egiten duela hori. Lan horren emaitza, beraz, *habitusaren* proiektzioa da. *Habitus* hori pertsona horren gizarte posizio berean dauden pertsonentzat da, eta hainbat gizarte talde posizio horietatik kanpo gelditzen dira bitartekoaren diseinuaren hasieratik bertatik.

Nabarmendu nahi dugun laugarren ideia hau da: alegia, ezin dela proiektu inklusiborik planteatu kontuan izan gabe genero arau jakin batzuek proiektu horien proiektzioan duten eragina. Genero arau horiek gizarte eta politika arloko instituzio ugari bideratzen dituzte, egunero (hedabideek, familiak, lagunek, etab.), eta kontzientzia dute, gorputzaz (Esteban) eta bizitza proiektuen kalitateaz oro har. Dena dela, demokratizazioaren teoriak sakon

aztertu ez duen zer bait nabarmendu nahi genuke: genero arauak pertsonen partaidetza proiektuetan ere eragiten dute, eta espazio demokratikoetan daude. Emakumeen kontakizunetan, uneren batean parte hartzea eragotzi dieten arauak zehaztu ahal izan ditugu (ardura, diskrezioa, enpatia edo ahultasuna). Gizonei dagokionez, “gizon koherente”-aren irudiak eraginik izan du ere haien partaidetza proiektuetan. Mugimendu feministaren arrakasten ondoren, emakumeen eta gizonen arteko eskubide berdintasunean urratsak egiteko balio izan duten eskaera feminista askoren instituzionalizazioaren ondoren, uste dugu opresioa arau hauez baliatzen saiatuko dela (ikusitako moduan, KSFetatik jada hasi dira arau horiei erantzuten).

Azkenik, agerpen bidezko espazioen eta partaidetza espazioen arteko bereizketak indarra galdu du lan honetan, eta gogoeta huts bategatik izan daitekeela aitortzen dugu.

Gizarte errealitatearen zati hau ezaguturik, zer egin daiteke pertsona guztiek beren partaidetza proiektuak askatasunean garatzeko aukera izan dezaten? Edo, hobeto esanda, zer egiten ari gara? Galdera birformulatu badugu, emakumeak jadanik lanean ari direlako da; zehazki, Berrikuntza Demokratiko Feministak abiarazten (gure lanari izena ematen dion kontzeptua, hain zuzen).

BDF espazioak, ikuspegi orokor batetik, Smith-i jarraiki lau ondasun demokratikoak hedatzen dituzten partaidetza eta/edo deliberazio esperimentuak dira. Lau ondasun horiek dira: inklusibitatea, herri kontrola, epaitzeko gaitasuna eta gardentasuna. Espazio horiek kezka batetik sortzen dira, sistema menderatzaileak mehatxu izan daitezkeelako gizarte talde guztien inklusibitatearako (presentzia eta ahotsa izateari dagokionez, horrek dituen ondorio guztiekin). Eta horrexegatik, hain zuzen, BDFak eratzen duen planteamendu multzoak ez du tentsiorik planteatzen publiko/pribatu, arrazoi/emozio eta unibertsal bihurtzeko bokazioa duen menderatzaile/eredurik gabeko menderatu kontraesanetan. Beraz, BDFek ordezkartza demokrazian sakondu nahi dute, amaitu gabekotzat dutelako, gutxiegitzat. Eta hori egitean, jakitun dira guztiz SGMM sistemaren emaitza oro inertzia baztertzailerekin praktikan jartzeko dagoen joeraz. Azken batean, BDFen eremua etengabeko eraikuntzan dago, eta gaur-gaurkoz eremu emankorra da teoria eta praktika demokratikoaren esperimentaziorako

VII. Kapituluia Eta orain zer? Berrikuntza demokratiko feministetan aurrera egiteko proposamen zehatzak.

Berrikuntza Demokratiko Feministak ikerketa lanean, hainbat ideia eta arazo sortu zaizkigu: batzuetan, hirugarren kapituluan aztertu diren proposamen zehatzei lotuta; beste batzuetan, jakintza mailan dauden hutsuneengatik (horien inguruan ikertzen jarraitu beharko litzateke, beraz). Horrek aukera ematen digu proposamen zehatzak egiteko, berrikuntza demokratiko feministen arloan egin beharreko urratsei begira. Proposamen horietako batzuk sistematizatzeko, taula bat eraiki dugu, gai jakin batzuekin eta gai horiek lantzeko erreferentzia arloekin, eta urratsak egiteko ideia zehatzak ere proposatzen ditugu.

Nabarmendu nahi dugu erreferentzia arloak lanerako eta ekintza soziopolitikorako arlo osagarriak baino ez direla, batzuetan lerro mehe-mehe batek banatzen dituen (beste batzuetan, ez). Badakigu banaketa horrek mugak badituela, pertsona batzuk aldi berean bi edo hiru arlotan aritu daitezkeelako eta ezin dituztelako ikusi guk hemen ezarritako mugak. Litekeena da gure proposamena horren aberasgarri ez izatea pertsona horientzat. Hala eta guztiz ere, gure banaketarekin, proposamen zehatzak funtzio zehatzetarako bilatzen ditugula jakinarazi nahi diogu irakurleari.

Hala, alor akademikoa deitzen dugunak ikerketara bideratutako jarduerak barne hartuko lituzke oro har. Gizarte mugimendu / mugimendu feminista arloaren barnean, gizarte zibil antolatuaren sektore batzuek burutu ditzaketen jarduerak sartuko lirateke, mugimendu feministaren ekintzak bereziki. Erakundeen arloak, azkenik, politika publikoen aplikazioan martxan jar daitezkeen neurriak barne hartzen ditu, bai azpiarlo politikoari dagokionez (alderdi politikoak) bai azpiarlo teknikoari dagokionez (berdintasun teknikak, partaidetzarako teknikak, etab.). Kasu batzuetan, uste dugu hainbat arlotatik landu daitekeela gaia; beste batzuetan, aldiz, lehentasuna duen jardun arlo bat dagoela iruditzen zaigu, eta arlo horretatik egin behar da proiektzioa (eta horixe adierazi dugu). Jakina, proposamen hauek ez dituzte ahaztu nahi askoz hedadura handiago izan dezaketen beste proposamen batzuk, zerikusia dutenak gizarte egiturarekin, sistema ekonomikoarekin, sistema politikoarekin eta ingurumen arloko politikarekin. Horiek gabe, guk hemen egiten ditugun proposamenak guztiz alferrikakoak lirateke, guztiz aldenduak oinarri duten testuinguru sozioekonomikotik. Amaitzeko, argi utzi nahi dugu zein den jarraian aipatzen diren proposamenen oinarrian dagoen printzipio nagusia: alegia, Estatuek aitortza politikak bultzatzea, identitateak aitortzeko, eta birbanaketa politikak, kapitalak egun agertzeko

dituen moduen metaketa desorekatu batetik sortzen diren botere desorekak
desagerrarazteko.

6. taula. BDF baterako proposamenen laburpena

Gaia eta azalpena	Gaia landu dezaketen arloak		
	Akademikoa	Gizarte mugimenduak oro har (GM) eta mugimendu feminista bereziki (MF)	Erakundeen arloa
<i>Amatasuna eta partaidetza.</i> Emakumeen artean oso zabaldua dagoen ustea da bateraezinak direla amatasun proiektu hegemonikoa eta parte hartzeko modu hegemonikoa.	Amatasunaren eta partaidetzaren arteko erlazioak ikertzea, eta amatasuna emakumeentzat askatzaileagoa izateko moduak bereziki aztertzea.	MF: Martxan jarri diren amatasun partekatuen esperientzia egokiak identifikatzea.	Kontziliazio politiketatik harago joatea. Izan ere, batzuetan partaidetzarako aukera ematen badie ere emakumeei, beste erantzukizun bat beren gain hartzearen truke izan ohi da eskuarki: lana eta familia uztartzeko erantzukizuna. Emakumeei alor honetan dituzten beharrei buruz galdetzen jarraitzea. Amek erantzukizun gehigarririk gabe parte hartu ahal izateko formulak probatzen jarraitzea.
<i>Ereduak eta erreferenteak.</i> Egiaztatu ahal izan denez, emakumeek ereduak eta erreferenteak behar dituzte, zalantzak eta kezkak argitzeko.	Emakumeen bizitza esperientzia kopuru ahalik eta handiena metatzea helburu duten ikerlanak planifikatzea. Bultzada berezia ematea emakume erresistenteen bizitza kontakizun eta biografien argitalpenari. Oro har, zeinahi ere den arrazoia, emakume	Sororitatea praktikatzuz eta esperientziatuz jarraitzea, emakumeen arteko harremanetan oinarritzen den praktika feminista eta, beraz, eredu iturri agortezina dena.	Emakumeek espazio publikoei eginiko ekarpenak ikusaraztea, haien izenen bitartez: adibidez, bizitza esperientzia aipagarria duten emakumeen izenak jarritz kaleei, liburutegiei, erakundeetako areto eta gelei... Gonbidapen bidezko partaidetza bitartekoetan, emakumeen ekarpenak aitortzea, eta deliberazioaren erdian

	horien memoria, esperientzia eta kontakizuna argitaratzea, lekukotasun horiek irakurtzeko interesa duten pertsonentzat. Feminista “bihurtu” diren emakumeen lekukotasunak berreskuratzea. Partaidetza biografietatik abiatuta, mugimendu feministarantzko urratsa egiteko modua azaltzea⁷⁴.		ipintzea (espazio hauek dinamizatzen dituen pertsonaren eginkizuna izan daiteke).
<i>Belaunaldi haustura.</i> Nolabaiteko haustura detektatu da emakume belaunaldi helduen eta gazteen artean. Helduek batzuetan sentitzen dute gutxietsi egiten dela beren esperientzia; aldiz, gazteek beren burua legitimatzeko beharra sentitzen dute, emakume eta gazte izateagatik.	Emakumeen arteko belaunaldi gatazka askatasun espazioak sortzeko nola erabil daitekeen ikertzea.	Heldutasuna edo gaztetasuna negatibotzat hartzen duten esapideak baztertzea (“gazteegia zara ulertzeko” edo “emakume heldu gisa duzuen esperientziak ez digu balio, gauzak asko aldatu direlako”).	Ahal den neurrian, belaunaldien arteko elkarriketa espazioak sortzea emakumeen artean, emakumeen genealogiak berreskuratzen saiatzeko. Gonbidapen bidezko partaidetza espazioetan, ez konformatzea emakumeak “egotearekin”. Belaunaldien arteko lotura estutzea, presentzia hutsetik harago, eztabaida bultzatuz eta bide emanek ikuspuntu desberdinei. Kontuan hartzea emakumeen aniztasuna.
<i>Kontrapubliko Subalterno Feministak.</i> Ikerlanak erakutsi	KSFek berrikuntza demokratiko feministak egiteko dituzten	Emakume feministek gizarte mugimenduen, elkarteen,	Kontrapublikoen eraketa erraztea, haien ikaskuntzak kapitalizatu gabe, baina balio

⁷⁴ Lan honen koordinatzailea beste proiektu batean lanean ari da gaur egun, helburutzat duena feminismorantzko urratsa egiten duten emakumeen esperientziak biltzea.

duenez, kontrapubliko hauek garrantzi handia dute inertzia patriarkalari aurre egiteko.	moduak ikertzen jarraitzea. Kontrapublikoen artean solidaritateak sortzeko moduak aztertzea. Kontrapubliko izateak dituen ondorioak aztertzea (erreferente izateak eragiten duen nekea, ideien deskapitalizazioa, etab.), eta ondorio horiei aurre egiteko irtenbideak bilatzea.	plataformen... demokratizazioari egin dioten ekarpena aitortzea.	politikoa eta instituzionala emanez.
<i>Dinamizazioa.</i> Espazio publikoen dinamizaziorik ezak betiko inertzia tradizionalaren pean uzten ditu espazio horiek (espazio publikoa okupatu duten gizonen nagusiki diseinatutako inertzia). Aztertutako esperientzien arabera, dinamizazio handiagoa behar da, denboretan, roletan eta espazioetan eragingo duena.	60ko eta 70eko hamarkadetako mugimendu feministen autogestio moldeak berreskuratzea. Metodo ugari erabili zituzten hasieratik bertatik emakumeak kezkatu zituen arazo bati aurre egiteko: "egiturarik ezak sortutako tirania".	Mekanismo zehatzak martxan jartzea dinamizaziorako. Mekanismo horiek gabe bazterketa bultzatzen delako ideia barneratzea. Dinamizazioa denbora behar duen lan bat dela barneratzea, eta baloratu, aitortu eta kontabilizatu egin behar dela. Kudeaketarik gabe, ez dago ekintza inklusiborik. Dinamizazioa sartzea gizarte mugimenduen, elkarten eta plataformen zereginen zerrendan, gainerako zereginen	Mekanismo zehatzak martxan jartzea dinamizaziorako. Mekanismo horiek gabe bazterketa bultzatzen delako ideia barneratzea. Dinamizazioa denbora behar duen lan bat dela barneratzea, eta baloratu, aitortu eta kontabilizatu egin behar dela. Kudeaketarik gabe, ez dago ekintza inklusiborik. Prestakuntza ekintzak bultzatzea dinamizazioaz arduratzen diren pertsonen tresna metodologiko berriak eraiki ditzaten.

		maila berean.	
Genero arauak urratzea. Gaur egungo arau batzuek generoa instituzionalizatzen dute, eta generoa arau horien bidez eraikitzen jarraitzeak ez dio onik egiten gizakien askatasunari.	Genero arauak urratzeko eta pixkanaka desaktibatzeke moduak ikertzea: lehenik, arau horiek agerian jarritz; gero, desarmatuz.	Feminista izanik, barre egitea, gozatzea, parte hartzea, nork bere neurriak ezartzea, idaztea, irakurtzea... zein disruptiboa den ohartzea.	Estereotipo sexistez baliatzen diren politika publikoak, ekintza politiko-instituzionalak baztertzea. Gonbidapen bidezko partaidetza espazioak eraikitzea estereotipo sexistetatik aldenduta.

Iturria: egileek eg

GLOSARIOA

Eremu politikoa: Pierre Bourdieu-k sortutako terminoa. “Eremu politikoa deritzon lekuan, eremu horretan integratuta dauden eragileen arteko lehia *testuinguru* batean, produktu politikoak, problemak, programak, analisiak, iruzkinak, kontzeptuak eta gertakariak sortzen dira, eta herritar arruntek, kontsumitzaile huts izatera behartuak, horien artean hautatu behar dute, gaizki ulertzeak izateko arriskuarekin, produkzio lekuetatik urrun daudenez” (Bourdieu, 1981: 3-4).

Kultura kapitala: Jakintzak agertzeko dituen moduen metaketa da. Bourdieu-k ñabardura bat egiten du: “kapital hori hiru modutan existitu daiteke: barneratua (*embodied*), adimenaren eta gorputzaren prestasun iraunkorretan, adibidez; egoera objektibatuan, kultura ondasunen prestasun moduan (liburuak, argazkiak, hiztegiak, etab.); eta egoera instituzionalizatuan, objektibatuaren modu bat dena, bereiz aztertu behar dena (...), propietate guztiz originalak ematen dizkiolako kultura kapitalari” (batez ere titulu akademikoak lirateke -lizentziatura, doktoregoa, etab.-) (Bourdieu, 1986: *online*).

Kapital sinbolikoa: Bourdieu-ren arabera, “edozein kapital mota da (ekonomikoa, kulturala, gizarte kapitala, etab.), gizarte balio bat eman diezaioketen gizarte eragileek errekonozitzen duten neurrian” (Bourdieu, 1993: 55). Hainbat modutan ager daiteke. Bi aipatuko ditugu: **hizkuntza kapitala** eta kapital politikoa. Lehenengoari dagokionez, hitz egiteko, adierazteko eta diskurtso bat sortzeko moduari lotuta dago, enuntziatzeko gaitasunari, eta zerikusia du hizkuntzaren kodeak ezagutzearekin, hizkuntzak jakitearekin, adierazten jakitearekin, etab. Hizkuntza kapitala lotuta dago kultura kapitalaren prestasun baten gizarte aitortzarekin (hizkuntzak menderatzeak edo hiztegi formala erabiltzen jakiteak lotura duen neurrian kultura iturrien jabe izatearekin). **Kapital politikoa**, aldiz, politikan enuntziatzeko gaitasuna izatea litzateke. Azken batean, eragile batek duen gaitasuna da, bere esanahiek edo interpretazio politikoek gizartean eragiteko aukera gehiago izateko gaitasuna.

Gizarte kapitala: “Kapital modu bat (...) izendatzen du, lotura duena eragileak bere estrategietan mobiliza dezakeen gizarte harremanen sare baten jabetza iraunkorrarekin edo talde egonkor bateko kide izatearekin. (...) Eragile partikular batek duen gizarte kapital bolumena bi alderdiren mende dago: alde batetik, mobiliza ditzakeen konexioak; bestetik,

hari lotutako konexio bakoitzeko duen kapital (ekonomikoa, kulturala eta sinbolikoa) bolumena” (Bourdieu, 1985: 248). Beraz, gizarte eragile batek bere proiektuak eta estrategiak aurrera eramateko mobiliza ditzakeen gizarte sareen kantitatea da.

Kontrapubliko subalternoak (KS): Nancy Fraser-ek honela definitzen ditu: “eztabaida agertoki paraleloak, non mendeko gizarte taldeetako kideek kontradiskurtsoak lantzen eta zabaltzen dituzten, beren identitateen eta beharren interpretazio propio bat formulatzeko” (2001: 138).

Deliberazio demokrazia: Josep Besset-ek (1980, 1994) sortutako termino honek hainbat jarrera biltzen ditu, helburu komuntzat dutenak demokraziaren kalitatea hobetzea elkarriketan eta deliberazio igualitarioan oinarrituta.

Partaidetzako demokrazia: Demokrazia eredu honek “eztabaidan jartzen ditu boterea eta hura gauzatzeko modua. Partaidetzako demokraziak boterea beste batzuek gauzatzea planteatzen eta exijitzen du. Beste batzuek erabakitzea gai politikoei buruz. Beste horiek, herritar taldeek edo herritar erakundeek, beren boterea elkarbanatu dezakete erakunde politikoetako ordezkariekin, eta azken horiek jada ez dira boterearen jabe bakar. Boterearen barnean ere daude, baina jada ez dira lehengo berak. Eraldatu egin dira, beste horiekin batera, eta beste batzuk bihurtu dira” (Ibarra eta Ahedo, 2007 :10)

Habitus emozionala: Deborah B. Gould-en arabera, “talde bateko kideek barneratu duten jarrera emozional partzialki kontzientea da; hots, sentimendu batzueganako eta horiek adierazteko modueganako joera axiomatikoak” (2009: 32), eta ezaugarritzat du, ikerketa honetan erabilitako ikuspegiaren arabera, emozioak espazio publikoan era gogoetatsuan txertatzea: adibidez, leku bat aldarrikatzea afektuei buruz hitz egiteko batzarraren testuinguruan.

Partaidetza *habitus*: Bourdieu-k honela definitzen du *habitus*: “prestasun iraunkorreko sistemak, egitura egituratzaile modura funtzionatzeko ezarrita dauden egitura egituratuak”. Gizarte produktu barneratu bat da, gure gizarte prestasunak eremuan dugun posizioaren arabera bideratzen dituen. Partaidetza *habitus*az ari garenean, oro har, eragileak partaidetza testuinguruetan dituen prestasunez mintzo gara. Honako hauei egiten die erreferentzia: eremuan mugitzeko modua, gustua, argudiatzeko modua, etab.

Berrikuntza demokratikoa (BD): Lan honetan, ordezkarietako demokrazien testuinguruan ematen diren deliberazio edo partaidetza izaerako demokratizazio prozesuak izendatzeko erabili dugu kontzeptu hau. Prozesuok bi modutan gerta daitezke: estrategien bidez, gizarte

zibila “oldarka” sartzen denean erakundeen sisteman, edo logiken bitartez, erakundeek ateak zabaltzen dizkietenean herritarrei, parte hartzeko “gonbita” eginez. BD adibideak ditugu: aurrekontu parte-hartzaileak, herritarren kontseiluak edo udal batzar parte-hartzaileak.

Genero arauak (GA): Generoak eraiki eta definitzen dituzten arauak. Idatzi gabeko arauak dira, gizarte eragileek barneratuak dituztenak, eta eragile horietako bakoitzak, sexuagatik dagokion generoaren arabera, nola jokatu, mugitu eta aritu behar duen adierazten dute.

Sexu-generoko menderatze maskulinoko sistema (SGMMS): Rubín-ek honela definitzen du sexu-generoko sistema: “sexualitate biologikoa giza jardueraren produktu bihurtzen duen gizarte erlazioen sistema, eta ondorioz sortutako behar sexual historikoki espezifikoak barne hartzen dituena” (Rubín, 1975). Mouffe-k ñabardura bat gehitzen dio definizio horri: “sistema horrek, maskulinitatearen edo feminitatearen ezaugarriak ez ezik, horien artean dagoen erlazio mota ere definitzen du, zeina, teorian, izan baitaiteke berdintasunezkoa, menderatze maskulinokoa edo menderatze femeninokoa. Bistan denez, ezagutzen ditugun gizarte gehienetan, nagusi da sexu-generoko sistema menderatze maskulinoarekin. Bereizketa hori, ordea, sozialki eraikitzen da beti, eta ez da desberdintasun biologikoen emaitza” (Mouffe, 1984: 451).

EGILEAK ETA LAGUNTZAILEAK

Jone Martínez Palacios

Feminista, ikertzailea eta Politika eta Administrazio Zientziako irakaslea UPV/EHUn. Bartzelonan ekin zion bere ikerketa ibilbideari, filosofia ekofeminista ezagutzearekin batera. Espezializazio hauek egin ditu: Politika Konparatua (UPV-EHU, 2007-2009), Partaidetza Demokraziaren eta Komunitate Garapenaren Teoriak (UPV-EHU, 2007-2008), Sexu Desberdintasunaren Filosofia (2010-2011 Universitat de Barcelona) eta Berdintasunerako Politikak (2009-2010, Universitat Jaume I). Ikerketa lanak hainbat ikastegitan burutu du: Sciences Po Bordeaux, CSU- Université de Paris 8, CECA Roma edo Institut of Women's Studies U. Ottawa (Kanada). Gaur egun, PARTE HARTUZ ikerketa taldeko kidea da, eta teoria feministari eta demokratizazioari buruzko lanak egiten dihardu.

Alicia Suso Mendaza

(1976) Gizarte Hezitzailea eta espezialista partaidetza prozesuetan eta komunitate garapenean. Hainbat alorretan lan egin du, eta aipatzekoa da PARTE HARTUZ ikerketa taldean eginiko ekarpena, herritarren partaidetzari lotutako proiektuetan. Aipatzekoak dira EAEko esperientzien sistematizazioa, belaunaldien arteko partaidetza lana, pertsona gazteen parte-hartzea, generoaren ikuspegia partaidetzan, etab.

Igor Ahedo Gurrutxaga

(Bilbo, 1973) Lizentziatua Soziologian eta Politika Zientzietan, eta doktorea Politika Zientzietan. Gaur egun, UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Saileko zuzendaria da. Hainbat libururen egilea: hala nola "Iparralde, entre la frustración y la esperanza", IVAP, 2003 edo "Los Demo y la Nueva Cocina Vasca (Desobediente)", Alberdania, 2004 (prentsan). Euskal Herriko demokrazia parte-hartzailea ikertzen duen PARTE HARTUZ taldeko kidea da, eta Bilboko Errekalde auzoko militante kulturala.

Zuriñe Rodríguez Lara

(1988) Lizentziatua Giza Zientzietan eta Komunikazioan, eta Gobernantza eta Politika Ikasketak Unibertsitate Masterra egin du. Hiru lan ildo nagusi ditu: feminismoa, partaidetza politikoa eta genero harremanen egoera gatazka armatuetan. Gaur egun, doktorego tesia egiten ari da: "Modelos de participación y prácticas políticas de las mujeres activistas de/en ETA".



Azken orrialdeko argazkia: Itziar Jaio Andrés, Resistencias a la Opresión II, 2015eko martxoa. Hasierako bertsioaren ideia: Jean Nicolas Bach. Irudiaren manipulazioa: Pilar Palacios Arnaiz. Modeloak: Gala María Saiz, Carlos Santos, Pedro Franco.

Gaur egun, gero eta gehiago dira berrikuntza demokratikoko bitartekoak eta emakumeen presentzia erabakiak hartzeko espazioetan bermatzeko neurriak; bestetik, bere horretan dira emakumeek beren partaidetza proiektua aurrera ateratzeko oztopoek. Nola azal daiteke hori? Bestetik, nola erlazionatzen dira espazio publikoa handitzeko prozesuak eta emakumeen partaidetza proiektuak igualitarioak eta multikulturalak izan nahi duten gizarteetan? Zer eragiteko gaitasun du emakumeak bere partaidetza proiektuak garatzeko? Berrikuntza Demokratiko Feministak lanak galdera horiei erantzuten saiatzen da, eta arrasto batzuk ematen ditu gogoeta egiteko espazio publiko zabalago bati buruz, helburutzat hartuta berdintasuna, inklusibitatea eta askatasuna.